

Nabarnizko Hiztegia

Alberto Mtz. de la Cuadra

Zamudioko Udaleko itzultzailea:
itzultz.zamudio@bizkaia.org:

Abstract

This dictionary is based on a (oral) linguistic corpus compiled in Nabarniz. In addition to the collection and definition of the vocabulary from that area, particular emphasis is placed on displaying the phraseology and examples of usage from that corpus. The current issue of the magazine only covers the A letter (970 entries), while the rest will be subsequently added in the upcoming issues.

Laburpena

Hiztegi honek Nabarnizen bildutako ahozko hizkuntz corpusa du oinarri. Bertako euskararen lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, ahalegin berezia egin da corpus horretako fraseologia eta adibide erabilerak eskaintzeko. Aldizkariaren ale honetara A letra baino ez da ekarri (970 sarrera), baina hurrengo aleetan sartuko dira besteak.

Hitz gakoak: Hiztegia, ahozketasuna, fraseologia, Nabarniz.

1. Sarrera

1. Hiztegien eginkizuna izaten da hiztun talde jakin batek erabiltzen dituen berbak eta adierak era sistematizatuan bildu eta eskaintzea. Hiztegi gintzaren azkeneko joerei jarraituta, lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, erabilera adibideak ere eskaintzen dituzte hainbat hiztegi, beti ere hizkuntz corpus zabal batetik abiatutik. Era horretan, definizioei beste ñabardura batzuk erantsen zaizkie eta argiago erakusten da zein portaera izaten duten berbak diskurtsoan. Hiztegi honetan, Nabarnizko euskal lexikoa –edo zati bat, hobeto esanda– bildu eta definitu da, baina aparteko ahalegina egin da bertako herritarrei ahoz bildutako erabilera adibideak eskaintzeko. Corpusa ahozko hizkuntzan oinarritzen dela kontuan harturik, ahozko formei darraizkien forma normalizatuak zehaztu gura izan dira, ahozketasunetik hizkuntza idatzira igarotzeko prozesuan askotan aurkitzen diren oztopoak kentzen laguntzarren.

2. Grabazioak Nabarnizko jende heldu edo zaharrari egin zaizkio, 1993ko maiatzetik 2003ko otsailera bitartean. Grabaziorik gehienak kasete-grabagailuz egin dira. Hala ere, 2002ko urtarrilaz geroztik grabazio digitalak egin dira, Minidisc grabagailua kanpo mikrofono batekin erabilia. Grabazio digitalen transkripzioak COOL edit pro deritzon soinu editorearen laguntzaz egin dira.

Inkestak egiteko moduari dagokionez, batzuetan, etnografia arloko galderak egin dira; beste batzuetan, aurretik batutako testuetako berbei buruz galdetu da; berba biren edo gehiagoren arteko desberdintasunak ere eskatu dira; beste toki batzuetan erabiltzen diren berbak Nabarnizen ere erabiltzen diren galdetu da inoiz (halakoetan, erabilera hori egiaztatu beharra izan da berriemaile gehiagorekin); erdarazko esaldiren bat euskaratzeko eskatu zaie kasu banaka batzuetan; irudiak edo argazkiak erakutsi zaizkie, edo, beste barik, edozein gairi buruz berba egiten utzi zaie. Galderak prestatzeko

orduan, lagungarriak izan dira, batez ere, Iñaki Gamindek hainbat herritan eginiko lexiko bildumak, Toribio Etxebarriaren *Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar* liburua, Candido Izaguirreraren *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes* liburua eta Gilisasti Fanoren *Urduliz Aldeko Berba Lapikokoa* liburua.

3. Sarrera burua letra lodiz eman da, amaieran puntua duela. Mugatzailea onartzen duten berbetan, forma mugagabea zein mugatua ezarri dira, koma batez bereizita (**apur**, **apurre**.). Forma mugagabea nagusizat hartu da eta letra tamaina handixeagoan idatzi da. Hala eta guztiz ere, kasu banaka batzuetan forma bakarra batu da, eta, horrenbestez, hura baino ez da ezarri. Mugagabe eta mugatuen bereizketari dagokionez, aipatu beharra dago berba batzuetan bikoiztasun bat izaten dela, esate baterako, *-keridxe* atzizkia duten berbetan edo *karabidxe* berban, alegia, batzuetan *karabi-karabidxe* bikotea batu da eta beste batzuetan *karabidxe-karabidxie*.

Aditzei dagokionez, sarrera buruan era burutua eta ez burutua ezarri dira, koma batez bereizita, beti ere biak jaso diren kasuetan. Era burutua letra handixeagoan idatzi da. Sarrera buruaren amaieran puntua ezarri da (**apurtu**, **apurtzen**).

Sarritan, ordea, forma bat baino gehiago batu da. Halakoetan, aldaera guztiak sartu dira sarrera buruan, koma batez bereizita. Forma nagusizat jotzen dena lehenengo ezarri da, eta aldaerak, berriz, haren hurrengo, beti ere aurreko paragrafo bietan forma mugatuei edo aditz burutuei buruz aipatutakoa kontuan harturik.

4. Sarrera buruaren ondoren, hari dagokion forma normalizatu ezarri da, letra larriz eta parentesi artean. Askotan, bizkaieraz eta batuaz erabiltzen diren formak ez datoz bat; halakoetan, bizkaiera normalizatuko forma ezarri da aurretik, letra larriz, eta atzetik, berriz, batukoa, letra xehez eta *-bat*. gehiturik. Inoiz sinonimo bat edo beste gehitu da, beti ere Nabarnizen erabiltzen

ez den berba bat izanik (ARTAGARAUN, artagarau-*bat.*, artale).

Atal honetan zailtasun handiak izan dira. Alde batetik, lexikoaren normalizatzeko lanak, orain arte, hizkuntza estandarera bideratu dira batik bat, eta horregatik ez dira normalizatu gaur egun ahozko bizkaieraz korritzen duten berba asko, edota baztertuta gelditu dira hitzak eraldatzen dituzten fenomeno fonetiko dialektal asko, nahiz eta euskalkiaren barruan hedapen handia izan. Beste alde batetik, bizkaierazko lexikoa ere oraindik normalizatu barik dago, nahiz eta ahalegin batzuk egin diren han eta hemen. Horren ondorioz, askotan ez da erraza izan forma normalizatuak -batez ere, bizkai eredukoak-proposatzea. Esate baterako, *bijutz* sarreraren (BIJA-HUTS, *bidaia-huts-bat.*) proposatu da, hiztegiaren haren aztarrenik aurkitu ez arren. Beharleku honetan, oinarri sendorik aurkitu ez denean, Nabarnizko berbetari estuago jarraitu zaio, batzuek estuegi iritzi liezaioketela jakin arren. Nolanahi ere, herri bateko hiztegi dialektala denez gero, normalizazioaren atal honetan irizpide malguagoak erabiltzeko lizentzia hartu da. Horrela, bada, *baridxeu* sarreraren (BARIAKU, *bariku-bat.*) agertzen da, hau da, Bizkaiko alderdi zabal batean erabiltzen den forma proposatu da “bizkaierazko” forma normalizatutzat, eta ‘bariku’, berriz, “euskara batuko” formatzat. Ildo horretan, gogorarazi beharra dago proposamen horien xedea dela erraztasunak ematea edo bide posible batzuk erakustea ahozko formatik gaur egun zabaldua dauden edo zabaltzen hasi diren ereduera igarotzeko. Hortaz, irakurleak erabakiko du zein forma (euskara batuko edo bizkaierazkoa) erabili behar duen eta proposatutako forma egokia den. Hemen proposatutako forma asko era horretan ulertu behar dira, mendebaldeko lexikoaren normalizazioa egiteko, eremu geografiko zabalagoa hartu behar baita oinarritzat, literatur tradizioa ahaztu barik. Hiztegi honek, oster, oso eremu geografiko txikia aztertu du, eta gaur egungo ahozko hizkuntzara mugatu da.

5. Forma normalizatuaren ondoren, sarreraren gaztelaniazko adiera ezarri da. Berba askok adiera bat baino gehiago izaten dituzte eta bakoitzari zenbaki bat ezarri zaio aurretik. Animaliei eta landareei dagokienez, izen zientifikoa jarri da, halakorik aurkitu den guztietan. Haur hizkerako hitz edo adieretan (Haur.) laburdura ezarri da.

Adierak emateko, gehienbat, ondorengo hiztegi hauek erabili dira: R.M. Azkuren *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Plácido Mujikaren *Diccionario Vasco-Castellano*, Elhuyar *Hiztegia*, *3.000 Hiztegia*, Juan Martín Elempururen *Bergara Aldeko Lexikoa*, Emiliano Arriagaren *Lexicón Bilbaíno*, RAEren *Diccionario de la Lengua Española* eta María Molinaren *Diccionario de Uso del Español*.

6. Nabarnizko hizkeran sinonimotzat jo daitezkeen berbak ere aipatu dira *Sin.* laburduraren bidez. Askotan, sinonimotzat jo barik, sarrerako berbaren eremu semantiko berdintsuko berba bat edo gehiago ezarri dira, *Ik.* laburduraren bidez. Inoiz, azalpen osagarri bat

edo beste gehitu da, euskaraz. Adibide bati buruzko azalpena eman denean, • ikurra erabili da.

7. Batzuetan sarrera bitan edo gehiagotan zenbakiak ezarri dira sarrera buruaren aurretik. Horrek esan nahi du, alde batetik, berba horiek, grafia bera izan arren, kategoria gramatikal desberdina dutela, edo, bestetik, izatez, berba desberdinak izan arren, nabarniztarrek berdin ahoskatzen dutela (erren-herren/erren-errain).

8. Adibideak letra etzanean eman dira. Adibide bakoitzaren aurretik | zeinua ezarri da. Adibideok izan daitezke berba bikoak, esaldi batekoak edo esaldi gehiagokoak. Hasieran aipatu den bezala, adibideok erakusten digute berbak zein testuinguru zehatzetan agertu ohi diren, zein berbaren ondoan jarri ahal diren edo ezin diren, esaldiaren barruan zelan josi behar diren eta beste xehetasun batzuk. Adibideetan agertzen da argien zelakoa den Nabarnizen hitz egiten den euskara.

Adibide guzti-guztiak grabazioetan batutakoak dira eta euren hartan transkribatu dira, ezer gehitu, kendu edo moldatu barik. Kasu batzuetan, berriemaileei euri eskatu zaie berbak definitzeko, jakingarri iritzi baitzaio berben adierak haien erabiltzaileek eurek mugarrizeari. Kasurik gehienetan, ordea, berbetaldi bateko atal bat ekarri da hiztegiara, testuinguru jakin bati dagokiola. Inoiz, berriemaileei berba biren adieren arteko desberdintasunak zehazteko eskatu zaie, era horretan azaltzen baitira, askotan, inguru horretako berbeta ez dakitenentzat hain begi bistakoak izaten ez diren ñabardura asko.

9. Sarrera mgusiaren barruan azpi sarrerak ezarri dira. Azpi sarrerok erabilera edo esanahi bereziko esapide eta hitz elkarketak izaten dira. Bakoitzaren aurrean • ikurra ipini da. Azpi sarreraren burua letra lodiz eman da, eta amaieran puntua ezarri. Azpi sarreraren sailean nolabaiteko ordenari jarraitu nahi izan zaio. Lehenengo, aurretik sarrera nagusiko berba duten hitz elkarketak ezarri dira; ondoren, atzetik sarrera nagusiko berba dutenak, eta, azkenik, aditz batekin osatu direnak edo bestelako esapideak (**arto kapasie**, **kanpo artue**, **artue garandu**).

10. Sarrera hau ezin da amaitu berriemaile izan diren nabarniztarrei euren laguntasuna eta prestutasuna eskertu barik. Ondorengo hauek dira haien izenak: Isaac Urtubi (Larrinaga), Andere Goiriena (Ibarguen), Julian Bollar (†) (Ane), Karina Zabala (Ane), Maria Dolores Gabika-Aldekoa (†) (Bengoetxe), Genaro Izagirre (Etxebarri), Matilde Totorikaguena (Etxebarri), Victorio Goikolea (Goikola), Julian Beaskoa (Agarre), Pia Sierra (Goikoetxe), Sabin Sierra (Goikoetxe), Artiatx (Argiarrozarra), Jonas Gerrikagoitia (Ardantza), Alberto Goiriena (Ibarguen), Isidra Lekerikauriarte (Argiarro), Victor Ordorika (Gorostiaga), Pedro Garatea (Merikaetxebarri), Bienvenido Beaskoetxea (Iturribeko), Juan Pedro Ikazuriaga (Ikazuriaga), Jose Arribabalaga (Aboixene), Santi Urzaa (Merikauriko), Zubizarreta (Ormaetxe), Jesus Elias Basterretxea (Torretxu), Lontzo Garetxena “Arrola” (Arrolagoiko), Juan Jose Ondarza (Beitxi).

2. Hiztegia

a. (HA, hura) Aquel, aquél. | *Emon tzen dirue arentzat etzan naikue.* | *A gixajue estable ondo.* | *A dok ixetekue!* | *A estable ondo.* | *A il sala ya ixengo dire bost-sei urte.* | *Ixetes a da, ixetes, propidxue.* | *Arixen salí da.* | *Agaitti pa oneri gabilloi txikidxe esate tzeu guk orreri miru txikidxeri.* | *Atzakuntzi emotie: berba e emotie. Ni oin sugas nau, da ara esanda deket beste bat e juteko aín orduteko, da sugas emen berbetan nau les, "Eske arek emoste atzerakuntzie". Se atrasu eittosu ba, tardau eittosu geidxau, da aittik esaten dxako "Atzerakuntzi euki dxuat".*

abade, abadie. (ABADE, apaiz) Cura. | *Abadiék, abadiék erute basen orrek. Abadiék, erriko abadiék. Ori Iberrenguluko semie, Etxandia, Don Jose Etxandia san, da ak eitte ban, ak eitte tzen influentzidxe, afesiño edo olan bertsutan da amen e ori gixon bat ori etorri san, Bilboko, Gasetako sera, direktori ekarri ban baten, errire, beran laguna dala ta. Da bat aixe ixen san bertzolaridxe, plasan ei ben. Da bat aixe ixen san Lusio, pastorie. Da besti ixen san Oñiskue, gastia. Da an alkarras, batera seriñ eitten. Da Bilbora erun, ba Bilbora erun axek, erriko Don Josek.* | *Or doye abadie.* • **abade ein.** Ordenarse cura. | *Abade ein san alargun garatute gero.*

abadegei, abadegeidxe. (ABADEGAI, apaizgai) Seminarista.

abadetza, abadetzie. (ABADETZA, apaizgo) Sacerdocio. | *Abadetzarako ikesten ibili san.*

abadetze, abadetzie. (ABADE ETXE, apaiz etxe) Rectoría.

abai, abaidxe. (ABAI, abaraska) Panal de miel. | *Abaidxe erlak eitten dabe, estidxe eitten dabe an da.* | *An barruen erliek kunakiñ eta, abaidxe esate dxako areri, olako trosuk eukitte ttus...* | *Abaidxek e gero, arek kendu eittosus, esta? Da arek oten di estis beterik, da a estidxe eitten da apartau, gero olan sakatute ser batas. Da a besti abaidxe eitten da ipiñi ontzi baten, tartera baten-edo, da urtu. Da gero a botaten da ser ontzi batera, siketzen danin fuera!* | *Da a ixeten da barridxe suri-suridxe da. A da ikusgarridxe! Da gero baltzittu eitten da. Abaidxe esate dxako arexeri. Elixako onek kandelak-eta eitteko-ta.*

abaila, abaille. (HABAILA) Honda. | *Abaille, kordel bi tte narrutxue ipiñi, ta an ipiñi arridxe ta emon bueltak.*

abandonau. (ABANDONAU, abandonatu-bat.) Abandonar, dejar de lado. Ik. *itxi.* | *Itxi ein deu,*

abandonau ein deu. | *Abandonaute dxak.* | *Da oiñ e etzi pe danak abandonaute-ta das.*

abar, abarra. (ABAR) Etcétera, y demás. | *Bai, basan e keye ta basan e su eta abarra an karabidxan, Jesus! Baya asko biar!* | *Suk gixona orduko mille peseta pagetan basoyes, da an arridxe ataraten basaus tiruek eta abar, au te ori-tte arek egurrek ipintten-da urteten tzu... Da alan itxi sin, alan itxi ban jentiek. Kostue, da bier gogorra.* | *Uli sero ebei! Rape jun giñenin. Asi eurrin de atzera. Da akatza ta abarra-ta. Ala eurrera! Bai, soldadutzi gogorra ixen san ordun be, bai, soldadutzi be.* • **gusur eta abarra.** Sarta de mentiras. | *Olan diskusiñorik egoten danin-edo, batac bestiri esate dxako: "Gusurre ta abarra esate dosu suk!"* | *Gusur eta abarra orrek esaten deu.* | *Saltza banderie da danakin nasteten dana, gusurre ta abarra ta olaku.* • **kontue eta abarra.** Cantidad de cuentos, historias. | *Barretzu da beti ri-ra-ri-ra-ri-ra, kontue eta abarra esaten deu.*

abarka, abarkie. (ABARKA) Abarca. | *Abarkak ipiñi, kendu.* | *Len abarkak narruskuk eitte sirin etzin, aittek eitte sittun abarkak, neuk esautu ittut, eta nire moduko jentik danak esautu deu, abarka, da etzan ibiltten gomasko abarkarik, espabese narrusko abarkak, narruas etziñ eiñiko abarkak. Da a narru ixate san, etzien ba neguen gabonak eurretxun-edo ba txala illte san, da eitte san okelias, gatza emote dxakon, da ba sesiñe. Da aren narrue eitte san, ba goidxen, goiguruen, kamaran josi eitte san, aren narruek sabal-sabal-sabal ipintte untzikin, taka-taka-taka-taka-taka josi eitte san narrue dana, joste san da iñor ete san abarkak eitteko, an narrue. Da aregas eitte sirien abarkak.* | *Geure aittek ibilte sittun orrek abarkak.* | *Abarkie... berton, etzien eitten sirenak, sesiñe eitten san aintxiñe, ba aren narruas abarkak eitten siren, etzien eitten siren.* | *Nik neure aitte sana esautu naben, da aittagiñerreba be bai, abarka eitten, da arek egiñiko abarkak makiña bat bider jantzi gendusén eskolara juteko. Ointxe be -oin gomaskukin ibilte nas baya-, ointxe be asko estot jansten abarkarik baya.* • **abarka kordela.** Cuerda para atar abarcas. • **abarka sididxe.** Punzón para agujerear las abarcas. Ik. *puntxeta.* *Abarka siridxe ere esaten da.* | *Abarka sididxe da antxiñe abarkari eta onek eitte tzesan e... Ser esango tzu pa? Aidxu, aidxu bakixu ser dan, aidxu? Aidxu eitteko abarka sididxas eitte san*

sulu. | *Abarka sididxe, beste bat punte sorrotza dekona egote san, da areas ein sulue nasaitxuau.*
| *Da abarka sididxe ote san, baya etziriñ igula ixeten. Puntxeta lusie, sera, puntie sorrostute.* • **gomasko abarkie.** Abarca de goma. • **narrusko abarkie.** Abarca tradicional hecha de cuero. | *Bai, etzien eitten siren, neu eskontzeko... nire aittek pe berentzako, bera arekin askos obeto ibiltten sala ta, berak josten sittuen etzien; bai abarka narruskuek esate eutzen.*

abarkadun, abarkadune. (ABARKADUN) Que calza abarcas. | *Abarkadune abarkakin dabillen personiri esate dxako.*

abarketa, abarketie. (ABARKETA, espartin) Alpargata. | *Onek aspidxen gomie deke, abarketiek eukitten deu..., sorue esate tzeu.* | *Abarketiri, liñuas eiñekuri esate dxako soru. Abarketiñ aspidxe liñuas eitte ben, len, oiñ estai segas eitten dan be.*

abarketeru, abarketerue. (ABARKETERO, abarketagile) Fabricador de alpargatas. | *Abarketerurik emen es. Gerniken ote san abarketeru.* | *Abarketeru abarketak eitte ittuna da.*

abarkol, abarkola. (ABARKA OHOL) Tablero, tabla que se usa para marcar las pieles detenidas a hacer abarcas. | *Abarkolak etziñ egote sin. Aintxiñe abarkak joste siñ etzin.* | *Abarkola ta olako punte sorrostxuas e, esate gentzon guk, sera, kirtentxu esate gentzon. Malluketxuas jo ta eitte dxakon orrek, kortetxuek. Osea, kurtidu lelengo, narrue kurtidu apur bet, masuas-da jo da kurtidu eitte ben, nik ikusi be ein dot, da gero joste ben ugelagas, bueltan-bueltan ugelagas joste ben. Da gero eitte tzesan sertxuek (aidxuk) eta ipintte tzen kordela.* | *Ixeten di txikidxek, umiña diñak. Eunditxu diñak, eunditxuauek. Da ba abarkola ba alakoxi da. Nausidxena be bai.*

abaspelo, abaspelue. (ABASPELU) Pánfilo, alma de cántaro. Eibar aldean *abospolo* esaten ei da (Etxebarria, Toribio, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, Euskera, 1966). | *Egon ixilik, abaspelu ori!* | *Sustreirik pako berbak esaten dittunari abaspelue esaten dxako.* | *Pisket, sentzune gitxi eukitten deu abaspeluek.* | *Abaspelue: ako, erdi inportantzirik parik, onako serak, disparatiek sertzen dittunari, "Ego adi ixilik, abaspelu ori!".* | *Txori bat edo, animalidxe bat ikusten badeu, ari begire egon da egon da egon, areri esaten dxako abaspelue.* | *Abaspeluek esa eustek, da abaspeluk esaneku,*

arek esaneku..., broma modun edo... • abaspeloko gausie. Cosa sin fundamento. | *Abaspelue esate dxako, estakidxen bate..., ya aidin les entzuten danari: "Abaspeloko gausie ixen da". Ori da berba bat, ba, ia sigur estakidxena noberak.* | *Abaspeloku ixen da.* | *Abaspeloko geusie: ba, esate baterako, olako geusie esta jasoten, jasoten estana ixaten da. Esaten da, aixik eruten deu, abaspelun, baya abaspelun guk esate una, ba esta jasoten, jasoteko berbie esta ixeten.* • **abaspelun. 1.** Abobado, -a. | *"Abaspelun dau": lerdo modun igul entzuten edo ola plantau papau moduen edo. 2.* Al buen tuntún. | *"Abaspelun esan deu": sein de aidin dabillen geusi lakue esan gure deu abaspeluk.* | *Abaspelun dabillen geuse bat da aidin dabillena esateko les, abaspelu.*

abellana, abellanie. Avellana. Ik. *urritxie.* • Ondoren azaltzen da zein den *abellanie* eta zein *urritxie*: | *Abellanie esate dxako erosiñekuri. Kakaguesari abellanie esate dxako. Baya emen urritxiri beti urritxi esate dxako. Emen lurrek emoten dabena urritxie da.*

abellano, abellanue. Avellano. Ik. *urritxie.* *Urritxa* jatorriz hemengoa denari deitzen zaio; kanpokoari, berriz, *abellanue.* | *Abellanie emoten dabinari abellano esaten dxako; baya urrak emote ittunari, urretxie.*

abemaridxe. (ABEMARIA, agurmaria) Ave María.

abendu, abendue. (ABENDU) Diciembre.

aberastasan, aberastasune. (ABERASTASUN) Riqueza, bienes. Ik. *ondasune.*

aberastu, aberasten. (ABERASTU) Enriquecerse. Sin. *dirutu.* | *Gabetik goixera aberastu san, estakigu selan baya.* | *Aberasteko etorri siren ona.* | *Aberastute dxak.* | *Orrek ainbeste etze ei deu. Ori aberastute dau.* • **sorri aberastue.** Nuevo rico, enriquecido de repente. | *Orduko pobre-pobriek ixen badire, da gero jaso ein badire esaten da, euki badabe suerte bat diru eitteko: "A sorri aberastue!".* *Burle moduen esaten da ori.*

aberatz, aberatza. (ABERATS) **1.** Rico, -a. Ik. *aundikidxe, dirudune, eskurdune.* | *Aberatza ixen san baya alperrikue san.* | *Aintxiñekuek ganaduas aberatzak ixen siren.* | *Oinguek dire diruas aberatzaguek.* | *Aberatz plantie ein, da pobre bixi.* | *Aseridxe, bai, ori bai bada aseridxe, ori klaru dau ba. Dios abidadi ori! Diabruk bayo okerrauk dire!* **2.** Rico, -a, abundante (en algo). |

Urratxak aberatzak daus (garaun asko dekela). | Lurre betien: dana erneten dauela bedarra, ona, nai eskasa, ba etorri biar estaben bedarra, etorten dala, da etorri bi dana be bai. Aberatza datorrenin, oparo datorrenin.

abesedaridxo, abesedaridxue. (ABEZEDARIO) Abecedario. | *Esin ikesi suan abesedaridxori pe.*

abidxada, abidxadie. (ABIADA) Velocidad, impulso. Berriemaile baten arabera, Nabarnizen *abidxadie* esaten da gehiago, baina *abantadie* gazteei entzuten hasi zaie orain. | *Orrek daroi abidxadie! | Orrek deko abidxadie! | Abidxadan. | Ba egurren puntetik araxe burdidxek e goitti bera sartute eukitte ban taketin-edo lotze dxakon, burdidxek e abidxada aundidxe goitti bera artu esteidxen, da ganaduk sostenidu deidxen. | Lañu be klase das. Batzuk e... Dabillena be bai, igul korridu eitten dau, da batera ta bestera ta "Ño, lañu dxabillek abidxadie!" edo "Trumoi dxabillek abidxadie!".* • **abidxadan.** Velozmente.

abidxadaka. (ABIADAKA) A toda prisa, apresuradamente. | *Abidxadaka: aringaringe doiññ-edo.*

abidxe, abidxie. (HABIA) Nido. | *Txori abidxie. | Indurri abidxie. | Txori abidxek topetan ibilli. | Txoridxek abidxek eitten daus. | Arrautze abidxe beterik dau. | Gabilloidxek arbolan be, sostarrakin be eitten dabe abidxie. | Sakapin dxekosak abidxak. | Udebarridxen txori parejje junteten dala, arra da emie, da gero bidxe arte, abidxe, kunak asteko. | Udebarridxen eskolarik egoten esanien mendire jueten giñen txori abidxak topetara. | Gero arrautzak ein barik, abidxan egoten da, da an lokatu eitten da. | Topetan amak erute nendun ni be. "Etorri! Olluri abidxi topau bi tzeu te".* • Perretxikoak sortzen diren guneari ere *abidxie* esaten zaio. • **txori abistan.** Buscando nidos de pájaros. | *Len txori abistan beti mutikuek. Gastetan ba txori abistan. | Txori abidxetan jun dire. | Sasi txori buru eundidxauku esate gentzon aundidxauri. Bestiri sasi txoridxe. Orrek sasidxen abidxie beti. Beti sasidxen. Len txori abistan mutikuk e, bueno guk topeten abistan.*

abidxeu, abidxau, abidxe, abidxetan. (ABIAU, abiatu-bat.) **1.** Comenzar, ponerse en marcha. | *Trena abidxe dok. | Euridxe abidxeu deu denpora luserako. | Denporik e bariasñoye abidxe dau. | Barridxen euridxe abidxeu deu. | Abidxau da ara juteko. | Oin be garue abidxeu*

ein bi deu. | Eurre abidxau deu. | Abidxau: asten dana, asi eitten dana. | Denporada baten etorri barik egon da, baya atzera abidxeu da. | Bueno, mutil kaskondue ba, umetako denporie ya juti dxakoniñ edo, eskolara abidxetan daniñ-edo, ta or dosena bat edo amalau-amabost urte eukitte ittun artin, mutil kaskondue. **2.** Comenzar a acudir. | *Sarrau danin be bai tte eskolara asten danin be bai-tte, estau eukitten ipiñiri-tte. Ixeten da sartxuau danin be, mutil kaskondue edo gastetxuau danin be ba "Kaskondute dau" te ba "Eskolara abidxau da".*

abil, abille. (ABIL) **1.** Hábil, diestro, -a. | *Ori mutil abille da. | Orren biarrien abille dok ori.* **2.** Avispado, -a, vivo, -a, que tiene malicia. | *'Jentille' da abille, erdi geistotzue danari esaten dxako.*

abillidade, abillidadie. (ABILDADE, trebetasun) Habilidad. | *Orrek deko abillidadie! | Dirue eskatu birrien, abillidadie eskatze ban.*

abioi, abioye. (ABIIOI, hegazkin) Avión. | *Ogeta lau orduan mundun bestaldien paraten dire abioidxas oin.*

abittu, abittue. (ABITU) Hábito (de los religiosos, -as). | *Abittue artu, jantzi.*

abixaridxe, abixeidxe, abixadidxe. (ABIZARI, habiondoko) Nidal, huevo que se deja en cierto sitio para que las gallinas se acostumbren a ir a él a poner. | *Abixadidxe, ollu bertan egon deidxen. | Abixaridxe: olluk arrautzi eitten dabena, abidxan dauna, arrautze postixu-edo, olakue.*

abixau, abisten. (ABISAU, abisatu-bat., ohartarazi, gaztigatu) Avisar, advertir. | *Baya len emen kopradidxen egote giñen e a sortzi-amar mutil, da neska pe beste ainbeste, da olan txalik eitten ebenin, abiste ben juteko, esne murgille daula, da sarataka. Oiñ iñok estau gure ori-ori-ori-oridxe, lodi-lodidxe. | Estot abixau. Abixau barik etorri nas.*

abogau, abogaue. (ABOKATU, legelari) Abogado. | *Abogau karrerie. | Abogaduek dausen arte, demanda geidxau ixengo da.*

abogautze, abogautzie. (ABOKATUTZA) Abogacía (profesión). | *Abogautzan eitten dau biar.*

abrigue. Abrigo. | *Abrigue esaten dxako neguen otz daunin jansten dana, ganerengo jansten dana, abrigue. Ori erderasko berbi ixen ingo da, baya emen be abrigue esate dxako.*

aburridu. (ABORRIDU, aborritu-bat., hastiatu, higuindu) Aburrirse. Ik. *gogaittu. | Gixona*

animalidxeekin aborridute dao. | Amen nao ya aborridute. | Aburridu ei este orrek.

aburridu, aburridue. (ABORRIDU, aborritu-bat.) Aburrido, -a. | *Neutzako aburridue ixen da ori geuse ori.*

aburrimentu, aburrimentu. Aburrimiento. | *Ori da aburrimentu!*

adaba, adabie. (ADABA, adabaki, adabu) Remiendo. Alkondarari egiten zaionari *pasadie* esaten zaio. Abarkei, berriz, *sopittie* ipintzen zitzaion. *Ipingidxe* ere esaten da. | *Ipingidxe? Bueno, au. Da emen adabi esate dxako baya ipingidxe. | Prakar adabias dxabixek. • adabie ipiñi.* Poner un parche. | *Adabi ipintten boutzek. | Prakar adabi ipintten dabil. | Ia Pilar, ipiñidxosu oneri adaba bat. | Ipiñidxosu oneri prakar adaba bat.*

adabau, adabeu, adabetan. (ADABAU, adabatu-bat.) Remendar. | *Orrek prakak ederto adabeute dxabixek. | Adabautako erropakin dxabik. | Prakar adabetan dabil.*

adaburu, adaburue, araburue. (ADABURU) **1.** Conjunto de correas, lana y adornos que llevan las vacas sobre el yugo. | *Adaburue da..., ganadu busterridxe ibiltten dabe, bustertute ibiltten dire, oin geuk estu bustertzen baya, da busterridxe ipintte dxake da edikin lotzen dire. Arixeru esate dxako adaburu. Ganadu lotzen danari. | Adaburue beidxeri ipintte dxaken..., busterridxen ganetik ipintten dan narruri esate dxako, adaburu, adaburuko narrue. | Partiki da beidxen busterridxen sartze sana. Adaburuen. Adaburuk erute ban e onakoxe sulue, da antxe sartze san ori, burpartikie. Da adaburuas. **2.** Copa del árbol. | *Adaburu andidxe deko orrek arbolik. | Arek deko adaburue. | Adaburue goiko partiri esate dxako, arbolin adaburu. Goidxeri. Beye trongu ixeten da, da goidxeri adaburue. | Araburue aren bururi. Araburue esaten da. An trongu dau, andi gora eitten deuna araburu øate tze adarrari be. An gora dasen adarrak, "Araburu itzela dxekok ak!". Iguel goidxen dausen adarrak. Baya bera trongu barik, a bueltatik aste dxakosena gero, se pagu jeneral jeneraliñ iñustu bada, ba sabaldu eitten da, arek adarrak ebeite dxakonien buru eitte dxako an itzela, da andik ainbeste adar emoten deu. Da pago burue. • adaburuko narru.* Cubierta de cuero que se colocaba sobre el yugo. Ik. *busterri ganie.**

adaburuko, adaburukue. (ADABURUKO) Conjunto de correas, lana y adornos que llevan las

vacas sobre el yugo. | Adaburue esate dxakon, beidxek bustertute doyesinin, adaburukue, ardin narrue, busterrin ganien jarte san a, pintxidxek e, dana gora, adaburukue axe ixete san. Beidxeri geispetxue edo, eurieitiik edo, apur bet tapetako beiñipein.

adaka, adakie. (ADAKA) Veta del árbol. Ik. *adarkondue. | Adakie. eukitte ttus olako sulotxu lakuek serien, materidxala total lisue barik, olako unekadatxuek, adarra eukinekuek edo. | Arbolik igul eukitten deu adaka bat, eta esate da: "Adaki euki deu te!". | Adakie, jeneral, adar loditxuri barik, konduri esate dxako. | Egur txikidxeri esate dxako adakie, beste sati bet, edo beste punta bat dekonari-edo. Bera lixuri etxako esaten adakie.*

adaki, adakidxe. (ADAKI) Ramita de árbol para quemar. | *Gure denporan asi sirin iketza eitten mukurras. Ostantzin dana adakidxe sartzen du. | Adakidxe sue eittekuri esate dxako, egurreri. Egurre, se esango neu?, mukurre bayo meyeaue, da a egur meye bayo lodidxaue. | Txondorra, len esan eitten mukurrekin iketzik. Len astillie edo adakidxe esate dxakona, osue, baya es alako lodirik-eta. Da oin lodidxeri esta eitten erdiko taketa sartun, espabe sulo bat itxi, de andik sue erun. | Adakidxe da ebaiñeko egur bat, egur lodidxe be-estana, ta meye be- estana, adakidxe, beko suen sartzeko.*

adapu, adapue, arapue. (ADAPO) Nudo de árbol. Ik. *koskie. | Esate baterako, arbola bat bada bigurra, da olako adar txiki asko dekona: adapu asko deko. | Adapue-ta, egurrek or fallue dekon lekun. adapue deko emen. | Adapuek ixete dire, arek bolak eta, eukitte ittu gogorrak. An lixu-lixue ixen bierrien, adapue esate tzau guk areri. | Adapue da ebaitte gelditzen dana, ebaitte gelditzen dan markie, onek ixeten dire adapuek, egurrek dekosan adapuek. | Lastrie? Bai, lastri liorra. A... seinde ori arapue esate dxako, arapu, ba antzera deuna lastrie. Lixu barik lastri. Besti lixu esate dxako, oten dana gosatzu, egur lixue.*

adaputzu, adaputzue. (ADAPOTSU) Madera nudosa, mala para la construcción. | *Dios, adaputzue dok au!*

adar, adarra. (ADAR) **1.** Cuerno. | *Adar bakarreko beidxe da ori. | Ganadu adarras eiñeku da. | Adarrak pakue. | Adarras jo. | Beidxen adarra. | Orrek akerrak dxekosak adarrak! | Txolota adarras eiñeku basue da. | Txolota adarreskue da. | Adarretatik kolpeterik etxake gustetan. | Armakerie. Bai. Konbestako,*

bei batzuk igul eukitte siren adarrak onan. Beste batzuk e onan da ederto, "Ño, orre dxok armakera ederra!", "Etxosak e adarrak ondo", "Armakera eskasa dxekok". **2.** Rama. | Adar txikidxe, seye. | Adar igerrak. | Arbola adarrak. | Perejil adar bat. | Emen adarra esate tzeu, errami barik. | Alderdi gustidxe adarres beterik daus. | Arbola adarra jeusi eitten dok kamiñuen. | Mendue sagarrari, edo madaridxeri-edo inkete dxakon adarra, adar barride etorteko: mendue. | Arbola bateri adarrak ebaten badxakos, ba "Iñusi ein dot" esaten da. | Pago burukiñ iketza eitte san. Ba eurek bola utzekin. Arek es sin pageten ainbeste, se adarras... Adarra geidxau pagate ben asko be. | Piñu libreti da, piñu sasidxas edo sikiñe badau, ba arek andik kentzie. Da beste batzuk arrama esate tze. Guk adarra esate tzeu orreri be. Beti guk adarra. Da askok arrama esate tze. Arrama garbittu te piñu librau. Da lagun txikitxue sasidxas-da igull oten da, ta a garbittu bi da urten deidxen ondo. **3.** Ramal, ramificación. | Bide adarra goraiño doye. | Beko bidetik adar bat doi gora. • **adar apala.** Cornigacho, -a, aplícase al toro o a la vaca que tiene los cuernos inclinados hacia abajo. | Jeneral, adarrak ixeten dire olan gorantz, adar jagidxe esate dxako alakuri-tte. Adar apala apur bet berontz dekosena. | Bueno, apala, estaitt, apala esate dxako beidxeri ixena, apala bada. Da berantz-edo, susen dekosena-edo, olan gorantz estekosena, apala, adar apala. • **adar jagidxe.** Corniveleto, de cuernos levantados. | Jeneral, adarrak ixeten dire olan gorantza, adar jagidxe esate dxako alakuri-tte. • **adar kimue.** Renuevo, brote, retoño. | "Arbolie sostortute gelditzen da": Arridxe ein de ba... ser esangot neuk...?, arbolie isten deu ba billosik les-edo. Orridxe kentze tzo, orridxe ta adar kimutxu pe iguel, olan e denporali dauniñ e, denporale txarra dauniñ e. | Adar kimu da adarrari puntan dekosen orridxek edo lorak kentzie, adar kimue. Adarrak kimaute. • **adar txordue.** Cornibrocho, -a, dícese de la res vacuna que tiene los cuernos con la punta inclinada hacia adentro. | Gu geuk txordu esate tzeu, olan bei batek olan e, adarrak olan euki biarrien, olan adarrak dekosenari, txordu da, bei txordue, adar txordukin. Eurrerans barik, olan apur bet barrurentz. Da olan adar txikitxue, apur bet barrurentz. • **adarra jo.** Tomar el pelo. Ulie artzen abil i erabiliagoa da ordea. | Potrojoder:

bestiri adarra jo ta kristonak eitte tzesena, "I as potrojoder, i!".

adurburu, adurburue. (ADARBURU) Copa del árbol. Ik. adaburue, burue. | Adurburu da trongu amaittu te gero... Adurburu esate dxako.

adardun, adardune. (ADARDUN) Cornudo, -a, con cuernos. | Adardun ganadue. | Adardun kakarraldue, da adarrik pakue.

adarka. (ADARKA) A cornadas, golpeando con los cuernos. • **adarka ein.** Cornear, dar cornadas. | Adarka eitten deu onek.

adarkada, adarkadie. (ADARKADA) Cornada. | Baten librue leiduten juen nitzen da bei batek adarkadie emo eusten. | Topekie da topekadie alkarren antzekuk-edo, esango neke bat tirilla baya..., topekadie da seinde euntz batek e emoten daben e adarkadie, nai ari batek bai bardin emoten daben adarkadie.

adarkari, adarkaridxe. (ADARKARI) Acorneador, que da cornadas. | Aulestiko sekorrak adarkaridxek dire.

adarkondo, adarkondue. (ADARKONDO) Rama pequeña. Ik. kondue. | Adakie, jeneral, adar loditxuri barik, konduri esate dxako.

adarmotz, adarmotza. (ADARMOTZ) **1.** Cuerniquebrado, -a. | Bei bateri be bai. Adarra apurtzen badxako, igul jeusi-edo, deskoideten basan-edo, jeusi txarra-edo eukitten badeu: adarmotza. **2.** Árbol mondado de ramas y copa. | Adarmotza: ya adarrak kendute dekosana, arbola bat adarrak ebeite badau, ba "Adar mostute dau", edo "Adarmotza dau".

adarrondo, adarrondue. (ADARRONDO) **1.** Fondo de la rama. **2.** Base del cuerno.

adartzu, adartzue. (ADARTSU) **1.** Frondoso, -a, lleno de ramas. | Atxa arbolie adartzu dok. | Beste idie da adartzue. **2.** Cornudo, -a, de gran cornamenta.

adi. (ADI) Atentamente, con atención. Ik. ernei. | Adi dau. | Adi egon!

adin, adiñe. (ADIN, adimen) Entendimiento, juicio, razón. Ik. sentzune. | Adiñe galdu: ori se esangot neuk? "Adiñe galdute deko", ba ya se esaten daben estakidxela ya eitten danin berba, ya adiñe galdute dau.

adorau. (ADORAU, adoratu-bat.) Adorar. | Adorau: Ondo esan ero karixidxek eiñ-ero, adarau.

adorasiño, adorasíñue. (ADORAZINO, adorazio-bat., gurtza) Adoración. | Adorasíñuen dau ori.

adore, adorie. (ADORE) Animo, vigor, energía, valor. | *A be txakil dxoik, adorerik parik.* | *Orrek esteko adorerik pe!* | *Adorie euki bi deu.* | *Biar eitteko adore asko esteko.* • **adore bakue.** Desanimado, -a, abatido, -a. • **adori galdu.** Desanimarse, desalentarse. | *'Adori galdu' esaten da norberan gustora geusak urteten estabenin "Adori be galdute dau".*

adornau. (ADORNAU, adornatu-bat.) Adornar. | *Politto adornau dabe.*

ados. (ADOS) Conforme, de acuerdo. *Konforme gehiago esaten da Nabarnizen. Ik. konforme, batera egon (orretan).* | *Ados daus bidxek.*

adu, adue. (ADU) Sustancia, juicio, madurez. | *Adue: esate baterako, "Adu asko esteko"-edo esaten da, se imirigaittik-edo, ba ser esango neu?, alako sustantzidxe aundirik estekenagaittik-edo: "Adurik esteko".* | *"Adu asko esteko": umiri be bai, tte nausidxeri be bai, igul alakolaku bada.* • **adu bakue.** Insustancial. | *Adu bakue: olanik, ser esangot neuk?, sentzun gustidxe estekona-edo, adu baku.* | *Apur bet adu baku da.*

adur, adurre. (ADUR, lerre) Baba. | *Umik adur asko eukitten deu.* | *Adurre jausten dau.* | *Txakurrek-eta botaten dabe adurre.* • **adurretan.** Cayéndosele la baba. | *Beren laguneri begire dauela adurretan egon san.* | *Danok egon giñen adurretan billotz tostaue jateko.* | *'Bitzetan' da adurretan egoti les.*

adurtzu, adurtzue. (ADURTSU, lerdetsu) Baboso, -a. | *Au adurtzue dok.*

afan, afana. (AFAN) 1. Afán, empeño. Ik. gogue. | *Orrek deko afana!* | *Ori da afana biar eitteko!* | *Afana deko geusak ikesteko.* 2. Estimación. | *Estimetan dan geuse bategaitti: "Afan aundikuk dire".* | *Orrek oin, jolin, afan aundikuk dire!* 3. Fanfarronería. | *"Arranpaluori!": an ekitte euna boleak botaten. Esangurotena, afanak-eta, fanfarroye, "Arranpaluori!". Broma modun esate dxako "Arranpaluori!".* | *Fanfarroi da dana bera afana, dana gusurretan dabillena, fanfarroye, bera aundi eitten.*

afesiñau, afesiñae. Aficionado, -a. | *Da one bestiok, katamixarra, basakatue, da one pa es sin jatekuk. Bronkuek. Orrek siren atrapau tranpan, da afesiñau ixate sanak eitte ittuen etzerik etze ibili, eskien. Orrek kalte eundidxek eitte bese les, ardidxen da olluen da orrek, txitxan-da. Orrek*

txitxe erute ben. Da ordun ibiltte siren eskien. Bakixu arek etzerik etze.

afesiño, afesiñue, apesiñue, apesiñoeye. (AFEZINO, afizio-bat., zaletasun) Afición. *Apesiñoeye ere batu dut, izan ere, Nabarnizko berbetan, kasu askotan, gaitza da f eta p bereizten.* | *Apesiñue deko.* | *Abadiiek, abadiiek erute basen orrek. Abadiiek, erriko abadiiek. Ori Iberrenguluko semie, Etxandia, Don Jose Etxandia san, da ak eitte ban, ak eitte tzen influentzidxe, afesiño edo olan bertsutan.* | *Peskan afesiñoi kasan lantxik egoten da. Nik ikustotas an Bittoridxara bidin a subidxen.*

afrontu, afrontue. (AFRONTU) Viento fuerte. | *Afrontue da euridxe danien axik artzen daben euridxe, axik artzen daben euri saparradie, ba bentanak sabalik-edo, bertan badau-edo, etartiñ nai, ba sartu eitten dau axik, da aixe esate dxako afrontue.* | *Euridxek joten dau afrontuagas, trabes.* | *Afrontuas eitten deu euridxe.* | *Afrontue da axik eitten daben sera.*

afusil, afusille. (FUSIL) Fusil | *Len e ba afusillas kilometro batera es ein. Oiñ e berreun kilometrora jo ta garbi. Bai.*

agarrada, agarradie. Agarrada, altercado, pendencia, riña. • **agarradie ein.** Pelear, tener un altercado. | *Agarradie ein bi dabe.* | *Agarradie ein tze.*

age, aga, agie. (HAGA) Viga. | *Gero gallurretik, emendik ara les, beste age bat, alderdi bidxetan, agik juten dire, atzin asi tte eurreraño juten dire.* | *Agie trabes egon arren, nai aidien, nai etzun egon arren, orrek agiek, olan agiek beyen ganin badas be agik dire.* • **age nausidxe.** Viga principal del tejado. | *Age nausidxe onetako baserridxetako etzik e tellatun eukitten dabe, a erdiko baterik besterik, age nausidxe.* • **age untzie.** Clavo grande utilizado en la rueda del carro y distintos aperos de labranza. | *Age untzie, selan esan biko tzut? Da untze bat, baya orrek untze korrintiñ aldiñ untze eundidxe da, eundidxe. Da agi be untze txikidxek joste dxakes, eundidxek pe bai, baya age untzi jeneral ganadun erreminttie joste dxake. Ganadun erreminttik eukitten deu, age untzie jeneral ipintte dxako, da ori ixeten da..., ser esangot neuk?, orrek pe borren ixena deko, age untzi esteutzeu orreri esaten. Astu ein dxates orrek. Ori untzi naiku untze eundidxe ixeten da, da ori untziori -oin burdirik pe esta ibiltten, serak ibiltten dire, tratorin ibiltten dire ta- baya burdidxeri erruberatan joste dxakona. Da naiku*

untze eundidxe ixeten da. Puntti be eukitten deu biribille, da bera untze estutues-estutues juten da, sartzeko, da punta estue eukitten deu betik, josteko goitti bera. Oñ olako untzerik e... Da orrek untzak, ganera, erosi etzirin eitten, orrek untzak erremendaridzek eitte sittun. | Age untzie aintxiñeku da. Arek kuadrudun untza tire. Orrek age eundidzek-eta erute besanak. Oñ age untzak esango tze oin be age eundidxei, baya danak igulek, untzak, esan guna eikeri igulaku, da len es. Len age untzi ixete san erremendaridzek eindako age untzak. Oin dana biribille eitten dabe. • **gallurreko agie**. Cumbrera, caballete del tejado. Ik. goidxagie, kaperidxue. | Gallurreko agie esaten da nausidxe, araxe doyes orrek kaperidxuk. Da gero aren ganin latie, da latin ganien tellie. • **agi euki**. Heredar un caracter o comportamiento parecido. | "Agi deke": kostubre bat tekenin-edo, alakuri ba esate dxake. • **agatik etorri**. Heredar un caracter o comportamiento parecido. | Agatik dator. | Agatik dxatorke.

agertu, agertzen, agertuten. (AGERTU) **1.** Aparecer. | Askordiñek jeneral leidxe daunin agertzen dire, leidxek eitte itunin, orduntxe agertzen dire, bitzetan, da atzamarretan be igul, belarridxetan be bai-tte. | Askanien ardidxe bastante urrunin agertu san. | Presie ein, detenidu ure ta beko posue baldakiñ utzittu ta an agertzen siriin angillak. | Agertu da nor ixen dan. | Eurre urtzen danien, lur satidzek agertzen dire. | 'Autortu' esaten da geusa ixilleko bat agertzen danien, urteten dabenin bistara, ba "Ixilik on da, baya autortu deu", autortu da, agertu da. | Arridxe sartu goidxen, da karie otzittute beyen agertu. Eundidxe san, eundidxe. | Ori piper bedarra esate dxako onek e... Ganadun pekotzin dator ori. An dekeu guk satza, da a satza botaten bosu solora, gero ure atrapau-edo, euridxe-edo eitten daunien agertuten da a bedarra. **2.** Mostrar, enseñar. | Etzeko latzak agertzen deu nor dan ori. **3.** Ponerse en celo el ganado. Ik. argittu, suseratu, umeske, altan egon. | Beidxe agertu ein da. | Beidxe estok beren denporan agertu, matxorraute dxak. | Beidxeri be esate dxako, guk esteutzagu beidxeri olan esaten 'ernari', baya olanik txala artzeko-edo agertzen danien, ba esate tze batzuk "Ernari dau". Emen esta esaten. Emen "Beidxe suseratu ein da", edo "Txala eskatzen dau", edo olan esaten da.

1 agin, agiñe. (HAGIN, hortz) **1.** Diente o muela. Ik. ainke ein. | Matraillagiñe. | Itxagiñe. | Albo

agiñe. | Eurreko agiñe. | Agin okerra. | Minbera dekot agiñe. | Bai, agiñek dekos urteten eta! | Agiñek ondiño orniduten dekos. | Gure umieri agin bet agertu dxako. | Ago bete agin deko umiek. | -Senbat agin deko umiek? - Ago bete deko. | Agiñe apurtu. | Agin bako umie. | Agiñek txakildu ein dxakes. | Agiñek txakil dekotas. | Agiñeri kirriskadie ereitte tze orrek saratorrek. | Agiñe sulotute deko. | Agiñeko sulue. | Agiñe loka dau ta min deko. | Maridxe tellaganekue nik estakitt oin seri esate dxakon baya guk aintxiñe agiñe jeuste dxakoniñ agiñe, lelengoko agiñe jeuste dxakonin, arixeri esate gentzon maridxe tellaganekue, "Maridxe tellaganekue, eutzi agin sarra, ta ekarrixu barridxe!". | Añiri be, aña egoten diriñari be lelengo agiñek urtete tzeniñ-edo, eitten dxakenin nun deken igerte tzenien amar ogerleko emote tzesala ta baya ba guk emen olakorik eskendun usetan-da. **2.** Mella en el corte de un instrumento. | Orrek kutxillok deko agiñe. **3.** Cada una de las puntas o resaltos de las herramientas. | Trontza serri ixeten da... selan esango pa? Agiñek eukitte ittu, ta beres e trontzaketan esate dxako... selan esangot? Agiñek-agiñek eukitte ittu te ba... trontze serri esate tzeu geuk esates, baya ba... | Trontza serri de arpana diferenti dire. Aundidxau ori arpana. Da trontza serra pe, askaniñ urte ben, gu basutan ibili giñenin, Ameriketara jun orduko, agin bikotxak. Onek e urkulak. Aintxiñe dxuan e agin txikidxe. Da a agin txikidzek etxuan eitten bi dan moduen, da orre beste urkula onek paguen... Bakixu, au dana san ba len pague. Pagu da atxa. Da arek urte dxuen gero urkula bikuek. Ortik Gipuskuatik etorri dxuasen arek. | Arrastadora deko kable bat, kablie. Da ba ondo preparaute dau, burpil itzelakin, agiñ itzelakin. • **agin kirriskadie**. Crujido de dientes, rechinar. • **agin sulue**. Dentellada. | Pataridxe danak estabe jaten igul. Es. Onek aseridzek odola txupeten deu emenditxik. Da ementxe agin suluk eitte ittu. Emen, gorgoille edo albotik. Ordun bakixu aseridxe ixen dana. • **titi agiñe**. Diente de leche. • **juixidxo agiñe**. Muela del juicio. | Juixidxo agiñek, askanengo, orrek ya agiñek urten, da geruau urtete dabe orrek, igul aundittu danin be igul. | Juixidxo agiñe: ori agiñe, urteten dabena gero, atzerengue. • **agiñek erakutzi**. Amenazar, mostrar los dientes.

2 agin, agiñe. (HAGIN) Tejo (*Taxus baccata*). | *Esate baterako, au geure eperdin (jarlekuan) daun agiñ au, orren garaune mortala dala esaten dabe.*

agindu, agintzen. (AGINDU, manatu; promestu)

1. Mandar. | *Gixonak nai andriek bardin agintzen dau.* | *Neusidzek agintzen dabena derrigor ein bi da.* | *Urte bireko agintzen deu alkatik.* | *Gernikera juteko agindu eiste.* | *Gero ba onenbeste denporan agindu ban medikuk geldi egon bi dabela, ta alantxik geldi egon san, da ondo geldittu san.* **2.** Encargar. | *Ak es eukon modurik. Ak beste bateri aginduko tzon da arek atara bertzuk.* **3.** Prometer, ofrecer. *Eskiñi gutxi erabiltzen da baina bai agindu.* | *Agindutakue derrigor ein bi da.* | *Agintzen dana, sorra ixeten da, emon esik.* | *Erromatera jute siren, da señek geidxen agindu, arixeri emon urtebeterako.* | *Geuse bat agindu te gero emon es igul eitten da.* | *Agindu deu geuse bat da emon deu beste bat.* **4.** Mostrar, enseñar. *Gehienbat erakutzi erabiltzen da.* | *Geuse bat iguel jakin estakixu, da esaten da: "Agindik ia selan eitten dan!"* | *Agindik pa!*

agindu, agindue. (AGINDU) Orden, mandamiento, encargo. | *Beste baten agindus ein deu.*

agindun, agindune. (HAGINDUN) Dentado, -a, dentellado, -a. | *Trontzie agindune da, beres agindune bera, olako sirri-sarran ibilte dabena bik, bata alderdi batetik, eta besti bestetik.* •

trilladora agindune. Trilladora dentada. | *Ori da garauek dekon lakatza: buruxi. Makiñik onek antxiñeko trilladora agindunek a ebei eitte tzon, garandute a burue ebeite tzon, a botate ban aparte, jeuste dan a.*

aginttari, aginttaridxe. (AGINTARI) Autoridad; jefe. | *Aginttaridxe da alkatie.*

agintzaille, agintzaille. (AGINTZAILE) Autoridad, jefe. | *Lelengotako agintzaille alkatie dala.*

agintzari, agintzaridxe. (AGINTSARI) Oferta, promesa. | *Agintzaridxe? Ba agindu onenbeste. Diru edo dana dalakue.* | *Onenbesteko agintzaridxe ein tzo.*

agiñaldo, agiñaldue. (AGILANDO) Aguinaldo. *Gabon saridxe gutxiago erabiltzen da hemen.* | *Agiñaldue len gabonetan emote ben.*

agiñaundi, agiñaundidxe. (AGINANDI) Dentado, -a.

agiri, agiridxe. (AGIRI, ageri-bat.) Manifiesto, notorio, descubierto. *Ik. bistan.* | *Agiridxen dau.*

• **agiridxen.** A la vista, visiblemente. | *Pañelue agiridxen dekosu, ikusten dxatzu.* • **agiri ixen.** Aparece, se ve. | *Illunsar puntatik agiri dok itxosue.* | *Bat pe-esta agiri.* | *Persona bateri itxeitten daunin ba, agiri estaniñ-edo ba, "Urrin etorriko da", "Oneskeru urrin etorriko da"-edo esate dxako.*

agirikada, agirikadie. (AGIRIKADA, agirakada-bat.) Riña, reprimenda. *Honela esaten da, baina "Agirike ein tzo" erabiliagoa da.* | *Agirikadak ein tzos.*

agirikaldi, agirikaldidxe. (AGIRIKALDI, agirakaldi-bat.) Riña, repreñión.

agirike. (AGIRIKA, agiraka-bat.) Riña, reprimenda. | *Erristan eitten badabe, gogortu eitten da bestie. Baten agirikak entzun, de besti ixilik egoten bada, ba gogortu esta eitten.* | *Ni oin berbetan nau de gogor eitten aste dxat: "Agirike asi dok".* | *Berba batetik bestera agirike eitten asi dxate.* • **agirike ein.** Reprender. | *Agirike ein tzo.* | *Entereten bada nire aitte se pasau dxaten, agireka seguru eingo-sta.* | *Aittek eta amak agirike eingo tzen bildurre deko.* | *Demontresa? Umiri agirike eitte dxakenin ba esate dxake "Demontresa!"*.

agirikeka. (AGIRIKAKA, agirakaka-bat.) Reprimiendo, increpando. | *Usaba motiburik barik agirikeka egon dxatek.* | *Ume errie da ernegau-edo, errie. Nausidxeri be bardin esate dxako, gixona ernagau bada be, beti ernegetan lotzen dana-edo, agirikeka-edo, areri be errie esate dxako.* | *Berba batetik bestera agirikeka asi dxate.*

ago, ague, abue. (AHO) **1.** Boca. Baita *abue* ere. | *Agoko gusto txarra.* | *Ago fiñekue da ori.* | *Lakatza sabaldu eitten da garaunek urteteko, da ago sabalik ordun egoten dire.* **2.** Filo, hoja (de un instrumento cortante. | *Jorra atxurre ago batekue, kirten lusetxuas ixeten da.* | *Galtzerue da burdiñeri inketen dxakona, askorak-eta eukiten dabe an aguen, ondo sartu daidxen, axe ixeten da galtzerue.* | *Aidxotza da, esate baterako, serrin antzekue, olantxik, deko beren formie, ta barrutik ague deko, da gero kirtena ipintte dxako egurrekue.* | *Basatxurre esta agiñek dekosena, espabese ague dekona, ague naiku sabala dekona ixaten da.* | *Asulie ixeten da atxurren antzekue, baya eukitten deu askori les ago sorrotza, da aregas ba neurriko egurrek-edo ebaten edo eiñ-edo eitten dire.* | *Labañie da kutxillu lakoxe geusa bat, ba ague sorrotza*

dekona, da ba asarratute ibili esik labaiñi esin lei sartu. • **ague berotu.** Trabarse la lengua después de haber bebido. | *Ague berotu dxako.* • **agu betekue.** Palabra que se pronuncia una y otra vez y con la que se muestre el aprecio que se siente a lo que se significa. | *Ori da ago betekue!* | *Umeei esate dxake:* "Ago beteko ixena deko amak". (El nombre de la madre es algo grande). | *Ago beteku da aman ixena.* | *Ago betekue, esate baterako, esate dxako, berba bateri..., dana, geusa bategas bat bayo, agu beteku...* "Ago beteku da", *edo ixen bateri, edo prenda bateri, edo geusa bateri, ba "Ago beteko berbi da".* | *Geusa bat aundidxe dala esateko, "Ago beteku da".* | *Ago beteku: amen ixena da utzi baku-edo. Gusurrik esaten estabena. Gusurrik es esatie.* | *Agu betekue? Ba, ixé lei gusur bat, da ixé lei egi ba pe.* | *Agu betekue? Ba edoser esaten dabela.* • **ague betin.** A dos carrillos. | *Ague betin jan deu.* • A boca llena, abiertamente. *Agu betin deutzo (edo badeutzo) orrek esaten da, batek berba asko egiten duenean.* • **agoko miñe.** Glosopeda. Ik. *naparridxe.* • **ago loidxe.** Malhablado, -a. *Ago sikiñe ere esaten da.* | *Ago loidxe esate dxako txarto esaten ibiltten danari.* | *Ago loidxe deko.* | *Ago loidxe da.* • **ago miñetan.** Llevar o traer en boca. | *Ago miñetan badeutzo.* • **agues bera.** Boca abajo. • **agu onekue.** Bienhablado, -a. | *Agu onekue? Berba onetaiku ba agu onekue.* | *Abo onekue da berba ondo ta ori eitten deunari.* • **agus gora.** Boca arriba. | *Agus gora ederto egoten da uretan.* | *Agos gora eitten deu lo.* | *Abus gora geratu da.* • **ago sabaidxe.** Paladar. | *Ao sabaidxen inkaute geratu dxatek.* • **ago sabal.** Fanfarrón, -ona. • **ago sabalik.** Con la boca abierta. • **ago sabalekue.** Bocazas. Ik. *esan biar aundidxe euki.* | *Ago sabaleku da.* • **ago satarrekue.** Malhablado, -a. Ik. *berbeta satarrekue.* | *Txarto esaten deunari abo satarreku esate dxako ta.* • **ago sikiñe.** Malhablado, -a. | *Ago sikiñe da maldesiñuek atarate dittuna.* | *Ago sikiñe deko.* • **ago txarrekue.** Malhablado, -a. • **ago bete agin euki.** Tener completa la dentadura. | *Ago bete agin deko umiek.* | *-Senbat agin deko umiek? -Ago bete deko.* • **ago bete aixegas itxi.** Dejar con un palmo de narices. | *Ago bete aixegas itxi gendun..* • **ago bete asurras geratu.** Quedarse con un palmo de narices. | *Ago bete asurras geratu dok.* • **agin ibilli.** Mencionar, murmurar,

hablar de. | *Burusidxu ser dala esangot? Seinde axi les dabillen geusa bat, edonok agun ibiltten dabena: "Burusidxu ibil da".* • **ago miñin ibilli.** Llevar o traer en boca.

agobero, agoberue. (AHOBERO) Bocazas. | *Jenidxo geistoku bada, berbeta satarrekue, "Ago berue da", esaten deu edoser, da ago bero bat da.*

agokada, agokadie. (AHOKADA) 1. Bocado. | *Orrek, orrek jaten dxosak agokadak!* 2. Fanfarronada, barbaridad. • **agokadie bota.** Decir barbaridades. | *Orrek bota deu agokadie!*

agoko, agokue. (AHOKO) 1. Sabor de boca. | *Besperan gosue jaten bada, gabien, askanengo gosue jaten bada, bidxamonien ao santarra egoten da.* | *Agoko santarra deket.* 2. Golpe en la boca, mamporro. | *Emoidxok agoko bat ta botaik etxera.*

agonidxe. (AGONIA) Agonía. | *Agonidxe, gasteta daunien, askaneko serin, ya barbarik eta eitten estauenin.* | *Agonidxan i dak fulano.* | *Orrek gixon gixajoorrek agonidxe lusie euki dxok.*

agor, agorra. (AGOR) Seco-a, sin agua. | *Itturridxe agortu ein da. Urik estator. Siketie dau.* *Agorra dau.* | *Agorra esate dxako amaittu dan geusa bateri: "Agortu da", edo "Agorra dau".* *Esate baterako, itturridxek ur gitxi emoten dabenin, "Agortute dau", edo "Agurra deko".*

agortu. (AGORTU) Secar(se), agotar(se). Ik. *siketu.* | *Patiñe agortu dok.* | *Errekie agortu dok.* | *Agortu ein da itturridxe.* | *Errekonduatan, uren txarku datosen lekuen, ure be jaidxoten dan lekuen, da gero euri asko danin geittu eitten dire, da gero uden agortu eitten dire. Da ba arixerri esate tzeu guk ori, espatie, antxe urteten daben bedar santarrari.*

agosabal, agosabala. (AHOZABAL) Hablador, -a, bocazas. | *Agosabala da ori!* | *Agosabala: bagasandie dana. geuse gustidxek esan bi ittuna.*

agostu, agostue, agustue. (ABUZTU, agorrit) Agosto. | *Begire agostuen eitten da.* | *Andra mari agustuko, Ondarru da Gernikeko jaidxek.*

aguasil, aguasille. (AGUAZIL, amabi, herrizain) Alguacil.

aguasiltze, aguasiltzie. (AGUAZILTZA) Oficio de alguacil.

agudo. (AGUDO) Rápidamente, velozmente. | *Ie agudo etorten baas.* | *Sois agudo!*

aguntau, agontou, agunteu, aguntaten, aguntetan. (AGUANTAU, aguantatu-bat.) 1.

Aguantar, durar. | *Eurrek iru egunin-edo agontou ban, es eban kentzen.* | *Inpernu sagarra be egon san. Orrek danak bayo geidxau aguntaten deu, daraun gorri-gorridxes-da. Da aguntaten deu, ba diñot, urrengo urterarte.* | *Txiderra landan badau. Len. Salbajie. Baya solutan ereiñ eitten da. Da orrek urtebeterako agunteten deu bakarrik.* **2.** Aguantar, tolerar. | *Aguntau esiñik dau.* | *Esin dot aguntau oin.* | *Asma bedarrak usein, ba, gosue estau eukitten, baya aguntau esin laku be esta.* | *Aguntie da "Aguntau ein deu-edo ba, "Aguntau eitten deu" edo "Esan ttunak ontzat artu ittu".* | *Pena negargarridxe, aguntau es eitteko modukuk!* | *Ori da, esate baterako, euski berun be biarrin boutzo, "Arek etxok atzeko otzik pasauko!". Beruas-da aguntetan deula biarrin.*

agunte, aguntie. Aguante, tolerancia. | *Artias be eitten da, artias eitten dana ba ixeten da..., se esangot neuk?, agunte geidxau dekona, edo ba geidxau agunteta ban iketza.*

agur. (AGUR, adio) Adios. | *Agur lengo lagun sarrari!* | *Agur danori, urrengora arte.* | *Esaidxok aittitteri agur, badxok eta.*

agure, agurie. (AGURE) **1.** Viejo. Ik. *atzagurak, atzue, edadekue, sarra.* Berba honek zentzu txarra izaten du. | *An Ameriketana-da arraiñetan jute giñen ba asko ta errekan, bakixu errekan ba, arridxe labanak, da agure sarrak esan ei dxuan beran burugaittik "Estrepesu edonun eittok ik!" esan tzon beren bururi!* | *Estau kostunbrerik es atzu, da es aguri esaten. "Persona sasuku da", edo "sarra", edo "urte asko dekosa".* Baya olan, esate baterako, *nik pentzete dot ori, atzu-ta, aguri-ta, amen bayo geidxau Ipistar aldin-da esaten dabela ori berbiori.* **2.** Esposo, marido. | *Beren agurie.* | *Gure agurik au esan deu.* | *Agure sarra, da andra sarra.* • **agure makuletu.** Viejo encorvado. | *Agure makuletu? Agure makurtute dauna, bai. "Makuletu dxak".* • **agure makurre.** Viejo encorvado. | *Agure makurre.*

aguretu. (AGURETU) Envejecer, hacerse viejo (el hombre). | *Aguretu ein da.*

agurmari. (AGURMARIA) Avemaría (oración). | *Aremaittekutan be eote san (kanpa jotie), da erresau eitte san "Jaunaren aingerua" esanda, "Mariari iragarri eutzan" da erresau eitte san agurmari bat.*

ai, aidxe. (AHI) Papilla de harina de trigo y leche. | *Len ori sarri jaten san gabas; morokille, da aidxe, da orrek, bueno... antxiñe, jatekue, goixien*

be sarriten, ori barik, kafie ta eser barik, aidxe. | *Aidxe eitten da gari urunas da morokille eitten da arto urunas.* | *Aidxe esta gogortzen, aidxe esnias jaten su, da morokille be bai.* | *Aidxesuk ixeten dire tostadak pe, da ogiskuk pe bai.* | *Onenbeste esneri onenbeste urun, gari urune botate dxakon, asukerie, kaneli be bai, da ba eraiñ-eraiñ-eraiñ-erain de ba, orre pe ordu erdi bierbada eskentzon eraingo, astute nau aidxe selan eitten dan be.* | *Oin gari urune bai eoten da baya esta eitten airik.* | *Urun suridxe da gari urune. Besti da arturune. Taluk eta orrek arturunes eittosus. Da gari urunas e ba len eitte san aidxe.*

aida. (AIDA) Arre, vamos (voz para hacer que los animales de carga, especialmente los bueyes y vacas, empiecen a andar o lo hagan con más rapidez).

aidiau. (AIRATU) **1.** Airear, ventilar. | *Aidiau: seoseri oreau, aixi emote tzesunin seoseri.* | *Aidiau: oin be axi dabil, axik aidiatan daben geusie, prendie.* **2.** Zurrar; obligar a escaparse a alguien violentamente. Ik. *pasadie emon.* | *Ori aidiauti da ba, esate baterako, pasadi emoten batzazu bateri, "Majo audiau dxuk andik".* | *A aidiau dabe, ederto aidiau dabe an!*

aidie. (AIRE) Aire. | *Sorgiñek aidien boleten dire.* | *Artun arridxe ta urrunera bota, aidan.* •

aidan. Rápidamente, en bolandas. | *Aidan daroye.* • **aidin.** **1.** En el aire, suspendido. | *Arkue, arku ein da aidin egon bi deu arridxe danak.* | *"Abaspelun esan deu": seinde aidin dabillen geusi lakue esan gure deu abaspeluk.* | *Aidin dabillena? Axik dabillena, nai papela, nai trapu satidxe nai e... ba dabillena.* **2.** Rápidamente, en bolandas. | *Aidin jun da.* • **aidie euki.** Tener parecido a alguien. Ik. *antza.* | *Aidie badeke.* | *Aitten aidie deko.*

aidxen, aidxena. (AIHEN) Pámpano, tallo trepador, zarcillo, organo de las plantas que puede ser una hoja, una rama o una inflorescencia modificada, que tiene forma de tallo voluble y sirve a las plantas para asirse y trepar. | *Aidxena da berak indarrak eukitten daben aidxena. Tekatekak eukitte ittu aidxenin, gorau-berau, da tekak eldute dekoseniñ e, erdi eldu barik, erdi eldute daunien ba sarritten tekak batze tzeus, da aidxena itxi itteu, da gero beste ondakiñek gelditze dxakosenin ba aidxen-da gusti batzu.* | *Aidxenak dire landarik emote ittusenak. Patatiek goidxen eukitten dabe, ba, berdie be, aidxenak orrek dire.* | *Aidxen ona deko.* | *Aidxenak dire indarrenak.*

*Aidxena juten da, da gero teki eitten dxako. A juten dana, mandue, a da aidxena. Gero batzen be indarra batzuk, guk danak tekanaittik batu. Bestiek esaten dabe "aidxenera", da ebai serrias da osorik kendu. Ta bestela tekak kendu, da aidxenak bertan itxi. | Aidxena botata dau. | Inddarra eldute daunin, nai eldu barik daunin, ba "Aidxena badeko", edo "Aidxena badau". | Aidxena ixeten da, esate baterako, indarrak tekie asten dabenak be, aidxena emoten deu, lori emoten deu, ta gero tekie eitte dxako, ta ba, aidxena jeneral indarrak eukitten deu. Ba beste edoseiñek pe euki lei. Kalabasik pe bai. Kalabasik pe aidxenak emote ittu. • **aidxen eskerra.** Vigarza, hierba de los pordioseros (*Clematis vitalba*). | Aidxen eskerra basun egoten da jeneralin. Arbolan gora igoten deu orrek. Bedar txarra ori be. | Aidxen eskerra da asi tte asi eiten dana, te errimu barik tente estauna oten. Fruterik esteu asten arek. Baten errimun bixi bi dau. | Aidxen eskerra goittik eser inketako estan lekun esta asten, esteu eukitten inderrik berak bakarrik igoteko. Edo arri atxa badau, arri as ganin be bardin egoten da. Esteko arek materidxelik, es, lodi-lodi esta ixeten. Matzen antzera. | Aidxen eskerra sera da..., ser dala esangot? Asten dana olanik e atxegi ondun-edo, da aidxen eskerra esate dxako. Esta ixeten geuse beren burue sosteniduteko, ta juten da arbola bateti bestera-edo, botate ittu adarrak, aidxen eskerrak. Esta es txarra ta es esebes, ixeten da bedar, bedarra edo bedar antzeko bat, suma antzeko bat oboto esateko. | Aidxen eskerra: basun urteten daun arbola bat, ta gora-ta allegeten daben sepa bat. Aregas, ba, gausak lotu eitten sittuen aintxiñe. Sendue da. • **aidxenera batu, aidxenin batu.** Recoger de pámpano en pámpano, en lugar de vaina en vaina. Ik. garaunera batu, tekara batu. | 'Garaunera' ta 'tekara' geusa bi di orrek. "Tekara batzi' da teki oso-osorik artu. Da bestie garandute. Indarra tekara. Ta bestela da 'aidxenera'. Aidxena ixeten da dana osun. Dana artzосу, ta gero etzin siketzen euki tte gero ein jo makillias, ta garandu edo ori. Baya 'tekara batzi' da dana banan-banan. | Da gero ba batu, aidxenin be batzen da, tekaka batzen da, da kamarara be altzau, te siketu gero, da gero jo.*

aidxentza, aidxentzie. (AIHENTZA) Pampanaje, abundancia de pámpanos. | *Iguel esaten dabe: "Jo, aidxentzie itzela dxak", da gero tektzarik es, teki gitxi. Gorridxe, ta aidxena. | Aidxentzie itzela, ta tekarik artu es!*

aidxentzu, aidxentzue. (AIHENTSU) Pampanoso, sarmentoso.

aidxotz, aidxotza. (AIHOTZ) Cortamatas, podadera, machete. | *Aidxotzak oin be usete-us, orrek sasidzek-eta ebateko, sepa txikidzek-eta. | Aidxotza selaku dala esangot. Aidxotza da, esate baterako, serrin antzekue, olantxik, deko beren formie, ta barrutik ague deko, da gero kirtena ipintte dxako egurrekue. Da aregas ba sasidzek-eta joten dira, aidxotzas, da abasu eitten daben sepak pe bai. Da garbitzeko ixaten da aidxotza.*

aidxu, aidxue. (AIU) Presilla, ojal. | *Aidxue: sintturie sartzeko. | Da erropik pe eukitten dau onako lekun sintturiña ta aidxue. | Aidxue abarkik eukitte dabena da, aidxue. Prakak pe eukitten dabe aidxue, ori, sintturi pasetako. | Abarka sididxe da antxiñe abarkari eta onek eitte tzesan e... Ser esango tzu pa? Aidxu, aidxu bakixu ser dan, aidxu? Aidxu eitteko abarka sididxas eitte san sulu.*

aidxubeta, aidxubetie. (AIUBETA) Agujeta, correa, cordón. Baliteke erdarazko agujeta hitzetik eratorria izatea. | *Aidxubetie esate dxakon len andraskuek ibilte dendun gorantza..., barrutik jaste san. Axe lotzeko, kordela esate dxakon aidxue. | Andraskuk ibilte ben gorantza, len, neu pe ibilte naben-da. Oiñ estaitt iñok ibili be eitten ba..., akaso andra sasukun batek akaso ibili eingo deu. Te arixen sinttiri esaten dxakon aidxubetie. Sintta, ba ixaten da kordela laku barik, biribil-biribile.*

aike. (AIKA) Quejándose, lamentándose. | *Aike dau.*

aiko-maiko. (AIKO-MAIKO) • **aiko-maikotan.** Titubeando, vacilando, dando largas. | *Aiko-maikotan dabil ori. | Geuse bat gure dosu suk lortu, da berak pa, aiko-maikotan, estabela emon gure, osea koplá asko ipiñi. | Esaterako, suk gurosu geuse bat, da nik beste geuse bat esaten tzut: "Aiko-maikotan".*

aillara. (AILARA) Tira de rama fina de árbol utilizada en cestería (labrada sólo por un lado). | *Da gastañakin eitte sittuen otzarak, oiñ estaitt eitten baittue baya, onenbeste urte biar ixeten deu, lau-edo, olanik bigun egon deidxen bera. Da bera, otzarak eitteko-ta, euren gustoku, oiñ estaitt senbat urte biar ixate ittu, urte asko estau biar ixaten. Sartu, da..., aillarak, aillarak esate tzen orreri. Sartu te estaitt senbat denbora biar ixate ban, olan urte asko es, estai lu badire, bost badire, iru badire, estai senbat ta. Tamañoku*

eitte saniñ e sepi oneku-edo, bigun daula bota eitte san. Bota, da gero surittu, da atarete tzesan sumetzak, otzarari eitte dxakesan e..., inketan dxaken-da. Sumetzak sillari be bai. Onek e gastañakin ataraneko sumetzak. | Da aillarak dire esan dotena, gastañak dauseniñ e..., lau urtekuk-edo, estai senbat, senbat urte, se len aillarak eitteko, gastañe sepak eraiñ eitte sirien, bueno, da itxeraiñ eitte dxaken. Da arixeri atarate dxake sumetza, sabalau, olako sabala ixeten da, sabalau eta estuau, oneri-areri, gastañari atarate dxakesan sumetzak be, da konpondute ipintten diriñin aillarak esate dxaken. | Emen aillarak esate tzeu, sumetzak, sestuk eitteko aillarak. Baya orrek konpondute oten dire, aillarak esate dxakenin, ya konpondute oten dire, silli eitteko modun nai e sestu eitteko modun.

1 ain. (HAIN) Tan. | Ain txarra ixen da. | Ain txarra ein deu. | Aiñ ariñ ein deu! • **ain suertes.** Casualmente. | Ain suertes etorri san. | Ain suertes etorritte dau. | Kanela madaridxe be badau, da geurin ain suertes oingun estau.

2 ain. (HAIN) Tal. | Ain lekuten urek urten deu. | Onek usaba deko ain lekuten edo beste leku baten. | Ain egunetan egongo da iketza. • **ain bakue.** **1.** Desposeído, -a. | Esta ain bakue a, dirudune da. **2.** Desprovisto de algo. | "Estau ain bako geusarik": Ain bakue akatz bakue da, seoser falta estaben geusarik. Eser bakorik esati les, estau eser estekonik. Da esaten dan modun "Estau arantza bako larrosarik", estau ain bakorik, seoser falta estaben geusarik. | Akille axe da ba. Egoten dire ain baku pe. Tronpa badaus ain bakuek, neu pe euki naben aintxiñen-da. • **ain barik.** Sin nada, desposeído, -a. | Ain barik dau.

ainbeste. (HAINBESTE) Tanto. Ik. onenbeste, orrenbeste. | Sapo bedarrak ainbeste daus or! | Ainbeste bider esanes, ya kombensidu ei ñaben. | Ainbeste sufridute gero, negue etorri san. | Ainbeste diru ta ondiño kontentu estau. | Ainbeste eguniñ ei ben or, eskabasiño einde. | Gitxi ikusten dire piku oridxe. Len ainbeste egote san sosu piku oridxe. Marti sosu esate gentzon guk. | Ori esateko oiturarik emen ainbeste estau. | Ainbeste koloretako lorak eukitte ittu berak. | Mal bakue: ainbeste juisidxu estekona. | Ainbesteri pasa dxako ori. • **beste ainbeste.** Otro(s) tanto(s). | Baya len emen kopradixen egote giñen e a sortzi-amar mutil, da neska pe beste ainbeste, da olan txalik eitten

ebenin, abiste ben juteko, esne murgille daula, da sarataka.

ainbestegaiño, **ainbestiño.** (HAINBESTERAINO) Tan, tanto. Ik. orrenbesteraiño. | Ainbestegaiño estok ixango. | Guk ainbestiño ondo ein dogu biar.

ainbet, **ainbet.** (HAINBAT) Mucho(s), bastante(s). | Ainbet bider pasa da ori. | Arteka? Bai, arteka esaten da, da oin bayo lenguek, se nik neure ama sanari ainbet bider entzun netzon "Arteka nau", edo ba "Arteka sas"-edo ba, baya oinguek e, arteka be estau esaten, es. • **ainbat -en.** Lo más... posible. | Ainbet ariñen etorri! • **ainbat obeto.** Tanto mejor. • **ainbat txarrau.** Tanto peor.

aingeru, aingerue. (AINGERU) **1.** Ángel. | Jangoikori kontra planteu dxakosaki orrek, aingeruk. **2.** Se dice del niño muerto antes del uso de razón. | Se arik eta, konfesiñoye ta onek eiñ arte, "Aingerue ixen da" esate ben len, oiñ estau olakorik baya, da a il arren esate ben: "Aingerue il da". | Aingerue ixen da enterrau dabena. | Aingerutxue il da. • **aingeru bedarra.** Angélica, planta de la familia de las umbelíferas (Angelica archangelica). | Aingeru bedarra ona da. | Aingeru bedarra lora suri bateri esate dxako. Ori..., ser esangot neuk? Ona bai, baya da bedar bat, ba lori emoten dabena. • **aingeru guardakue.** Ángel de la guarda. | Aingeru guardakuk salbau deu ba. • **aingeru jabolie.** Ángel de la guarda. Aingeru guardakue gehiago erabiltzen da. | Aingeru jaboliek saindu gaittu. • **aingeru kanpaye.** Toque de campana que anuncia la muerte de un niño. Ik. il kanpaye. | Ume bat illtten danin, ba aingeru kanpaye esate dxaken emen, umiri. Il kanpai barik, ya nagusi bateri il kanpai ibiltten dire. Antoniori jote san modun, atzo kanpaik entzun gendusen, da ba "Bate bat il da" esan gendun geuk pe. Da aingeruri jote tzes dana txingilimañak, txilin-txilin-txilin txingilimañak jote tzes, da "Aingeru kanpayek ixen dire". • **aingeru lorie.** Flor de la angélica, angélica. | Aingeru lorak motatan egoten dire, olanik, motin aspixuen-da egoten dire. Lora suritxuek dire. • **aingeruten il.** Morir recién nacido. | Aingeruten il de.

ainke. (HAGINKA, hozka, ausikika) A dentelladas. | Mallotu esaten da, esate baterako, jeusten danien, bigune badau frutie, mallotu eitten da. Baya geu pe makiña bat bider ein dus, gastik ixen giñenin be, olan be jota mallotu, ainke jateko.

• **ainke ein. 1.** Morder. | *Txakur amorratu batek ainka ein tzon.* | *Subiek ainka txakurreri edo eitten dotzenien, ur korrientien ainka eñeko sera, kortadie ein, ur korrientiek subin benenue erun daidxen.* | *Txakur saunkalaridzek nekes eitten deu ainke.* | *Gause bat topo esiñik sabis, de igul aurrien euki tte: "Txakurre ixen basan, ainke eingo tzun ba!"* | *Estetzu eing-ainkarik txakur txikidzek.* | *Baltzak nik estaitt badeko, sube gorridzek pai, sube gorridzek ainka eñ eskerun, aringe ibiltten espada ilgo da.* | *Kakalandru sendu ixeten da, ba onek makalak dire, onek estabe olako ainkarik eitten.* | *Sagar bat ainke einde jaten da.* **2.** Picar (morder un insecto). | *Ardidzek dabix, ainke ein deus-de.*

ainkada, ainkadie. (HAGINKADA, hozkada) **1.** Mordisco, dentellada. | *Sagarrari ainkadie emon.* | *Txakurrek eisten ainkadias betiko markie geratu dxate.* | *Lelengo ainkadie ta gero aokadie, ao bete.* | *Erdikindu: bueno, sagar beteri be, konparasio batera, esan leidxo, ainkadak einde isten dan sagar bat, ume batek isten daben sagar bat, ba "Erdikindu deu sagarra, baya emen itxi deu".* **2.** Picada. | *Moskittuen ainkadie.* | *Ardi ainkadie, ak gorri-gorri isten dabenak.* | *Ardi ainkadas jositte dau.* | *Arek (prailleulidzek) ainkadi! Inkeute geratzen dire bertan, arik eta..., isten badxako, arik eta odoles bete arte alde estau eitten, sastasu nausidxe!* | *Ardi ainkadi gorriunatxu txiki bat ixeten da.*

ainkeka. (HAGINKAKA) Mordisqueando. Ik. *ainke.* | *Txakurre asurreri ainkeka dabil.*

aintxiñe, antxiñe. (ANTZINA) Antaño, tiempo antiguo. | *Aintxiñeko lege sarrin.* | *Antxiñeko usedidxuek.* | *Aintxiñeko oiture sarrak.* | *Aintxiñeko kostunbriek dire.* | *I aintxiñeko kostunbretan abil!* | *Aintxiñeko jentie.* | *Nik estaitt aintxiñeko konturik e!* | *Aintxiñe ixengo san.* | *Aintxiñe lakorik estau.* | *Aintxiñe etzin eitten siren liñues.* | *Aintxiñe ixen biko ban.* | *Arek aintxiñeukuk dire, au ontzuauku da.* | *Palanka jokue Nabarnixen eitte san, baya aintxiñe akabau san ori, len aintxiñau geidxau eitte ei xan.*

• **aintxiñeko moduen.** A la antigua usanza. | *Txixiburduntzi: txorixuk-eta errete diriña, mendidxen-da, aintxiñeko modun, basun-de.*

aintxiñeko, antxiñekue. (ANTZINAKO) **1.** Antepasado, -a. | *Aintxiñekuek, aintxiñeku sarrak, aintxiñeku sartzan bixi ixen sinak.* | *Baya bier asko aintxiñekuk.* *Txondorra, txondorra*

kargeti be bromi es san e! | *Ba euskera esta ori.* *Ori aintxiñeko sarrak es eben esango.* **2.** Antiguo, -a, apegado a la manera antigua de trabajar o comportarse. Sin. *antigualekue.* **3.** Máquina, trabajo o forma de trabajar antigua o arcaica. | *Setan abil ori eitten? Ori aintxiñeku ok.* *Oiñ e adelantamentu geidxau dxak.* • **aintxiñeko usedidxukue.** Persona que se rige por las costumbres o maneras de hacer antiguas. | *Amantalak e kosiñarako.* *Oiñ etxok iñok useuko baya onek ain txiñeko usedidxuku pai.*

aintzakotzat. (AINTZAKOTZAT) • **aintzakotzat artu.** Tomar en consideración, respetar, estimar.

aintzat. (AINTZAT) En consideración, con estimación. | *Frakerrie? Bai, aintzat estaun personigeittik.* *Beti ekiñin dabillena..* • **aintzat artu, euki.** Tomar en consideración, dar importancia, respetar, estimar. | *Agintzen dabenari 'jauntxue' esaten dxako, beran burue aintzat dekonari; berak dakidxela dana, berak dana dakidxela, da ba bestiek estakidxela; da ba jauntxue da ori.* | *"Famatzu dok": ba gixon eundidxe esati les, aintzat eukittie.* | *Beren esana aintzet artu deu.* | *Sosongue? Bai, noberak aintzat estekonari, noberak gure estaben geusi eitten dabenari.*

aire, airie. (AIRE) Aire, gracia, soltura. | *Lotue ser dan? Estekola airerik; martxarik es.*

Airo. Caserío del macizo de Illunsar. | *Airo etze bat da, mendidxen dauna, baya iñor esta bixi oin.* *Len famelidxe bixi ixan san, da oin ba ama-ta Gerniken bixi dire, ta utzik dau.* | *Da ori lelungue Airo.* *Ori ondiño sutuni dau.* | *Airotik e beste bat, etze ba dau an arantzau, Urrixola esate dxakona.*

• **Airoko pague.** Famosa haya gigante de Airo. | *Len egon san or Airon pague, bai.* *Emen, Biskai es, Españako aundidxena igul ixengo san, da bota ei ben.* *Airoko pague esate dxako.* *Gero bota ebenien, ebaten askolaridzek egon sirin, au Luxia, lau ordun ebai bayetz, de esetz, kortie, da es eban ebai.* *Deban ei ban, neu jun netzen ikusten.* *Orrek paguk, botata be, orren tamaño artuko ban lodidxe.* *Da goidxe itzela! A geur egunin ixen basan, es eben itxiko botaten.* *Ba len olako barik bota ei ban.* *Ori ixen sala ixengo dire berrogetamar urte bai.* | *Sokias lotu alderdi bistatik trontziri, da (Airoko pague) arrañe sa les, trontzie, da jan ein tzen asko, da sokakin batetik amar lagun igul, da bestetik beste ainbeste, da ondias ebei san, keye daridxola*

trontzian. *Da gero eun lagun eingeru sokakin tireka. Aixe san, bai, astokeridxa! A egur otza! A ixen san! Geur ixen balitz, Diputasiñoi jaubetuko san.*

airoso, airosue. (AIROSO) **1.** Airoso, -a, elegante. | *Airosu da ori.* **2.** Airoso, garboso, ágil. | *Airosu dabil.* • Eguraldiari buruz ere esaten da, haizearen bultzadaz eguna dotoretzen denean. Ik. *jagidxe.* | *Denpora airosu dau geur be.* | *Aidoso ein dxok!*

airosotu. (AIROSOTU) Animar(se), alegrar(se) el tiempo. Ik. *jagi.* | *Denporak airosotu dittu.*

aiskide, aiskidie. (ADISKIDE) Amigo, -a. *Lagune erabiliagoa da.* | *Geure aiskidie da.* | *Neure aiskidie dot.*

aiskidetasun, aiskidetasune. (ADISKIDETASUN) Amistad. | *Aiskidetasunin bixi dire.* | *Aiskidetasune galdu dabe.*

aiskidetu. (ADISKIDETU, onezkoak egin) Reconciliar(se). Ik. *bakik ein.* | *Aiskiditu ein giñian atzera.* | *Otzaldidxe esaten da: igul, persona batzuk amistadie euki, da bape gero igul alkarreas ibilli es, da osta atzera barridxen asi: "Otzaldidxe euki dabe, baya oin badabis, aiskidetu dire."*

aismotz, aismotza, asmotza. (HARETX MOTZ, haritz motz-bat.) Roble desmochado. | *Atxak daus tantaidxek, eta daus asmotzak. Asmotzak esate dxake tantai asten isten etxakelako. Oiñ idxe, onek arbolak idxe galdu dire. Len eitte dxaken goidxe kendu; arek ixete siñ as motzak. Da as tantaidxek ixeten dire mostu bakuk.*

aista, aistie. (AHIZTA, ahizpa-bat.) Hermana (respecto a otra hermana). | *Aista bidxek alkarras urtete ben da gero batera eskondu siren.*

aistatzako, aistatzakue. (AHIZTATZAKO, ahizpatzako-bat.) Hermanastra (respecto a otra mujer); hermana (de mujer) por adopción.

aisti, aistidxe. (HARIZTI) Robledal; robledo. Ik. *atxadeidxe.* | *Aistidxe da aratxas sepi-tte deuma, areri esate dxako aistidxe. Or beresidxe bai, Arrolan ainbaten daun aistidxek. Emen es, emen oin piñue dau dana, dana piñu, emen-emendik estau aistirik.* | *Atxak espadas, aistidxe etxake esaten.* • *Atxadeidxe haritz handien basoari esaten zaio; aistidxe, berriz, haritz gazteen basoari.* | *Atxadeidxe: atxa dausen pillue. Arbola pillue. Atxak. Atxadeidxe batzuk esate tze ta beste batzuk aistidxe esate tze. Baya atxadeidxe da atxa asko daua, "Atxadeidxe dau an". Aistidxe sepie da*

geidxau e. Da atxadeidxe da atxa askogas, da atxa aundidxau dausena, atxadeidxe.

aittamak. (AITAMA) Los padres. Ik. *gurasuek.*

aitte. (AITA) Padre. | *Aitte esate gu, aita barik.* | *Gure aitte sana.* | *An aitte defuntu gurie jaidxo san lekun be on san metal ure.* | *Da gero andik denpora asko barik il san gure aitte.* • También se aplica a los suegros. | *Emen ixete san, aitte esaten san len, danak, oiñ iguel esta ainbeste usetan, baya aitte, seinye ama da..., beñ eskondu eskero, bidxen aitte, orduen eukitten ittugus ama bi eta aitte bi, emengo, bertoko legien, Nabarnixen, len beintzet.* | *Olanik, niri, onek, alabie eskondute deue les, ba bestiek, seindde, bere aitte banintze les, ya eskondu eskero, bidxen aitte.* • **aitte santue.** El Papa. | *Madrillera etorri da aitte santue.*

aittebitxi. (AITABITXI, aita ponteko) Padrino. | *Aittebitxi ixen san Eibarrekue, da amabitxi ixen san Gernikekue.* | *Mokotza pasko egunin eitten da mokotza. Amabitxik emote tzon ba, edo aittebitxik emote tzon beren besutakuri.* | *Aittebitxik-eta eitte tzen erregalu e orreri, besutaku esate tzen len ba. Ba len ori usete san, mokotza. Oiñ esta mokotzik usetan.*

aittegei, aittegeidxe. (AITAGAI) Futuro padre.

aitegiñerraba. (AITAGINARREBA) Suegro. | *Aitegiñarreba da: esate baterako, nire gixonen aitte nitzako aitegiñarreba ixen san.* | *Nik neure aitte sana esautu naben, da aitegiñarreba be bai, abarka eitten.*

aitegure, aitegurie. (AITAGURE) Padrenuestro. | *Abadiekerakutzi euskun aitegurie.* | *Gero jote ben arimena, beranduau, aremaitteku bayo beranduau, da ordun purgatorioko arimari aiteguri erreseten san. Oiñ orrek e geusa danok tas astute, aiiiiii!* | *Errespontzue da abadiri emote dxakona, aiteguri erresetako, ba txakur aundidxe, edo nik estaitt ser ixate san ordun denporan.* | *Arek bi dekosenari, ba olata bakotxari ba aitegure bat erresate tzen. Da ba areri abadiri pagau eitte dxakon: txakur aundi bi, nai peseta bat, nai arril bi, nai... Ba senbat diru dekon, arixebeste aitegure, edo senbat olata daun, arixebeste-ta.*

aittesulo, aittesulue. (AITAZULO) Apegado al padre (niño, -a).

aittetar, aittetarra. (AITATAR) Parecido al padre. | *Aittetarra da ori.* | *Aitten antza aiki eskero, aittetarra esate dxako.*

aittetu. (AITATU) Nombrar, pronunciar. | *Es eik olako barbarik aittetu.* | *Len esate dxakon kamarie barik, emen jeneralien goiguru. Oin goigururik emen iñok estau aittetu eitten. Lengo sarrak goiguru. Goiguru, ba, altu daun les.* | *Saidxe san atal aundidxaue. Da birriñe san seye. Da oiñ e saidxe eskatzen dxako danari. Oin birriñik iñok e aittetu bes.*

aittiaren. (AITAREN) **1.** Señal de la cruz. **2.** Interjección de admiración. | *Aittiaren, au paseu da pasetakue!* • **aittiaren ein.** Santiguar(se), hacer(se) la señal de la cruz. | *Aittiaren ein bi da kurtzie deun lekuen.* | *Eleixera sartu bi da aittiaren eitten.* | *Potentidxe? Elixan oten dan e..., entradan-edo oten dana. Da elixara jute garañin, antxe ur bedeinkatue artu te aittiaren eitte, da barrure.*

aittitte. (AITITA, aitona) Abuelo. | *Gasterik ein da aittitte.* | *Gure aittittek leyek bayo ariñau eukitte ben euren kostunbrie.* | *Aittitte i san baserritarra beste asko moduen.* | *Aittitte dala tutulunberde, amuma masustra, aittitte dator Bittoridxetik, amuma lepun artute.* • **bigarren aittitte.** Tatarabuelo. | *Bigarren aittitte? Bai, aittittetute, biarren aittittetu eskerun. Birriten aittittetute badau, bai.*

aittittetu. (AITITATU, aitondu) Convertir(se) en abuela. Ik. *amumatu.* | *Aittittetu as!* | *Aittittetu i as!*

aitorde, aittordie. (AITAORDE, aitzako) Padrastro. Baita *aitteordie* ere.

aitordeko, aitordekue. (AITAORDEKO, aitzako) Padrastro. Baita *aittordie* ere.

aittu, aitzen, aittuten. (ADITU, ulertu) Entender. *Aittu eta entendidu erabiltzen dira orain, baina lehenengoa lehengo euskara zaharreko berbatzat edo bertoko berbetie legez hartzen da. Lehengo zaharrek entendidu ez ei zuten esaten.* | *Aittu dok?* | *Aittu eitte stesu?* | *Oiñ esanda, nok aittuko ete leke ser dan tribulidxori?* | *Entzu arren, estot aittu.* | *Bai, gitxi gora-bera aittu dot.* | *Geusie selan dan aittu ein bi da.* | *Es, amen uskidxe olanik, uskidxe, bai, aittu eitten da uskidxe ser dan, baya olan esates uskidxe bayo ba, txurinkie geidxau esango da.* | *Berba einde aittu suasek.* | *Tautik pe esteu aitzen.* | *Nik neuk perretxioekin estot ainbeste aittuten ba.* | *Leenak bai esate ben, baya estakitt iñok aittuko baleke, txibilorie esanda, ser dan.* | *Berbas aittuko gara.* | *Nik olan aitzen dot.* | *Bailariñak pe esate tze, baya*

geuk are burdiñeskuk, da bai, bailariñakin ba aittuten da, baya onek are burdiñeskuk dire ba. | *Burutzue? Sientzidxe asko dekona edo asko aittuten dabena edo ba asko ikesiñeku edo ba.* •

aitzen emon. Dar a entender. | *Aitzen emon tzan (klaru barik, erdi-erdidxen).* | *Emen masetie esate dxako masuri, masu aundidxeri, masue lodidxe ta aundidxe, olanik e, ba ba ser esangot neuk?, goitti bera palanki joteku-edo, estaitt selan aittuten emongo tzuten be.*

aixarto, aixartue. (HAIZE ARTO) Borona secada al aire. Ik. *labartue.* | *Laban sartu, da siketu eitten dabe, garandu orduko, errotara erun orduko. Ori da labartue. Da bestie da aixartue. Aixartue da ba, ya garaune erres soltate dosunien, labatik pasau barik; aixartue da ori.* | *Artue, solun artzen dana, aixias siketzen da beres, baya taluk-eta eitteko, ba laban sartzen da, ogidxen laban. Da aixe artu da kamaratan-kamaratan siketzen san artaburue.* | *Artue ainbeste eskendun eitten artue..., axartue axik igertunekuas.* | *Arto garaune, artue igertze san aixetan. Aixartu esate tzon orreri. Da bestie laban eitte san a, labartue.* | *Gustuk egote sin. Batzuk labako artoko urune talu eitteko gurau ixete ben. Da beste batzuk es. Amen parajien es san labartorik eitten... Amen Nabarrixen aixartue. Ostera, or e Errigoitti aldien dana labartue, laban igerra.*

aixe, aixie, axie. (HAIZE) **1.** Viento, aire. Ik. *mendebala.* | *Aixi dau.* | *Aixe txikidxe.* | *Aixe eundidxe dau (dabil).* | *Aixe gitxi dau.* | *Aixie artu.* | *Aixe eundidxe dxak.* | *Aixi eundidxe dxak.* | *Aixe otza dator.* | *Aixe otzak datos.* | *Aixie dabil fin-fñe!* | *Aixik joten dau sarri emen ba!* | *Aixik pe joten dxok an gogor!* | *An etzien, itxosoko aixiek joten dxok.* | *Bart ein ttus aixe moduek!* | *Bart ein ttus aixe putzek!* | *Kolpeka aixie altza dxok eta itxosun dabixenak txarto ibilli bi dxuek.* | *Aixie atara dxok aundidxe.* | *Aixe ona dok, ortik datorrena, itxosotik.* **2.** Borrachera. | *Orrek deko aixie!* • **aixe bolada.** Rafaga, racha de viento. | *Aixe boladak datos.* | *Selako aixe boladie dabil!* • **aixe errie.** Viento caliente. • **aixe errotie.** Molino de viento. | *Ori exelekue dok, or axe errotie ipiñi lei.* • **aixe eskutue.** Socaire. | *Aixe eskutue da aixik atrapatzen estaben lekue.* | *Aixe iskutue dau emen.* | *Axe eskutuen da.* • **aixe fiñe.** Viento helado, cortante. Socaire | *Bridxuri da otza, leidxe ero a*

bridxuri deuna. Otzak eitten deuna bridxuri. Da aixi be olan... Fiñe be igul esate dxako, aixe fiñe otzari esate dxako. "Bridxuri dxak ona bridxuri!" aixias deunari. | Bridxuri da otza... Nik, esate baterako, mendire-ero jun Illunsarrera da "Emen jote dxok bridxurie!". Otza, aixik, aixe fiñe. Aixie fiñe batzuk esaten dabe. Beste batzuk "Bridxuri dxak ona bridxurie!".

- **aixe jagidxe.** Viento recio. | Axe jagidxe? Bai, axe eundidxe dabillenen axe jagidxe oten da. Axi bateri bestera kalte be eitteko moduku oten da axe jagidxe.
- **aixe larridxe.** Ventarrón. Sin. aixie eundidxe. | Axe larridxe? Axie geldi egon esiñik dabilleniñ e, ara-ona, ara-ona, axe larridxe, euridxe ekarteko axie. | Axe larridxe daunin jeneral euridxe ekarten deu. | Aixie larridxe dau oin.
- **aixe lekue.** Ventorrero, sitio muy azotado por los vientos. | Aixie lekun dau au te!
- **aixe putze.** Soplo de viento. | Ointxe be badire gitxiu edo askuau aixen putzak. | Axe putzak dire, euridxe eingo deu. | Axe onek dabix putzek!
- **aixe satarra.** Viento recio. | Aixie satarra dxak. | Aixi satarra egon san atzo, da arte batzuk bota sittun emen be.
- **aixoker.** Viento frío y recio. | Aixie okerra dxak. | Aixie okerra ba otzari be esate tze.
- **aixotza.** Viento frío.
- **egoï aixie.** Viento sur.
- **enbra aixie.** Viento sur. | Da axe epelari esate dxakon "Axe epela dau". Enbra aixie be bai, ori gixoneskuk jaki eben esaten, ja, ja, ja! "Au enbra aixi dok!" esate ben gixoneskuk.
- **erreka aixie.** Viento sur. Ik. sur aixie. | Erreka aixi puntu dxauk. | Erreka aixiek ixete dire jeneralien eundidxek.
- Lehen irak urri aldera ebakitzen ziren eta bertan uzten ziren lehortu arte. Horrelakoetan, sarri erreka haizea etorri eta honela esaten zen: Kaguen, erreka aixiek etorko sak eta idak erungo dxuesak!
- **erriko aixie.** Viento cálido. | Erriko aixie, aixie epeltzue, apur bet a otza barik, epeltzue, aixie epeltzue. | Erriko aixie, ta ori axe epela bat tire, kontixu. Enbra aixi esan barikm errikaixie. | Erriko axie be ego axin antzeku da, bai, bat tire. Orrek axe euritzu barik axe epelak tires.
- **gallego aixie.** Viento oeste. | Gallego axie, egoidxas nastin, Galixie partetik. Egoidxe emendik, Ois, Urkiola aldetik etorten da egoidxa. Da ori bestie etorten da emendik Gernike, Bilbo, seretik etorten da, axe indertzu, fuertie ixeten da ori. | Axe otzari esate dxako gallego axie.
- **ifer aixie.** Viento noreste. | Iferraixie Frantzi partetik dator, nortetik estera

bittartetik. | Iferraixie mobidu i dxok.

- **norteko aixie** edo **norte aixie.** Viento norte. | Norteko aixi dau.
- **sorgiñ aixie.** Se dice del viento que forma remolinos. | Olan bueltaka-bueltaka daben aixiri esate dxako sorgiñ aixie. | Sorgiñ aixie dabil. | Sorgiñ axie esate dxakona, olan euridxe ekarteko esta ixeten.
- **sur aixie, surreko aixie.** Viento sur. Ik. erreka aixie. | Surreko aixie epela ixeten da. | Aixie aundidxe daunin, normalien ixeten da surreko aixie. | Bero eundidxe daunin be: "Au aixie sur aixi da."
- **urrikaixie.** Viento sur. Sin. enbra aixie, erreka aixie. | Urrikaxie ba axe bat da otza be estana, apartin beru bes, da ba urrikaxi.
- **aixie artu. 1.** Airear, ventilar. | Kaleruek betik eukiten deu (sulue), andik aixie artzeko, da karie atarateko.
- 2.** Tomar el aire, orearse, pasear. | Aixi artzen dabil.
- 3.** Emborracharse. | Orrek artu deu aixie! | Aixie galanta artu deu! | Aixie ederra artu dxok orrek! | Arek artu dxok aixie!
- **aixi artzen bota.** Mandar a tomar viento. | Aixi artzen bota bi dot.
- **aixie atara.** Empezar a soplar el viento. | Eberdi ostien-edo, or ordu bidxek edo ariñau aste san etaten aixie. | Aixie atara deu.
- **aixie atrapau.** Emborracharse. | Orrek atrapau deu aixie! | Aixie ederra atrapau dxuat!
- **aixi ein.** Soplar el viento. | Aixi eitten deu.
- **aixie emon.** Golpear. | Aixi emon bi tzat.
- **ago bete aixegas itxi.** Dejar con un palmo de narices. | Ago bete aixegas itxi gendun.

aixete, aixetie, axetie. (HAIZETE) Temporada de viento. | Aixik eitten baittu egunetan, aixetie esate dxako areri. | Axete baten, denboralie egon san baten axik (mimosie) jaurti ban, da kittu! | Axetie: axe eundidxek dabixenin, ba axetie. | Axetie dau.

aixetu. (HAIZATU) Meteorizar las vacas, abultarse el vientre por gases acumulados en el tubo digestivo. | Puntxeta da orrek ganaduk sulotzen diña aixetute daunin. | Beidxe aixetu? Bai, según selako jateku emote dxakon. Bedar korrintias es.

aixetzu, aixetzue. (HAIZETSU) Ventoso, -a. | Denpora aixetzue. | Egun aixetzue. | Aixetzu dxak.

akabau, akaba, akabo, akabaten, akabetan. (AKABAU, akabau) **1.** Acabar(se), terminar(se). Ik. amaittu, askandu. | Akabetan dau. | Geurko biarra akabo du. | Momentu baten akabo tes biarrak, etzekuek. | Kantiñek-eta idxe akabo dire

ba, ya orrek badois akabetan. | Au garbitzie akabau bi ot. | Liñue asko estot esautu, baya esautu eiñ ein dot, baya amen akabau san a. | Bide konpontzie? Baya ori bide konpontzie nos akabo te san? Oiñ esta biderik konpondu eitten. | Naidxe ein barik jateku akabo! **2.** Matar, especialmente reptiles. | Mendidxen topeu gendun subia bertan akabo gendun. | Subie akabo dot. | 'Akabo' jeneral onetan subiri esate dxako: "Subie akabou dot". Olanik sapuri-te bayo geidxau subiri. | Subi akabetan daniñ e, berenosue bada, akabou te listo dau. **3.** Extenuarse, agotarse. | Kantzate total jota badau, "Total etenda dxak eta! Se eingo dxok pa!", akabaute, ittota, etenda.

akabera, akaberie. (AKABERA) Fin, conclusión, final. | Esteko akabera onik.

akabo, akabue. (AKABU, bukaera) **1.** Fin, final, término. Ik. askana, atzena. | Auxe da biarran akabue. | Montxorra ba akabun eitten dan ori. | Akabo ta kittu. | Usteidxe da bedar txar bat. Asitten eukitten deu! Bueno, akabue! **2.** Pesado, -a, insoportable. | Ori da persona akabue! | Akabue personie! • **akabureko.** Para el final. | Akabureko itxi deu. • **akabo bakue.** Sin fin, inmenso, -a, total. | Akabo bako lelué a dok! • **akabu emon.** Finalizar, concluir.

akaburengo, akaburengue. (AKABURENGO) La última vez. | Akaburengo beras ego nitzen domekan.

akaso. (AKASO) Acaso, quizás, tal vez. | Akaso bidxer etorriko nas. | Andraskuk ibiltte ben gorantza, len, neu pe ibiltte naben-da. Oiñ estaitt iñok ibili be eitten ba..., akaso andra sasukun batek akaso ibili eingo deu. | Bai, bier eitten estabenak akaso eukiko dau baya baseridixen bier eitten dabenak e, da osasune badeko, esteko lo gatxik. | Oiñ e baten batek eukiko deu akaso baya.

akastu. (AKASTU) Mellar, dentar, adentellar, desafilar, quebrar (el borde, el filo, un ángulo saliente...). | Ibilitten basara ebaten, kutxillue akastu eingo su.

akatz, akatza. (AKATS) **1.** Mella, rotura o discontinuidad en el filo de una arma o herramienta. | Onek erruediek akatza deu. | Kutxillue sorrostu, akatzak ein dxakos-da! | Lekun-lekun oten dire akatzak. **2.** Escalera en el corte del pelo. | Uliri be, ondo ebata espada: "Akatzak dxekosak itzelin burun atarata! | Uli

sero ebei! Rape jun giñenin. Asi eurrin de atzera. Da akatza ta abarra-ta. Ala eurrera! Bai, soldadutzi gogorra ixen san ordun be, bai, soldadutzi be. **3.** Irregular, no liso. | Dana akatza atara tzek. | Asueli da, ser esangot neuk?, atxurren trasa-trasaku, da ixeten da..., asuelik eukitte ittu..., alderdi bat eukitten deu sorrotza, da aras alderdi sorrotzas egurren lantzen da, egurre lixotu, edo akatzak kendu, edo lantzen da asuelias.

• **akatzas atara.** Coser con defectos. Ik. aldias atara. | Aldias atara dau.

aken, akena. (AKEN, akain-bat.) Garrapata mayor (Ixodoidea superfam.). | Akena, amen mendidxen txakurreri inkete dxako ori da txakurrek ekarten dages inkeute, da arek txupete tzo odola, da gero eurek errebentau. | Akena animalidxek eukitten dabe. Orrek odola txupete tze ganaduri. Espadie be eulidxe da. Orrek egan eitten dau. Baya orrek akenak estau egan eitten, e, esteko egorik. | Akenak ainke ein tzo. | Inkau-inkau einde gelditzen dana da akena. Akena ba personak pe eukitten dabela esaten dabe. Da txakurrek, nai katuk pe bai. | A akena gorri-gorri ixeten da jeneral, gorri illuntxue. Da arek odola txupeten dabela esaten dabe baya, txupeu eingo deu. | Akenak burue aragidixen barrun sartzen dau, odola txupetako. Da olakuek, jeneral ba, txaridixek pe ekarte ittu orrek, txarrikunik pe, aspaldidxon estau ekarri baya. | Orrek akenak estabe egas eitten. Txakurrei inkete dxakues, mendidxen, kaballuk-eta, orrek dabixen lekuen. Neu pe senbat bider orrek kendu biar! Se inkeute geratzen dii, da dana odoles betete dire arek, txupau eitten dabe. | Akena inkau eitten da. Da kaparra txikitxauu ixaten da, sapaltxauu. | Bai, akenak onako sertzuk ixeten dire. Txakurtxu bet euki gendun, da bedarretan ara gora jutun... Or goidxen euki gendusen da, da dana! Igul eukitte basen sortzi edo amar.

aker, akerra. (AKER) Macho cabrío. Ik. Ik. euntze, eumie. | Orrek akerrak badxekosak bost edo sei urte. | Akerras egon sak.

akertu. (AKERTU) Cubrir el macho a la cabra. | Euntze akertu. | Arek akertzeko erute dxakos akerrari. | Akertute ongo ok. | Akertute dxak.

akil, akille. (AKIL) Púa superior de madera de la trompa o peonza. | Akille? Tronpiri "Akilles gora jun dok!". A Tronpi bakixu ser dan. Ak beyen punti eukitten deu, untzie. Burdiñesku beye. Baya akille es. Akille goikue. An inkete dxakona aridxe, a da: "Akilles gora dxabik" eta

se koño! Esan guna akilles bera. Igul "Akilles bera, etxok balidxo". | Akille: a puntie. Akilles gora, aldrebes igul, da: "Kaguen, akilles gora dxabik bueltaka!" Akille da a ganie, eukitten deun egurtxue, an inketaku, ta puntie bera. Da a ganiri akille. | Tronpie, esta?, da olan deko amen goitxuen kordela inketakue, gero an batzeko. Axe da akille. | Akille? Tronpi batzen dana. | Akille axe da da. Egoten dire ain baku pe. Tronpa badaus ain bakuek, neu pe euki nabon aintxiñen-da. | Akille orrixegaitti ba. Akille dosu arue sartzosuna, akille. A bera jeusten bada, estau balidxo, akilles bera. Axe esan gure deu. Egurresku jeneral a.

ako. (HARAKO) Aquello, el de marras. Askotan azalpen bat hasteko erabiltzen da. | *Abaspelue ser da? ako, erdi inportantzirik parik, onako serak, disparatiek sertzzen dittunari: "Ego adi ixilik, abaspelu ori!". | Fedie ser da? ba, ako sinismena edo ako sera dekonari.*

akolittu, akolittue. (AKOLITO) Sacristán. | *Akolittue da abadiri mesi erasote tzen mutil txikidxe. Oin monagillue esaten da, baya akolittu len.*

akordau, akordaten, akorda, akordetan. (AKORDAU, akordatu-bat., oroitu) **1.** Acordarse. | *Asko akordetan nas areas. | Etxat akordetan ba! | Ointxe akorda dxate. | Gerorako akordaute, diru apur bet aurreratu deu. | Len gure barriadan be batek guk payo amar eguniñ ariñau aste san artue ereitten-da, garidxe ereitten-da. Da bueno, esate nabon nik, atzatik gabixenai akordau eraitteko be, ori sintzu ok, eta ori sasoidxe allegaten danin, jentiri parte emoteko olakue egotie on-ok. | Su ondoko burdiñi da, baya orrek borren ixena deko, etxat akordetan. | Bai, bardiñ ixen biko tzo, niri etxat akordetan-da. | Etxet akordetan selan ixena euken arek. **2.** Ocurrirse. | *Akordau dxatek au eittie. | Neu akordetan nas. | Akordaten badxatzu. | Askenien akordau dxatek. **3.** Despertar(se). *Itxartu askoz gutxiago erabiltzen da. | Akordaute dau. | Akordetako sasoyin dau. | Goixetik akordau da au, goistarra da. | Akordau ointxe ein nas. | Lo baten, akordau ein barik! | Lo gitxias akordau da. | Akordau ein dot. • **akordau erain.** Despertar. | *Akordau erai tzet. | Baitte! Oixe esate san, da auntxe seuk akordaraista su te geuk pe esate gendun.****

akorde. (AKORDE, esna) Despierto, -a. Ik. *ernei. | Akorde dau.*

akordu, akordue. (AKORDU) **1.** Conocimiento, juicio. | *Sintzue da akorduas dabillena. | Akordu barik esan tzet. **2.** Recuerdo, memoria. | Akordu asko. **3.** Acuerdo, conformidad. | Bidxon akordun. | Kontzejun akordun pasau da geuse bat. • **akordu barik.** Sin saber a ciencia cierta. | "Akordu barik ein dxuat nik au be": jakin barik ein deula da deskoidu bat ixen da esatie. • **akordun euki.** Recordar. | *Esteuket akordun. | Akordun euki dot. | Orrexek erosi ban, akordun deket, egurrek panadixara eruteko, Nabarristik Gernikera.**

akordugarri, akordugarridxe. (AKORDUGARRI, oroigarri, gomutagarri) Recuerdo, cosa que se regala como recuerdo. | *Akordugarridxe a pe ein deu. | Eskontzen danin, sosertxu erregalu eitten batzo, ba akordugarridxe, geuse apurtxu bet txikitxu eitten batzo be: "Akordugarridxe, au esta asko, baya akordugarridxe". • Lagun bati luzaro gutunik idatzi barik egon ondoren, idazten zaionean ere akordugarridxe esaten da.*

akostunbrau, akostunbretan. Acostumbrar, tener costumbre de alguna cosa. | *Guk estogu ori akostunbretan.*

akulari, akularidxe. (AKULARI, akuilari-bat.) **1.** Boyero, -a, aguijoneador, -a. | *Akularidxe esate tze proban ibiltten diñai-tte. | Esate baterako, proban ibiltten diriñak, ba ididxekin nai beidxekin ibiltten diriñak, ba proban dabixenari jeneral ba "A fulano akulari ibil da", da ixeten da akuluas ibiltten dana, beidxeri edo ididxeri eraitten ibiltten dana, akularidxe ixena. **2.** Persona que abusa del aguijón con los animales. | *Akularidxe esate tze akuluas asko ibiltten diñai ganadukin. **3.** Brusco, -a, de mal carácter. | Akulari ba jenidxo txarra dekon e personiri esate dxako, "Kanpederra, da etzin akulari", etzin jenidxo txarras. | "Kanpo-ederra ta etziñ akulari" da esakunie. Da ba kanpos ederra, geusa pe ondo, da ba etziñ akulari e, etzin jenidxo txarras. | Akularidxe jeneral erristan ibiltten dana ixeten da.**

akulu, akulue. (AKULU, akuilu-bat.) Aguijada, aguijón. | *Bueno, ganaduntzako akulu ibiltten da, oin be bai, da len be bai, jeneral. Akulue ixeten da, ba se esangot?, noberak eskun olan ibili bi dan... sera, ser esangot neuk?, makilli bayo lusiaue ixeten da, noberak eskun ibiltten deu, da puntan gana esate dxako, da untze bat sartze dxako, da untzie seras e..., ser esangot?, astute nau ixena be,*

untzi gastetakue, burdiñi gastetakue ixeten dana..., limie bai, limias gastau eitte dxako burue, da punti esarten da egurrien, da buru dana gastau eitte dxako limias, da ba gana sorrostute, olan gantxu bat eukitten deu ganak, beidxeri siki eitte tzo, da akulu deitzen dxako. | Beidxeri akuluas siki eitte dxakenin, sastadie esaten da. | Akulue. puntan untzetxu bet eukitte ban da siki aregas, aurrera korridu deidxen. | Nabarnisko ididxe akulurik estabe iños bier ixeten. | Elorridxe eusen klase bi. Elorri baltza eun bata, da besti eun makillak-eta eitteko. Baya onek akulu-eta eitteko, elorri baltza. Oin be ikusten di basun. • akulu gana. Punta del akulue o agujón. Julen Urkizak eta Luis Baraiazarrak Frai Bartolomenen idatziei eginiko edizio kritikoan honela azaltzen dute: "Aculu gan: akuiluaren muturreko eztena edo burdinazko ziri zorrotza; (umetan ikasi genuen betiko hitza da)". | Akuluri guk e punti ero gana esate tzeu. Gana. Gana bakixu ser dan. Untzie. Untzi sartze dxako olako palo bateri, da axe da gana. Da batzuk esate tze ba akulu puntie, akulu gana.

akulukada, akulukadie. (AKULUKADA, akuilukada-bat.) Agujonazo, punzada. | Akulukadie esateko, siki, jo es, olan, jo barik siki, sartu, a untzi sartu.

al ixen (AHAL IZAN) Poder, ser posible. | *Nik al ixen baneu, eingo naben. • al danik eta -en.* Lo más... posible (intercalando un adjetivo o un adverbio). | *Al danik eta ariñen etorri de.*

1 ala. (ALA) **1.** O (conjunción disyuntiva). | *Seu etorriko sara ala neu etorriko nas? | Orre pe eukitten dabe beren sasoye, estakitt ilberi eukitten daben ala ilgori eukitten daben.* **2.** Es que; acaso (con valor enfático, normalmente al final de las oraciones interrogativas). | *Ondiño jun barik sas mendira ala?*

2 ala. (ALA) Venga, vamos. | *Ala, guasen emendik! | Goixien kafetzakue. Ure. Axe bakarrik. Axe edan da "Ala, juen!". Bueno! Baya gosie ordun gosie!*

3 ala. (AHALA) **1.** Tanto como se pueda, todo lo que se pueda. | *-Biarra dekosu? -Eiñ ala!* **2.** Tan pronto como, a medida que. | *Eur ure da ya, urtzen dana, bota ala urtzen danin, "Ori eurreuridx-ok", eur ure, bigune, dana urtu, jeusi orduko. | Pustillie? Ba ure, euri saparradi daniñ uretan urteten dabe arek. Da gero urten ala, ser esangot neuk? Apurtu eitten dirilla? | Da gero egur metxukin su ein. Da gero a erre ala, erre ala*

jute san barrure da andik artze ban sue. • alien. A más no poder. | *Botalien deu euridxe.*

alaba, alabie. (ALABA) **1.** Hija. | *Bere amaordiek asi eban bere alabie baleu les.* **2.** Hija (de un país, pueblo...). | *Muttibarko alabie san au. | Ixetes esta bertoko alabie. | Bertak-alabie esta, kanpotik etorriñekue.*

alabaorde, alabaordie. (ALABAORDE) Hijastra. Ik. semeordie.

alabor, alabora. (ALABOR, aloger-bat.) Salario, sueldo, jornal. Ik. *jornala, soldatie.* | *Eguneko alabora. | Alabora kobrau. | Alabora artu deu orrek. | Alabora? Ementxe baserridxetan len pageta san ba artajorak-eta ba onek ein bier ixete sirin da ba, da arixeru esate dxako alabora.*

| *Alabor txikitxue emoste. • Gaur egun jornala hitza lekua kentzen ari zaio geroago eta gehiago. | Oiñ esate dxako ba jornala: "Jornalin dabil". Da len esate san alaborin. • alaborin.* A jornal. | *Alaborin: eguneko, kontratu barik. | Len alaborin jute san jentie. | Beti alaborin dxabik a. | Alaborin jun gintxuasan. | Esate baterako, geur borondatis etorri di, baya pagau-edo biar ixen banaben, esango naben: "Alaborekuk artu biar, esin nik bakarrik ein-de!". | Aloberin jun de diru irebasten. | Aloberin artu da gixona bedarra ebateko. | Aloberin ibiltten da.*

alaboreko, alaborekue. (ALABOREKO, alogereko-bat.) Jornalero, -a. | *Alaborekuk artu dxuasan. | Alaborekuek kanpotik ekarte diriñin e soser. Len, oingo aldiñ e, alaboreko asko ibiltte san.*

alaja, alajie. (ALAJA) Alhaja, joya. • Arropa modernoei buruz ere esan ohi da, sarritan ironiaz: | *Igul erropa moderno bategas-da badoye: "A, ori da alajie!"*

1 alako, alakue. (HALAKO) **1.** Tal como aquél, así, de ese tipo. | *Esate baterako, geusak aste dxakosena-edo, da ba alakuri be igul esate dxako ba "Ai, are teko buru erie!".* **2.** Vaya; menudo, -a. | *A beti buru andidxe alakue, berenas urtetekue! | Lotzabako alaku! | Bardaskok alakok! | Sinbrikidxok alakuok! | Bibolintteru alaku! | Oskillek alakuok! | Bat einde jun dosak kabroi alakuk nonora! | Kaki alaku! • alako baten.* En una esas, en eso.

2 alako, alakue. (AHALAKO) Tales como para. | *Errementau alako biarrak ein ttu!*

alakolako, alakolakue. (HALAKO-HOLAKO)

Mediocre. | "Adu asko esteko": umiri be bai, tte nausidxeri be bai, igul alakolaku bada.

alakoxe, alakoxie. (HALAKOXE) Así. | *Elixan len egote sin (kandeleruk), da iltte sanin alakoxe bat ipiñi.* | *Trongora estitti? Ba, trongue, lodidxe estau ixen biko, ostantziñ estau artuten.* Da trongora estitti da, ba olan eskuturren modukue, lodidxau edo metxuaue, alakoxera estittie beste bat. Da gero artu ein bihar. • Batzuetan badirudi halako zentzu txar bat duela: | *Bai ba jenti alakoxi emen baya! Emen jente kondenau lakoxie! Ai emen, emen, emen... Da ostu tzen!*

alan. (HALA) Así. | *Alan edo olan.* • **alan be.** Sin embargo. | *Txispetxukiñ etorte giñen, baya alan be posik.* • **alan da gusti be.** Sin embargo. | *Alan da gusti be jun ein san.* | *Eun bider jausi san da alan da gusti be jokue irabasi ban.* | *Da gero badau keixa bat e..., alakorik estot pentzan gelditzen danik, moraue esate gentzona da berandutxuau, gorridxe bayo berandutxuau eltzen ei xan, baya oiñ e, alan da gusti be piñuk sartu sirin de galdu ein sirin.* • **alan dala ta.** Como si no sucediera nada. | *Da konprimenturi pes! Alan dala ta konprimenturi pe esteu ein!* • **alan da se.** Así que. | *Alan da se ondo dau esanekue?*

alanbier, alanbierra. (HALANBEHAR, halabehar-bat.) Destino, fatalidad. Zerbait txarra gertatzen denean, sarri esan ohi da: *Alanbierra ixengo san-da!* | *Alanbierres, ba, olan ixen bada, ba...* • **alanbierrik.** Casualmente, afortunadamente; fatalmente. | *Alanbierrik ondo etorri da.* | *Alanbierrik esta eser pasau.* • **alanbierrien.** Casualmente, afortunadamente; fatalmente. | *Alanbierrin ondo etorri da.* | *Alanbierrien ba es san pasauko eser.*

alanbra, alanbrie. (ALANBRE, burdin hari) Alambre. | *Alanbrak geurin be badas ipiñitte.* | *Ostantzin arri ormarik ardidxentzako esta eitten, se ardidxe beidxe bayo asko be debillau da.* Da ganaduntzako ipintten dire alanbrak, da ardidxentzako be alanbrak ipintten badire. *Ganaduntzako ipintten badire bost, edo sei, edo saspí, ardidxek iruas naiku da.* | *Sarradurie? Ei llei alanbrigas, ei llei olas, edo seosegas, baya sarradurie, da jeneral alanbra arantzadunas eitten dana.* | *Alanbrie deko bueltan ipiñitte.* | *Kaidxoli be sotzesku eitten da, sotz utzekin, alanbrarik barik.* | *Alanbrin barrun dabis ganaduk.* •

alanbraskue. De alambre. | *Irastekue alanbraskue ixeten da.* | *Len erremadak, danak egurrekuk ixete sin.* Es, alanbraskorik es euen de.

alanbrada, alanbradie. (ALANBRADA) Alambrada. | *Baye estu-estutxu ixaten da, alanbrada estu-estu ixaten da, da areri urune paseta dxako, ta sairik etxako pasetan.* | *Leku batzutan, emen guk estou usau, baya alanbradak esate tze, da alanbradias be ondo aittuten da, baya emen sarraduridxe esate tzeu.*

alanbradure, alanbradurie. (ALANBRADURA) Alambrada, cercado. Ik. *sarratue.*

alanbrau. (ALANBRAU, alanbratu-bat.) Alambrear, cercar un sitio con alambre. | *Dana alanbraute dau.*

alantxerik. (HALANTXERIK) Así, de aquella manera. Ik. *onantxik.*

alantxik. (HALANTXERIK) Así, de aquella manera. Ik. *onantxik.* | *Alantxik ein biosu gero!* | *Alantxik alan, da konprimenturi pes!* | *Gero ba onenbeste denporan agindu ban medikuk geldi egon bi dabela, ta alantxik geldi egon san, da ondo geldittu san.*

alarau, alaraue. (ALARAU) Alarido, grito lastimero. | *Txakurren alaruk dire.* | *Alarauek, eta intziridxak alkarren antzekuk dire, bat dire kontixu.*

alareuke. (ALARAUKA) Aullando. | *Miñ aundidxe dekona alareuke asten da.*

alargun, alargune. (ALARGUN) Viudo, -a. | *Abade ein san alargun garatute gero.* | *Geur tokaten dxaku alarguneri bije bat eittie nobenie amaitsu orduko.* | *Sensarradie len alarguneri-tte jote tzen biarren biderrin eskontzen diriñin.* Eote san ba seoser, olako atrapeta san moduko soñu bat, gabetan-da jote ben, sensarradie. • **bixi-alargune.** Persona que vive separada de su cónyuge. | *Bixi-alargunek tire.*

alargundu. (ALARGUNDU) Enviudar. | *Alargundute dau aren ama.* | *Geldittu da alargundute.* • **bixi-alargundu.** Separarse (los esposos). | *Bixi-alargundute.*

alarguntze, alarguntzie. (ALARGUNTZA) Viudez, viudedad. | *Alarguntzie alargunen biximodue da.*

albaindu. (ALBAINDU) Hilvanar.

albaiñe, albaiñie. (ALBAINA) Hebra (de hilo). | *Albaiñie ari satidxeri esaten dxako, orratzin sartzeko.*

albaiñetu. (ALBAINATU, albainutu-bat.) Enhebrar, ensartar el hilo. | *Albaiñetuixu au!*

albeit. (ALBAIT) Lo (más, mejor, antes...) que sea posible. Nabarnizen ia-ia ez da erabiltzen, ezaguna bada ere. Ik. *al danik eta ...-en.* | *Albeit ariñen etorri!*

albeitero, albeiterue. (ALBAITERO, marexal) Veterinario.

albakera. (ALBAKERA) De lado, de costado. • **albakera begittu.** Mirar de reajo. | *Albakera begitzen dxabik ori.*

albako, albakue. (ALBAKO) La campana del alba. | *Goixien albakoas batera altzaten da otik.* | *Aramaittekue illunkeran jote ben da bederatz kanpaye dire da goixien albakue, sei kanpa.* | *Albakue kanpairi esate dxako, anjelus, goixin goixitik jote ittun kanpairi. Oin jo be estittue eitten. Albakue, da aremaittekue artzaldien, illuntzin joten dan anjeluse: aremaittekue. Da gero, len -oiñ esta joten eselako kanparik pe, ta oiñ esebes-, baya len jote san albakue, da gero jote san illuntzien, illun esbaidxen, aremaittekue esate dxakona. Da gero, gerotxuau jote san arimena.* | *Amen Nabarrixen goixiñ albaku jote san, albakue, beste kanparik jo orduko, albaku.*

albalboka. (ALBO-ALBOKA, zabuka) Balanceándose, tambaleándose, ladeando, zigzagando. Ik. *irri-orroka, txitxirri mokorro.* | *Albalboka dxabik.* | *Kali betin: bai, albalboka badabil, kalin doyela, "Kali betin dxoik ori", moskorras.* | *Moskortu eskerun "Albalboka jun da".* | *Edo albalboka badoye, "Ño, orre pe moskorra ederra dxekok!".* | *Albalboka doye au ta!* | *Albalboka etor da.*

albandorratz, albandorratza. (ALBAINORRATZ) Aguja de coser colchones, sacos, etc. | *Albandorratza. ori orratz aundidxe, sakuek josteko.* | *Aintxiñe koltxoyek pe lanakin eitte siren, da ba areri lanari koltxoyeri lelengo ein sulue, noberak ein beste orratz txikidax da an pasetan sinttie be, albandorratza; olantxik usete san.* | *Albandorratzak: Aintxiñe, aundidxe, koltxoyek-eta josten ibiltzen sinak.*

albañel, albañela. Albañil. | *Albañelak dabis ormagiñen.* | *Aldamiñu albañelena da.* | *Albañelak-eta, olanik e surittu-edo ein gure dabe, txa-txa-txa-txa, piketen badabe ormie.*

albate, albatie. (ALBATE) Puerta de la cuadra. | *Albatie edeixu!*

albertxiku, albertxikue. (ALBERTXIKO, mertxika) Albérchigo. | *Albertxikue da frute bat, preskun antzeku-edo, presku bayo ba fiñau ixaten da.*

albiste, albistie. (ALBISTE) Noticia. | *Se albiste dau?*

albixarredxe, albixarridxe. Especie de milano. Sin. *saidxerrie.* | *Saidxerri be bada. Batzuk saidxerri esate tze, bestik albixarridxe. Iguel berton ausun be, igul Bollarre pe igul esate tzon saidxerrie, da guriñ e beti amak e "Albixarridxe ollue jasku!" te estai ser da beti..., gu geuk, ba albixarridxe beti. Da beste batzuk esate tze..., gabilloye be esate tze.* | *Albisarredxe ollue jan ein deu.* | *Albisarredxe, orrek txoriorrek, gabilloi modun aundidxe.* | *Se guk e..., geuk e beti albixarredxe da suk esan dosuna, saidxarri be bai, saidxarri edo gabilloye. Amen berton kopradidaxan be batzuk ori esa tze, e saidxarrie. Da beste batzuk gabilloye, da orixe da ba danak e..., dana bat e die.* | *Saidxarrie aundixau da gabilloi bayo.* | *Gabilloye esate tze. Amen e ikustot..., oiñ emen ibiltten da beti egunaro bat, da guk orreri beti albixarridxe. Gu geuk e len ba..., saidxarri be bai, esate tze, baya guk e beti albixarridxe. Gure amak beti albixarridxe esate ba les, andixik e beti kostunbrie.* | *Len Julian Anekuk orreri kunak artze tzesan. An e atxegidxen, an Illunsarreko..., jakitte ban beti, urte gustidxetan, olako arri bittarte sulo baten kunak atarate besan. Orrek Ayuntamentuk pagau eitte basen. Albixarredxe lau peseta sala pentzot, kuna bi peseta, peseta, bai.*

albo, albue. (ALBO) Lado, costado. | *Etzien albuen.* | *Alboko baserredxe.* | *Alboko etzekue.* | *Beren alun semie ortosik eruala.* | *Juen albora, burdidxe pasa arte.* | *Ori estok ixena, albotik ipiñinekue dok.* | *Ikusi tte albora begittu!* | *Tantaidxe ixeten da susen badau gora. Da bestik besanguk ixeten dire albora eitten dabenak.* • **albo agiñe.** Colmillo. Baita *itxagiñe* ere. • **albo erridxe.** Pueblo vecino, límite. | *Albo errikue da.* • **albo gelie.** Cuarto situado en uno de los dos lados del atrio de los caseríos. *Albogela* edo *gela* izena gorde dute; goiko bizitzakoei, ostera, *kuartue* esaten zaie. | *Egal bidxetara eukitten sittun etzik gela bi da eskatzetik, ba, umiek eta, logure eukeniin, ba aintxiñe-aintxiñe, negun da..., oingo modun es eusen geusak eta otz eukitte ben,*

da gelako, kuertue edo... gora an lo egin, bertan.

• **alboko miñe.** Dolor del costado. | *Jun dan egunetan alboko miñe du.* | *Alboko miñe einde.* • **albora puntadie.** Punto al lado. | *Aspildu: josten, au olan bueltie artzie.* | *Aspildu? Onek, onek, onek albora puntadias, albora puntadias pasau, da orixe da aspiltzie.*

albokie. (ALBOKE, alboroke-bat.) Alboroque, agasajo que hacen el comprador, el vendedor o ámbos, a los que intervienen en una venta. | *Alboki da tratu bet-ero eiñ eskero, ba "Euk pagaukok albokie!" esate san tratu eitten bada.* *Ordun, tratu eiñ esiñik igul, de "Bueno, onexenbeste, da euk pagetako albokie".* *Se alboki len edoseri eitte dxakon olan tratu eiñ eskero.* | *Jana! Bai, ero edana ero besti, trague esate tzen, baya jana, alboki.*

alboko, albokue. (ALBOKO) **1.** Vecino, habitante de una de las partes en que se dividen algunos caseríos. | *Ori albokuas enamorau da.* **2.** Golpe (en el costado). | *Alboko galanta artu dot.*

alboraskada, alboraskadie. (ALBORANZKADA) Tambaleo. | *Alboraskadak eitte ittu.* | *Moskorras doyen, alboraskadie ein, de jeusi igul.*

alborau (ALBORAU, alboratu-bat.) Hacer(se) a un lado, apartar(se), quitar(se) de en medio. | *Ori suteko katxarrue alborau!* | *Da bat egon san goixaldien Lekeittora juteko.* *Bat oiñes, da urte tzo katuk.* "Katu, aldeixu ortik!" *esan tzo, da jau! Makillias emon tzo saplasue, ta alborau.*

alboskadaka. (ALBOZKADAKA) Tambaleándose. | *Alboskadaka jun da.*

alboskera. (ALBOKERA, zeharka, aldamenka) De lado, de costado, de refilón. | *Alboskera begittu.* | *Oyen alboskera plantau da.*

albotiko, albotikue. (ALBOTIKO) Tronco que en el fuego bajo se coloca a los costados junto a la madera más menuda colocada en el centro. | *Suterako ixeten dana? Albotikue esate tzeu suterako ixeten danari-tte, a sartzen danari.* *Albutan ipintten da.* *Ba erdidxen ipintten da meye, da eitten dabe sue.*

aldaba, aldabie. (ALDABA) Aldaba. | *Aldabie atien joten dana da.*

aldakera, aldakerie. (ALDAKERA) Cambio, mudanza. | *Emen baserridxetan e esta asko aldatu eitten, baten bat juten bada beiñ edo bein, se emen aldakera asko esta eitten.*

aldakor, aldakorra. (ALDAKOR) Variable, que cambia constantemente de lugar. | *Aldakorra? Aldatzen dan geusie.* *Len bat..., oin batera da ta gero bestera ixeten dan geusa bat.* | *Aldakorra? Bueno, persona bateri be esan leidxo, geusak e ondo, noberak gure daben modun urteten estabenari, noberak gure daben moduku ixeten estanari-edo.* | *Egualdi aldakorra? Ba ixle lei ona, ixle lei txarra be.* | *Atzo es aban txarra ein, da oin ba euridxe da.* *Ori da aldakorra.*

aldamiñu, aldamiñue. (ALDAMINO, aldamiobat.) **1.** Andamio. | *Aldamiñu albañelena da, da puntelue esaten dabe beste batzuk.* | *Aldamiñu dxok eusteko.* | *Aldamiñuk ipiñi tzes.* | *Aldamiñuek dire onek albañilek-eta useten dittusenak.* **2.** Poste que se pone para enderezar, por ejemplo, un árbol. | *Aldamiñue esaten dxako jausi esteidxen ipintten dxakonari, poste bat-edo.* | *Arbola bat okertuten bada, altzau gora, da an ipintte badeutzosu egur bat, susen egon deidxen, a da aldamiñue.*

aldapa, aldapie. (ALDAPA) Cuesta, repecho, pendiente. *Ik. erripie, aldatza.*

aldatu, aldatzen (ALDATU) Cambiar. Normalean, aldakuntza toki batetik besterakoa izaten da. *Osterantzean kanbidxeu esaten da.* | *Lekus aldatu.* | *Lenien dau, esta aldatu.* | 'Aldatu' 'kanbidxe' *da, leku bateti bestera.* | *Geusak aldatzan dabis.* | *Esate baterako, andik etzetik beste etze batera juten diriñin, aldatu eitten dire.*

aldatz, aldatza. (ALDATS, malda) Cuesta. *Ik. aldapie, erripie, leue, leune.* | *Aldatza dau.* | *Aldatz aundidxe dau or.* | *Aldatz eta leunak.* | *Aldatz susena.* | *Aldatzien jun esiñik garatu da, toton ein deu.* | *Aldatza: olan bidie beti gora ein bidabena, aldatza eundidxe dau emen, asko igon bi dan leku; espaldie: kamiñurik estauenari, espaldak, orrek basun.* | *Urkiolako aldatza gogorra da.* | *Aulistitik Nareara aldatz gogorra dak.* | *Leku batzutan e mendire bidien be ba bide erripa badas.* *Da beste leku batzutan be leune das.* | *Bide leune da erriperi bakue.* *Esan gutena aldatzik es olakorik estekon bidie.* *Leue.* | *Samilleko aldatza beti esate gentzon.* *A gogorra aldatza! Kaltzadie.* • **aldatz berie.** Cuesta abajo. | *Bajada aundidxe dau an, aldatz bera aundidxe, erripie, espaldie.* | *Dana aldas bera dau.* • **aldatz gorie.** Cuesta arriba. | *Ori da aldatz*

gorie! | Aldatz gora kantzaute doye. • **aldatz pikie**. Pendiente pronunciada.

alde, aldie. (ALDE) **1.** Lado, término, rededor. | Goiko aldie. | Naparru aldien. | Bitturidxe aldien. | Se barri da Nabarris aldin? | Nabarris aldeko lurrek gogorak dire. | Ori gitxi useta san. Ori amen e Errigoitti aldien da Morga da ortik: labartue. **2.** Diferencia, contraste; ventaja. | Dirun aldie: gaidxau bata, ta bestie gitxiu bada. | Dirun alde aundidxe deke. | Aldi deuke. | Da suen Esteban kapatas. Da onek Pako ta Andres-da sortzi peseta eguniñ irabasi. Da kapatasak peseta bi geidxau, amar. Kapatasak amar. Peseta biñ aldie. **3.** A favor. | Noren alde saus? | Nabarrixen, da Belendixen, da ba oin be probie ein da, kaballukin, Nabarriskuek eta Belendiskuk. Da ba betarran alde, bestiek goittarran alde. **4.** Inclinación (de una carga). | Aldias dau kargie. | Kargi aldias dekosu, apurtu eingo dxatzu, estekesu ondo. | Kargik alde okerra deko. • **alde batera.** Al mismo tiempo. • **aldera.** A cambio de, a cuenta de, en compensación de. | Biarrin noye janan aldera. • **-t(z)e aldera.** A cambio de, a cuenta de, en compensación de. | Apiak eitten badoye, apiak ein, da eitte aldera emoten baittu, ba ein berak apiak, da gero saltzen deu berak, da artzen deu dirue. | Basue, ba bai, eitte aldera emon dot. • **alderako.** A cambio de, en compensación de. | Arrotzan alderako emoten tzut au. | Auxe emongo tzut nik janen alderako. | Kaltien alderako. | "Emoste ordeskue": neuk emo tzen geusin alderako, beste geuse bat emote baste, ba "Pagauste ordeskuas". • **aldien.** A diferencia de. | Sure aldin. | Oingo aldin. | Lengo aldin, oiñ erres dau. | Sementuen aldien arin siketen da ori. | Au sestoketan eitteko modun einde dau, naiko sarratu. Baya beste bat eitten da, onakue, onen aldin mietz dekosanak onek sesto makillak, mietz dekosanak ta. | Makatza ixaten da ba, txikidxe madaridxen aldin. | Bueno, ños-ños Omara be bai, baya orko Omako ure ur gitxidxe Gixaburuakun aldien. • **aldias atara.** Coser con defectos. Ik. akatzas atara. | Aldias atara dau. • **alde ein.** Separarse, alejarse. Ik. ospa. | Oba alde eitten badogu emendik. | Egonak egon ein de alde ein dot. | Alde eiñ enbasutik! | Aridxen usaba bidxek eskutau, alde, bistatik alde eitten dabe, aridxek topeka eitteko orduen usaba bidxek bistatik alde eitten dabe. | Dirue irebastera be

alde eitten dabe etzetik estranjeridxera, olanik. | Umi pa bakik, atrebidu dosa pa, edo persona neusigana juteko, "Aldeik umemokuorrek! Aldeik emendik!". Umemoku da, ba gastu edo edukasiño bakue edo bakixu. "Aldeik, umemokuorrek, kakanarruorrek!". • Alde ortik! • **alde erein.** Obligar a retirarse. • **aldien ekarri, erun.** Llevar consigo. | Estot ekarri dirurik bat pe aldien. | Beti erute ot neuk librue aldien.

aldekora, aldekorra. (ALDEKOR) Ladeado, -a, inclinado, -a hacia un lado. | Koño, aldekora dxoik a be! | Kargi deko aldekora. | "Au eurrera jeusi dxak" eta "Eurrera jeusi dxak", baya alderdi bouko, aldekorra, ondo kargau es.

aldekorras. Ladeado, -a, inclinado, -a hacia un lado. | Aldekorras: oker kargeuten bosu burdi bat, nai narra, nai otzari, nai sestu olan kargau te jun de jeusi, igul ilan eittosu de "Aldekorras kargeu dxok eta!". | Aldekorras dxok orrek pe! | Iguel eitte su karga bat ipiñi, nai geuse bat, susen estosune eitten: aldekorras, alborantz, bata, ero bestera: "Aldekorras dxok itzela, eta selan jungo dok pa?".

aldendu. (ALDENDU) Desaparecer, irse. | Ardidxe alden du dxate. | Aldendute das.

alderdi, alderdidxe. (ALDERDI) **1.** Parte, porción, lado. | Andik Foruko alderdittik. | Karrue erun beste alderdire. | Euridxe-ta daninde, igul erropak alderdidxetan bustitte, ta ba areri maskala esaten dxako. | Orrasi estue: orrek ortzak sarratu-sarratu eukitte sittusen, alderdi bidxetatik. | Kaidie: olan deuna, alderdire, nibel estaun geusie "Kaidan dxak". | Trontzie agindune da, beres agindune bera, olako sirri-sarran ibiltte dabena bik, bata alderdi batetik, eta besti bestetik. | Da trakulu da burdidxe, da erreilla bi alderdi banatan ibiltte ittu, da arbolie ba eunditxuau nai txikitxuau ganin ipiñi, da beidxek karreteridxe eitten dabe. | Txukul? Bai, esate baterako, alderdi bat e txorixuri errete dxakoniñ-edo: "Txukuldu dxako oneri alderdidxe". | Makille bat artu, sakun sartu artaburuek, da makilla bat e artu da jo sakue, da gero alderdi batetik e ondo daula pentzetan danin buelta emon beste alderdire ta jo ostabe. | Onek e etze korrintiok ur biko tellatuek, alderdi batera bata ta beste alderdire besti. | Etze sarra da. Bai, alderdidxe jeusitte dau. **2.** Aspecto, faceta. | Osasun alderdittik txarto dabil. **3.** Parte (referida a uno de los progenitores). | Ori nire tio da aitten alderdittik.

| *Aitten alderdikue*. **4.** Inclínada la carga a uno de sus lados. | *Ori susenduidxok, se alderdi dxok ori kargi tte!* | *Alderdi jeusi da.* | *Alderdire kargau tzek.* • **alderdire einde.** Inclínada la carga a uno de sus lados.

alderdike. (ALDERDIKA) Ladeado, -a. | *Alderdike albalboka doiñari esate dxako.* | *'Alderdike' da alderdi bet, txoridxeri egu apurtzen bautzesu esaten da: "Alderdike dxoik".* Egu apurtute alde batera. *Da bidxurkadaka doina, batera, da bestera, bixtara doina.*

aldi, aldidxe. (ALDI) **1.** Vez, ocasión. | *Lengo aldidxen berbetan egon giñin.* | *Aldi batera etorri dire.* **2.** Racha temporada. | *Aldidxe euki ittu orrek.* (*Batzutan ona, da beste batzutan jenidxo txarrekue.*) | *Mamoaldidxe: ba aldidxek dekosenari, iguel batzutan ondo ta bestitan mamoaalidxe.* | *Ume aldidxe deko.* • **aldi txarrak artu.** **1.** Marearse. | *Aldi txarrak artzen deu.* **2.** Enfadarse. | *Aldi txarrak artzen deu.* • **munduko aldidxe.** Existencia, vida. | *Munduko aldidxe ein deu.* | *Munduko aldidxe kumplidu deu.*

aldikada, aldikadie. (ALDIKADA) Temporada. | *"Aldikada txarra deko": asarreta dauniñ-edo.*

aldiro. (ALDIRO, aldi oro-bat.) Todas las veces, cada vez. | *Selako min emoteste aldiro pagau biarrak!*

aldis. (ALDIZ) Vez, ocasión. Ik. *bider.* | *Ontzurenge aldis.* | *Lelengo aldis.*

aldre, aldrie. (ALDRA, saldo) Bandada, grupo. Berriemaile baten arabera, pertsonekin *kuadrillie* esaten da gehiago. | *Ori errebañu esan biarren, kuadrilli, kuadrilli esan biarrin, aldri edo aldi etorri da.* | *Aldri askori esate dxako.* | *Ardi aldrie.* | *Aldri itzela etorri dok!* | *Gixon aldrie, sei edo sortzi edo amar badatos: "No, gixon aldrie etorri da".* | *Jente aldri dire.* | *Aldri dabis.* | *Ardi bandie dekonari-tte, igul: "Aldre galanta dxekok are pe!".* | *Ume aldrie.* | *Neska aldrie.*

aldrebes, aldrebesa, aldrabesa. (ALDREBES) **1.** Torpe, desastre, poco hábil; complicado, -a, enrevesado, -a. | *Aldrebesa: ondo, susen eiñ esteuna geusie: "Aldrebes garbidx(e)-as i!".* **2.** Al revés. Ik. *aspidxes ganera, aspikus ganera, errebesa, idulidxetara, okerretara.* | *Seose eitten jun, de aldrebes urten.* | *Estosu ondo jantzi, aldrebes jantzi dosu. Erara ipiñi biosu.* | *Ipiñi ori alrebes!* | *Sapatak aldrebesko ainketan dekosus.* | *"Au da lorrie!": igul soser eitten*

deutzesu biarra aldrebes-ero da "Au da lorriau!" esan, esate san bai.

alegin, alegiñe. (AHALEGIN) Empeño, esfuerzo. | *Alegiñe ein deu baye esin eldu ixen da ordureko.* | *Alegiñe eitteko bidie badau.* | *Su topetako alegiñek eiñ ittu.* | *"Neugandu dxuatek": iguel terrenu bat be, estau osue, seuk artzeko ori dabixue alegiñe, ero pentzamentue, da esin dosu ein, de gero igul ba eittosu te, ba "Neugandu dxuat!".* | *Alegiñek saspi!*

alegindu, alegiten. (AHALEGINDU) Empeñarse, esforzarse, hacer lo posible. Ik. *sayatu.* | *Baya jentie perretxikuten juten geidxau alegiten da.*

alegrantzidxe. (ALEGRANTZIA) Alegría, felicidad. Ik. *poskaridxe, poskortasune, postasune.* | *Alegrantzidxe deko.*

alegre, alegrie. (ALEGRE) Alegre. | *Apurtxut e sertute egon san, da beren buru botako ban arek.* *Estaki ser ei ban arek. Ondo gixon ona ixen san a, ondo alegrie-ta, baya a ju san.*

alegridxe. (ALEGRIA) Alegría. Ik. *poskaridxe, poskortasune, postasune.* | *Orrek dxekok alegridxe!*

aleman, alemana. (ALEMAN) Alemán, -ana. • **aleman sagarra.** Variedad de manzana. | *Da gero aleman sagarra. A berdi sa les, beranduku sa les, fuertie, da antxe sasoyen alemanak fuerte-fuerte.* | *Aleman sagarra? Estakitt andik etorriñeko asidxe dan ala segaittik esate dxakon.* *Geuriñ estot pentzetan aleman sagarri daunik.* | *(Aleman sagarrak) dires naiku..., ba ser esangot neuk?, es gorridxek eta e..., naiku suridxe dire alemanak. Gustue..., bueno, esteke garratza be, da se esangot neuk? Gordiñik jateko moduku dire.* | *Aleman sagarra? Sagarra ba ederra ixeten da, bestin modukue, da jateko esta txarra ixeten. Bai, apur bet beranduku da, bai, esta goixetiku-edo.*

alerta. (ALERTA) Atento. | *Bueno, i, alerta ego adi, automobilien satie entzuteko!*

alfafa, alfafie. (ALPAPA, luzerna) Alfalfa (*Medigaco sativa*). | *Oin sekule bedarra esta lengo modun e..., eraiñ arren e ya urte bidxen ya galdute. Da len lau-bost urtin baten ereinde. Da ori be alfafi be bardin-bardin. Emen alfafik estau emoten. Alfafi galdu eitten da.*

alkagutero, alkaguterue. Alcahuete, persona chismosa. | *Alkaguteru da apur bet pregonerue, au te ori tte besti, alkaguterue.*

alkantzau. (ALKANTZAU, alkantzatu-bat.)
Hacerse con, conseguir, apropiarse de, adueñarse de. Ik. *lograu, neugandu.*

alkantzu, alkantzue. (ALKANTZU) 1.
Capacidad y fuerza para el trabajo. | *Lagun bi, gixon bi paretá sirin, gixonesko bi ba alkantzu dekenak.* | (*Garidxe makiñan*) *Jote benak pa gastik, alkantzu dekenak, jeneral gixoneskuek.* 2.
Zancada. Animaliekin nahiz lagunekin erabiltzen da. | *Alkantzue: animalidxe, nai lagunak, ba alkantzue, ba ariñau eitteko. "Alkantzu badxekok, beste txikidxen aldin eundidxe dok-eta!", alkantzue. Lodidxe es! Lodidxeri etxako esaten alkantzu. Alkantzue da altue, pasue... Onek animalidxe pe, kaballuk, eta onek pe, bai: "Alkantzu, aren alkantzue!".* | *Anka aundidxe, eta altu-te ori bada: "Alkantzu dxekok!".* | *Alkantzu eundidxe deko.* | *Orrek deko alkantzue!*
| *Alkantzu galanta deko orrek!*

alkar. (ALKAR, elkar-bat.) Mutuamente, entre sí.
| *Alkarren urran.* | *Alkar ikusi esiñe.* | *Alkar topau dabe.* | *Moltzun dxesak, alkar jotén.* | *Orrek denpora askotan dxabixek alkarras ta laster eskonduko sak.* | *Bidxe alkarras juen eskero.* | *Alkarren antza deke.* | *Alkarren antzekuk dire.* | *Etze bi alkarren ondun badaus, karrajuen aixe otza.* | *Katiak alkarreri inkeu.* | *Alkarregas berbetan egon dire.* | *Alkarren segidxen daus.* • **alkar artu.** Entenderse, ponerse de acuerdo, llevarse bien; aliarse, hacer causa común. Ik. *konpondu, moldatu.* | *Alkar artu: bata eta bestik-eta ondo konpondu, da alkar artu, da geuse bat sertu, bidxen arte.* | *Alkar artunde ein gendun.* | *Alkar ondo artzen dabe.* | *Alkarreri kolpe tze.* | *Banan ibiltten dire, estire alkarregas ibiltten.* • **alkar jo.** Pegar uno contra otro, estar juntos. | *Arku suluk alkar jota dxekosak!* | *Moltzun dxesak, alkar jotén.* | *Da adarrak susen olanik beren estilun barik, olanik idxe alkar jotén les eukitte ittue oker-oker, da aixeri esate dxako txordue, adar txordue.* • **alkar poderoso.** Firma de un documento por ambos cónyuges, en el que se especifica que, una vez muerto uno de ellos, el otro podrá disponer de todos los bienes. Ik. *poderoso.* | *Alkar poderoso einde daus.* | *Alkar poderoso ein dabe, notaridxera junde.* | *Alkar poderoso ein dabe andra-gixonak.* • **alkarras ibilli.** Salir juntos, ser novios. • **alkar utz ein.** No coincidir, no encontrarse. | *Bata bide batetik jun bada, ta bestie*

bestetik jun bada, alkar topetako: "Alkar utz ein dabe arek". | *Bueno, alkar utz eittie esta geusa gatxa. Bata bide sidorretik jun bada, ta besti bide normaletik jun bada, arek utz ein dabe alkar.*

alkarregandu, alkarregantzen.
(ALKARREGANDU, elkarganatu-bat.)
Juntar(se), reunir(se). | *Esaten dabe Arrolako mendidxen sorgiñek danak alkarregantzen sirela.*
alkartu. (ALKARTU, elkartu-bat.) Unir(se), juntar(se), reunir(se). | *Nun ixen da alkartu diña?*

alkate, alkatie. (ALKATE, auzapez) Alcalde. | *Alkatie, da konsejalak.* | *Alkatik agintzen deu goiko plasan eitteko, geurtik aurrera.* | *Alkatiek eta orrek leku apartekue euken eleixan.* | *Alkaterako presentau da Jon.*

alkategei, alkategeidxe. (ALKATEGAI)
Candidato a la Alcaldía.

alkatesa, alkatesie. (ALKATESA) Alcaldesa. | *Alkatesie dxak an agintzen.*

alkatetza, alkatetzie. (ALKATETZA, auzapezgo) Alcaldía. | *Alkatetzarako presentau da Jon.*

alkatxofa, alkatxofie. (ALKATXOFA, orburu)
Alcachofa, alcaucil (*Cynara scolymus*). | *Alkatxofie ta esparraguk edo orrek e geurin be oiñ ipintte daus, baya nik estot inos esautu.*

alkileu. Alquiler. | *Pedrok Anien alkileu deu berentzat kuartue.*

alkolixeu. (ALKOHOLIZAU, alkoholizatu-bat.)
Alcoholizarse, hacerse alcohólico.

alkondara, alkondarie. (ALKANDORA)
Camisa. Emakumeena, *mariñerie* izaten zen, baina orain *alkandorie* ere jazten dute. *Arkondarie* ere esaten da. | *Eitten deuen otzas alkondara utzin dao.* • **alkondara eskuturre.** Manga de la camisa.

alla, allie. (ALLA, txortén) Pedúncula, la rama que sostiene el fruto. | *Da bestie makatza da, txikitxue, alla lusias.*

allegau, allegaten, allegetan. (AILEGAU, ailegatu-bat.) 1. Llegar. Ik. *eldu.* | *Geldiro-geldiro allegau giñen Durangora.* | *Ondo kostata allegau nas.* 2. Alcanzar, conseguir. | *Esta allegetan, eskas dau.*

allemo, allemue. (ALIMO, animo-bat.) Ánimo. Ik. *animo.* | *"Allemorik esteko!": allemue. Gripi pasau, te basaus, esta, etzien, da "Julian ser?", da "Esteko ondiño allemorik".* | *Jaubetu: diarres daunari entzun, edo "Ser gurosu?" edo "Ser*

biosu?" ba pregunti ein, gure dabena, edo laguntzi gure badau. Esate baterako, emen ausuen-da, bei bat edo beintxa bat lelengo txala eitten daunien, la lelengo txala ain erresa estabe eitten, da igul ba noberak e allemorik es, norbera bakarrik atrebiduten estanien, ya eusue batzen da, da diar, diarrari ba entzun eitte dxako. Jaubetutie orixe da. | Allemue? Soser aitteko allemu badekesu, biar ori eitteko-edo esaten da allemue.

allurbie, allorbie. (AILORBE) Alholva, planta leguminosa de hojas vellosas y con semillas amarillentas de olor desagradable (*Trigonella foenumgraecum*). | Allurbie da bedarra, ganadue areas loditxu, da il ganadue mataderuen da a okelie jatekorik, buh, santarra. | Ño, orrek e, allurbiek e garagar asko ekarri dxok. | Orrek allurbiok gorau asten dire. | Allurbie bedarra da, ganaduri emote dxakona. Ori jeneralien ba ereitten da udebarrire, da olanik. | Allorbiri nastete dxako ori txiderra.

Allusti. (AULESTI) Aulesti. | Oiñ Allustin dau, Allustiko kalin dau.

allustiar, allustiarra. (AULESTIAR) Natural de Aulesti.

almuda, almudie. (ALMUEDA) Almohada. *Burrukue* hitza bazterten ari da eta gazte askok ezagutu ere ez dute egiten. | *Esin lorik eiñ ixen dot almuda barik*. | *Almudi, seuk lo eittosuna*. • **almuda asala.** Funda de la almohada.

1 alper, alperra. (ALPER) Rodillo, apisonadora, instrumento de labranza para deshacer los terrones del campo. *Alper arridxe* ere esaten da. Bideetan honen antzeko beste bat erabiltzen da galipota zapaltzeko: *txilindrue*. | *Alper arridxe ixeten da, arri lusenkie, biribil-biribille dana, len solun asko ibiltte gendun sokillek apurtzeko: arri alperra*. | *Alper arridxe, ori bueltaka juten dana, soluen, oiñ esta ibiltten, baya egon badaus oin be*. | *Sokil eundidxe alperrak apurtzen dau, baya eutze sestuek*. | *Sokiltzie: soluen sokil asko egotie, solue gosatu barik eotie, alperras, arri alperras*. Oiñ arri alperri pe esta ibiltten, solori pe gitxi dabil, da solue pasetako, arri alperra ibiltte san len sokillek apurtzeko. Da oin ba arri alperri pe esta ibiltten, sokillek apurtzeko be, da ba arias-da, bostortzas-da eitten da biarra.

2 alper, alperra. (ALFER) Holgazán, haragán. Ik. *nagidxe, suridxe*. Ant. *biergiñe*. | *Alper aundidxe!* | *Alper txarridxe!* | *Alper santarriori!* | *Alperra bada, suridxe esate dxako, "Ori apur bet suritxu da" esate dxako alperra danin*. |

Alperra ixen espalitz, euki ittusen txansakin, dirue irabasiko ban. | *Andra koittaderi gixon alperra suertau dxako*. | *Da ak e biarrik e es eban berak eitten, golperi pe. Arexek ardidxek saindu te...* *Alper itzela san, bueno! Pastoriek jeneralin dire alperrak, golperi pes*. | *Alperra eittie etxako komeni laguneri*. • **alperrik.** Inútilmente, en vano. Ik. *bijutze (bije utze)*. | *Orrek orantxueu eidekuek dire, oiñ alperrik daus baya*. | *Orreri astu eitte dxakos, da alperrik da*. | *Alperrik ein deu*. • **alperrik galdu.** Echar a perder. Ik. *urdindu, arenak ein*. | *Kipulak alperrik galtzen dire sildute*. | *Da a ogidxe esta alperrik galtzen urte gustidxen be*. Esta es *lixundu, es alperrik galtzen*. | *Serenak jan dabe, alperrik galdute dau*. | *Mermeladie alperrik galdu esteidxen luseruau e euki biar ixaten da irakitten, baya ori (madari saltzie) be ba segidxen jateko ta ba, ondo eoten da*. | *Ondasunek alperrik galdu ittu*. • **alperrikue.** Inútil, vano, infructuoso. | *Ori pentzamentue alperriku dok*.

alperkeri, alperkeridxe. (ALFERKERIA) Vagancia, holgazanería. | *Alperkeridxe? Bierrik es eittie, da bierrari eskapeti*.

alperrontzi, alperrontzidxe. (ALFERRONTZI) Muy vago, -a. Umeei esaten zaie. | *"Alperrontzidxori!" : Beti enbasun-ero dabillenaritte, alperrontzixe, ba ori da destiña bat eitti les*. *Ostantzin, alperra*.

alpertasun, alpertasune. (ALFERTASUN) Vagancia, holgazanería. | *Itxittasune: ori da bierra euki eitteko, da eiñ es, alpertasunegaittik*.

alpertu. (ALFERTU) Hacerse vago.

alta, altie. (ALTA) Celo (época de apetito sexual entre los animales). • **altan egon.** Estar en celo. Ik. *agertu, argittu, suseratu, umeske*. | *Biorra altan dau*. | *Altan dau txarridxe*.

altara, altarie. (ALTARA, aldare-bat.) Altar, ara. | *Gorpusti egune: jaidxegune eitten da, eitten da..., ser esangot neuk?, oiñ estakitt eingo bada, se oiñ abade eskasa-ta daue les olanik e...* *Len jaste sirien altara bat edo bi or-emenka ta eitte sirien e..., jente, ba jenti jute san domeketan lantxik elixara, da jute sirien ba altarak jantzitte dasen lekure, baya oiñ aspaldidxon be-esta jasten altararik*. • **altarakue.** Tres campanadas que se tocan para llamar a misa, instantes antes de comenzar ésta. | *Len jote san, oin ba abade gitxitte dau te, oin ba kanta asko estabe joten, baya len jote san, ariñau sei kanpak. Sei kanpa esate*

dxakon. Gero mesie, sartu bi dabenin, jote sirin - oin be joten dire- iru kanpak, altarakuk esate dxake orreri. | Altarakue jo deu.

altu, altue. (ALTU, garai, gora) Alto, -a. Pertsona bati buruz, sarritan, *eundidxe* esaten da. | *Piñue altue da.* | *Sollube altu dau.* | *Ño, altu dok ori!* | *Altu esta.* | *Berba dtu eitten deu.* | *Erreki beterik doye, altu doix urek.* | *Kurtzeane? An kurtzeru dause les, kurtzi... gane. Goidxen dau les, gane, gane esate dxako altu daunari. Da a Kortasubin be Ganeko, areri... taberni badau an e..., areri Ganeku esate tze, altu daulako.* | *Jo arku altzaute, arku altu dxok orrek.* | *Ori piper bedarra da altu-altutxue ta batzuk klase bat e deko, sustreidxe gorri-gorridxe.* • **altu-bajuk.** Altibajos. Ik. *sakonunie.* | *Amen altu-bajuk daus.* | *Lur tontorra: ori da ba altu-bajuek dausen lekuen, ba leku batzutan badau erripie, edo lurre... se esangot neuk?, erripie daun les, ba lurre dau altuau, da ba tontorra be eitten dabe.* | *Amen altu-bajuk dekos, esate baterako, eta au sepillete su te ordun esaten dabe batzuk, leu esaten dabe, iguel "Txanplaniñ ipiñi" esate san len.* | *Pendixe da, leku txarra da ori, leku txar bat, biar eitteko leku txarra da pendixe. Biar eitteko baso bat-edo txarra dauna, pendixe. Peligrosue. Goitti beran, edo leku altu-bajuek edo arri bittartiek edo miñ eitteko moduko leku dauselako.* • **altuena.** A lo sumo, cuando más, cuando mucho. | *Negu bedarra esate dxakona ba oiñ erain be esta eitten, baya korte asko estaitt emoten badxake be. Korte bi-edo, bi edo iru altuena emote dxakos.*

alture, alturie. (ALTURA, altuera, garaiera) Altura. | *Orrek deko alturie!* | *Ño, ori dok alturie!* | *Txikidxeri be igul esate tze "Etxekok alture aundiri paya altu beste sabal dok".* | *Orain arbola aspidxen, piñadidxetan-da, sasidxe idie ta onan alturan dau.* | *Osea, alture bat, bidetik alture bat, esate dxako bide ganie.* | *Ure alturetik jeusten da.* | *Sestu pa egurre deko da aresku be olantxik ixeten da bateti bestera, olanik alturetxuas beste alderdire eukitten deu, da atzetik, ganadun atzetik ibiltten danak arixeri, areskuri kolpeta segitte tze ariri, nai sesturi.*

altutasun, altutasune. (ALTUTASUN, goratasun) Altura.

altuune, altuunie, alturunie. (ALTUUNE) Alto, altura, promontorio. Ik. *tontorra.* | *Alturunak eta sakonunak.*

altz, altza. (HALTZ) Aliso (*Alnus glutinosa*). Ik. *sapatari egurre.* | *Altza da arbola bat, beres*

etorten dana jeneralin, da egur fiñeku be esta ixeten, estau balidxo ixeten..., olan konstrusiñoik edo olan eitteko estau balidxo ixeten. Su eitteko jeneral ixeten da. | *Altza emen berton ingerun esta egongo, baya altza ba arbola bat olan e balidxo baku edo... ser esangot neuk? Altza. Da sulo eitteko-ta, olaku batzuk sapatari egurre esate tze, beste batzuk altza esate tze, da estau olanik olak atarateko-ta esteutze emoten estimasiñorik.* | *Sapatari egurreri esate dxako altza. Altza da egur bat dana flojo, da esate dxako altzari sapatari egurre.*

altzagarri, altzagarridxe. (ALTZAGARRI, altzagarri-bat.) Objeto que se introduce bajo otro para que tome mayor altura. Ik. *aspigarridxe, kaltzue.* | *Altzagarridxe da seinde gausa bateri aspittik sartuteko gorau étteko. Kaltzu da topin eukitte ittuna. Da besti da apurtxu bet gorau altzetako sartze tzena siri modun aspidxen: aspigarridxe.* | *Altzagarridxe: au ona gorau ipiñi bier bada, emen aspin sartu seoser: "Altzagarridxe ipin tzok".* | *Kaltzu diferenti da, kaltzu da atzerantz, da eurrerantz jun esteidxen. Baya altzagarridxe da nibel erripin bada, oneri sartu eitzesu apurtxu bet, amen begittu: "Ipiñi dok altzagarridxe? Au emendikue altzau ein bi dxakok-eta".* Altzagarridxe gora eitteku da. | *Altzagarridxe: kotxik, ão nai gausie altzetako, altzagarridxe, ba, edo egur bat, edo arri bat, edo seoser, altzagarridxe.*

altzaldi, altzaldidxe. (ALTZALDI, altzaldi-bat.) Alzada. | *Len arri altzetan ibilte siñin: "Onenbeste altzaldi ein dxusak".*

altzau, altzeu, altzetan, altzaten. (ALTZAU, altxatu-bat.) 1. Levantar(se), incorporar(se). Ik. *jagi.* | *Altzau saittes ortik!* | *Altzateko sasoye da.* | *Altza barik bertan egon da.* 2. Alzar(se), elevar(se). | *Len arri altzetan ibilte siñin: "Onenbeste altzaldi ein dxusak".* | *Presidxue altzau.* | *Etzie altzau.* | *Altzau lepora!* | *San Migel erreminntie jeusitte dau. Antza, altzau ein bi dabe.* | *Gorpu altzetan dois.* | *Kanpasantu sarra esate tzen, a len dotreiñi antxe ikesten gendun gero ba, da dotreiñi ikesteko leku ei ben an, da altzeu ei ben dana, ta ango asurrek eta danak atara sittuen.* | *Eunteidxe? Ori selaku ixete dan esango tzut. Ori Nabarrixen egon san ba. Oiñ estau baya beidxe, perretako beidxe sartze san atzeko partetik. Gero lotu eitte san. Ankak altzeta dxakosan da perrau eitte san, perrakin.* | *Garantzeko, lelengo ekarri, da kamarara,*

goiburura altzeta sirin. Da goiburun siketu, da gero garandu eitte sirin. | Jo arku altzau, arku altu dxok orrek! **3.** Guardar, recoger. | Maidxe altzau! | Da koipie ixaten da, dana koipie. Da dana txikittute ba urtu, da ontzi baten altzeu. | Etzaldie ixeten da geusa asko, se "Etzaldie altzau bi ot", enbrak-eta esaten dabena, iguel eskatza, itxi jateko platerak-ero, sikiñek-ero, deusen modun-de, bape altzau barik, eta "Etzaldie altzau bi ot apur bet". **4.** Construir. | Auxe etzi altzau sanien ipiñiñeku ei da. | Etzi altzau: ya ormak-eta eittie. **5.** Fermentar (el pan). Gehienbat jagi esaten da. | Txantxadori da ogidxe eitteku. Txantxadori da orí, ori altzetakue, txantxadorie. | Ludoye garidxen geixu ixete san ori. Ogidxe altzau etzan eitten.

altzaukera, altzaukerie. (ALTZAUKERA, altzakera-bat.) Despertar, humor al levantarse de la cama. | Lo ostie? Ba siestatik altzeu te iguel grrre-gragh!, "Lo osti dxeket"-ta. Loguretik kendu esin deuna. Lotatik altzau, da ba altzaukera txarra igul eukitten deu, ba "Lo osti dxekok orrek". • **altzeukeran.** Al levantarse. | Ño, bidzar nik altzakeran agoko santarra eukiko dxuat.

altzaune, altzaunie. (ALTZAUNE, altxaune-bat.) Bache, resalto, desigualdad del suelo. | Emen trangu esate dxako ba arridxe, da arri trangu, edo bidiñ altzaunie edo bajounie, arixeri esate dxako trangu. | Arri bat atrapeten badeu, bidien, lixu jun biarrin, ba a arridxen altzaunie.

altzo, altzue. (ALTZO, magal) Regazo, seno que forma la persona al sentarse. | Altzuen artu.

altzokada, altzokadie. (ALTZOKADA) Haldada, lo que cabe en el regazo o enfaldo de la saya. | Altzokada patatie. | Altzokada sagarra.

ama. (AMA) Madre, mujer que ha parido. Ez du mugatzailerik onartzen, lagunei dagokienean. | Gure ama sana. | Nire amak es eban jakin berbari pe ganoras erdera, aitte pai, baya amak es. | Nire ama Belendiskue san. | Ama solterie da ori. • **ama, amie.** Madre (referido a los animales). Animalien kasuan mugatzailea onartzen du. Lagunekin, berriz, ez du mugatzailerik onartzen. | Makerie txarri amiri esate dxako. Kunak eitte ittun txarrixeri, makerie. • **ama bakue.** Huérfano, -a de madre. •

ama birjiñie. Virgen María. | Begoñako Ama Birjiñie. | Erregutu tzet Ama Birjiñiri.

amabi. (HAMABI) Doce. | Amabi apostoluek siren Jesusek maite sittuenak. | Amabidxetan joten dittue kanpaidxak ta angelus ta pater nosterra erresetan san. | Bueno, mutillak, amabidxek joten dosak ta pater nosterra erresau bidxou. | Ba gabeko amabidxe diriñin ba gaberdidxe da.

amabitxi. (AMABITXI) Madrina. | Nire amabitxi Munitibarkue san.

amabost, amabosta. (HAMABOST) **1.** Quince. | Bueno, mutil kaskondue ba, umetako denporie ya juti dxakoniñ edo, eskolara abidxetan daniñ-edo, ta or dosena bat edo amalau-amabost urte eukitte ittun artin, mutil kaskondue. | Eurre, emen berton ba, amar-amabost sentimetro ein deu, asko es, baya kotxik laban eitteko beste. **2.** Quincena. | Amabosta bayo ariñau. | Amabosta? Aste bi. | Senbat? Denporatxu, amabosta-edo, ogei egun-edo. | Marti sosu entzu su kantetan? Estosu entzu e! Marti sosu sati entzu ot nik ointxe amabost-edo. | Kinsenie: ori jornala kobrau, amabostari baten, kinsenie.

amadrongille, amadrongillie. Albóndiga. Azken bolada honetan amondigie ere entzuten hasi da. | Areri, okelias eitten din bolatxueri, amadrongillie esate dxake. Oingo umik estakit padakidxen sertzuk diriñ amadrongillak, se esta esan be eitten oin, kontixu.

amagiñarreba. (AMAGINARREBA) Suegra. | Da gixonen aitte, ta ama niretzako sirien aittegiñarreba, da amagiñarreba. Neure aitte, ta ama be neure gixonentzako: aittegiñarreba, da amagiñarreba.

amai, amaidxe. (AMAI, bukaera) Fin, final, término. • **amai bakue.** Interminable, sin fin.

amaidxera, amaidxerie. (AMAIERA, bukaera) Fin, final, término. | Itxosoko urek esteko amaidxerarik.

amaika. (HAMAICA) Once. | Amaika olako ein genduen. | Ba edoseiñ ordu ixaten da goix erdidxe. Ixen lei amarretan, da ixen lei bederatzidxetan, da ixen lei amaiketan be.

amaiketako, amaiketakue. (HAMAIKETAKO) Almuerzo que se hace entre el desayuno (armosue) y la comida (baskaridxe). Ik. kopaue. | Amaiketakuen, sartanekue, pernille edo edoser, edo txorixue edo intxeurrak, gastaye edo menbrillue. | "Kopau jan": beidxenda apur bat-edo jaten daniñ-edo, amaiketako apur bet-edo: kopau jan.

amairu. (HAMAHIRU) Trece. | *Amairu, suerte txarreko numerue.*

amaittu, amaitzen. (AMAITU, bukatu) Acabar, terminar. | *Geurko biarra amaittu dogu.* | *Esan ixen gause erresa etzie amaittie.* | *Piesa gustidxe amaittu dotas.* | *Bedarra amaittute dau.* | *Amaitzen dau.*

amalau. (HAMALAU) Catorce. | *Bueno, mutil kaskondue ba, umetako denporie ya juti dxakoniñ edo, eskolara abidxetan daniñ-edo, ta or dosena bat edo amalau-amabost urte eukitte ittun artin, mutil kaskondue.*

amantal, amantala. (AMANTAL) Delantal. | *Amantal suridxe.* | *Amantala ixengo da, se beittu, lelengo goni erute ben, esta? Gona rosie.* | *Eta gero ganetik gona baltza, edo amantala baltza.* | *Amantala, lusie gonin bestekue.* | *Arpillerie saku da, sakue, amantal..., sakusko amantal bat: arpillerie.* | *Oiñ ibili be esta eitten ori be.* | *Arenadurak-eta eitte gendusenin len e, ba jantzi axe ta, axe amantal sakusku jantzitte ibiltte san arenetan, goidxe-eta arenetan diriñin-de.* | *Oiñ es goirik eta es berik.* | *Marrasa esate dxako, esate baterako, bier asko daunien-edo eurrien ipintten dan sakusko amantalari, sakusko amantalari.* | *Amantalak e kosiñarako.* | *Oiñ etxok iñok useuko baya onek aintxiñeko usedidxuku pai.* | *Aman amantal ondotxutik ondo urten barik eruen gendusen.* • **marrasako amantala.** Delantal de tela basta. | *Bai, da eurriñ amantal sakusku be ibiltten da, neuk ibilli dot len, ondiño estakit eta estot ibiltten baya sakusku ta, noberak ibiltten daben amantalari be esate dxako marrasako amantala.*

amaorde, amaordie. (AMAORDE, amatzako) Madrastra.

amar, amarra. (HAMAR) Díez. | *Amar metro eskerrera.* | *Amarretan urten deu Gernikerantz.* | *Sorrue pixau, da euneko amarra kentze dxakon: mendie.*

amarreko, amarrekue. (HAMARREKO) Porción de terreno público que correspondía a cada casa de cada barrio. Auzo bakoitzean hamar etxe inguru izaten ziren eta bakoitzari txatal bat, hamarreko bat, ematen zitzaion. | *Gorritxun amarrekue.* | *Bakixu, bedarra ebate san ba len, amarrekutan.* | *Oin piñu sartute das arek eta.* | *Da Gorritxun ternun dau, da an urteten ban arri bittartien ure.*

amarren, amarrena. (HAMARREN, detxema, dekuma) Diezmo. | *Nik estot esautu amarrenak*

emoten, baya aintxiñe elixiri amarrenak emon bi ixate dxakosen. | *Amarretik bat emotie elixiri ixate ei xan.*

amarretako, amarretakue. (HAMARRETAKO)

Almuerzo que se toma a las 10 de la mañana. | *Amarretakue ein dogu oillo saldies eta arrautz frijidu bateas.*

amasa, amasie. (AMASA) Masa. Sin. orie. | *Bueno, amasie ta ori bat tire.* | *Amasie ure botata eitte san, da ori be axe da.* | *Emen orie geidxau esate san.* | *Bai, talue arrotu eitten da, talue jo-ta eitten da, amasie ondo eiñ eskerun da beren tantun egon eskeruen taluri, ba erreten dauniñ olanik asala gogor urtete dxako.* | *Koliñetie? Ori amasie, sertzen dana.* | *Amasa bat. Koliñeti.*

amasau. (AMASAU, amasatu-bat.) Amasar. | *Ogidxe an eitte san amasau.*

amasei (HAMASEI) Dieciseis.

amaseiko, amaseikue. (HAMASEIKO) Onza de oro. • **amaseiko gorridxe.** Onza de oro. | *Amaseiko gorridxe: len orrek asko usete siren.* | *Orrek amerikanuk, gu gaste giñenin: "Amaseiko gorri pillokek ekarri dxosak!"* | *Oin ba akabau siren orrek.* | *Amaseiko gorridxe? Diru gorridxe.* | *Diru gorridxe? Ba neu pe asko estakit ser dan, se neuk estot ikusi ganoras-da.* | *Ba ser dala esangot? Amaseiku da...* | *Len ibiltte ei xiriñ amaseikuok, baya oiñ amaseikorik estou usau, nik estot esautu.*

amasulo, amasulue. (AMAZULO) Niño muy apegado a la madre. | *Su amasulo bat sara.*

amatar, amatarra. (AMATAR) Parecido, -a a la madre. | *Amatarra da.*

amatasun, amatasune. (AMATASUN) Maternidad; condición de madre. | *Ederra da amatasune.* | *Artu daben unik amatzat artzen badeu, amatasune emote tzo.*

amatau, amatetan. (AMATAU, amatatu-bat., itzali, iraungi) Apagar. | *Argidxe amatau.* | *Amataute deula bistu ein ddok atzera..* | *Urekin amatau gendun sue.* | *Sue gardastias amatau du.* | *Mendidxe su artzen dabenin, jentie batu, te gardosti ein, de jo, ta jo ein, de amatau.*

amen. (HAMEN, hemen-bat.) Aquí. Ik. *emen.* | *Amen sier.* | *Amendik.* | *Amentxe berton.* | *Amen berton beste koba bat badau, orra jente gitxi juten da baya.* | *Amen dekosus suk gure ixen dosusenak.* | *Amen Nabarrixen estau idirik iñun bes.* | *Amen estau nobedaderik.* | *Amendixek bistan dau ba!* | *Neu iñois junda nau Natxitture amendixik.*

amerika. (AMERIKA) América. • **amerika ein.** Enriquecer(se). | *Errittik urten barik eiñ eban Amerika, berton.*

amerikano, amerikanue. (AMERIKANO) Se dice de los han vivido un cierto tiempo en América y por extensión de la gente que se ha enriquecido (aunque no haya ido a América). Ik. *indidxanue.* | *Oiñ amerikano esaten dxake, naitte bertoko semiek ixen.* | *Amaseiko gorridxe: len orrek asko usete siren. Orrek amerikanuk, gu gaste giñenin: "Amaseiko gorri pillokuek ekarri dxosak!" Oin ba akabau siren orrek.*

ameriketa. (AMERIKETA) **1.** América. | *Bueno, il ementxe il siriñ arek, baya semi be ill ein dxaken areri, da gero alaba bat e Ameriketara-edo jun dxaken eskondute.* | *Len or jenti bixi ixan san, da gero gixona Ameriketara jun san, da oiñ etorritte daula pentzetot.* | *Ameriketan dirualdidxe ein deu.* **2.** Fuente de riqueza, chollo. | *Negosidxo ona dekona: "Orrek dxok Ameriketa or, Ameriketa!"* | *Ameriketa, or atarate dxok diruten, Ameriketa!*

ames. (AMES, amets-bat.) **1.** Sueño (lo que se sueña). | *Ames bat euki dot.* **2.** Quimera, sueño, fantasía. | *Ara juteko amesi pes!* • **amesetakue.** Soñado, imaginado. | *Leku atan dana san amesetakue.* • **amestan.** En sueños. | *Gau gustidxetan, lotara noyenetik eta jagi arte, amestan pasaten dot.* | *Beti amestan dxabik.* • **ames ein.** Soñar. | *San Mames bart ein dot ames, geur eitten espot, bidxon partes, da eitten bot, beidxo artes!* • **amestan ein.** Soñar. | *Amestan ein dot.*

amestzaille, amestzaille. (AMESTZAILLE, ameslari) Soñador, -a. | *Bixitze gustidxen ixen san amestzaille bat.*

ametidu. (AMETIDU, ametitu-bat.) Admitir. | *Kuadrillan: "Ori ametidute dau, etorri!"*

amorrana, amorrane. Almorraña, hemorroide. | *Amorranak eperdidxen urteten dabenak ixeten dire.*

amorro, amorrue, amurrue. (AMORRU) Rabia, indignación, ira. Ik. *arrabidxue.* *Amorros beterik nahiz amurrus beterik* esaten da. | *Amorrue emote tzon.*

1 amorrotu, amurrutu, amorrotzen. (AMORROTU, amorratu-bat.) Enrabiar. | *Ori txakurre amorrotute dao.* | *Ori beti dao amorrutute.* | *Amurrutute dau.* | *Amurrutues dabil.*

2 amorrotu, amorrotue, amurrutue. (AMORROTU, amorratu-bat.) Rabioso, -a, furioso, -a, feroz. | *Txakur amorrotue.* | *Txakur amurrutuk ainka ein tzo.* | *Amorrotue: bat saletu danin gausa bateas.*

amu, amue. (AMU) **1.** Anzuelo. | *Arrantzan ibiltten dana amue da.* **2.** Copo de lana. | *Amu da ipintten dana goruen. Goru ipintte san, jeneral paparrin ipintte san, jeneral paparrin ibiltte ben, olan paparrin, da amuri esku batas kolpe, da bestias tiretu, da bueltaka-bueltaka, ardatza bueltaka-bueltaka-bueltaka dala, aridxe itte san.*

amuko, amukue. (AMUKO) Pelota de estopa que se coloca en el extremo de la rueca. | *Amukue: amue eitten dana, aridxe eitten da. Eitten da ardi lanias. Arek bier eundidxe eukitten deu. Lani garbittu eitten da, da gero siketzen danin, gardau eitten da. Gardak egote sirin len. Gardak ixeten dire: orstxuk eukitte ittue, ba ser esangot neuk?, burdiñeskuk-edo, untzi lakuk, me-meyek. Ibiltten da, garbittu, te ba siketu eitten danien, lantzin sati bet ipintten da gardan. Gardak bi ixeten dire, bata goikue, da besti bekue, euren kirtenakin. Ipintten da, da ipiñi olanik, eta gardau eitten dire. Da gero gardautakuen eitten da amukue. Goruen ipiñi, da lotu eitten da, da gero aridxe eitten da. Aridxe, ta sera, ardatza esate dxako beyen eukitten danari, olanik a be, ser esangot neuk?, a be burdiñesku, edo olaku ixeten da. Areri ardatzari erain eitte dxako, tiretu aridxeri, amun daunari, da erain, de aridxe eitten da.*

amuma. (AMUMA, amama-bat., amona) Abuela. | *Gure aittas lengusu karnala ixen san Seberina, da ba sure amumas be ixengo san.*

amumatu. (AMUMATU, amondu) Convertir(se) en abuela. Ik. *aittitetu.* | *Amuma lelengo eitten danien, lelengo umie eitten danien "I be amumatu as oin!"* | *Amumatu as i be!*

an. (HAN) **1.** Allí. | *Tresenak an dxesak.* | *Andik ordu betera.* | *Andiko basterrak.* | *Ni egon nas emen ta su egon sara an.* | *Antxe euki dxok destinue ta il dok.* | *Bustarku an!* **2.** Aquel, -lla, -llo. Izen bati lagun eginik, erakuslearen balioa hartzen du. | *Da onek ortxe goidxen, onek tximinidxek ortxe goidxen, ortxe, ortik agetik eta ona agera burdiña bat teko, da a latza antxe burdiñari egoten da dingiliske.* | *Potxike: potxitxu bat ein, da antxe potxidxen sartu kañekie.* • **andik. 1.** Desde allí. **2.** Desde entonces, al cabo de. | *Andik egun batzutara.* | *Andik gitxire.* | *Da*

gero andik denpora asko barik il san gure aitte. **3.** Por aquel, aquella (...). | *Andik bidetik, esate baterako, oiñ esta iñor ibiltten.* • **andixe.** Desde allí mismo. | *Geurin be seme sarrenak e, ondiño lau urte-edo dekosela tellato ganera orma sarretik igon, da andixe bera jeusitte esku apurtu ban, da Gernikera, neuk erun be eiñ ñaben-da.* • **andixik, anditxik.** Desde allí mismo. | *Patiñe: ure atarateko sulo bat, ures beteten da beres, da ba andixik ure artu.* | *Mankala: egote san anditxik onaxekue, bankue, da su ederra eitte sanin, de negun-de, otz daunin-de, umik estimau ibiltte ben banku ori, alkarreri saka-saka einde: mankala.* | *Da emen mankala be egon san, andixik onaxe.*

anaidxarrebak. (ANAIA-ARREBAK)
Hermanos (hermanos y hermanas).

anaidxe, anaidxie. (ANAIA) Hermano de varón.
| *Anaidxe nausidxe.* | *Anaidxe sarra.* | *Gixon gustidxe anaidxak gara.* | *Anaidxe bidxe doyes.* | *Anaidxe batetik bestera deken diferensidxe esin leike esan.*

anaidxerdi, anaidxerdixe. (ANAIEDI)
Hermano de un sólo vínculo.

anaidxorde, anaidxordie. (ANAIORDE)
Hermano de adopción. *Anaidxordie nahiz anaidxordekue esaten da.* | *Anaidxordik dire.*

anaidxordeko, anaidxordekue. (ANAIORDEKO) Hermano de adopción.

Anboto. (ANBOTO) Anboto. | *Len, serin, Anboto mendixen daule esate ben.* • **Anbotoko Señorie.** La Dama de Anboto. | *Baserritar asko egosen Anbotoko Señorie esetu ebenak.*

anda, andie. (ANDA) Andas. Gaur egun atautie berba hasi zaio gailentzen: *len esate dxakon andie geidxau, ta oin ya atautie ibiltten da geidxau.* | *Andie lepun eruten da.* | *Andan erun dabe.* | *Illeku andan sartzen da.*

andando. Andando, en marcha. | *Ur errotie: areri ureri errotie andando ipintte dxakenien, olako arte bategas-edo oten da ure pasaten dana sarratute; da errotie andando ipintteko, axe gora altzate san, altzeta ben errotaridxe, olan, ser esangot neuk? Age bat-edo ote sana an eingeruen.*

andapara, andaparie, aldaparie. (ALDAPARA, antapara-bat.) Presa donde se recoge el agua del molino. | *Serri ibil san an andaparias. Bai, serrie. Da erroti be egon san or len. Gero serri ibil san.* | *Serri ibil san an andaparias. Bai, serrie. Da erroti be egon san or len. Gero serri*

ibil san. | *Presatik andaparara juten da ure.* | *Aldaparie: ure botateko-edo.*

andar. • **mundurik andar.** Trotando por el mundo. | *Mundurik andar? Bai, asko ibiltten danari-tte.* | *Bai, mundurik andar ibiltten da.* | *Mundurik andar or ibiltten da.* | *Mundurik andar? Bera gure daben lekuti dabilleta.*

andaran. (ANDARAN) Rápido. Ik. *aringaringe.* | *Andaran jun da.*

andarrai, andarraidxe. (ANDARRAI) Pleura, cada una de las membranas serosas que en ambos lados del pecho de los mamíferos cubren las paredes de la cavidad torácica y la superficie de los pulmones. | *Amarraidxe da txarraidxe, nai beidxe, nai personak pe amarraidxe danak eukiko dau. Da ser esangot neuk?, ganaduk eukitten dabena, da txarraidxe eukitten dabena, ba, apur bet lusi ixaten da, da axeri esate dxako andarraidxe, ta aprobetxau esta eitten, a txakurrentzako.* | *Amarraidxe gibelen eingerun eukitten deu.* | *Andarraidxe da ba gibelen aspitxun eoten dana. Txarraidxeri-tte agertze dxake illtten diriñien.* | *Andarraidxe sera da, seinde okela sati bet edo ser esangot neuk andarraidxe? Bai, seinde olan okela sati bet ta andarraidxe. Sein txikidxau ta aundixau baya andarraidxe ba jeneral sabala-ta bayo be lusi ixeten da, lusetxuaue, apur bet, da esate baterako norberak jateko aprobetxau esta eitten andarraidxe. Txakurreri emote dxako.*

andero, anderue. (ANDERO, andari-bat.) Andero, cada uno de los que llevan en hombros las andas. Nabarnizen gehiago esaten da *atautelaridxe.* | *Orrek atautak erute ittunak: atautelaridxe. Anderue esaten dabe bestik. Andreuk dire arek ille erutekuk, iguel ba... "Fulano, ta fulano, ta fulano anderu".*

andi-andi. Voz con que se invita a los niños a ir a pasear. | *Jungo gara andi-andi?*

andi-andike. Voz con que se invita a los niños a ir a pasear. | *Guasen andi-andike!*

andikalde, andikaldie. (HANDIKO ALDE) Al otro lado. Ik. *bestaldin.* | *Andikaldien ikusi dot.* | *Etzin andikaldin dau.*

andiko, andikue. (HANDIKO, haraindiko) El del otro lado. Esaterako, baserri baten alboan beste bat badago, horretakoengatik esaten da. *Andikokuk ere esaten da.* | *Andiko basue.* | *Andiko jentie.* | *Andiko etzi.* | *Andiko partetik ein deu denpora sati bet.* • **andiko aldetik.** Por el lado de allí o atrás. | *Bertan tontorin dau*

aistidxe, bertan aetxak. An tontor-tontor-tontorin daus. Da andiko aldetik, landak dekoso, bedasie, da ganaduk-eta dabis.

andoba, andobie, andubie. (ANDOBA) Raigambre que queda bajo tierra una vez derribado el árbol. Ik. *eperdidxe, ondue, sustrupue.* | *Andobie mukur sarrak eta orrek dire.* | *Andobie geratu dok or.* | *Andobie geratu dxako.* | *Anduakin-de be bai.* *Anduak... Orrek gastaña anduak, atxa anduak.* *Errementaridxentzako dire orrek onak.* *Andubi da eperdiko sera. A esta usteltzen.* | *Andubi da sustrei sarrak, eperdiko sustrei sarrak.* *Onak ixete sirin.* *Baserridxetako beko suen-da alderdi banatan, batin bat eta bestin besti ipiñi, da gero erdidxen ba edoser eitte san sue.* | *Andobie? Sustreidxe da ori. Ori da, orrek sustreidxe esan gure deu, eperdittik, lurreti berakue. An andobie.* *Ori da egur gogorra.* • Sorotik erreminta pasatzen denean, makina bat bider esaten da: | *Dios, inkeu andoban ein dok!*

andra, andrie. (ANDRA, andre-bat.) Mujer. Normalean emakume ezkondua izendatzeko erabiltzen da. Zaharra bada, *andra sarra* esaten zaio. Atzue ere esaten zaio emazteari. | *Agure sarra da andra sarra.* | *Beiñ amabost urte eukesanian, aurretik ume bat sana ein san ya andra.* | *San Pedro peskadoriek andrie eukan.* | *Andra bako etzien estau ganorarik.* • **andra-gixonak.** Matrimonio. *Matrimoniue* ere esaten da. | *Arek andra-gixonak badoyes.* | *Andra-gixonan txakurre.* | *Arek andra-gixonak beti alkarras juten sin danetara.* | *Orrek andra-gixonak pranku dosak.* • **andra maidxek.** Fiestas de la Virgen. | *Andra maridxen martikutako espadator, aintxiñe esan ei dxuan kukuk berari eitteko eliskisune edo funerala.* | *Andra mari abustuko, Ondarru da Gernikeko jaidxek.* | *Bueno eitten da... Nos esangot? Andramaidxetan edo jaidxe danien edo aparteko soser daunien: espatadantzán.* • **etzeko andrie.** Ama de la casa.

andragei, andrageidxe. (ANDRAGAI, andregai-bat., emaztegai) Novia. Entzun egiten da, baina gehienetan *nobidxie* esaten da.

andrain, andraiñe. Cierta variedad de ciruela. *Andraiñ okana nahiz andraiñe* esaten zaio. | *Gero andraiñ okana be badau, garratz-garratza da berau.* *Berdeska pintta gorritxukin.* *Txikitxu da, txikitxue.* | *Klaudi okana, amendik untxe esautu dot.* *Arrautze okana, asto okana, da andraiñe lengo sarrak dire.*

andrakille, andrakillie. (ANDRAKILA, panpina) Muñeca (juguete). Batzuek ahaztu dute hitz hau eta *muñekie* esaten dute, baina oraindik askok gordetzen dute hitz zaharra. | *Andrakillie: galdu ein da oiñ esatie, baya esaten da andrakillie, se guk eskendun ikesi muñekarik esaten.* *Nik oin be lobari-da, datosenien, andrakillie esate tzat.*

andrasko, andraskue. (ANDRAZKO) Mujer. | *Andraskuen jaidxe da.* | *Andraskuk erute ben malen patrikarie, gonin aspittik sartunde olanik.* | *Andrasko bat ixen da.* | *Baskie andraskuk ibiltten dabe, baya oiñ estakitt ibiltten dabau iñope.* | *Erederue andrasku be ba ixte lei.* *Gixonesku geidxau ixeten dire erantzidxe artzen dabenak, andrasku bayo.*

anega, anegie. (ANEGA) Fanega, medida de capacidad para áridos equivalente a cincuenta kilogramos. | *Anegi berrogetamar killoku nik beti esautu dot.* *Da sakuna, sakuna ba kendu eitte tze konpradoriek, da batzuk killo bat kentze tze, da beste batzuk killu bi.* | *Ekarri anega bat gari.* | *Anegie lau imiñe ixeten da.* *Da iru imillaune imiñie.* | *Anegi erdidxe selemiñie, da imiñie, launa artze ban ak.* • Berriemaile baten arabera, antzina erabiltzen zen anega ez zen berrogeita hamar kilokoa, berrogeita bost kilokoa baino. | *Oiñ anegie esaten dabe berrogetamar kilo, baya etzan ixen berrogetamar kilo, ixen san meidie, san ba anegie, berrogetabost bat kilo, lengo anegie san.* • **anega erdidxe.** Media fanega, medida de capacidad para áridos equivalente a veinticinco kilogramos. | *Anega erdidxe: ogeta bost killo.*

angailla, angaillie. (ANGARILA) Angarilla(s), andas pequeñas. | *Angailli da olako egur bat, da joste dxakos egur taketak da angailli ba geuk useta genduen, da txal txikidxe geixori daunien edo ba ill-edo eitte basan, ba angaillan erute gendusan enterretako be bai.* *Batak alderdi batetik eta besti beste alderdittik oratu, da erun, da enterreta san.* | *Oingo umik esautu be estabe eitten angaillarik.* *Angaillie bakixu ser geusa ixeten dan? Taketak, olanik taketak, da lau albutan, da aritxe albutatik egurrek joste dxakosan da ori ixete san ba, olan eskutan ibiltteko, arridxek eundidxek siriñin-de, lagun biren artiñ artu, de beste leku batera arridxek eruteko-edo, olan ibiltte san angaillie.* | *Esate baterako, arridxek, arri losak edo losa antzekuek artu angaillan, da soser ein bi danien edo soser*

eitten danién, angaillan erute siriñ arridxe, da obran dabixen lekure erute sirin.

angilla, angillie. (AINGIRA) Anguila. | *Oiñ angillak saltzen dabil, onak estinak, faltzuek. | Presie ein, detenidu ure ta beko posue baldakiñ utzittu ta an agertzen siriin angillak. | Angillie gitxi dau oin, egon bai, angillie beti baton bat egoten da. | Angillie aundidxe da. Errekakuk onenbesteko luserie eukitten dabe gitxi gorabera.*
• **angilla kunak.** Cría de anguila. | *Gois gustidxen egon gara uretan da angilla kuna bape estogu atrapau.*

Angis. (ARANGIZ) Arangiz, barrio de Aulestia.
• **angis sagarra.** Variedad de manzana que se considera originaria de Arangiz. | *Aitte gurik-edo esate ban, Angistik ekarri ei eben mendue-edo. Da gero aladi amen angis sagarra esaten da, Angiskue. | Angis sagarra sagar klase bat da, dana dultzi, ixeten da sagar dultzi.. | Angixe be beranduku esta ixaten. | Angis sagarra gosue da. Gero eldueras eitte san gristu. Sagar sarra da, oin gastaute dau ya, baya nik esatu dot. | Da gero beste bat, sagar bat, angis sagarra esate gentzon. A ganera estittute es eban artzen.*

angoxe, angoxie. (HANGOXE) De allí mismo. | *Orrek angoxi di ixetes. | Angoxi die arek, Atarranguk. | Bidi, ba le esan dotena, Gerniketiki eta ori, Nabarrixera, angoxe arridxas, Loittidxako arridxas einde.*

anil, anille. Añil. | *Anillen ure. | Neu pe anille sarri ibilli dot. Da oiñ emen labadoran garbitzen diriñiñ estot egosten anillik pe.* • **anill-ure.** Agua de añil. | *Askanengo pasue anilluren emote dxake.*

anillu, anillue. Anillo nupcial, anillo de boda. Ik. *erastune.* Ezkontzakoari, eskuarki, *anillue* esaten zaio; osterantzean, bitxirik edo ezer badu, *erastune* esaten zaio. | *Au anillu da. Esteko es perlarik, esteko esebe. Da erastune ba, dekona... Se esangot? Dekona seoser, arritxu bat edo seoser. | Dana bat. Baya ba anillue eskontzen danak ipintten dau. Da besti, erastune, ba lujorako geusie.*

animalidxe. (ANIMALIA) Animal. Ik. *pataridxe, pistidxe. | Animalidxe bat. | Animalidxek dire beidxe, astue, kaballue; pataridxek dire txakurre, aseridxe nai olako orrek. | Serena? esate baterako, animalia txiki bat, ein kontun ikusi be eitten estan bateri. | Mantzue da animalidxe bat geistu estana. Animalidxe esaneku edo noberak ibiltten daben astu-edo*

“Esana eitten deu” edo “Esaneku da”-edo, esta..., geistu esta.

animau. (ANIMAU, animatu-bat.) Animar. Ik. *eupadak ein. | Animau dabe.*

animoso, animosue. (ANIMOSO, adoretu, kementsu) Animoso, -a. | *Animoso jun da. | Animosu dau.*

animue. (ANIMO, adore, kemen) Ánimo, valor, energía. Ik. *allemue. | Animue emon.*

anis, anixe. (ANIS) Anís. • **anis bedarra.** Anís, matalahuga (*Pimpinella anisum*). | *Anis bedarrak geurin be asten dire, ondiño estau baya. | Anis bedarra guk geuk estou usau, baya lenguk pentzetot ibiltte bela egositte, edateko be bai.*

anjelus, anjeluse. Ángelus, oración en honor del misterio de la Encarnación, que comienza con las palabras ÁNGELUS Dómini. | *Albakue kanpairi esate dxako, anjelus, goixin goixitiki jote ittun kanpairi. Oin jo be estittue eitten. Albakue, da aremaittekue artzaldien, illuntzin joten dan anjeluse: aremaittekue. Da gero, len -oiñ esta jote eselako kanparik pe, ta oiñ esebes-, baya len jote san albakue, da gero jote san illuntzien, illun esbaidxen, aremaittekue esate dxakona. Da gero, gerotxuau jote san arimena. | Arimena jote benin, ba ya illundute, ta belu ixete san, da ba arimena esate dxako. Aremaittekutan anjeluse, jaunaren aingerue erresate san. Arimenari arimari erresate dxaken. Ordu ipiñirik es eban eukitten. Udi ixeten basan, barandutxuau; negu ixeten basan, ariñau illuntze ban, da arintxuau. Ordu ipiñirik es eban eukitten.*

anjiña, anjiñie. (ANGINA) Angina. | *Samako anjiñak dekesus.*

anka, ankie, ainkie. (HANKA, zango) **1.** Pierna, pata. | *Eurreko ankie. | Ankie apurtu. | Geldittu san umesurtz, lau ankan ondiño ebillenien. | Laban ei ban da ankie apurtu ban. | Aittitek deko ankako sanetako miñe.* **2.** Pata (de un mueble). | *Kaltzue ipiñi anka laburrien!* • **anka bakarra.** Cojo, -a. *Kojue* ere esaten da. • **ainketako atzak.** Dedos de los pies. Ik. *bietza.* Berriemaile baten arabera, lehen sarri esaten ei zen *eskutako atzak* nahiz *ainketako atzak*, baina oraingo gazteek *atzamarra* edo *bietza* esaten dute.
• **anka jokue.** Fuga, evasión, huida. | *Anka jokue ein deu. | Anka jokun jun da.* • **ankas.** A pie. Ik. *oiñes. | Oiñeskue da ankas doyena.* • **ankas gora.** Patas arriba. | *Laban ein da ankas gora juven san. | Ankas gora jeusi dok.* • **anka**

ein. Irse, marcharse, fugarse, pirarse. Ik. *alde ein*. | *Anka ein deu*. • **ankak altzau.** Marcharse, pirarse, fugarse. | *Ainkak ariñ altzau ittu*. | *Ankak altzau biarra dekeu*. • **anki ipiñi.** 1. Poner el pie, dar un paso. | *"Arri lastri ok", arridxe, bakixu, edo labana badau, edo arridxe erripie, da "Ño, ori troski dxak!", edo "Ori laban-ok!" edo bakixu. An igul arri troski badau edo ontan alturetán, esin dosu urten, ankari pe esin dosu ipiñi tte. Alakoxiri esate gentzen*. 2. Poner la zancadilla. | *Anki ipiñi dxot*. • **anka lusie erun.** Largarse a gran paso. | *Aringaringe jun danin, ba: "Ainka lusie erun deu"*.

ankabiko, ankabikue, ainkabikue. (HANKABIKO) 1. Bípodo. | *Anka bikuek dire personak*. 2. Ladrón, -ona (en cirteos contextos). | *Lapurte ixen gustidaxas esan barik: "Bai, ainkabiko bat ikusi ñaben!", nor dan es esatiegaittik*.

ankadun, ankadune. (HANKADUN) Provisto, -a, de patas. | *Es, topiñi suen morokilli eittekue, ankadune, burdiñeskue*.

ankalabur, ankalaburre. (HANKALABUR) Paticorto, -a.

ankaoker, ankaokerra. (HANKAOKER) Patizambo, -a. | *Anka okerrak? Ba ankak e bata edo bestie edo bidxek-edo okerra dekosela*.

ankape, ankapie, ainkapie. (HANKAPE) Debajo de las piernas, entre las piernas. | *Ainkapetik sartu tzo baloye*.

ankapeko, ankapekue. (HANKAPEKO) Insignificante, de poco valor, despreciable. Ik. ostikopekue. | *Ostikopekue geuse maxari be esate dxako ta. Maxari, esan gutena, seinde tatarres dabillen geuse bat. Menosa esati laku da ori. "Ori ostikopeko garbidx-ok!"*. | *Ostikopekue da ankapekue. Eskastzat, eskastzat*.

ankarkulu, ankurkulue. (HANKURKULU) Llevar sobre los hombros, a horcajadas. Ik. *urkulie*. | *Ankarkulu erun deu*. | *Ankarkulue, olanik ipiñi, anketatik kolpeta*. | *Ankurkulu daroi orrek*. | *Ankarkulu doye*.

ankaspi, ankaspidxe. (HANKA AZPI) Planta del pie. | *Anka aspidxek susenak dekos*. | Umiari: *Ankak ebeiko tzudas olan basabis!*

ankasur, ankasurre. (HANKA HAZUR, hanka hezur-bat.) Tibia, espinilla de la pierna. | *Ankasurrin deket min*.

ankautzin, ainkautzin. (HANKAUTSEAN) Descalzo, -a. | *Ainkautzin egon da*.

anketako, anketakue. (HANKETAKO) Golpe en las piernas. Ik. *txanketakue*. | *Anketakue artu deu*.

anparau, anparaten. (ANPARAU, anparatu-bat., babestu) Amparar, proteger. | *Anparau barik dau*. | *Anparaute dau*. | *Estau anparaten iño pe*.

anpolai, anpolaidxe. (ANPOLAI) Cereza ampollar. | *Anpolaidxe keixa aundidxe da*.

anpolla, anpollie. Ampolla. *Pustillie* ere esaten da, baina gutxiago. | *Bai, anpollie ori be bada, Baya ori anpollie erderaskuri geidxau esate dxako. Ba tire, pustilli baya geidxau amen anpolli esaten da*.

anpulu, anpulue. (ANPULU) Lagrimón. *Negar* hitzarekin batera agertu ohi da. Ik. *negar anpulue*. | *Negar anpulu daridxola egon da*. | *Negarres anpuluk daridxola egon da*.

Antigua. Nombre con el que es conocida la Casa de Juntas de Gernika. | *Antiguako elixie*.

antigual, antiguala. (ANTIGOAL) Antigüedad, cosa antigua. | *Antigualik estao*. | *Orrek antigulekuk ixengo dire*.

antigualeko, antigualekue. (ANTIGOALEKO) Antiguo, -a, apegado a la manera antigua de trabajar o comportarse. Sin. *aintxiñekue*. | *I antigualeku as!* | *Antigualeko ok ori!* | *Orrek ya antigualekuek dire*.

antiju, antijue, antiojue. (ANTIOJO, betaurreko) Gafas. *Gafak* ere esaten da. | *Antioju bitzuk*. | *Emen antijuk esate dxako, da oingo umik antijuk pe estabe esaten, gafak payo*. | *Antiojuk ekarriko tes*. • Berriemaile baten arabera, aspaldion *lentik* hasi da apurka-apurka gero eta gehiago zabaltzen: | *Oiñ antiojuk pe galdu ein dire, lentik esate tzeu ta*.

antijudun, antijudune. (ANTIOJODUN, betaurrekodun) Que tiene gafas. *Gafadune* ere esaten da.

antojau, antojeten. (ANTOJAU, antojatu-bat.) Antojarse. | *Axe jatie antojete dxate*.

antoju, antojue. (ANTOJU) 1. Antojó. Ik. *naidxe, gureidxe*. | *Geusa bat jan gure danin, geusa bat jateko gogu daunin-edo, antojue esaten da*. | *Axe jateko antojue deket*. 2. Asco, repugnancia. Ik. *enpague*. Espainiako Erret Akademiaren hiztegian zentzu honetarako 'antojo' hitza ere jasotzen du Euskal Herrian erabiltzen den gaztelaniatik. Nabarnizen, dena dela, *enpague* erabiltzen da gehiago.

antxe. (HANTXE) Allí mismo. | *Antxe jaidxoneku nas.* | *Da juten basara, antxe topauko su.*

antxoba, antxobie. (ANTXOBA, antxoa-bat.) Anchoa. | *Garixuma bueltan antxobie egoten da onena.*

antz, antza. (ANTZ) **1.** Parecido. Ik. *aidie.* | *Noren antza deko?* | *Orrek arreбок nire antza deke.* | *Neba-arrebak antz aundidxe dekosue.* | *Orrek aistok bata bestien antza deke.* | *Alkarren antz eundidxe deke.* | *Badeke antza.* | *Onek umiek aitten antza deko.* | *Basotik urte ban gixonan antza eukon figura bat.* | *Begittute, kolorien alkarren antza bauke.* | *Askanién emon tzo bestiek euki ban asuntuen antza.* | *Arratzaldiek onera eitteko antza deko.* | *Arratzalde ona eitteko antza dau.* | *Sanu antza deko.* | *Antza obie emongo tzo orrek.* **2.** Especie de, parecido a; algo. | *Sargori da lañu antza da euskidxe egotie, bero.* | *Geuse bat ligor antza bada, lakarra esaten da.* | *Perretxiku be urdiñe egoten da ba, kolorie eukiten deu, urdiñe, se eutzen kolore antza da urdiñe.* **3.** Parece que va a... | *Sirimiridxe eitteko antza deko.* • **antza.** Al parecer, según parece. | *San Migel erreminttie jeusitte dau.* *Antza, altzau ein bi dabe.* | *Estator, antza.* • **antzin.** Término utilizado en expresiones adverbiales que significa aproximadamente ‘como’, ‘a la manera de’; ‘más o menos’, ‘no del todo’, ‘bastante’ | *Mamo antzin dau.* | *Apur bet, geixo antzin dabilenari esate dxako:* “*Kikili-mokolo dabil, sendo estabil*”. | *Terrenplena da geusa bat erripan, erripie, edo motie, edo solue..., dana dala, bai terrenplena, olan antzin dauna, edo ser esangot neuk?, terrenplena.* | *Arpei astunas begittu-ste, asarre antzin.* • **antza emon (eguneri).** Celebrar como tal, como merece. | *Esaterako, gabon jaidxek-eta:* “*Beren antza emon bi dxako eguneri.*” • **antza dan les.** Según parece, al parecer. | *Errotik konsumidu eitten deu, antza dan les, eitten daniñ urune, artu nai garidxe konsumidu eitten deu.* | *Antza dan les, aintxiñe au (txipittie) garidxe joteko ibillte ei dxen.* | *Arek es eutzon esebe ein, espabese eskuri tiretu tzon, tiretu te antza dan les e, onako asurre edo onaku apurtu ban, da alkar jotén ipiñi ittusela pentzetot nik, da gero idxaltzau ban dana. Da ondo geldittu san.*

antzar, antzarra. (ANTZAR, antzara-bat.) Ganso (*Anser anser*). | *Antzar jokue.* | *Badesak antzarrak.* | *Antzarra itxosun ibiltten da txoridxe da.*

antzeko, antzekue. (ANTZEKO) Semejante, parecido. Ik. *modukue.* | *Eistesu erropie aren antzekue.* | *Aman antzeku da.* | *Orren antzekue Pedro dok.* | *Lamiñak kantera suluetan egote siren, kobatan, aintxiñeko persona klasie, personan antzekuek.* | *Bai, egur bridxela ta astillie, kontixu, alkarren antzeku tire.* | *Antzekue ein deu.* | *Danak dire bat, edo antzekuk dire danak.* | *Adapue geuse bardiñ antzekue da.* | *Artina, da atxana alkarren antzekuk dire, igul-igultzat pe bota lix, alkarren antzekuk dire baya.* | *Paguk estittu asten alakuk.* | *Mariartasidxe esate dxako egan ibiltten dan euli antzeko bat, burrun-burrun-burrun-burrun einde, bateri bestera, arboletatik-eta, ba danetatik ibiltten dana.* | *Trumonadie eitteko antzeko egueldidxe dau.* | *Aseri bustena amen tamaño ingeruku asten da, da se esangot neuk? Orridxe piñuk eukitten daben arridxen antzeko orritxu eukitten deu da piñu baya berdetxuau da.* | *Ogidxe panaderidhan be oingo leku batzutan eitte itue alako ogidxek, len baserridhan eitte siriñen antzekuk.* | *Beres ba suridxe edo suriska antzeku da.* | *Ule kirrau? Seuk dekesun antzekue, ule kirrau. Ondulaue, kispau be esaten da.*

antzekotasun, antzekotasune. (ANTZEKOTASUN) Parecido, semejanza. | *Ainkautzin egon da.*

antzera. (ANTZERA) Como, a semejanza (de); de forma parecido. | *Arbela be bai. Arbela da..., arbela, seinde troska antzera eitten dana. Satike-satike oten da arbela.*

antzerako, antzerakue, antzeraskue. (ANTZERAKO) Semejante, parecido, -a. | *Batana beste gausa bat da, osasun bedarran antzeraku da, e, baya useiñe deko diferentie.* | *Esti bat, baya antzerasku die.*

antzeratu. (ANTZERATU) Igualar, alcanzar. *Esaterako, lasterketa batean, bigarrena lehenengoaren parera heltzen denean esaten da.* | *Bigarrena antzeratu dok lelenguas.* | *Bigarrena antzeratu da lelenguen serera.*

antzier, antzierra. (ANTZIGAR, intzigar) Hielo muy fuerte, costra de hielo. *Leidxe zuria da, baina ikusi ezin denean eta oso gogortuta dagoenean, antzierra esaten da.* | *Antzierra leidxe bayo be gogorra da. Leidxe ei leike, leidxe, da surittu*

apur bet eta ba leidxe da. Baya antzierrak ya asko gogortzen deu, lurre be bai, euriri..., posurik atrapetan badeu, kristela eitte tzo ganien da axe da antzierra. | Leidxe suridxe ixeten da, antzierra gris antzera. | Antzierra lei baltza da; kristela ikusten da bakarrik, suridxe esta ikusten leidxen modun. | Antzierra esta eitten, suridxe esta antzierra, illune ba, gogortu eitten deu. Ba etxak igerri eitten, gogortute beye. Leidxe da suridxe. Da suridxe egon es, da gogortute badau basie ta ori, ba antzierra. | Ño, antzierra ein dxok!

antzittu. (ANTZITU, antzutu-bat.) **1.** Quedarse sin leche la vaca. *Antzotu ere esaten da. | Au badoye antzitzera. | Beidxeri esnie juten dxakenin, denporie, "Antzittu dok a", ya esnie jun.* **2.** Dejar de ordeñar un animal para que engorde. *| Lodittu estire eitten esni jasten dxaken beidxek, da ba: "Beidxe antzittu ein biou, loditu deidxen". Antzittu, esnie erasti itxi, orixe da antzitzie.*

antzotu, antzotuten. (ANTZUTU) **1.** Quedarse sin leche la vaca. *| Beidxeri esnie akabete dxakonien, ba: "Antzotu ein da". | Jeneralin antzotuten danien, umie eitteko egoten da, da agaittik antzotu eitten da. | Antzotute dau, ta ba lodittu ein bi da.* **2.** Volverse estéril. Sin. *matxorratu.*

antzu, antzue. (ANTZU) Estéril, vaca que ya no da leche, ni tiene crías. *| Ardi antzue. | Antzue da esnerik emoten esteun ganadue. | Umerik-eta estekonari iguel esate dxako: ori antzu dxak.*

antzutasun, antzutasune. (ANTZUTASUN) Esterilidad.

aña, añie. Nodriza. *| Añak dire umiek jaboten egoten dinak. | Añie san beste baten umie aste bana. | Añi da umiak asten egoten dana, iñun umik noberan titidxas asten dauna.* • **aña freskie.** Mujer que cría una criatura ajena, dándole el pecho. • **aña sekie.** Mujer que cría una criatura ajena, pero sin darle el pecho. Emiliano Arriagak (*Lexicón Bilbaíno*, 2. edizio gehitua. Minotauro. Madrid) Bilbon ere batu zuen hitz hau eta definizio hau eman zuen: "Niñera; suele ser generalmente la jubilación de la que ha sido aña (fresca) en la casa y queda en ella para cuidar a los hijos de quienes crió a sus pechos". *| Aña seka: orrek dire umia asten dabena, umia asi bakarrik; eta aña freska: bularra emote tzana. | Bueno, añiri etxako esaten, ume jabolie neskato bateri esate dxako. Aña dabillenari añie esate*

dxako, "Aña dau", edo "Aña seki da". Aña seki da bulerrik emoten estetzon añie, aña dabillena, aña jantzitte ibiltte sirin enen, da "Aña seka dabil", umi saintzen aña seka.

añela. Padre nuestro que se rezaba por el difunto y que se debía pagar. *| Añelak erresetan.*

apa. (APA) (Haur.) Voz infantil que hace referencia a la acción de levantarse. *| Apa! • apa ein.* (Haur.) Levantarse. *| Eiñ apa! | Igul tatarres dabil beyen, da "Eixu apa!", ba apur bat jagi deidxen gora.*

apaindu, apaintzen. (APAINDU) Adornar(se), arreglar(se). *| Apaindutie dotore paretie da. | Ondo jasten da ba, apaintzen da.* • **apaindute.** Elegante, arreglado. *Ik. dotore, jasue. | Apaindute egon da.*

apainketa, apainketie. (APAINKETA) Engalamiento, decoración. *| Apainketie? Ba ondo jasti edo ser esangot? Apainketie.*

apal, apala. (APAL) Abajo, hacia abajo; bajo. • **adar apala.** Cornigacho, -a, aplícase al toro o a la vaca que tiene los cuernos inclinados hacia abajo. *Ik. adar jagidxe, adar txordue. | Jeneral, adarrak ixeten dire olan gorantz, adar jagidxe esate dxako alakuri-tte. Adar apala apur bet berontz dekosena.*

apalurretik. (AFALAUURETIK) Antes de cenar.

apaldu, apaltzen. (AFALDU) Cenar. Sarriago esaten da *apaxidxe jan. | Apaldu deigun. | Apaltzen gois.*

apaliski, apaliskidxe. (AFALISKI) Cena ligera. *| Apaliski bat ein deu. | Apaliskidxe artu deu.*

apalordu, apalordue. (AFALORDU) Hora de la cena.

apaloste, apalostie. (AFALOSTE) Tiempo después de cenar.

apapa. (APAPA) (Haur.) A pasear, de paseo. *| Apapa ein: esate baterako, umi artu, ta entreteniduteko, "Goixan apapa!", ta umi artu, ta ba pasiun jun, edo ba umie entretenidu-edo.*

apapuen, apapun. (APAPUAN) **1.** Apunto de caerse. *| Apapuen? Nos jeusiko. "Kontu txo, apapun dxak eta!". Bakixu e peligrú esan biarrin, "Kontu, txo, apapun dxak ori tte!". Bakixu, 'apapun' da antxe es jeusi es... 'Apapun' da ortxe dingiliske dauna. Arbola bat edo adar bat. Adarra bakixu ser dan, arbolin adar bat, "Txo, kontu, apapun dxak ori tte, ori badxatok eta!".* **2.** Justamente, a duras penas; en la estrechez. Sin. *ostostan. | Apapun bixi dire.*

aparajau. Poner el aparejo a las caballerías. | *Esate baterako, saldidxeri, ipiñi bi danin, ba, narras-edo, jun bi danin mendire edo edonora, ba aparajau ein bi da.*

aparaju, aparajue, aparejue. (APAREJU) Arreo necesario para montar o cargar las caballerías. | *Kabeserie da asturi nai muliri nai saldidxeri ipintte dxakona, apareju bet, da ugel utzeskue ixeten da. Sartze dxako olanik, olanik eukitten deu bat, olanik, gero emendik okospetik, emen musturrin be bai, da emen kabeseri arixe esate dxako. | Narrak eukitte ban espatie. Da gero eukitte ittun barak, asturi inketako edo saldidxeri inketako. Da eukitte ban kollarra. Kollarra bakixu ser dan. Da arexe kollarrin sartze sin barak, edo aparaju pe bai. Aparaju batzuk eukitte ben katiakin lotute narrari. Da gero erute ittun basetak. Basetak. Aspidxen.*

aparau. (APARAU, aparatu-bat.) Acertar, atinar; dar en el blanco. Nabarnizen *asartau* nahiz *aparau* esaten da. | *Guk apunteridxeri esate tzeu igul e "Dios, asartau ein dxok!", da bestik esaten dabe "Aparau ein dxok!". | Tiru be, esate baterako, txoridxe dau te utz eitten badau, "Utz ein dxok"-edo, ta joten badau, "Aparau ein dxok".*

apari, aparidxe. (AFARI) Cena. | *Gois aparidxe. | Aparidxe emon. | Apari lijerue da osasunerako askos be obie. | Apari iski bat. | Apari txikidxe jan deu. | Txarribodie? Ba onetan baserridxetan ba urtiñ e txarri bat ba jeneral illtten da, da antxe gabin jaten dan aparidxeri txarribodi esate dxako. • aparitten.* En la cena, cenando. | *Da gero ba aparitten be ba apur bet jan eitte san odolosti edo murtzilli. • aparidxe jan.* Cenar. *Apaldu baino gehiago esaten da. | Aparidxe jan biou, danak batu gara ta. | Aintxiñe saspietan ixeten san ordue aparidxe jateko. | Aparidxe jan da gero deukegu denpora sati bet telebisiñue ikusteko. • apari-legie.* Cena informal, cena escasa. | *Geurkuaittik porruekin aparidxe janda apari-legie ein dogu.*

apariketa, apariketie. (AFARIKETA) Juego de niñas en el que se simula que se prepara la comida. | *Apariketan: umik ibiltten dire apariketan. Olgetan ibilte sirien, apraidxek ipintten-da, baskaridxek ipintten-da, euren kosinatxukin-de ibilte sirin. Oingo umiek esteke alako kosiñatxurik baya.*

apartau, apartaten. (APARTAU, apartatu-bat.)
1. Apartar(se), alejar(se) | *Enbasun dau ori, te*

apartauixus! | Oiñ iru illabete apartau san gugas. | Apartau es balitz, trenak sapaltze ban. | Andra-gixonak apartau ein dire. | Bixi-alargune? Ba eskondunekuek, apartaute dasenak, bixi-alargunek. 2. Elegir, escoger, seleccionar. | *Apartau sagar ustelak. | Sagarrak aparta ittut. | Okelie apartaute deku, baya prestau barik tau, piperra-ta, gatza-ta biar ixate ittu te ba. | Da axe koipie, txingerrak apartau, da axe koipe garbi-garbidxe pasau serien, pasadorien, onakoxe pasadorien, da koipe gasie botate san orretara pitxar morkutara. | Txarri gobernue: ixen lei txarri gobernue, ba txarridxe il, da arek geusak banatu, edo ipintten diriñien e, urdeidxen puskie, puskakin, solomue solomugas, da olan apartaten diriñin, txarridxe ilde, ba txarri gobernue. | Astute nau segas eitte ben be. Koipie ixete san sati bet, ganadun koipie, ganadun, aparte dxakon, ilte saniñ aparte dxakon koipie ixete san sati bet eta oridxue nik pentzetot botate tzela ta neuk pe estai sertzu geusa eitte tzesan be. | Gastai eitteko, esni aparteta san, euntzena jeneral. Len euntze pe euki gendusen, da oiñ estekeu bape baya. Da euntzen esnie meyau ixeten da beidxena bayo. Da euntzen esnie aparteta gendun gastaye eitteko. | Ligerra da geusa bat apartate dxakona euntzeri edo ardidxeri-edo apartate dxakona, arixeri esate tzeu ligerra. 3.* Retirar. | *Bueno, potiñe..., oiñ estau, apartau sala pentzetot, geurin be on san e! Da mendireko ibilte gendun, ure eruteko.*

aparte. (APARTE) Apartado, -a, separado, -a. | *Kapoyek: orrek ollaskuek edo gabonetarako aparte asten diñak. | Aparte bixi dire. | Aparte daus. | Bueno, Santidxau selebreten da. An e Lekeriken e, Lekerikeko kopradidxen dau erremintatxu bat, seinde se esangot neuk? An dausen e etzigandik apartetxua dau erremintatxu bat Santidxauna. • apartin. 1.* Aparte, en lugar separado. | *Lurresku ixete san potijue, da ure berotu esteidxen, ba olan euskitten-da apartin eskendun isten, ure berotu esteidxen, baya olan aixik, edo korrinteun daben lekuen, an lurreko ontzidxen ure esta berotzen. 2.* Especialmente, particularmente. | *Urrikaxie ba axe bat da otza be estana, apartin beru bes, da ba urrikaxi. | Gixontasune? Ba seridxu ixeti edo ba olani pa gusurrik-eta apartiñ esaten estakidxena. | Apartin traturik estogu euki, baya apur bet e tratu euki du. | Bueno, bekerrekie esate tzeu ta esteko apartiñ ixenik.*

aparteko, apartekue. (APARTEKO) Especial, propio, particular. Sin. *besterik es lakue*. | *Alkatiek eta orrek leku apartekue euken eleixan*. | *Aparteko ixena igul eukiko deu orrek*. | *Aparteko ogidxe eitte san ordun egunien*. | *Emen onako erri txikidxetan esebe etzan eitten, apartekorik esebe*. | *Ogidxek eitte sittuen... ba ritxek, da fotak. Fota apartekuu ixeten da, seinda ser esangot neuk?, ritxe bayo sakatuau ixeten dala fota*. | *Bueno eitten da... Nos esangot? Andramaidxetan edo jaidxe danien edo aparteko soser daunien: espatadantzan*.

1 apatx, apatxa. (APATX, apo) Pezuña. | *Apatxetako miñe*. | *Apatxak astildu*. | *Porrilla anketan eukitten dabe. Apatxa usteldu eitten da*. | *Kaballuk estau eukitten, etxako inketan eureri, es. Txakurreri be eitte dxako erpi dauselako inkau, baya orreri bestiri, kaballuri-tte es. Apatxa biribille eukiotten dabe kaballuk. Da ganaduk bi eukitte ittu*. • **apatx bittartekue.** Enfermedad del ganado, que se manifiesta por desarrollo de vesículas o flictenas pequeñas entre las pezuñas. Sin. *apatxartekue, apatxetakue, porrilla*. | *Apatx bittarteku esate tzeu orreri. Apatx bittartiñ eitte dxakue solittu. Da len e ganaduek udebarridxen eitte dxakon ori asko ganera. “Kaguen, se pasate dxakok?”, “Apatx bittarteku dxekok”*. *Apatx bidxen bittartie eukitte ben, au bittartiau emen ebeitte, solittu, apatx bittarteku*. | *Baya geixu esta ori. Bedar berdiek eta gero pekotx siriñek-eta eitte tzena, apatx bittarteku eitte tze*. | *Oiñ estau olakorik. Oiñ e kanpun dabixen les geidxenak, ba apatx bittartekorik esta. Da ordun biar, biar ereitte dxakon, da biarrin-de obligete si les, alan eitte dxakon, apatx bittarteku*. | *Ankak e, apatxiñ-ero eridi euki eskero, a apatx bittarteku esate dxakona, kari ixete san ona, kare bixidxe*.

2 apatx. (APATX) • **apatx ein.** Sentarse. | *Eiñ apatx!*

apatxarteko, apatxartekue. (APATXARTEKO) Enfermedad del ganado, que se manifiesta por desarrollo de vesículas o flictenas pequeñas entre las pezuñas. Sin. *apatx bittartekue, apatxetakue, porrilla*. Ik. *naparridxe*. | *Apatxartekue erida bat da, apatxien eitten dxakena*. | *Apatxarteku da apatx bittartin eukitten daben..., ganaduk-edo, euntzek pe bardin eukitten dabe erida bat, apatx bidxen erdidxen eitte dxaken erida bat, apatxekue. Apatxarteku, da naparreidxe antzekuk dira. Naparreidxe be ba apatxin egoten da-ta; bueno*

apatxin esta egoten, naparraidxe agun eukitten dabe, miñien, miñiñ eukitten dabe. Da apatxartekue egoten da apatxin. | *Porrillak ganaduk eukitte ittu. Ixaten dire ainketan eukitte ittu... Ser esangot neuk? Eridatxun batzuk-edo, kostratxun batzuk-edo, alakuk ixaten dire porrillak. Apatxetan eukitte ittu. Apatxartekue be esate dxake*. | *Apatxetaku bai, apatx bittarteku te esateu, bittarteku esate tzeu guk. Olan igul ganadu len egote sin, bittarteku, eitte dxakon olako bittersi solittu, da bittarteku deko ta kurau eitte san, erun perratokire ta. Perradori esan, guk perradori esate tzeu, erradori beste batzuk*.

apatxetako, apatxetakue. (APATXETAKO) Enfermedad del ganado, que se manifiesta por desarrollo de vesículas o flictenas pequeñas entre las pezuñas. Sin. *apatxartekue, apatx bittartekue, porrilla*. Ik. *naparridxe*. | *Apatxetakue? Ganaduk eukitten dabena. A ba ixeten da geixo bat, apatxetakue*. | *Naparraidxe da apatxetakue, bai, antzekue da, baya bat be estire. Apatxetakue ba geixo bat ixeten da, naparraidxe estana*. | *Es, es apatxetako geixue beste bat ta. Naparridxe da... Apatxetan oten da naparridxe be. Baya apatxetakue diferente da*. | *Baya au apatxetakue, birikie ta orre pe eukitte ittu apatxetan*.

apea, apia. (APEA) Apeo, árbol que ha sido cortado por el pie y derribado. | *Apiak ein*. | *Gixon batas ibilli nitzen beresi baten apiak eitten*. | *Apeak dire: piñu txikitxue asten daunin, ya onako loditxue eindakuen, axek dire apiak. Ebai ta saldu, papelerara eruten dires. Estire lodidxek, lodidxek dire tronguek; da ba onen tamañue edo olan, meyek, apeak. Da piñuri ein bi-xete dxakon, arek apeak les sartun, de apurbet asi deidxenien, ya lodittu deidxen, arek apeak kendu, mistu*. | *Apeak ebai, eta serriegas ipiñi metro bi tte erdi luse*. | *Apeak dire piñukin eitten dire, orrek selan esango tzut? Papeleran ikustusos piñuek, papela eitteko-ta, arek apeak. Biribillek dire apeak. Ebaiñikuk estire apeak; arek edo kaja olak, edo tabloyek, edo ya beste gausa bat, ebaiñikue*. | *Igul iru ontzakue. Apie ixeten da, iru ontzako apieku punta bi ixeten deu. Da arek espoukos, esaten da bai meida bako, edo neurri bakue*.

apellidue. (APELIDU, abizen, deitura) Apellido. | *Gure apellidue Gerniketiekue da*.

apendisitis. (APENDIZITIS) Apendicitis. | *Apendisitis da este sobrie, ebei tte kendu eitten dabe. Ointxe ein tze orreri, suiñeri, ointxe pasa*

dan astin. Golpin etorten da tripalakin-de, au apendisitis.

apidxue. Apeo, hierba medicinal de mal olor, del cual se sirve el pueblo para amuletos. Berriemaile batek (Bengoetxe baserriko Gabika-Aldekoa zena) adieztakoaren arabera, antzina sorginak ibili ziren eta, Nabarnizetik Gernikara eta handik bueltan gauaz joan beharra suertatuz gero, artadietan egoten ziren zain. Paltzuango sorgin batek deitu zion beste bati: "Arloan!" eta Arloangoak galdetu: "Se biok, Paltzuan?" Eta lehenengoak erantzun: "Ipiñidok or datorrenari lakidxue!" "Baina besteak honela ihardetsi zion: "Bai, espalekos beren amonak gabon gabien eindako aridxe ta apidxue!" eta horrenbestez ezin kolperik egin ei zion. Ipuin honetan amona esaten da nahiz eta Nabarnizen amuma esan ohi den.

apopillo. (APOPILO) Huésped. Lehen, holako asko egoten ziren Nabarnizen, Ameriketatik eta Australiatik etorriak. Jan, lo egiten den etxe berean egiten zen edo beste batean. | *Apopillo esate tzau, jan da kalera, da gero sasoidxen ostabe apaidxe jan da lotara, da bidxen bittartien egunes da, kanpotik, kalerik, areri apopillo.* | *Apopillo da e su oiñ esate baterako saus etze baten, lo eitten, da jaten be bai iguel, da suk pagau eitte tzesu ori, da apopillo.* | *Pedro apopillo da Gernikan.*

apostu, apostue. (APUSTU) Apuesta, postura. *Posturie gehiago esaten da. Ik. trabesa.* | *Emen "Apostu ein dot" bayo geidxau esaten da, ba, "Posturie ein dot", edo "Trabesa ein dot".*

apostulari, apostularidxe. (APUSTULARI) Apostante.

apostusale, apostusalie. (APUSTUZALE) Aficionado, -a a las apuestas.

apotz, apotza. (APOTZ, arol) Esponjoso, -a, fofo, -a, orondo, -a. Ik. astiñe. | *Apotz dau ogidxe.*

aprilie. (APIRIL, jorrail) Abril. | *Txarbie sagarra da. Oten da aprillera arte, mayetzera arte baya usteldu barik.*

aproba, aprobie. (APROBA) Prueba, intento, ensayo. | *Aproba bat ein bi dxuat.* | *Aprobie ein bi dxuat ointxe lelengo ia apurtzen bada-edo.* | *Begire eitten dana, asalera esate dxako, asalera, asala kendu, te bestin asala inkau. Da jeneral emen asalekorik esta eitten, da ein be eitten da aprobarako-edo.*

aprobau, aprobetan. (APROBAU, aprobatu-bat.) Probar, catar. | *Ardaue probeik, ia!* | *Noraiñoko indarra dekon aprobetan doye.*

aprobetxau, aprobetxaten, aprobetxetan. (APROBETXAU, aprobetxatu-bat., baliatu)

Aprovechar. | *Baso okanak, e, ba ser esango neuk?, estira aprobetxau eitten. Animalidxe-edo jango itue.* | *Batzuk aundidxauek ixengo dire, baya orrek estittu iñok aprobetxaten.* | *Tripe barruek estire aprobetxatan, bota eitten dire.* | *Komenentzidxe euki dxok, eta aprobetxa ei dxok.* | *Mamiñe akabaute daunin, da pernille asurrin daunin, emen baserridxen esta iñoix aprobetxetan, baya ba olan dendetan, edo karnaseridxetan-edo saldu eitten dabe, saldi eitteko.* | *Gero a siketzen danien koipe opille einde gelditzen da. Da len aprobetxau eitte gendun axe be ta oiñ esta aprobetxetan.* | *Onek tellatuk dana deke egaletara. Atzin bes. Egal bidxe da besterik esteko etzik. Ur gustidxe doye egal bidxetara. Da len askok eitte ban, ure aprobetxetako depositturik eta olan manentialik-eta estekona, eitte besen deposittu eundidxe eiñ or, da araxe ipiñi, ittusurako ure esate dxakon areri.* | *Bidegiñi a ixete san. Gero erridxe e ori emote ban, ardaue. Errasiñoye esate dxakon. Da asko moskortute. Bai, aprobetxetan, da gero moskortu.*

apropos, aproposa. (APROPOS) Adrede, aposta.

| *I, nik apropos esan duat.* | *Kapoyek egoten dires gabonetan, ollaskuk aundidxe, ollasku lakuk baya apropos aundidxe asten diriñak.* | *Munteidxe aintxiñe egote sirin, apropos ormiás einde, gastaiñak-eta gordeteko egote siren, or mendixetan egote siren, ardidxe-eta jan esteidxe.* | *Apropos? Tranpas. Apropos ba planpin dabillela, faltzidxe dabillela. Planpin da ba engañau edo serien dabillela, apropos.* | *Apropos dabil.*

apunteridxe. (APUNTERIA, punteria-bat.)

Puntería. | *Guk apunteridxeri esate tzeu igul e "Dios, asartau ein dxok!", da bestik esaten dabe "Aparau ein dxok!".*

apur, apurre. (APUR) **1.** Poco, pizca, pequeña cantidad. | *Oratukeran min emoten dabe agiñek, min asko es, baya apur bet.* | *Arek astindu apurtxu bet.* | *Apur bet lelue da.* | *Itxan apur baten, itxan!* | *Diru apurrek asko balidxo ban gero!* **2.** Pedazo pequeño, migaja (sobre todo de pan); resto, pequeña cantidad. | *Orrek ogi apurrok oilluri emoidxosus.* • *Ogi apurrek nahiz ogi samarrak esan daiteke.* **3.** Pequeño, -a, insignificante; escaso, -a. | *Bueno, euri apurre eitten dabeniñ a garoskatxue eitten dau.* | *Brildrillek? Geuse apurrek-edo, ondakiñek-edo.*

• **apur bategeittik.** Por poco. Ik. *idxegeittik*. | *Apur bategeittik esta jeusi*. • **apur bat gorabera.** Poco más o menos.

apurkan. (APURKA, pixkaka) Poco a poco. Sin. *pitxinke-pitxinke*. Ik. *geldiro*. | *Ta egoten da sagarren, edo madaridxen barruen bera, apurkan-apurkan usteldu eitten da andixik. Da arridxu esate dxako, auri kokuori ibiltten dana.* | *A lumorratza-edo apurkan-apurkan des eitten da, ta gero ba lumie ba bi dan moduku eukitten dau.* | *Lanparra euri grumiri esate dxako. Siketin be orixe be estimau eitten da, se eitten deu te ba lurrek e, apurkan-apurkan jeusten dan les artu eitten deu te ba, mesedi eitten deu siketi daunin.* | *Prantzesak burue gorri-gorridxe asten deu, da gero apurkan-apurkan a gorritasune be asittu eitten da.* | *Da estutu eitten da apurkan-apurkan, da botaten deu sagardaue eitteko sagarren ure.*

apurke. (APURKA, pixkaka) Poco a poco, en pequeños trozos. Sin. *pitxinke-pitxinke*. Ik. *geldiro*. | *Pitxinke-pitxinke esanda be, aittuten da, baya emen apurkapurke geidxau esaten da.*

apurreridxe. (APURRERIA) Residuo, restos. | *Ogi apurreridxek.* | *Artzaketu: artzas olanik, kentzen indarrari, nai arturi, nai garidxeri-edo apurridxak kentzen.* | *Oserue len esaten san, oye, lo eitten dan kuartun, edo gelan oyen parin egote san, ba, ixerin antzeko bat, bai, eote san, goiko apurreridxarik etorri esteidxen nobera daun lekure oserue egote san, egaletatik inkeute.* | *Begiko samarra? Bai, olan apurridxarik begidxen sartu eskerun axik-edo: begiko samarra.*

apurtu, apurtzen. (APURTU) Romper. Ik. *eten, eusi, satittu*. | *Ankie apurtu.* | *Ene, apurtu da botille!* | *Espillue apurtu da.* | *Aintxiñe nabue apurtute emote dxaken beidxeri.* | *Satittu da: ebaitte satidxek. Apurtu da: ebai barik apurtu.* | *Apurtuneko asurre osatzeko, medikugana erun, nik besterik eser ber be, guk emen eskendun jakin ser eitten dan. Medikugana erun, de ba ipintte tzon.* | *Musturrek apurtu deutzos.* | *Soki sarritten, baten esaten da "Dios, apurtu eingo dok doble baten. Ein doble bidxen!"*.

apurtukor, apurtukorra. (APURKOR) Quebradizo, -a, frágil. | *Apurtukorra da erres apurtzekue.*

apurtxu. (APURTXU) Un poquito. | *Etorri seittes apurtxu baten!*

apurtxut. (APURTXU BAT) Un poquito (contracción de *apurtxu bet*). | *Iparra da aixe fuertetxue, da apurtxut otza dana; da eguaixi da*

aixe epeltxue. | *Malbabisku bedarra esate tzeu, te apurtxut ba, useintxu eukitten deu.* | *Arto urune botaten da irakitten daunin, da gatza be botate dxako, bueno apurtxut bayo geitxuau olan, baya askorik es, gasidxe urteten deu te.*

apurtzaila, apurtzailie. (APURTZAILE, puskatzaile) Rompedor, -a, que rompe. | *Apurtzailie bai, geusa apurtzen dabillenari. Ori esate dxako, bai.*

apustulue. (APOSTOLU) Apóstol. | *Esate benes, apustuluek amabi ixen siren.* • **apustuluen atzamarrak.** Madreselva (*Lonicera periclymenum*) Beste leku batzuetan Jaungoikuan atzamarrak esaten da. | *Apostolun atzamarrak bedar batzuk tire. Da olan eukitten dabe usentxue, olan useiñ agradabletxu eukitten deu. Nik ikusi ttutenak e, orrek e, ser esangot neuk?, dire suri-marrotxu... suri-suridxek pe estire, da se esangot neuk?, olan atzamarran modukuk, bestekuk-eta estire, arek txikitxuk ixeten dire, seinde se esangot neuk?, larrosi modukuk pe estire. Eurek egoten dire, ser esangot neuk?, suritxuk ixeten dire ta eurek eukitte ittue..., berak e arbolik-edo..., arboli be esta, olanik e orren arrimun-edo asten dana da ori bedarori.* | *Apustuluen atzamarrak atzamar formako lorie deke.* | *Amabi apostuluk esate dxako. Onantxik atzamarra lakoxi dekos. Moltzuk atate ittus. Amabi apostulun atzamarrak.*

1 ar, arra. (AR) Macho. Azentua azkenengo bokalean du singularrean. | *Txarri arra.* | *Udebarridxen txori-parejie junteten dala, arra da emie, da gero bidxe arte, abidxe, kunak asteko.*

2 ar, arra. (HAR) Gusano. Azentua lehenengo bokalean du singularrean. Ik. *arredixue, kokarra.* | *Urdin perretxikue, goixien jaidxota badau, gaberako ya arrak einde.* | *Arra solun egoten da, lurrien egoten da.* | *Naburi urtete tze olanik pinportatxu batzuk, sanbrotxu batzuk urtete tze, da arek sanbruek eukitten dabe artxu suri bat barruen, koko suritxu bat, da nabun sanbruek esate dxake.* | *Bai, guk usau emen, bai, kokarra bai da arra be bai, te guk geidxau arras ibiltteu, lurrin botaten diñ arrakin.*

ara. (HARA) **1.** Allá. | *Ara begire.* | *Ara susen-susen juen biosu.* | *Emendik ara kilometro erdi badau-ero mendire, jutaldidxe!* **2.** Recién, nada más. | *Eskolatik ara etzera jungo nas.* | *Il barridxe: il de ara, edo olanik, personie.* | *Jaten dabe esate baterako, indarra be gastetan, oiñ erne ta ara, gastetan jan eitten dabe.* | *Opille eitten da, koipe opille eitten da ganaduk nai txarridxek*

barrun eukitten daben koipie urtu, da arek e txintxortak esate tze areri, serari e..., urtu te ara ba gatzan apurtxut einde, ogidxen barrun sartute, len jan eitte gendusen arexe pe. • **ara-ona.** De aquí para allá. | *Axe larridxe? Axie geldi egon esiñik dabilleniñ e, ara-ona, ara-ona, axe larridxe, euridxe ekarteko axie.*

Araba. (ARABA) Alava. • **araba sosue.** Estornino (*Sturnus sp.*) | *Araba sosu da amengo sosue... Antzekue. Iños etorri dire bandadak ona. Araba sosuek. Araba sosu da Arabako sosue. Bertoko sera, bertoko naturala, bertoko sera barik, araba sosu esate dxake.*

arabar, arabarra. (ARABAR) Alavés, -esa. | *Gure ama arabarra san.*

aragi, aragidxe. (HARAGI) Carne. | *Aragi bigunekue. | Aragi gogorrekue da ori. | Akenak burue aragidxen barrun sartzen dau, odola txupetako. | Urrutute? Asala kendu te ba aragidxe agertu, an pustilli daun lekuen aragidxe.* • **aragi bixidxen.** En carne viva. | *Aragi bixidxen deko atzamarra.*

araikeridxe. (HARAGIKERIA) Acto carnal, deshonestidad, lujuria. | *Aragikeridxe es eittie da enbrakin beste konturik es eittie. | Ser konturi: araikeridxe. | Araikeridxe eitten dabe gastiek eta.*

araiño. (HARAINO) Hasta allá.

arakatz, arakatza. (ARAKATZ) Grosella, grosellero silvestre. | *Arakatza geurin egon san len, frutu bat. Bai, da okanen antzekue, da txikitxue garaune, da bera landarie, bera arbolatxue ixeten da, dana arantzje eukitten dabena. | Arakatza frute bat da, da udan eltzen da, da ser esangot? Suridxe. Suridxe es, berdie dala. Ser esango tzut? Okanen antzekue, txikitxuaue, da ba umik -eta estimau jaten dabe. | Arakatzak biribiltxuk dire.*

araketa, araketie, areketie. (ARAKETA, areketa-bat.) Gradeo, acción de gradar. Ik. *arie.* | *Oiñ e areketarik esta eitten, tratoras eitten da oin.* • **araketan ein.** Gradear, rastrear, labrar con el rastro. | *Len ganaduk bustertzen siriñien, edo solun araketan eitteko, edo sestoketan eitteko, edo goldaketan eitteko, nardeki ipintte dxaken. | Arek ortzak sartze dxakes araketan eitteko.*

1 araketu. (ARAKATU, areatu) Gradar, rastrear, labrar con el rastro. Ik. *arie.* | *Lurre araketu. | Solu araketu. | Araketu ein deu solue. | Araketu ba, burdiñarias eitten da araketu. | Araketu ein*

biou arias. • Hona hemen zelan bereizten diren *araketu* eta *goldaketu* berbak: | *Ari ixeten da..., ser esangot?... ortzakin, 'araketu' ixeten da solue... se esangot?... apur bet e bedarrak araketu te bedarrak solteta dxakos. Gero goldaketu eskerun aspire juten da, soidxe ataraten deu goldik ganera, da aspidxen egoten da bedarra usteltzeko.*

2 araketu. (ARAKATU, miatu) Registrar, investigar. | *Dana arakatu dot.*

arako, arakue. (HARAKO). **1.** Para allá. | *Amendik arako arlo bat.* **2.** Nuevo, -a, reciente, fresco, -a. | *Labatik arako ogidxe. | Labatik arakue? Laban erre badire ogidxek, labatik arakue, andik ataraten dan ogidxe. | Dendarik arako erropie.* • **arakun.** Recién, nada más. | *Txintxerra ser da? A koipie kendute dauna? Sera, ser esangot neuk? Koipi kendute dauna? Bai, txintxerra jan eitten da, ein de arakun ba esta txarto egoten.*

arantz, aratz. (HARANTZ) Hacia allí. *Arantz nahiz arantz esaten da. | Arantz begire. | Sois arantza! | Juadi aratz! | Arantzau jun da. | Ni jungo nas emetik arantz, da su etorriko sara andik onantz, biderdi, ni arutz, da su onantz. | A etze barridxe pasetan danién, apurtxu arantzatzuau junde, olan artzen da apurtxu bet, baya bertan das. | Beste idie asten dan lekuen ba ori be arantzau edo onuntzau asten da, baya ori beste idi moduen franko esta egoten. Ba an bat eta beste bat beste leku baten.* • **arantzin.** Camino hacia allí. | *Siketa eundidxe daunien, erregatibi eitte san beste erri batera. Da ango errikuk pe, jute san errikuk pe jai artze ben, mesi emote ben da jai artze ben arek pe, da mesi egote san, da erregatiba. Gero, arantzin erregatiban..., neu iñoix junda nau Natxitture amendixik, Natxitture, eta an amabidxetan jentie itxeitten euki gendun de bidera urtete-skuen.*

arantza, arantzje. (ARANTZA) Espina, púa, pincho. | *Arantza gogorrekue. | Gastañak lelengo arantzje, gero lakatza, tapau deuna, garo garaue deko ostabe, gero mintze. | Txo, ego adi, arantzje sartu dxatek. | Estau arantza bako larrosarik. | Kirikidxolatza biribiltzen danin, arantza utziñ eoten da. | Gorostidxe? Ba artiñ antzeko orridxe eukitten deu da arantzatzu batzu pe bittartiñ eukitte ittu gorostidxek.*

arantzadun, arantzadune. (ARANTZADUN) Espinoso, -a. | *Arkasaixde arantzadune da, arantzje deko. | Guk esate tzeu orreri sasi okana,*

baya sasi okana da saside barik, arek dire elorridxek, modukuk, arantzadunek are pe. | Sarradurie? Ei llei alanbrigas, ei llei olas, edo seosegas, baya sarradurie, da jeneral alanbra arantzadunas eitten dana.

arantzatzu, arantzatzue. (ARANTZATSU)

Espinoso, -a, zarzoso, -a. | *Arantzatzu da seinde saside be, ori, asko bouko arantzie: "Arantzatzu ok".*

arantzengo, arantzengue. (HARANTZENGO) El situado más allá. Ik. *punterengue*.

ararte. (HARA ARTE) Hasta allí.

arasa. (ARASA) Limonera del carro. | *Burtarasak dire egalak. Erdiku da partikie. Arasak dire albutan, da gero trangak, da aretan arasetan daus suluk, taketak sartzeko. Taketak eusteko bedarrari-edo. | Onek albo bixtakuk di arasak. Onek trabeskuek trangak, eta au partikie, erdikue, au atzetik eurrera arteku da. | Burdi erreillako sulue esate dxakon. A be ixete san, burdidxek goitti bera eto rteko, ganaduri basaka aundidxe emote tze, da aspiarritten-da ibiltte giñenien, ba sarte dxakon..., selan esangot?, estaka bat, estaka sendotxu bat sartze dxakon, da axe ipintte dxakon burdi erreilliri lotute, lotute ta sulun sartze dxakon, antxe burdidxek erreillan dekon suluen sartze dxakon, da beste alderdidxe artu sokias, da lotu eitte dxakon gora, goiko burdidxek e arasak eukitte ittu olan albutan, erreillan paritan, da araxe, ixeten dire egurrekuk arek arasa te ixete sirin, da araxe lotze dxakon, soka batas lotze dxakon, burdi erreillik e eukitte ban, ipintte dxakon serari goitti bera, ganaduri saka aundidxeidxe emon esteidxuen, ipintte dxakon, sokias lotute ipintte san, da an burdi erreillik sulu dekon lekuen antxe sartze dxako alderdi bat, da beste alderdidxe, ba egurren puntetik araxe burdidxek e goitti bera sartute eukitte ban taketin-edo lotze dxakon, burdidxek e abidxada aundidxe goitti bera artu esteidxen, da ganaduk sostenidu deidxen. | Burti, burti arasi da bekue. Da goidxen enkallentzako. | Arasa dire egal bidxek. Ta partiki erdidxen. Erute ittu burdidxek amendik, olanik e, da ango erdidxen partikie asi an da beyen orrarte. A partiki da. Ta gero trabes dabixenak trangak.*

araso, arasue. (ARAZO) 1. Ocupación, quehacer. | *Arasue ser esango nik ær dala? Okupasiño txikidxen bat-edo. | Arasu bet deko. | Arasueittik au dakatzut, erregalue. | Ori dok arasue artu duana! | Lotue: ba persona batek beste bateri araso asko emoten tzonin, ba seosegeittik, edo*

beren ixekerie dalako beti bestien ganiien egoteko-edo, ba ori da persona lotue, edo su lotzen saittuna. | Morokille da araso aundikue, da txondorgiñek e erresena: urdeidxe, txorixue, da jeneral orrexek. 2. Problema. | Arasu deko naikue.

arasotzu, arasotzue. (ARAZOTSU) Que da mucho trabajo. | *Arasotzue? Bai, edoser biar ixen lei arasotzu.*

aratona. (HARA ETA HONA, hara-hona) Hacia allá y hacia acá. | *Aratona doye bidie.*

araxe. (HARAXE) Allí mismo. | *Bai, beren buru bota ban, araxe barrura. Da gero bera atara esiñik sekulekuk ein sittuen.*

arbel, arbela. (ARBEL) Toba; especie de arcilla; pizarra. | *Arbel lastrie. | Arbela troskie bayo gogorra da, baltza. | Arbela erres-erres eitten da... apurtu, arri gogorra barik, samurre, apurtu eitten da, blasta-blasta. | Arbel arridxe da troska arridxe. | Arbela be bai. Arbela da..., arbela, seinde troska antzera eitten dana. Satike-satike oten da arbela. | Arbela da..., guk esate tzeu a troska... a satik eta atalak-eta emote ittusena. Arbela arri basto bat.*

arbi, arbidxe. (ARBI) Nabo destinado al consumo (*Brassica napus*). Ik. *nabue*. Nabarnizen *arbidxe* eta *nabue* bereizten dira. *Nabue* handia izaten da eta ganaduari ematen zaio; *arbidxe*, berriz, txikia izaten da eta lagunek jaten dute. | *Arbidxe askok esaten dabe nabueittik, baya geuse bi dire Nabarnixen, arbidxe ta nabue. Arbidxek txiki-txikidxek ixeten dire, jatekue da. Nabue ganaduentzako. | Nabue ganaduk jaten deu. Bestie arbidxe da. Orridxen diferentzi aundidxegirik estau eitten, baya ondun bai. Ondun arbidxe ixeten da sorrotza da txikidxe. | Arbidxe ixaten da, esate baterako, ba personak jateko, patatakin-edo ipintten bada, edo gixau edo dana dala, ixeten dire arbidxek, txikitxuk ixaten dire. Da ba ya nabuk pa ganaduntzako ixaten dire. • **arbi lorie.** Flor del nabo.*

arbola, arbolie. (ARBOLA, zuhaitz) Árbol. Berriemaile *baten* arabera, *piñue* ez da *arbolie*, *arbolak* *paguek*, *atxak* eta horrelakoak dira. | *Arbolan puntie. | Arbola siketu ein da. | Arbolie loran dau. | Atxa arbolie adartzu dok. | Adaburu andidxe deko orrek arbolik. | Amen asitte, sereraiño, arbolie dauen sereraiño, geure lurrek. | Leku batetik beste leku batera erun deu arbolie. | Beste leku baten ipiñi deu arbolie. |*

Sustreidxe botata dau (arbola batek artzen dabenien, da inderra artute daunien). • **arbola botatzaillie**. Cortador de árboles. | *Ori be arbola botatzaillak ibilli siren baten, de a be arbolak bota, ta es posure badois, da espadoyes, geuk eskendun apurtu, baya barririk es eben ein, da arbolie botakeran egala apurtutzen da, ba apurtu san.* • **arbola eperdidxe**. La base y los raigones que quedan al talar los bosques. Ik. *arbola ondue, andobie, ondue, sustrupue.* | *Arbola eperdidxe geldittu da.* | *Amen be arbola eperdi ederra dak, botata.* • **arbola landarie**. Esqueje o planta del árbol. | *Ilberan landarak, arbola landara pe sartzan dire.* • **arbola ondue**. La base y los raigones que quedan al talar los bosques. *Arbolondue* ere esaten da. Ik. *arbola eperdidxe, andobie, ondue, sustrupue.* • **arbolik artu**. Arraigar, prender, echar raíces el árbol. | *Sustreidxe* botata dau (arbola batek artzen dabenien, da inderra artute daunien). • **arbolie bota**. Derribar un árbol. | *Sure ba, ser dala esangot sure? Ba egur bat, egur oso bat, esta?, egurre, arbola botaneko bat, botata daun bat: sure.* | *Arbolie bota, satittu, tranbau.* • **arbolie tranbau**. Tronzar el árbol. | *Tranbau da ebatie, ser esangot neuk?, egurrek meidara ebeite tranbau esate dxako, meidara, ebei bi din egurreri.* | *Arbolak tranbau.*

arboladi, arboladidxe, arboleidxe. (ARBOLADI, zuhaizti) Arboleda. | *'Arboladidxe' da beste..., atxa edo olan, beste arbolak dausenak. Baya sagarrari etxako esaten arboladidxe. Sagarrari esate dxako sastidxe. Arboladidxe da olan edoser, sepa-edo badau. Piñuri etxako esaten arboladidxe. Piñu barik ixen bi deu atxa, edo pague, edo beste, leixarra-edo.* | *An garbi dau les, esan gurotena, gu kasan juteko, arbolaidxe, edo piñadidxe, edo olan bi da ba, ta ara eskara juten.*

arbolarte, arbolartie. (ARBOLARTE) Zona espesa de arbolado. Multzo zentzua hartzen du -arte atzizkia erantsita. Ik. *arriartie, bedarrartie, sasiartie.* | *Arbolarte baten dau.*

arbolatzu, arbolatzue. (ARBOLATSU) Numeroso, poblado de árboles.

arbolondo, arbolondue. (ARBOLA HONDO) La base y los raigones que quedan al talar los bosques. Ik. *arbola ondue, arbola eperdidxe, andobie, ondue, sustrupue.*

ardatz, ardatza. (ARDATZA) **1.** Eje. *Ejje* ere entzun dut, baina oso gutxi. Ik. *ejje.* | *Ardatza*

errubera bidxeri eusteko useten da. | *Arek berotu eitten deu a ardatza.* | *Sebue emote dxakon burdidxeri ardatzien, labanduteko.* | *Burpillek onetan eukitten dabena, guk deitzen tzeu a burpille jabotekue, ardatza* | *Errilla bateti bestera doiña da ardatza.* **2.** Eje del molino. | *Ardatz aspiko maidxe.* **3.** Huso de la rueca. | *Goruen ipiñi, da lotu eitten da, da gero aridxe eitten da. Aridxe, ta sera, ardatza esate dxako beyen eukitten danari, olanik a be, ser esangot neuk?, a be burdiñesku, edo olaku ixeten da. Areri ardatzari erain eitte dxako, tiretu aridxeri, amun daunari, da erain, de aridxe eitten da.* | *Goru ipintte san, jeneral paparrin ipintte san, jeneral paparrin ibiltte ben, olan paparrin, da amuri esku batas kolpe, da bestias tiretu, da bueltaka-bueltaka, ardatza bueltaka-bueltaka-bueltaka dala, aridxe itte san.*

ardau, ardaue. (ARDAO, ardo-bat.) Vino. | *Ardau gosue.* | *Ardau baltza.* | *Ardau suridxe.* | *Ia, txolot bat ardaue ekarri!* | *Antxiñe esate ben esala egoten ardaurik ta olakorik.* | *Ardaue aprobeik, ia!* | *Ardauk ein tzeke efetue!* | *Bidegiñi a ixete san. Gero erridxe e ori emote ban, ardaue. Errasiñoye esate dxakon. Da asko moskortute. Bai, aprobetxetan, da gero moskortu. Bueno, len bidegiñetan-da moskorakin jentie. Usau bes ardaue edaterik! Baserridxetan-da pentzau bes ardaue edaterik! Baten batek ardaue edate baban! Baya pentzau bes! Ure.* • **ardau sopie.** Sopas de vino. | *Ardau sopie katarruntzako da, baya gatxa artzeko.* • **eskillapeko ardaue.** Vino especial. | *Eskillapeko ardaue esate tzege, askotan tabernara jun, da eskillapeko ardaue markataku ixeten da, "Eskillapeko ardaue atara ik!". Markaku bayo eskasau da, baya korrienti bayo obi: eskillapekue.*

ardausale, ardausalie. (ARDAOZALE, ardozale-bat.) Vinolento, -a, bebedor, -a, borrachín, -ina. | *Ardausalie erdi moskortidxe danari.*

ardausalekeridxe. (ARDAOZALEKERIA, ardozalekeria-bat.) Vinolencia; vicio de beber vino. | *Ardausalekeridxe: ardaue edateko ba saletasune dekola, ardaue atrapaue eskerun ba ardaue edango lekola.*

1 ardi, ardidxe. (ARDI) Oveja. | *Okelarako ardidxe.* | *Ardi antzue.* | *Ardi galdue.* | *Ardidxe jaboten dau.* | *Ardidxe ipiñi.* | *Ardidxe beeka daus.* | *Oba ixengo da jaten badu, ya galduneko ardidxe esta agertuko ta.* | *Len or goixetan ibiltzen sirin ardidxe.* |

*Ardidxenana noye. | Ointxe asi dire ardidxek ipintten emen. | Nire ama ta orrek ardidxekin ibiltten sirin, ardidxek saintzen. | Marlotak: ardi billotzik estekenak. | Ardidxen ulias eitte san aridxe, da aras aridxas eitte san telie. | Da ak e biarrrik e es eban berak eitten, golperi pe. Arexek ardidxek saindu te... Alper itzela san, bueno! Pastoriek jeneralin dire alperrak, golperi pes. | Amen gitxi, emen bakotxak ogei, ogetamar, da olakoxie. Amen berton es eben len ardirik eukitten. Ointxe, ointxe daus ardidxek, ointxe arte esta esautu emen beyen ardirik. Or goidxen bai. Or mendixen ardidxek danak. Ba asko es bakotxak. Etze asko eon sa les, es eken jateko nora erunik e. | Ardi sarrak? Bueno, orrek e amen aprobetxau estire eitten baya ba. • **ardi aldrie.** Rebaño de ovejas. • **ardi bandie.** Rebaño de ovejas. • **ardi bidie.** Sendero ovino abierto por las ovejas en el monte. | Ardi bidiek dire ardidxek eitten dittuesanak. • **ardi errebañue.** Rebaño de ovejas. | Orrek ardi errebañue artu eta juten dire, ba orra, pastue, jatekue deun lekure. • **ardi esnie.** Leche de oveja. | Ardi esnerik eskendun euki. • **ardi lanie.** Lana de oveja. | Ardi lanias eitte san koltxoye. • **ardi narrue.** Vellochino, zalea. | Edeganekue? Beidxen ediñ e ganekue? Narrue, beidxeri ipintte dxaken narru, da busterridxe tapeta ipintte dxaken... ganetik ipintte dxake ardi narrue edo billotz eundixen narrue. | Guk emen saku usete gendun len biarrerako. Txoto ein da... Onek naparrak da onek usete ben ardi narrue. Ardi narruas einde... Da es siren busten. Alantx ik eitte ben biar arek. • **ardi sain.** Cuidando el rebaño. | Ardi sain dau mendixen. • **ardi saiñe.** Pastor. | Ardi saiñe edo pastorie, ardidxek saintzen deuena. • **ardi txabolie.** Cabaña, borda donde se guardan las ovejas. Nabarnizen honela ere esaten bazaio ere, beti erabili den berba artokidxe da. | Bueno, len ardi txaboli ixendaku san a, da gero olluk euki gendusin. | Ardi txabolak des einde das. • **ardi txakurre.** Perro pastor.*

2 ardi, ardidxe. (ARDI, arkakuso, kukuso) Pulga. | Ardidxek dabix, ainke ein deus-de. • **ardi ainkadie.** Picada de pulga. | Ardi ainkadie, ak gorri-gorri isten dabenak. | Ardi ainkadas jositte dau. | Ardi ainkadi gorriunatxu txiki bat ixeten da. • **ardi kaka.** Señal que deja la pulga en los lienzos de la cama y la ropa interior. • **ardi satza.** Estiercol de oveja.

ardiki, ardikidxe. (ARDIKI) Carne de oveja.

ardille, ardillie. Ardilla (*Sciurus vulgaris*). | Ardillak dire bixidxek! | Ardillie da piñurik piñu ibiltten dana. | Ardillie ba atrapau eskerun personak pe, jan eitten ei dabe, neuk estot iñois jan baya, guk estou kastetan ardillie. | Ardillie, a gorri txikitxu. Amen ikusiko sus onetan. | Orrek agertu siren..., ba senbat urte ixengo dire..., oiñ ixengo dire..., nik e kasan asi... eser ete dan a lelengo ikusi genduniñ e akorte nas. Orduntxe arte eskendun ikusi beti basutan ibiltte. Guk eskendun beintzat onetan ikusten. Ba ixengo dire ba berrogei e..., geidxau, irurogei urte buelti bai, orrek etor sirela ona, emen beintzet berton. Oiñ ibilko siñ iguel kanpoko erridxetan edo orrrantz. Ba amen berton akordete nas ganera nun ikusi gendun be. An gu kasan jute giñen e emen elixi daun lekutik ondiño arantzau, antxe piñun, se ixen ete san da dxuuuuu! piñu bateti bestera, “E, kaguen se geusa ixen dok?”, gu bata bestiri, da se ete dan, da orduntxe ardillie.

ardure, ardurie. (ARDURA, arta, arreta) Cuidado, diligencia, esmero, solicitud; responsabilidad. Ik. *errenkurie*. | *Arduri dekon gixona da ori.* | *Ardurie artu ixu orrena!* | *Ardurerik parik.* | *Jun seittes, estau ardurierik eta!* | *Des einde be, estau ardurierik.* | *Etzeko ardurie deko.* • **ardure bakue.** Despreocupado, -a; descuidado, -a; irresponsable. | *Ardure baku da, da ardure apur bet emoteko, ba berba ondo eidxosu!* | *Bai, kontixu, bat tire, trauskille, ta traskille. Ardure bakuri esate dxako alakue.* | *Bueno, txarto jantzitte badoye, ba ardure baku dala esate dxako geidxenbat.* • **ardure ixen.** Importar; preocupar, interesar. | *Ardure deste orrek.* | *Ardure deste baya!* | *Este ardure!* | *Esteust ardure garaunik pe!* | *Bardaskie: sispritsapart, lorrynegaittik, noberari ardure estotzona, esan gurot, edoselan junde ba ardurierik es, jantzitte be esan gurot, bardaskie.* | *"Trespas ibiltten da", ya ardurierik estetzonari, ardure baku danari.* • **arduretan.** Preocupado, -a. | *Bat e bat etorri es, da: “E, esta etorri ondiño, ba arduretan egon nas ba, seoser pasa dxakola ta.”* • **ardurie artu.** Preocuparse, responsabilizarse. | *Artukot ardurie.* | *Mantarra? Bai. Mantarra ba erdi tatarres da ardure bari les dabillenari "Mantarrori, mantarrori!". Eseri ardurierik artze estetzona les, mantarra.* • **ardurie euki.** Importar. | *Bueno nik e olan gastu ixen es arren estot pentzetan ardurierik eukitten dabenik.*

arduredun, arduredune. (ARDURADUN)
Responsable, encargado, -a.

arduretu, arduretzen. (ARDURATU)
Responsabilizarse, encargarse. | *Sure konture, e! Su arduretu orras! | Su arduretu gandu sartzeko! | Jauberik estaben basue, erridxe arduretzen dan basue usie da.*

arduretzu, arduretze. (ARDURATSU)
Cuidadoso, -a, diligente. Ik. *errenkuretze.* | *Arduretzu da ya beti arduri artzen deuna geusiri.* | *Arduretzu da.*

are, arie. (ARE) Grada de veinte dientes o púas. Berriemaile baten arabera, horrela esaten zaio Ikaztegieta aldean, baina Merika inguruan, ostera, *ariek.* Ik. *goldie.* | *Goldie goldaketetakuri esate dxako; tresna bat ixeten da goldatzekue, ak doblau eitten deu. Ta bestie ixeten da apurtzekue, da a da arie.* | *Arie ixeten da, ortz utzek dekosen, esate baterako, lau quadro antzeko eurrera estutxuaue, da arie ixaten da, ortzakin dauna, ortzak-ortzak, eta aspiko ortzak noixipeiñin ba kendu, te sorrostu eitte dxakosan, sorrotzak egon deidxen.* | *Ekarrixak ariek.* | *Ekarrixus orrek arik ona!* | *Ariek dire burdiñeskuek, olanik, serak, barrak, lau barra, da burdiñak, ogei pentzetot dekesela, bakotxin bost. Da a ipintte dxakon, areri palukin eiñeko sesturi ganién, edo ostantzien areri ipintte dxakos arridxek.* | *Areketarako, solu labretako. Oiñ onek tratorak dausen les, arek egote siñ ordun beidxekin labretako. Arie, ara orsdune.* | *Arik, gurin oin be badas bitzuk sabaidxen.* • **are burdiñeskuek.** Cierta apero de labranza, metálico, que tiene las púas en forma circular. Sin. *bailariñak, burdiñarak.* | *Bueno, au ontzuauku da, are burdiñeskuk dire onek. Ondiño geurin be badau te estakitt, are burdiñeskuk esate gentzen. Oiñ estakitt ibili be eitten badeu, se ara erlatokidxe san lekure erunde deu te. Da oiñ estaitt ibiltteko moduku badau be. Are burdiñeskuk esate gentzen. Bailariñak pe esate tze, baya geuk are burdiñeskuk, da bai, bailariñakin ba aittuten da, baya onek are burdiñeskuk dire ba.* | *Arie ta..., oiñ are burdiñesku pe or egongo dire estropiaute, bastartute. Oiñ are pe ainbeste estire ibiltten, len ibiltte siriñ are pe, ariek, ba burdiñeskuk, baya oiñ estire ibiltten arek.* | *Solue mamintzeko ibiltte san. Oiñ estire ibiltten are burdiñeskuek.* | *Are burdiñeskue tire burdiñ utzeskuek. Danin deke burdiñi. Da beidxeri busterridxen e katittu*

bi dxakena katias eitte dxake. • **are sestue.** Armazón de la grada. | *Are sestue ixeten da a sotzakin eiñikue, da atzetik an esku estekona kolpeteko. Da arexe ariri aspidxen ipiñi, da aregas eitte san, da are sestue. Baya ostantzin sesto utze, atzien palue ari les eukitte, beras kolpeta, ta arridxek ari ipiñitte.* | *Aren sestun ganin arik ipintte siren, pixugaittik ariek, da gero solun pasau.* | *Are sestu da solun ibilttekie, arin aspidxen ipintteko. A esku baku da. Arik eukitten deu eskue, da ari sartzen dxako ganetik.* • **are subille.** Trabesaño de madera en que están encajadas las púas de la rastra. | *Are subillek, albutan etorri sin bi. Lau eukitte sittusen da are subillek. Ba ariek e lau are subille eukitte ittus e.* | *Are subillek tire..., ari ba esate baterako lusenkatxu ixeten da, lau kudroku bayo lusenkatxua, atzetik eurrera lusenkatxu, da ortzak sartzeko, ari ibiltteko, solun ibiltteko ortzak sartzeko, arie ba ipintten da..., egalak, eurreko parti ta atzekue, da gero erdidxen, lau illada edo bost eukitte ittun. Eukitte ittu olanik, da olanik trabes be barrutik pasaute, da antxe ariri, antxe olan dekosen subilletan ortzak sartu bi dxakos. Ortzak errementaridxek ipintte tzos. Jo, gorittu lelengo, jo, da bera meyek, metu-metu eitte ittus, da me-me eitten dire puntak, da muellen... lodidxau eukitten deu, da subilleri arixek e, arek ortzak sartze dxakes araketan eitteko.* | *Arie eruten da..., kati ipintte dxako, esate baterako eingo u kontue auxe dala arie, da olan doye ta, amen atzien olan eukitten dabén... aresku esate dxako, olan eukitten dabena norberak kolpeteko, arixeri esate dxako are subillek.* • **are suilleskuek.** Grada de madera de veinte dientes o púas (en contraposición a las are burdiñeskuek o baillariñak que son totalmente metálicas). | *Da suk esan dosune, baillariñe esate tze, da guk bakixu ser esate gentzon, geuk geuk etzekuk? Are burdiñeskuek. Bestik egurre daroye. Jeneralien emen Nabarrixen be baillariña esate tzen, ba guk geuk geuk etzien lelungotan urte benetik are burdiñeskue. Burdiñara pe bai, baya are burdiñesku beti. Da one besti dire, arik die orre pe, baya are suilleskuk. Suille bakixu ser dan? Egurre.*

are, arie. (HAREA) Arena. | *Itxosoko arie.* | *Kanterako arri arie.* | *Ari pillue.* • **ari arridxe.** Piedra arenisca. | *Are arridxe ser dala esango tzut. Are arridxe da ba arri bat karatxa estana. Ormetan dasen arridxek karatxak ixaten dire ta. Are arridxek ixeten dire arin kolorekuk, da*

apurtzen be erresau ixaten dire. Da orrek e jeneral ormak eitteko, bai, segun nun ipintteko, olan albo ormetan-da es beintzat, esta ibiltten ori are arridxori. Ori ari arridxe jeneral ibiltten da erromadak, kanpun eitte diriñ erromadak, erromadatan ganetik e egurre ipintte dxake ta ganetik langi ipintteko, ari arriskuk ixeten dire arixek jeneralin. | Ari arridxe da arin kolorekue, seinde, onen koloren antzerakue. | Ari arridxe, or dao asko, bestaldien, tontorrien. | Ari arridxe gastau eitten deu geusie, burdiñe nai olako asko. | Amen Arrolan danin dao ari arridxe. | Arenau, arias eitte san, lejiás be bai, xoxias be bai, norberak ser dekon erresen, ba aixas. Da or itxoso partin, esate baterako, Lekitton, Lekitton-da olan arenadurak arias eitte sirin. | Artu eidxoteko arridxe da are arridxe. • **ari lurre.** Tierra arenisca. | Arrolan da ortan ari lurre dau, ta emen es. Emen goitti dau... au bustiñi esate tzeu, bustiñi lurre, bustiñe lurre. Karatxan lurre dau emen. Da an ari lurre esate tze Arrolakuri. Arrolakue, arridxe be ari arridxe da, gorriski. | Emen goidxen badaus ari lurrek. | Are lurre dau or. • **ari ein.** Volverse arenosa o dura la fruta. Nabarnizen kirridxe ein esaten da gehiago. | Frute klase batzuk egoten dire, a arie eitte dxakenak. | Ari deko, ari ein dxako.

aregas. • **aregaskue(k) ein, amaittu.** Romper la relación con alguna persona. | Ariaskuk ein dodas. | Aregasku amaittu dot.

1 arek. (HAREK, hark-bat.) Aquel. | Kurutze bi egon sirin, da lagunek ildekuk dile esate ban arek.

2 arek. (HAIEK, haiek-bat.) Aquellos. | Arek koipiek eitten dire urtu. Suten ipiñi de urtu.

aremaitekue, aremaitekue. Campanadas de ánimas. José Miguel Barandiaranek (*Obras Completas*, La gran Enciclopedia Vasca, II, "Tradiciones y leyendas de Euskalerría", 218. orr.) honako hau dio: "Existe la creencia de que no se deben dar tres vueltas alrededor de la casa después de los Arimetako, es decir, después de las campanadas de ánimas, que en verano suelen ser a las nueve de la noche, y a las ocho en invierno". | *Aremaitekue kanpayas joten da.* | *Aremaitekue, eta arimena, bidxek egote sirin len.* *Aremaitekue goixau jote ben, da arimena beranduou jote ben; kanpa nausi batzuk ixete sirien, oiñ esta jo be eitten, da oiñ astu ein dxat selakuk dirin be.* | *Aremaitekutan anjelus e, jaunaren aingerue erresate san.* | *Aramaittekue illunkeran jote ben*

da bederatzi kanpaye dire da goixien albakue, sei kanpa. | *Aremaitekue oin jo be-esta eitten.* | *Albakue kanpairi esate dxako, anjelus, goixin goixitik jote ittun kanpairi.* *Oin jo be estittue eitten.* *Albakue, da aremaitekue artzaldien, illuntzin joten dan anjeluse: aremaitekue.* *Da gero, len -oiñ esta joten eselako kanparik pe, ta oiñ esebes-, baya len jote san albakue, da gero jote san illuntzien, illun esbaidxen, aremaitekue esate dxakona.* *Da gero, gerotxuau jote san arimena.* | *Aremaitekutan be eote san (kanpa jotie), da erresau eitte san "Jaunaren aingerua" esanda, "Mariari iragarri eutzan" da erresau eitte san agurmari bat.* *Gero jote ben arimena, beranduau, aremaiteku bayo beranduau, da ordun purgatorioko arimari aitteguri erresete san.* *Oiñ orrek e geusa danok tas astute, aiiii!*

aren, arena. (HAREN) Lo, la de él o ella. • **arenak ein.** Ser el fin de algo o alguien; estar acabado, perdido. Ik. *alperrik galdu.* | *Arenak ein deu.* | *Arena pe ein deu.*

arenadure, arenadurie. Refregadura con arena. | *Arenau, arias eitte san, lejiás be bai, xoxias be bai, norberak ser dekon erresen, ba aixas.* *Da or itxoso partin, esate baterako, Lekitton, Lekitton-da olan arenadurak arias eitte sirin.* | *Arenadurie arias be eitte san, da jeneral emen e, ni neuk beintzat sal sosi geidxau ibiltte naben ari-te bayo.*

arenau, arenetan. (HARENAU, harenatu-bat.) Arenar, refregar con arena. | *Areneu beye: seinde, ura ta jaboyas-edo arenetie, ba, edo lekiás, edo ba eskobias bayo geusa geidxau.* | *Arpillerie saku da, sakue, amantal..., sakusko amantal bat: arpillerie.* *Oiñ ibili be esta eitten ori be.* *Arenadurak-eta eitte gendusenin len e, ba jantzi axe ta, axe amantal sakusku jantzitte ibiltte san arenetan, goidxek-eta arenetan diriñin-de.* *Oiñ es goirik eta es berik.*

arenbaten. Quizás. Sin. *bierbada.* | *'Arenbaten' fijo estan geusiri.* *'Arenbaten' da badaespada les.* *'Arenbaten' fijo estan geusiri esate dxako ori.* | *'Arenbaten' esta berba bat e..., normal dabillenari esate dxakona be esta, arenbaten.* *"Arenbaten eingu", edo "Arenbaten estau eingu", dudokulako.* | *Arenbaten ixengok.*

arenbeste. (HARENBESTE, hainbeste-bat.) Tantos. • **senbat... arenbeste.** Tantos como. | *Ganbelak eukitte gendusen, senbat e bei, arenbeste ganbela.* *Bakotxa berie ipiñi.*

areñegun, arañegun. (HARENEGUN, herenegun-bat.) Anteayer. | *Areñegun eskondu suasen Pedro ta Maria.* | *Atzo edo arañegun edo noix ixen sen? emen galantak ein sittun putzek.* • **areñegun antzetik.** El día que precedió inmediatamente al de anteayer. | *Geur gasak sapatuen, atzo baridxekue, arañegu eguena, areñegun antzetik egustena.*

areridxue. (ARERIO) Enemigo, -a. Komunikabideetan zabal-zabal dabil *areridxue* berba, kiroletan beste taldekoei esateko, baina Nabarnizen behintzat, beste taldekoak, berez, *kontraridxuk* dira, ez *areridxuk*.

aresku, areskue. (ARE ESKU) Esteva, mancera de la grada. | *Ta gero askanengo ortzak eruten deu burdiñi olan altuau goitti bera sartzeko eskue.* *Aresku esate tzon ari.* *A eitten da berderik e jun de sepi artu, da euki olan lotute.* *Batzuk amarrau esaten dabe.* *Da gero artzen deu jitxe antxe.* | *Aresku noberak kolpeteko useten da.* | *Esate baterako, ariek eukitten dabe, sestu pe eukitten deu –oiñ orre pe asko estire asko ibiltten– eukitten deu ba..., ser esangot neuk?, aresku esate dxako sesto eskue.* *Eukitten deu olan atzin sulo bi eukitte ittu te sulo bateti bestera sartu te eukitten deu..., ba ser esangot neuk?* *Arku laku eukitten deu, ta areri ba aresku esate dxako se norberak andixi kolpeta ibiltten deu atzetik.* | *Sestu pa egurre deko da aresku be olantxik ixeten da bateti bestera, olanik alturetzuas beste alderdire eukitten deu, da atzetik, ganadun atzetik ibiltten danak arixeri, areskuri kolpeta segitte tze ariri, nai sesturi.*

aretan, artan. (HARETAN, hartan-bat.) En aquello. • **aretan egon.** Pensar de determinada manera. | *Artan dau.*

aretara. (HARETARA, hartara-bat.) De aquella otra manera. | *Ori ein biosu aretara.*

aretzu, aretzue. (AREATSU) Arenoso, -a, arenisco, -a. | *Ori lurre aretzu dok.*

1 arexek. (HAREXEK) Aquel mismo, -a. | *Arexek euste tzo, bekuri, se otzari ona beye, bera beye da les, aunarte bedarra dau kargeute.*

2 arexek. (HAREXEK, haiexek-bat.) Aquellos mismos, -as. | *Erri beidxek dire bei gorridxek, adar ederrakin, adar suriska ederrekin, da arexek dire erri beidxek.* | *Bai, kursulue. Oiñ esta ibiltten kursuluri pe.* *Arexek ibiltte siñ etzin argidxe eitten.*

argal, argala. (ARGAL) Flaco, -a. Ik. *errie, eskasa, makillaue, sikue, simela.* | *Ori be argal dau.* | *Ik lodittu ein bi dok, argala au.* | *Argala*

dau neikue. | *Ño, ori argala dxak, baya ori bestiori, ño, trapau dxak!* | *Ori etxak lodi bes, argal bes.* | *"Makillau laku dxak!" guk esateu, olan argal daunari.* *Makillaue guk betik sikutzet eukitteu ba.* *"Makillau garbidxak!".* | *Len argala!* *Oin be argala dau, baya len olakotxi egon san or ospitalin egonda etor sanin.* *Total jota! Bai, mejorau ein da, bai.* | *Ni sekule, iños egon nasenik argalen egon nitzen.* • **argal-argal ein.** Adelgazar. | *Ori argal-argal ein da.*

argaldu. (ARGALDU, flakatu) Adelgazar. Ik. *metu.* | *Lau kilo argaldu da.* | *Argaldu asko ein de.* *Bai lau kilo gitxiau leges.*

argaltasun, argaltasune. (ARGALTASUN) Flaqueza. | *Argaltasunin obeto dabil.*

argalune, argalunie. (ARGALUNE) Punto flaco, débil.

argana, arganie. (HARGANA, hargane-bat.) Tierra de poco espesor que tiene piedra debajo. | *Arridxe aspidxen dekon lurreri esate dxako:* *"Arganie da ori!".* | *Argana da ta!* | *Lur meye esaten da, seinde, ser esangot neuk?* *Aspidxen arridxe dekona-edo, ba lur askokue estana, lur meye esaten da.* *Argana be esate dxako.*

argi, argidxe. (ARGI) 1. Luz. | *Argidxe bistu.* | *Argidxe kendu.* | *Egun argis.* | *Kandela argidxe.* | *Argidxe ekarrik ona!* | *Len emen erri txikidxetan kanpuen argirik es euen, tabernetan barrun bai, baya kanpuen es.* | *Argidxe etxaku etorri biar geur be.* | *Epertargidxe da koko bat, argitxu txiki bat eitten dabena.* *Orrek olan illuntzin-edo, gabin-edo, olan argittasun txikitxu bat botaten deu.* *Da ixaten da, ser esangot neuk?, langosti modukue ixaten da, esta lusi ixaten, laburre ixaten da, da puntatxutik argitxu botaten deu.* | *Gela baten sartzen basara, ta argi illuntxu badau, e beras konpondu!* 2. Claro. | *Begi argidxek.* | *Gorri argidxe.* | *Serue urdiñe dau, argi-argi egoten danin.* | *Gona argidxe deko.* | *Emengo lurre da, se esangot neuk?, bata bayo bestie oritxuau ixengo da, edo batzuk argitxuauk ixengo dire, beste batzuk illuntxuauk, baya kolore bateko egoten da.* | *Erri ganadue? Esate baterako, geu pe erri ganadu dekus.* *Da ganadu gorridxe, gorri-gorridxe.* *Da surre eukitten deu beren gorritasune bayo argidxau.* 3. Listo, perspicaz, inteligente. | *Burue argidxe deko.* | *Ikesten-da erres eitten deunari esate dxako buru argidxe.* | *Buru argikue dok a.* 4. Alerta. *Kontus,* baina, *sarriago entzuten da.* | *Argi ibilli!* | *Argi*

egon! • **argi ixerra.** Estrella de la mañana, lucero del alba, Venus. • **argi korrintie.** Luz corriente. | *Geu eskondu giñenin, amentxe egon san argi korrintie, baya es oingo moduko argidxe, da Omatik etorte san a, Goikolatik. Da siketi daunin, ba e san urik, eta erdidxetan argi barik, da euridxe ixete sanin ba, ordu bidxen, edo irun-edo botatakun.* • **argi tte garbi.** Muy claro, claramente. • **argidxe bota.** Alumbrar. | *Botaik argidxe ona, amen illun dxak eta!* • **argi egon.** Estar claro, ser evidente. | *Argi dau nor dan lapurren.* • **argidxe ein.** Iluminar, alumbrar, dar luz. | *Lastasaue: a asaue lotute, garidxe ebeitte. Len alakoxik eimde argi eitte san. Es san egoten besterik eta.* | *Saiñe esate dxakon da saiñegas argidxe eitte gendun.* | *Epertargidxe da koko bat, argixu txiki bat eitten dabena. Orrek olan illuntzin-edo, gabin-edo, olan argittasun txikitxu bat botaten deu.* | *Bai, kursulue. Oiñ esta ibiltten kursuluri pe. Arexek ibilte siñ etzin argidxe eitten.*

argibide, argibidie. (ARGIBIDE) Aclaración, explicación; información. | *Argibidi da argittasune emoti bateri les: "Argibidie emon tzo areri be, nora jun".*

argimutil, argimutille. (ARGIMUTIL) Candelabro, candelero.

argin, argiñe. (HARGIN) Cantero; constructor de casas.

argittasun, argittasune. (ARGITASUN) **1.** Claridad. | *Illunpin dxak, argittasunik pe etxak.* | *Suen argittasune.* | *Erluse, ba, geuse argidxeri esate dxako, euskidxen argittasuneri, "Euskidxek erluse eitten deu", edo olan, "Erluse dau".* | *Argittasune be esaten da seinde illun badau, bentanie edei, tte: "Edeik ori bentanie, argittasunik etxak emen-da!"* | *Lañoartetik argittasune agertzen da.* **2.** Aclaración, explicación; información. Ik. *argibidie.* | *Emon tzet argittasune.*

argitterako, argitterakue. (ARGITARAKO) Limosna para el culto que se recoge durante la misa. | *Argitteraku batu.* | *Argitteraku, au.* | *Elixan len batze san argitterako.*

argittu, argitzen. (ARGITU) **1.** Iluminar, alumbrar, dar luz. | *Argittu etxok eitten denpori be ta, beti illun dxauk.* | *Argittuixu au leku apur bet!* **2.** Clarear, amanecer, despuntar el día. | *Asi da egune argitzen.* | *Nekes argittu deu.* (*Geur ariñ-ariñ esteu egune sabaldu.*) | *Egune argittu deu.* | *Goi lañuk tapaute dxak, geur etxok argittu*

eingo, euskidxek etxok urtengo. | *Neu be baten bayo sarridxau jun netzen gaubelara. Gaubeli esate dxako ba. Ya egune ya argittu arte. Gero erlebu be eitte ben batzuk, ya goxaldiñ-ero ya beste batzuk jute sin, enbrak-ero goixarte, egune argittu arte.* **3.** Encelar, ponerse en celo la vaca. *Suseratu gutxiago erabiltzen da. Ik. agertu, suseratu, txala eskatu.* | *Beidxe argittu dok.* | *Ondiño estok argittu.* | *Beidxek ya eskatzen espadeu txala, "Esta argitzen" esaten da.* **4.** Enderezar, encauzar, aclarar. | *"Argittu dosu" da topetie. "Topou dosu?" esati laku da "Argittu dosu?". Amen igul geusie susendu esiñik sabis, amen esate baterako, da "Argittu dosu?"* | *"Argittu dosu" da, geusie argitzie da susen ipiñi eittie geusak. Igul dabillu diskusiñoye edo abarra, da gero bidxek konforme geratzie. "Argittu dosu" Esan tzasu bi dan modun geusie?" edo olako geusie. Da nasti dabillena, geusa garbi ipinttie.*

argiune, argiunie. (ARGIUNE) Claro, hueco de claridad. | *Argiuniek daus.*

argixeri, argixeridxe. (ARGIZARI) Cera. | *Argixeridxe erliñ e estidxeri kentze dxakon, estidxe alderdi batera ta arixeridxe bestera ta.*

1 ari, aridxe. (HARI) Hilo. | *Ari sendue.* | *Arisko erropie.* | *Aridxe ein biar ixate san, noberak atzamarrakin.* | *Aridxen ulias eitte san aridxe, da aras aridxas eitte san telie, da gero telias ebaitte san, ixerak pe eitte sirin, da kamixak pe bai, da arkondara suridxek pe bai gixonentzako, da ba olantxik eitte sirin.* | *Goru san, da emengo amumak gorutan ein, da aridxe eitte ban, a kaltzerdi-txapiñak eitteko.* | *Liñue da aridxe eitten dana.* • **ari sedie.** Hilo de seda. | *Guk emen aridxas lotze gendun garatxie, ari sedi esate ben, da nik estaitt, atrapatzen dan modukue. Da lotu axe, bueltak emonda, da arixek apurtze ban, edo arixegas osatze san.* | *Ari sedie: aridxe, egoten dire batzuk karretin, da karretiñ eoten dana ari sendu ixaten da ta a josteko erropa sarrak, baya ari sedi tubutxutan eoten dana, da ari e..., bueno danak sedak estire eoten, da alakoxe ari sedias lotze san.* • **arikue ixen.** Profesar las mismas ideas. | *Ori esta nire arikue.*

2 ari, aridxe. (AHARI) Carnero. | *Aridxe ixeten da ardidxen arra.* | *Aridxen usaba bidxek eskutau, alde, bistatik alde eitten dabela, aridxek topeka eitteko orduen usaba bidxek bistatik alde eitten dabela.* | *Topekie da topekadie alkarren antzekuk-edo, esango neke bat tirilla baya..., topekadie da seinde euntz batek e emoten daben e*

adarkadie, nai ari batek bai bardin emoten daben adarkadie. • **ari jokue.** Pelea de carneros. • **ari topekue.** Pelea de carneros. | *Ari topekue ikusteko geuse ederra da.*

arik eta, arek eta. (HARIK ETA) Hasta que; en tanto que no. | *Gero orixe botatze tzet da isten dot, arik eta gogortu arte.* | *Arik eta bedarra asi arte.* | *Arek (prailleulidexek) ainkadi! Inkeute geratzen dire bertan, arik eta..., isten badxako, arik eta odoles bete arte alde estau eitten, sastasu nausidxe!* | *Baltzittu eskerun (atzoskola)? Baltzittu eskerun ba euki, arek eta baltzittasune jun artin.* | *Au lelangos jun san baso bidiean, arik eta Gostidxara arte estau kamiñurik eta.*

arime, arimie. (ARIMA) Alma. Ume batek zauriren bat egiten badu, honela esaten da. | *Arimen ondrak.* | *Tiro, tiro, ju adi amagana arin, arimiek urtengo deu ortik.* | *Astelenien esan arimerik pe geratu Nabarnixen.* | *Purgatoridxoko arimentzako limosnie geur batuko da.* • **arime bakue.** Desprovisto, -a de alma. | *Arime bakue da sentidu baku lakue, estekona, esate baterako, federik.* "Arimarik etxekok orrek, arimarik pes!". • **arimen egune.** Día de ánimas. | *Arimen egunien jan da edan tabernan eitten da.* • **arimena.** Toque de ánimas. | *Arimena jote benin, ba ya illundute, ta belu ixete san, da ba arimena esate dxako.* *Aremaittekutan anjeluse, jaunaren aingerue erresate san.* *Arimenari arimari erresate dxaken.* *Ordu ipiñirik es eban eukitten.* *Udi ixeten basan, barandutxuau; negu ixeten basan, ariñau illuntze ban, da arintxuau.* *Ordu ipiñirik es eban eukitten.* | *Len jote san albakue, da gero jote san illuntzien, illun esbaidxen, aremaittekue esate dxakona.* *Da gero, gerotxuau jote san arimena.* | *Gero jote ben arimena, beranduau, aremaitteku bayo beranduau, da ordun purgatorioko arimari aitteguri erresete san.* *Oiñ orrek e geusa danok tas astute, aiiii!* • **arimen kajatxue.** Caja en la que se recolectaba para las ánimas. | *Arimen kajatxue ibiltte ben, ba, arimantzako len.* *Nik esautu dot esaten, aspaldidxon es neuk, umi nitzenin, "Arimentzako, arimentzako" batzen ibiltten sanak esate ban.*

arin, ariñe. (ARIN) 1. Liviano, ligero. | *Lo ariñe deko.* | *Au de geuse ariñe.* | *Pixu ariñe deko.* 2. Rápido, enseguida. | *Tirosu, arin!* | *Enaben pentzetan, olan, arin etorriko siñenik.* | *Kojue ixen san baya ariñau eldu sen Lekerikara.* | *Ño,*

ariñ etorri as! | *Arin doye.* | *Ariñ ein dxok a!* | *Ibilli seittes arin-arin.* | *Lusero es, naiku ariñ iltte sittusen.* | *Igul basois pasiuau da "Ai, se ariñ ein dau!"*. 3. Antes, pronto. | *Ariñau, asi orduko.* | *Bederatzi egun ariñau San Antonio bayo.* | *Aridxe ein biar ixate san, noberak atzamarrakin, nire denporan es, ariñau, baya ikusi naben, amen batek eitte ban-da.* | *Beste ba tau, san jose lorie.* *Da axe ariñen loratzen da.* *Da txiki-txikitxue, da lora oritxue.* *Onako orri... Onen tamañoko orridxe eukitten dau, da orri sabala.* *Eta erdidxen ori-oritxu urte tzo.* *Da a da san jose lorie.* *Axek urteten dau ariñen.* • **ainbat ariñen.** Lo antes posible. | *Ainbet ariñen etorri!* • **ariñeri emon.** Escaparse. | *Ariñeri emon tzo.* • **egosi arin.** Poco cocido. | *Egosi arin dau.* • **eiñ ariñe.** Poco hecho (en comidas). | *Ondo ein barik dasenin, ba eiñ ariñe (esaten da).*

arindu. (ARINDU) Aligerar, aliviar, hacer ligero o menos pesado. | *Fulano arindu dok, kilo batzuk galdu dxusak.* • **burue arindu.** Perder facultades mentales. | "Burue arindu dxako": *geusak astute itxi.*

aringarin. (ARINGA-ARIN, arinka-arin) Rápido, a todo meter. | *Len e negun-de olluk otzittu esteidxen, da beru eon deidxen, ur berotxuas einde, ori botate gentzen, aringararin jate ben-da.*

aringaringalari, aringarinalaridxe. (ARINGA-ARINGALARI, arinka-arinkalari, lasterkari) Corredor, -a.

aringaringaldi, aringarinaldidxe. (ARINGA-ARINGALDI, arinka-arinkaldi, lasterraldi) Carrera. | *Estrapaladie... Ori sera esan gureko deu astrapaladik: aringarinaldidxe.*

1 **aringaringe.** (ARINGA-ARINGA, arinka-arinka, lasterka) Corriendo, a todo correr. | *Erruberie aringaringe dator bueltaka.* | *Fenomeno aringaringe eitten deuna: "Dios, arin baten arexe ein dxok!"* | *Aringaringe jun da.* | *Aringaringe dabil.*

2 **aringaringe, aringariegie.** (ARINGA-ARINGA, arinka-arinka, lasterketa) Carrera. | *Alako aringaringerik esta sekulan ein.* | *Aringaringie dau.*

aringe. (ARINGA) Rápido, a todo meter. | *Baltzak nik estaitt badeko, sube gorridxek pai, sube gorridxek ainka eiñ eskerun, aringe ibiltten espada ilgo da.*

arinttasun, arinttasune. (ARINTASUN) **1.** Ligereza, levedad. **2.** Ligereza, rapidez, presteza.

ariñeketan. (ARINEKETAN) Corriendo. *Aringaringe* ere esaten da. | *Ariñeketan ein deu.*

aritzu, aritzue. (HARITSU) Fibroso, leñoso.

arixebeste. Otros tantos. | *Arek bi dekosenari, ba olata bakotxari ba aittegure bat erresate tzen. Da ba areri abadi pagau eitte dxakon: txakur aundi bi, nai peseta bat, nai arril bi, nai... Ba senbat diru dekon, arixebeste aittegure, edo senbat olata daun, arixebeste -ta.*

arka, arkie. (ARKA) Arca, arcón (especialmente para guardar el grano). Ik. *kaixie*. | *Arto urune arkan gordete san, labartue.* | *Arkie kaixiñ antzekue da. Kaixie txikidxaue da. Arkatan garidxe, artu, laboriek gordete siren, lurrin artzen dana gordete san. Da kaxatan erropie.* | *Arkie: garaunek gordeteko.*

arkasai, arkasaidxe. (ARKAZIA, akazia-bat.) Acacia, árbol o arbusto de la familia de las mimosáceas, a veces con espinas, de madera bastante dura, hojas compuestas o divididas en hojuelas, flores olorosas en racimos laxos y colgantes, y fruto en legumbre (*Robinia pseudoacacia*). Gorozika aldean *arkasidxe* esaten zaio (María Angeles Alberdi, *Etnografía de Gorocica*, Anuario de Eusko-Folklore, 27. zk., 43. orr.). Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegian* zehazten denez, 1921eko Kristiñau-Ikasbidean *arkazia* dago dokumentaturik. | *Arkasaidxe txarra da. Arkasaidxe arbola ser bat dau. Da arantzadune da, arantzie deko, baya lorie dotorie eukitten deu udebarridxen. Baya bein sartzen bosu terrenuen, kendu eitten estana. Ya sustreititik korridu, dana bete parajie. Iñok estau gure ixaten arkasairik.*

arkasatz, arkasatza. (ARKASATS) Tipo de zarza blanquecina con espinas más duras que la zarza común. | *Arkasatza: sasi suriskie, sasidxe, txarra, antzie eukitten deu gogorraue, da arantzak okerrau.* | *Arkasatza da sasidxe, ba orrek arantza gogorak eukitte ittune. Sasittik diferenti da. Arkasatza da gogorrau asko be. Arkasatzak erropi be inkeu, da apurtu-edo... Sasidxe bayo senduaue.*

arkela, arkelie. (ARKELA) Cerda, marrana que no ha tenido crías. Kumeak eginekoari *makerie* esaten zaio; arrari *ordotza*. Ik. *ordotza*. | *Txarridxeri esate dxako arkelie, da ordotza.* | *Txarri emie, ixena arkeli da, da txarri arra ordotza.*

arkoi, arkoye. (ARKOI) Arcón. | *Len ori arkoye ixen san garidxe eukitteko, geidxau be. Da oiñ alakotan askok dekos etzitan be erropatzat, ta lujutzet ipintte. Ba len sin orrek garidxe eukitteko. Orrek segur-segurutik lenauko aintxiñeko sarrak garidxentzat eindakuk ixengo dire orrek, dibujukin, de elegante batzuk ganera. Da oiñ orrek, ba suk esan dosune, erroparako, da lujutzet ipiñitte eukitteko-ta dekes. Gurin beti usau san garidxe alakoxe lekutan.* | *Onek arkoyek koltzan dekeus.* | *Arkoye da kaixie. Arkoye eundidxau da kaixi bayo.*

arkondara, arkondarie. (ARKONDARA, alkandora-bat.) Camisa. *Alkondarie* ere esaten da.

• **arkondara kollue.** Cuello de la camisa.

arku, arkue. (ARKU) **1.** Arco. | *Elixako arkue.* | *Da arkuek, etzik, arku deken etziek badas batzuk, jeneral asko estau arkue dekon etze ixte, pentzetot nik arku gatxa dala eitten, pentzau eittot.* **2.** Arco del calero. | *Arkue, arku ein da aidiñ egon bi deu arridxek danak.* | *Karabidxen betegarridxe botata, arku ein. Sulu eundidxe ixete san, da ak ertza, esta? Da arku imintte su. Da gero arkure kargau, da andik gero. Da an beyen ueku dau, andik arkuti bera. Da andik betegarridxe ota sarragas. Bier gogorra a be.* **3.** Tripa del ganado bien alimentado que se alza por ambos costados en forma semicircular. | *Arku esate tzeu areri tripie asten dxakonari, arkue, an e pustute deuna be "Arkue asi dxakok".* | *Tripe sikue tripa gitxi dekonari. Alan tripe sikue ba "Estau arkurik altzau bes!" esaten da ganaduri be, "Tripe siku dok eta".* • **arku sulue.** Concavidad que se le marca al ganado mal alimentado. | *Arkue? Tripie. Tripie, asi tte bera eitten. "Arku baju dxauk, orrek etxok naidxe jan". Da iguel ondo janda badau, "Jo arku altzate, arku altu dxok orrek". Arku da tripie. Tripie, ganaduri, alan altzate jandakun asko. Noberari be bai apur bet. Baya asko. Arek tripe suluk... Arku suluk esate tzeu guk areri. "Arku suluk alkar jota dxekosak!".* | *Arku sulu da asko jan barik daun ganadue, goses daun ganadue, "Ño, orrek arku sulo eundidxe dxekosak, orrek etxok geur asko jan!".* | *Arku sulu dekos.*

arkudun, arkudune. (ARKUDUN) Provisto de arco. | *Arkudun etzie.*

arkupe, arkupie. (ARKUPE) Atrio, pórtico. | *Arkupien ipiñi dabe alkatien... ayuntamentuko bandue.*

arlo, arlue. (ARLO, alor) **1.** Extensión de terreno dedicado al cultivo. | *Lur arlue.* | *Arlo bat ebei.*

| *Esate baterako, solue eundidxe bada, edo motie eundidxe bada edo ba, "Arlo ederra deke bedar ebateko!", edo "Arlo ederra deke artu eraitteko!" - edo ba.* **2.** Tarea. | *Au arlue dana ein bida. | Arlo gitxi dxekok pa! | Arlue saille da. Saille nai arlue bat dire. Batzuk esate tze arlue. Esate baterako, biargiñek bautzo, da gero itxi tze: "Segiduidxok arluri!". Beran lengo biarrari segidu deidxola. | Amaitzen danin biar arlo bat, gero eitten da aparidxe, edo baskaridxe. Moidxorra deittuten dxako orreri. | Ondo ipintten arlo txarra dekosu!* **3.** Gran cantidad: | *Artei arluk. | Ño, emen dak arto arlue! | Ño, or deukak solo arlue labraute!* • **arlun. 1.** Constantemente, progresivamente, con continuidad, no por saltos. Ant. *saltoka.* | *Arlun eittie da segidun eittie biarra. Amen beittu, au ein biosue bedarra, nai edoser geuse, amen eittosu olan, da gero amen eitti, amen tartin, da amen ostabe ein..., da ori esta arlun eittie. Arlun eitti da dana junto, ya erun illadan dana. "Erik arlun-arlun, es saltoka!" esaten da. | Arlun eixu biar!* **2.** A continuación, siguiendo una línea. | *Mujo arridxe da sartze osun arridxe. Da mujoneri da arlun doiña, "Mujoneri andi da". Esate baterako, au soluri buelti einde bouko, nundi dan, dana doiña, "Mujoneri andi dau".*

arma, armie. (ARMA) Arma.

armailla, armaillie. (ARMAILA) Peldaño de piedra. | *Armaillak, arridxas eiñekuri. | Armailla bidxek dana ogis beterik. Jokatuko neke axe dala.*

armaidxo, armaidxue. (ARMAIRU) Armario. *Ik. kukie. | Len, esate baterako, ba oiñ esteku armaidxorik pe eskatzin, baya armaidxu egote san eskatzin, da armaidxuk eukitte sittun ba baldak, platerak-eta eukitete. | Armaidxue, jeneruek egoteko.*

armakera, armakerie. (ARMAKERA) Cornamenta. *Armerie* ere esaten da. | *Armakerie. Bai. Konbestako, bei batzuk igul eukitte siren adarrak onan. Beste batzuk e onan da ederto, "Ño, orre dxok armakera ederra!", "Etxosak e adarrak ondo", "Armakera eskasa dxekok". | Armakeri da adarrak-eta ondo dekosen. Da ostantziñ esate dxako, bei ederra bada, "Ño, ederra dok beidxe!". Tipo ederreko beidxe, atzi ta ara, ta danera bei ederra. Baya armakeri da adarrak. Bei batzuk e adarrak bakixu selan eukitte ittuen bera begire.*

armasoi, armasoye. (ARMAZOI) Armazón, carcazón, esqueleto. | *Armasoye da ba ori. Selan*

esango tzu pa? Armasoye auneri bentaniri eitte les armasoye artun. | Armasoye esate tze kajiri. Batzu pa armasoye baya burkanie da ostantzin burdidxeri esate tzeuna. Burdidxek arasie, burtola, enkallie, erute ittu orrek iru geusak.

armau. (ARMAU, armatu-bat.) Armar(se), proveer de armas. | *Txo, ori armaute doye.*

armera, armerie. (ARMERA) **1.** Cornamenta. *Armakerie* ere esaten da. | *Armeri da esate baterako, beidxek adarrak olan ondo dxekosak da "Armera ederreko ganadu dok". | Ganaduri esate dxako ba "Armer-oneku da!". Armera ona deko!*

armonidxe. (ARMONIA) Harmonía, avenencia. | *Armonidxe da juergie, alegre deunak, "Orrek dxabidxek armonidxen!". An ijujeka ta sarataka dabillenari esate dxako armonidxe. | Armonidxen bixi dire.*

armosau, armouseu. (ARMOZAU, almortzatu-bat., gosaldu) Almorzar, desayunar. | *Armosau deu?*

armosu, armosue. (ARMOZU, almortzu-bat., gosari) Desayuno. | *Sortziretan jaten da armosue. | Armosu jan bidxuat. | Da gero etzin ama edo eote sanak e esni egosi ta armosu ipiñi eitte banin diar ein de, ba ebataldidxe einde garidxeri itxi te bera armosu jate san.* • **armosuten.** En el desayuno. | *Gasteta san armosuten sopak eitteko, da pota esate dxakon.*

arnasa, arnasie. (ARNASA, hats) Aliento, respiración. | *Arnasa ona deko orrek! | Neu ikusitte nau umie arnasa barik, estul kukurruku euki tte arnasa barik, eta, bai, il bi dxakulakun besun, baya etzan il. | Arnasa barik garatu dok. | Arnasa barik gelditu dxaku.* • **arnasa estue.** Jadeo. | *Pasautaku da ya arnasaldidxe pasau dxako. Olan egoten da igul arnasa estun, da gero pasau eskero: "Koño, arnasaldidxe pasau dxok!" - eta. | Arnasi estu euki dxok. | Arnasa estue deko.*

• **arnas bierra.** Sofoco, falta de aliento. | *Arnasarik artu barik padau, ba "Arnas bierra deko orrek", estau artzen-da.* • **arnasas bete.** Quedarse sin aliento. | *Arnasas bete da. | Arnasas beteta dxak.* • **arnasie altu euki.** Respirar aceleradamente. | *Arnasie altu deko.* • **arnasie artu.** Respirar. | *Surretik arnasie artu te aotik gero bota ein bidala, ondo ixeteko, osasuntzue dala.* • **arnasie bete.** Sofocarse. | *Arnasie bete dxako: ya ya esin artu arnasarik, se estutasunes edo, rapido jun de. | Aringaringe jun, de guri laster beteten dxaku arnasi. | Etxok*

asko eingo, arnasi bete dxakok eta! • **arnasie emon.** Morirse. | “*Askanengo arnasie emon deu*”, *bat, iltzen dan bategaittik esaten da.* • **arnasie estutu.** Jadear, sofocar(se), ahogar(se). | *Arnasie estutu dxako.* • **arnasie etorri.** Recuperar el aliento. • **arnasie juen.** Perder el aliento. | *Ya arnasie juten badao, ba "Askanetan dao" (esaten da), da idxe illin deuna, dao ondiño apur bet fuertetxueu.* | *Arnasie jun ein dxako estutasunas.*

arnasaldi, arnasaldidxe. (ARNASALDI) Sofoco. | *Pasautaku da ya arnasaldidxe pasau dxako. Olan egoten da igul arnasa estun, da gero pasau eskero: "Koño, arnasaldidxe pasau dxok!"- eta.*

1 arnasestu. Sofocarse. | *Arnasestute doye.* | *Subiek arnastututakuen dxi-dxi-dxi ataraten dabe geuse bat, arexen ixena da estena.* | *"Arnasestute" esate dxako igul e personiri, "Arnasie altu deko" esate dxako, apurtxu bet normaletik fuera eitten dabenari.*

2 arnasestu, arnasestue. (ARNASESTU) Respiración entrecortada debida al cansancio o a la enfermedad; jadeo, sofoco. | *Arnasestue deko.* | *Arnasestue euki lei.* | *Esfuerso baten ostien dator arnasestue.*

arnasestuke. (ARNASESTUKA) Jadeando, respirando con dificultad. | *Arnasestuke doye.*

arnasuske. (ARNAS HOSKA) Jadeando, respirando con dificultad. | *Arnasuske dau.*

aro, arue. (ARO) Sazón, tempero, tiempo adecuado para algo. Ik. *gabaru.* | *Arue ixeten da, esate baterako, bedarra ereitteko ero olan soluen artue ereitteko ero, arue.* | *Arue ixeten da seoser ereitteko ero badao, aro ona. Iguel denpora ona goittik da beyen lurre siketen asitte da areri esate dxako arue, aro ona dao.* | *Esta aruen.* | *Estao ba aro ona, lurre sikuei dao.* | *Guk solun, iguel busti egoten da solue, lurre, artzen deu erremintie, atxurre ero, da astertu eitten deu siketu deidxen, arue plantau deidxen.* | *Estau arorik, lurre likiñe dau-te.* | *Solora juteko arorik esan egoten ordun.* | *Solora juteko aro ona dau.* | *Aro oniñ erein deu garidxe.* • **lur arue.** Tiempo adecuado para labrar la tierra. | *Lur arue, esate baterako, esate dxakon, ba, iguel ba, euri tti-edo ixete san, ba solora juteko arorik esan egoten. Da gero denpora ona etorte san, da ipintte ban siketute, ta esate dxakon: "Lur arue dau", ya asidxe ereitteko modun.*

arortz, arortza. (ARE HORTZ) Púa de la rastra.

arostegi, arostedidxe. (AROSTEGI, zurgindegi) Carpintería (taller). Berba berria da Nabarnizen, lehenego adibidean ikus daitekeenez. Hala ere, ezaguna den aldetik, hiztegiara ekarri da. Beti erabili direnak dira *arotzeridxe, arotz lekue* eta *arostokidxe.* | *Oiñ emen arostedidxe esatxe dxako les, arostedidxe, lekue. Emen oiñ askok esaten dabe arostedidxe, ori da barridxe. Arotz lekue guk.* | *Arostedidxe arotzen biarlekue da.*

arostoki, arostedidxe. (AROSTOKI, zurgindegi) Carpintería (taller).

arotz, arotza. (AROTZ, zurgin) Carpintero. | *Arotz tallerra.* | *Arotz maidxe.* • **arotz lekue.** Carpintería. Ik. *arotzeridxe, arostedidxe.* | *Oiñ emen arostedidxe esatxe dxako les, arostedidxe, lekue. Emen oiñ askok esaten dabe arostedidxe, ori da barridxe. Arotz lekue guk.*

arotzeri, arotzeridxe. (AROSTEGI, zurgindegi) Carpintería (taller). | *Arotzeridxe dau.*

arpan, arpana. (ARPAN) Tronzador, sierra para cortar troncos, manejada por dos personas. Ik. *trontza serrie.* | *Arpana: a serra aundidxe, bat goittik, eta beste bi betik. Onako sabalerakue, da lusie.* | *Arpana san..., len serrarik es euen. Orrek age aundidxe-eta arpanas ebaten dire. Oiñ iñok estau eitten biarrik arpanas.* | *A, arpana bai. Arpana, bakixu, arpana orrek lelotako trontzak. Orrek e agiek-eta eitteko arpanak.* | *Bai, olak, ol lodidxe, agiek-eta. Osea basoko piesiri eitte dxako arpanas.* | *Orrek burdi subillek... Subille esate dxako burdidxe arek... Onako lodidxe eitteko, lagun bi oten di bi, da goidxen bat. Arpana esate dxako. Aundidxe ixeten di arek.* | *Ta gero euen arpana, trontza serriñ antzekue. Goitti eitte dxuan batek, eitte dxuen erreidixie iketzas, iketza edo lurras, ipiñi sintta bat eta altzau sinttie. Ya! jote dxuan a, markau eitte dxuak ak. Antxe etorri bixate ban batek. Da betik eitte dxuen bik, en jeneral.* • *Arpana eta trontza serrie desberdinak dira. Trontza serria txikiagoa da eta haginak urkila bikoak dira.* | *Trontza serri de arpana diferenti dire. Aundidxe ori arpana. Da trontza serra pe, askaniñ urte ben, gu basutan ibili giñenin, Ameriketara jun orduko, agin bikotxak. Onak e urkulak. Aintxiñe dxuan e agin txikidxe. Da a agin txikidxe etxuan eitten bi dan moduen, da orre beste urkula onak paguen... Bakixu, au dana san ba len pague. Pagu da atxa. Da arek urte dxuen gero urkula bikuek. Ortik Gipuskuatik etorri dxuasen arek.*

arpei, arpeidxe, arpidxe. (ARPEGI, aurpegi-bat.) **1.** Cara. | *Arpeidxe eseune eitte dxat.* | *Arpei gorri-gorridxe deko.* | *Sanbrotute deko arpei gustidxe.* | *Arpei poskorreku da.* | *Posik dauneko arpeidxe.* | *Ikesgiñek, arpi sikiñe!* **2.** Fachada. | *Au aurrie bolau da, eurrie, arpeidxe onena etzina bolau esate dxako, orreri eurri danari.* **3.** Superficie de alguna cosa. | *Loitidxaku arri ona, esate ben, Loitidxako kanterakue arri ona sala kari eitteko be...* Dana apurtzen be bastante, sera, arpi askokue ta erresa, erresau leku askotakue bayo, erresau. | *Da guk mallue, mallu esate tzeu arridxe eitteko neusidxeri, bos killoko edo sei killoko orreri. Mallu arek arpei bidxekin.* | *Masie da porrie. Ori biribille. Orrek arpeidxe deko biribille alde bistatik.* • **arpei astune.** Cara de enfado. | *Arpei astunas begittuste, asarre antzin.* • **arpei gogorra.** Descarado, insolente. | *Arpei gogorra dok ori!* | *Gixonak arpi gogorra ixen bidxok, enbran komunera juteko, e!* • **arpei gordiñe.** Semblante sano, lozano. | *Arpei gordiñe deko: arpei ona eukittie, osasuntzue.* • **arpei sorrotza.** Cara afilada. • **arpeix arpei.** Cara a cara. Ik. *karinkara.* | *Karinkara: alkarrerri begire, arpeix arpei.* • **talo arpidxe.** De cara grande y redonda. | *Talo arpidxe sabala dekonari.* • **arpei baltza euki.** Tener cara de enfado. | *Arpei baltza deko orrek!* • **arpei illune ipiñi.** Poner cara de enfado. | *Arpei illune ipiñi deu.* • **arpeidxe atara.** Dar la cara, sacar la cara (por alguien). | *Erresoye badeko: "Arpeidxe atara dosu".* | *Euk ataraidxok arpeidxe!* • **arpeidxe emon.** Dar/plantar cara, hacer frente, oponer resistencia. | *"Arpeidxe emoidxok euk!": atrebidu es esaten eser, da "Emoidxok oiñ arpeidxe euk areri!".* Ba ya lotzie, lotzate egoti les arpeidxe emoteko. | *Oiñ arpeidxe emon guresda dxak a be!* | *Orrek arpeidxe emoten deu.* • **arpeidxe euki.** Tener caradura. | *Arpeidxe deko orrek!* | *Arpei gogorra deko.* • **arpeire bota.** Echar en cara. | *Orrek arpeire edoser botaten deu.* | *Arpeire bota tzo.* • **arpeire esan.** Decir a la cara, echar en cara. | *Geusa txar bat esan gure, da "Arpeire esan tzo!".* • **arpeis esautu.** Conocer de vista. | *Arpeis esautzen dot nik ori.* | *Estakit nor dan, baya esautzen dot arpeis.* • **arpei txarra ipiñi.** Poner mala cara, recibir mal. | *Abadiiek deittu ban ontzungo be, ixengo dire bost bat urte, abadiiek mesatan deittu ban: "Astion etorriko dire*

etzerreskien da ez begi txarrik ipiñi, arpei txarrik es ipiñi, bakotxan borondatie emon, da aurrera".
| *Arpei txarra ipin dxok.*

arpeikera, arpeikerie. (ARPEGIKERA, aurpegi-era-bat.) Semblante. | *Arpeikera txarra deko.*

arpeiko, arpeikue. (ARPEGIKO, aurpegiko-bat.) Bofetada. Ik. *belarriondokue, plastadie, sapladie, saplasue.* | *Emon tzat arpeiko bat!*

arpillera, arpillerie. Arpillera, delantal de estopa muy basta. | *Arpillerie saku da, sakue, amantal..., sakusko amantal bat: arpillerie. Oiñ ibili be esta eitten ori be. Arenadurak-eta eitte gendusenin len e, ba jantzi axe ta, axe amantal sakusku jantzitte ibiltte san arenetan, goidxek-eta arenetan diriñin-de. Oiñ es goirik eta es berik.*

arrabidxu, arrabidxue. (ARRABIO, errabia-bat.) Rabia. | *Emoteste arrabidxu bat!* | *Oneri detze arrabidxu bat orrek! Arrabidxu bat!* | *A be txarra bada gero e! Oneri detze arrabidxue! Emengo jentiri.*

arraidxo, arraidxue. (ARRAIO) Interjección como la de ¡condenado! | *Ume arraidxuok!* | *Arraidxuori!* | *Se arraidxo dabik ik emen?*

arrain, arraiñe, arrañe. (ARRAIN) **1.** Pez, pescado. | *Arraiñe arin galtzen da.* | *Arrain saltzen etosen sardiñerak.* | *Arraiñak atrapatzen asteko, presie ein, detenidu ure ta beko posue baldakiñ utzittu ta an agertzen sirin.* **2.** Ovalado, -a. | *Arrañe bakixu seri esate dxakon? Biribille estanari. Arrañe bakixu ser dan? Arrañe da au, arrañe esate tze arboliri, biribille espada, biribille espada esate dxako arrañe. Segaittik esate dxako arrañe? Arrañen sera dekolako, estillue dekolako. Arrañe bakixu, arrañek au deko, arrañe esta biribille.* | *Berrogetamasei urte, amasaspi be igul a bota sala. Airoko etzatzien. A olan san, arrañe san.* | *Sokias lotu alderdi bistatik trontziri, da arrañe sa les, trontzie, da jan ein tzen asko, da sokakin batetik amar lagun igul, da bestetik beste ainbeste, da ondias ebei san, keye daridxola trontzian.* • **arraintako.** Para los peces, para pescar, de carnada. | *Kokarra da lurrin dabillena. Goldaketan, lurra astintzen bosu, barrun urteten dabe. Orrek arraintako-ta batzuk usete ittuena.* • **arrañetan.** (Ir) de pesca. | *An Ameriketana- da arraiñetan jute giñen ba asko ta errekan, bakixu errekan ba, arridxek labanak, da agure sarrak esan ei dxuan beran burugaittik "Estrepesu edonun eittok ik!" esan tzon beren*

bururi! • **arrañetara jun.** Ir de pesca. | *Etorri da sapatue ta jun da arrañetara.*

arraindun, arraindune. (ARRAINDUN)

Pescadero o pescadora. | *Arraindune badator. | Papardue arraindunek ekarte ban.*

arrakala, arrakalie. (ARRAKALA, arraildura)

Raja, hendidura. Ik. *intzebeidxe.* | *Arrakalie erein.* | *Arrakalak-eta esate tzegus guk olan: bentanik bittarte aundidxe badeko, bittarte aundidxe deko onek, arrakalie deko.*

arrakalatu (ARRAKALATU) Henderse,

agrietarse. Ik. *astildu, astillatu, brintzetu, krakatu, sartau.* | *I, au egurre arrakalatu dok! | "Erasota dau": egurreri esate dxako, da agiri be bai. Orrek agak oten diriniñ, igul arrakalatu eitten dire, da "Erasota dau" esate dxako. Nai beidxe ibiltten daben -oin burdirik pe estau ibiltten baya-burdi partikiri, nai edoser egurreri esate dxako, ya einde dauna errekalatu, edo einde daunin, "Erasota dau". | "Astillatu ein da", esate baterako, "Arrakalatu ein da" nai "Astillatu ein da" erdi ba tire orrek. Or batzuk esaten dabe 'astillatu', da bestik ori eitten dabe.*

arrakalatzu, arrakalatzue. (ARRAKALATSU)

Agrietado, -a, rajado, -a; lleno de hendiduras. | *Arrakalatzu da arrakala asko dekona.*

arrankari, arrankaridxe. (ARRANKARI,

amuarrain) Trucha (*Salmo fario*). | *Arrankari kunak.* | *Arrankaidxe mendiko ur otza gure ixeten deu.* | *Bai, peskan be bai. Or Omarreta, Omarreta bakixu. Andik e, jolin e, arrankaridxe eitten-da atrapete basen orrek! Ori! Oiñ estau eitterik, baya ordun libre san. | An posu batzu daus da aretantxe gote san. Baya oin ganera daus sikiñ egalak. Da arrankaridxe estabe esaten ba epela bi daula? Erreka otzeidxe barik, euskidxe joten deun e... Geidxau joten deuna, arrankaridxe geidxau egoten dala. Oiñ estaitt bape egoten dan or.*

arrano, arranue. (ARRANO) 1. Aguila; buitre;

ave de gran tamaño. | *Txoririk aundixenari emen arranue esaten dxako.* | *Arranuk dire orrek..., amen oin be ibiltten dire eundidxe, albixaridxe, da gabilloi arek, miru-te, arexe lakuxie, eundidxe.* | *Arranue, ori txori eundidxe, miru, edo gabilloye, eundidxe arranu esate dxako.*

| *Arranu bai (aguila), txori bat tau arranue ixena dekona. Da ba, bai neu pe iñoix ikusi dot paya onetan estot pentzetan nik asko ibiltten danik arranu ori.* 2. Fanfarrón, -ona, que hace muchos aspavientos. | *Emen gixon bat euen besuek*

sabaltzen beti, fanfarroidxe eta esaten-da, arranue areri esate geuntzen guk: "Arranue, ori arranori". 3. Malo, sinvergüenza. Berriemaile baten arabera, txikitan gaiztakeriaren bat egiten zuenean, aitak honela esaten zion: | *Arranuori!*

arranpalue. (ARRANPALO) Fanfarrón. Hona hemen X. Amurizak (*Bizkaiko Bertsogintza: Izengabeak I. 45. orri*) berba honezaz dioena: "Arranpalo: Hitz honek noizbait, Azkuek bere hiztegian dionez, *txorimaloa* edo *txorimamua* esan nahi bazuen ere, gaur pertsonen esanahi kalifikatiboa dauka. Erdi tentel edo ergela, kankailua eta zaratatsua". | *"Arranpaluori!": an ekitte euna boleak botaten. Esangurotena, afanak-eta, panparroye, "Arranpaluori!". Broma modun esate dxako "Arranpaluori!". | Bueno, arranpalue nik estaitt beres seri esate tzen, baya neu pe badekot entzutie arranpaluna, baya nik e olanik e geusarik e, arranpalu esate tzenik badau estaitt. | Arranpalu: olako farol bat, tontarro bat esati lantxik. "Ori da arranpalue!" Guk usetun berbi esta. Entzu ot baya geuk olan useun berbi esta. | Arranpalue laguneri esate dxako, olan eundidxeri ero olan dabillenari "Arranpaluori!", orrek esate tzes.*

arrantza, arrantzie. (ARRANTZA) Rebusno. |

Asta arrantzie. | Astuen arrantzie.

arrantzaka. (ARRANTZAKA) Rebusnando.

arrantzu, arrantzue. (ARRANTZU) Pesca. |

Peskadori da arrantzun dabillena.

arrapalada, arrapaladie. (ARRAPALADA)

Carrera, corrida veloz. | *Orregas burrukaldidxe ein dxuat, arrapaladi itzela ein dxuat!* • **arrapaladan.** A la carrera, raudo, veloz. | *Arrapaladan jun dok.* • **arrapalada baten.** A la carrera, raudo, veloz. | *Ia arrapalada baten etorte bas!*

arrapaladaka. (ARRAPALADAKA)

Precipitadamente, atropelladamente. Ik. *itxumustuen.* | *Arrapaladaka jun dok.* | *Arrapaladaka jaten deu.* | *Arrapaladaka da aringaringe, beti arrastaka-ta: "Beti dxak arrapaladaka!".*

arrapataka. (ARRAPATAKA, itsumustuan)

Apresuradamente, atropelladamente. | *Arrapataka ein deu.* | *Arrapataka: arin doña.*

arrasku, arraskue, arriskue. (ARRASKU,

arrisku-bat.) Peligro, riesgo. *Peligrue* ere esaten da. | *Arriskun dxabik.* | *Arrisku galantin dxabik ori or.* | *Arrisku euki dxok.* | *Arraskuen dxok ori.* | *A da suentzako arrasku aundidxe, sue artuko*

baleu etzik, sue artuten badeu, badoye derrepente sabaire sue. Da oiñ orrek medeliñek deko les ormie, ba es isten arek. • **arrisku bakue.** Inocuo, -a, que no hace daño.

arraskutzu, arraskutzue, arriskutzue. (ARRASKUTSU, arriskutsu-bat.) Peligroso, -a. | *Arraskutzue da a parajie. | An ibilttie arraskutzue dok. | Arraskutzue be bai. E pendes baten be "Ño. leku arraskutzun jun dok a!". Arraskutzue da pendiente baten nos jeusiko juti les. Da "An egon dan arruskue!".*

arraspa, arraspie. (ARRASPA) Lima de dientes gruesos para gastar la madera. Ik. *limie.* | *Arraspi ligorra. | Limiek burdiñe gastetan deun les, arraspie egurre gastetakue da. | Arraspi gastetaku da. Egurre gastetako arraspie. Da limie, da arraspi. Bakixu ser dan arraspi? Arraspi da egurreri eitte tzona, ra-ra-ra, egurre gastetako. Da limi da burdiñi gastetaku. Geuse bi di orrek. Jolin! Diferenti total! Diferentik!*

arraspada, arraspadie. (ARRASPADA) Rasguño. Ik. *urrukadie.* • Autoari *arraspadie* nahiz *arrastadie* egiten zaio. | *Arraspadie ein tzeak are pe! | Selako arraspadie ein dot!*

arraspau, arraspetan. (ARRASPAU, arraspatu-bat.) Rasguño. Ik. *urrukadie.* • Autoari *arraspadie* nahiz *arrastadie* egiten zaio. | *Arraspadie ein tzeak are pe! | Selako arraspadie ein dot.*

arrastada, arrastadie. (ARRASTADA, harramazka) **1.** Rasguño, roce. Ik. *markie, urrukadie, txatxumurkadie.* | *Kaguen, arrastadie ei tzet kotxiri! | Lauortzak lau... Se esangot neuk? Lau ortz eukitte ittu olanik, da solue antxiñe, solue gosatzeko ibiltte san. Edo eitten deu e olan arrastadaxuk eta sulotxu eitten deu, da antxe artu botate san.* **2.** Cada golpe de la guadaña. | *Arrastadie esate tzeu kodaiñinari. Da kotxinari be bai, urrukada bat bouko be, "Arrastada ederra ein tzeak!". Besti arraspadi be bai. Ba arrastadi da kodainketan, jeneralien. | Arrastadi, da arraspadi bai, bateri esan leidxo. Baya kodaiñinari arraspadarik esin leidxo esan, arrastadie. Da bestiri esan leidxo arraspadie, ba urruskadie. Arrastadie, nai arraspadie esan leidxo geusa bateri, da kodaiñinari esin leidxo esan arraspadarik, espabe arrastadie. | "Arrastadi deko ona!", au besarkada aundidxe botaten badeu, "Arrastada aundidxe deko!".* **3.** Cada tramo que se hace cada tirada de la prueba de arrastre. | *Arridxe be, proban be: "Arrastada ederrak emote tzesak!".*

Asko kentze deunin-de. Arrastadi da seinde tatarres jutin geusiña. Ta kodaiñe beti jute da les tatarres, arrastadi. "Senbat arrastada emote tzesak?". Beste batzuk esaten dabe kodainkasu ederrak emote tzesak!. Ba jeneralien, "Arrastada ederrak botate tzesak!".

arrastadorie. Máquina provista de un cable con la que se arrastran los árboles. | *Arrastadora deko kable bat, kablie. Da ba ondo preparaute du, burpil itzelakin, agiñ itzelakin. Da orik e tumoye bolantie esate dxakon moduen, eundidxe deko da alantxik ibiltten da. Da arek e, a kabliek titu eitte tze, ta gero piñun lotu, piñu bertan daun lekuen. Eperdidxe botaten dabixenak adarrak kentze tzes, eruten deu kablie araxe, lotzen dau da gero arek e a kable bati... Kable use... emon arte, bera batzen dau ak. Ekarriko dau trongue. Da gero eruteko modu bouko, artzen dau. | Txute len usete san, or piñuk nai arbolak botateko ibiltte san, da goitti bera daun aldapa baten bera, txute. Oiñ esta usetan olakorik. Oiñ arrastadorie, edo tirekie. | Arrastadori ba neu pe estaitt selaku dan, estot ikusi olan, iñoix ondotik estot ikusi, ta ba seinde tratora balis les ixengo da, pentzetot nik. | Arrastadorak, piñuri tirete tzenak. Ori da ba tatarres erute ba les egurre, arrastaka. | Arrastadora da bakar-bakar-bakarrik e parkiri... Parki esate tze onek piñuk batze ittu ek kargetako kamioi, arexe batzeko. Da tireka, beti gora altzetako be, dana orrek kabliek eitten dau bier.*

arrastaka. (ARRASTAKA, herrestan) Arrastrando(se). | *Arrapaladaka da aringaringe, beti arrastaka-ta: "Beti dxak arrapaladaka!".*

arrastan. (ARRASTAN) Arrastrando(se). | *Arrastan bai. Ori arran doyenien. Esate baterako, proban badoyes, arrastan esaten dabe, arridxe arran dabilletako, arrastan esate dxako areri be.*

arrastau. (ARRASTAU, arrastatu-bat.) Arrastrar. | *Ur batue: bai, atzo gabin be eingo ban ur batue, soluk egalak arrastaute dekos, da sartuko san bidetik ure, or goiko partetik soluri, se errekatxu einde dau te. | Dana arrastau deu. | Oin be jentik orretan egon dala esaten, "Urrengo datorrena igul trumon euridxe e arrastauko ittus lurrek". Trope-trope etorten dalako. Onako ittoiñek, da a da trumon euridxe.*

arrastille, arrastillie. **1.** Rastrillo metálico que sirve para recoger hierba, paja, broza, etc. Ik. *eskubarie.* | *Arrastilli? Satarridxe ta batzen di ba... Seinda eskubarie. Eskubari jakngo su ser dan. Eskubariñ antzeku, baya burdiñeskue solutan-da bedarra-da batzeko. Saskarie, ta*

bedarra ta txarikeridxe-ta batzeko. 2. Herramienta para apilar piedra. | Arrastilli? Kari atateko guk au usete gendun. A olan txapa sabaltxue die, sei ortz eukitte ittu, da aren bittartien arridzek, kanterako arridxe be joten diñin pilletako-ta arrastilli.

arrasto. Al ras, al cero. | Arrasto ebei ulie? Ba soldautzan. | Ulie arrasto ebeitte.

arrato, arratoye. (ARRATOI) Rata. | Ur arratoye ta etzeko arratoye, klase bi daus da arratoye esate tzeu bidxeri. • **arrato txakurre.** Perro ratonero. | Txakur txikitxuri esate tze arrato txakurrek.

arrauke, arraukie. (ARRAUKA) 1. Hez de la leche, grasa de la leche que se adhiere al recipiente. | Arraukie da ondun geratzen dana. Edo morokilla eitten bada be, arraukie esate tzo ondun geratzen danari. | Galdatxue, esnie egosteko ontzidixen ixena galdatxue da, ari aspidixen eitten dxakon arraukie. | Arraukie, esniri eitten dxakona an galdayin, esnie kendu kanpora ta gero arraukie eitte dxako ta kollarias batu te sarri jan gendun. | Arraukie: koipe asko dekona, esni lodidxe ixen dana. | Arraukie esnie egosi, da an tarteran edo serien garatzen da. Arraukie esaten deutzeu an garatzen danari. 2. Hez de cualquier alimento que queda adherida en el fondo del recipiente.

arrausi, arrausidxe. (AHARRAUSI) Bostezo. • **arrausi ein.** Bostezar.

arrausike. (AHARRAUSIKA) Bostezando | Arrausike dxak ori. | Arrausike diardu orrek.

arrautze, arrautzie. (ARRAUTZA) Huevo. | Arrautze ustela. | Arrautze brijiduek. | Arrautza gorringo bikue. | Arrautzie iribidxetan dabil. | Arrautzek ipiñi. | Ogidxe untetan deu arrautzetan. | Gure olluk arrautzie ein dxok. | Arrautze ganin dekeu ollue. | Ollue arrautzen ganin dau, txitxak ataraten. | Karakolak eitten dabe lur samurrien uekue, uekue ein de musturre sartu te eskumeko adarretik arrautzie, irurogetamarretik larogei arrautzera ipintte ittue an uekuen. • **arrautze kaskara bakue.** Huevo sin cáscara. | Arrautzi kaskara bakue? Oten da arrautze kaskarabakorik? Bai. Ollue apur bet ondo estauniñ edo olan geixori les-edo dauniñ-edo, ba olluk arrautzie kaskara bakue eitten dabe. Eitten dabe bigune, barruku dekona bakarrik. | Arrautze kaskara baku da e..., ori mitze, arrautzik barrun dekona da mitze. A, tela bat deko, da

aregas dauna esaten da arrautza kaskara bakue dala, a mitze, ondo eiñ estabelako e olluek edo ondo sertu estabelako da. Mitze mintze esaten da.

• **arrautze okana.** Variedad de ciruela. | Klaudi okana, amendik untxe esautu dot. Arrautze okana, asto okana, da andraiñe lengo sarrak dire. | Klaudi okana goxu da. Da beste bat dau, arrautze okana be bai, asko be aundidxaue. • **arrautze oskola.** Cáscara de huevo. | Arrautz oskoletik urten deu. | Mintze bako arrautzie. • **arrautze perretxikue.** Oronja (*Amanita caesarea*). Emiliano Arriagak (*Lexicón Bilbaíno*, 2. edizio gehitua. Minotauro. Madrid) *arrauche-berrechico* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: “Variedad de hongo comestible cuya parte superior es amarilla, cubierta a veces de una película blanca; cuando es joven, su forma es muy esférica; por esto y por su color de yema de huevo lo llaman en euskera *arrautz-berrechico*, es decir, *berrechico* o *perrechico de huevo*”. | Arrautze perretxikuek ireil inguruen urtetan dau. | Arrautze perretxikue gitxi dau oin, gitxi. Len aistidzek-eta egon sirinien, bastante asko emen, goiko serin. Bueno, pagadixen egal partien, barruen esaben urtetan. Baya aistidixen bai, aistidixen bastante urtete ban. Da perretxikue ederra san, ederra perretxikue! Jaten be gustu onekue. • **arrautza suringue.** Albúmina, clara del huevo. | Da eitte tzosu gero arrautza suringue, a punto de nieve, arrautzin suringue, gorringue kendute, da nastau eittosu, tortilla moduko bat eittosu beragas.

arrautzegin, arrautzegiñe. (ARRAUTZAGIN) Ponedora (gallina). | Gure olluk arrautzegiñek sak.

arrautzero, arrautzerue. (ARRAUTZERO) Huevero, -a, el o la que trata en huevos. | Arrautzerue: arrautza batzen sittuna. Erregateru ixeti les. | Arrautzerue? Bai, aintxiñe. Arrautza batzen ibiltte siñ arek baserridxetan. Da gero arek saltze ben merkauen.

arre. (ARRE) Arre (voz para hacer que los animales de carga, o la caballería, empiece a andar o lo haga con más répidez). Ik. *ixo*.

arriba, arrebie. (ARREBA) Hermana (respecto a un varón). | Nire arrebie Bilbon dak.

arborde, arrebordie. (ARREBAORDE) Hermanastra.

arrega, arregie. 1. Palmo. Ik. *arrabete*. | Guk eskue sartzen danari esate tzeu arregie. | Arrega bat lusera. | Arrega bete eskastxu. | Arrega bat

inguru. | Oin be ganaduek-eta mediteko, arregatara eitten da. | Amar arrega dekos onek. | Amendik ara lau arrega dekos. | "Arrega bete euki eskerun, neiku dxok." Igul meidie ba arrega bete. Amen igul estakixu fijo, meidute estakixu, da "Arrega bete ingeru falt-ok". Edo oin bete be bardin esaten da iguel: "Oin bete falta dxok". **2.** Mano (referido a su tamaño). | Oiñ ixeten da iguel, emen berton useten dana da: "Bai, ik arrega txikidxe dekek!", esku txikidxe bouko, ba esku ixen da les arregie, igul esate tzue, ire arregie... "Emen lau arrega badxesak". Ba, meidi deko arregik, eukittes. Ba, arregi arregi da ostantzin. | "Arrega galanteko gixona", igul atzamar aundidxek boukos.

arreglau, arregleu, arregletan. (ARREGLAU, arreglatu-bat.) **1.** Arreglar. Ik. konpondu. | Etzi arreglau dabe. | Au ganera urtaro eitte san. Bidegiñi ixete san, da arrikuk e urtiñ e arratzalde bat oixe arregletan. Asi Nabarrixen, Elixaldin, da San Kristobalera. | Onien, onien arregleu eskero, asko be obeto urtengo leuskidxu geusi, baya dana eurentzako gure one pe! Da estai, orrek gerrik beintzet oiñ arte danentzako kalti ekarri deu. **2.** Arreglarse, acicalarse. | Politto arregleute dao fulano. | Politto arregleute satos. **3.** Arreglarse, ponerse de acuerdo. Ik. konpondu. | Bakixu, edo pregunte bat edo arreglu bat eitten dator, bakixu, edo mujoi bakixu ser diren, edososer diskusiñoyen, da "Ondo arreglau dire". "Ondo artu dau" edo "Ondo arreglau dire". | Asarratute egonda be arreglau dosak.

arreglu, arreglue. (ARREGLU, arreglu-bat.) **1.** Arreglo, reparación. | Arreglu bat da erreparasiño bat eittie. **2.** Arreglo, avenencia, conciliación. Ik. tratue. | Arreglu bat ein dabe. | An estau gero pasorik. Arregluas ein bi da ori, danan konformidadias. • **arreglus.** Llegando a un acuerdo mútuo. | Tratu ein dabe, arreglus ein dabe.

arrañau, arreinu, arruineu. Arruinar(se). | Arrañau ein dok. | Arreinite garatu dok. | Arruineute geratu da.

arrelepo. (ARRELEPO) A horcajadas. | Arrelepo erun dot.

arren. (ARREN) Aunque. | Nik dakitela esta, baya nik jakin es arren, ixen lei. | Dirue euki es arren, asko ekidxen. | Bueno, persona bateri olanik e esan bi dxakoniñ e ba asarre daniñ-edo, berba gustoku esaten estaniñ-edo ba, "Paputz

alaku!" ba personiri be esate dxako, ixen es arren be ba.

arren, arrena, arrana. (ARRAN, zintzarri) Cencerro. Ik. durbie, txintxarridxe. | Arren solidxe. | Arranak dire ganaduk-eta dabilitzenak. • Ahots zolia duenari buruz honela esaten da: | Arrena solidxe deko orrek!

arreskero. (HARREZKERO) Desde entonces, posteriormente. | Es, ontzungo egon sanetik, arreskero estok ona etorri. | Arreskero estau urten. | Ikusi nabenetik arreskero esta etorri. | Eskilladorie uli ebataillie da; len onek jittanuk-eta eskiladoriek makiñias, artasidxeekin len, gero arreskero makiñias, oiñ iñor bapes. | Len-len aintxiñe es san egon alakorik. Oiñ arreskero on dire onek. One ti ba modelu... esanguna, beti ba adelantue.

arreskeroko, arreskerokue. (HARREZKEROKO) Posterior a entonces. | Basatosti guk e gastetan estu selebrau. Arreskeroku da basatoste, arreskeroku da.

arri, arridxe. (HARRI) **1.** Piedra, pedrusco. | Arri sendue, samurre. | Kodañe sorrosteko arridxe. | Arridxe jeurti, bota. | Altzauko neuko berrogei bider arri astune. | Gero angillak ure gasteten sanien, arri aspidxetatik urten da etorten siren. | Arri gogorra barik, samurre, apurtu eitten da, blasta-blasta. | Dana arridxe, dana kanterie da! | Len mendi bidik pe konpondu eitte sirin, de ba erreka arridxe pe alderilla erun eitte sirin, bidik konpontzeko. | Bidi, ba le esan dotena, Gerniketik eta ori, Nabarrixera, angoxe arridxas, Loitidxako arridxas einde. | Trangue? Ba ser dala esangot. Arri bat, arri aundi bat bidin topetan dana, beidxe topetan dabena burdidxas edo narras doixenien. Da trangu esate dxako arixeru. **2.** Pedrisco, granizo grueso. Ik. iñetasidxe, txingorra. | Txingorra negun, baya a udekuri arridxe esate tzau. **3.** Fregadera de piedra en las cocinas antiguas. Ik. errekosina arridxe. | Kosiña arridxe. | Tiña arridxe. | Leixibe arridxe. | Arridxen jote ben ori, erropak. **4.** Muela, rueda de molino. Ik. errotarridxe, Okako arridxe, prantzés arridxe. | Arto arridxe eta gari arridxe diferenti dire. | Okako arridxe? Arto eidxoteko ixen san arri onena. Okakue, Okan urtete bana. | Artu eidxoteko arridxe da are arridxe. • **arri alperra.** Rodillo, apisonadora, instrumento de labranza para deshacer los terrones del campo. Alperra edo alper arridxe ere esaten da. Bideetan honen

antzeko beste bat erabiltzen da galipota zapaltzeko: *txilindrue*. | *Alper arridxe ixeten da, arri lusenkie, biribil-biribile dana, len solun asko ibiltte gendun sokillek apurtzeko: arri alperra*. | *Alper arridxe, ori bueltaka juten dana, soluen, oiñ esta ibiltten, baya egon badaus oin be*. | *Sokiltzie: soluen sokil asko egotie, solue gosatu barik eotie, alperras, arri alperras. Oiñ arri alperri pe esta ibiltten, solori pe gitxi dabil, da solue pasetako, arri alperra ibiltte san len sokillek apurtzeko. Da oin ba arri alperri pe esta ibiltten, sokillek apurtzeko be, da ba arias-da, bostortzas-da eitten da biarra*. • **arri baltza**. Tipo de piedra oscura poco consistente. | *Arri baltza? Arridzek onek e... Selan esango tzu pa? Arridzek ote di batzuk illun-illun-illunek, da "Arri baltza dxauk an". Arri baltza, samurre*. | *Arri baltza? Onek e... Illun oten da arridxe ba? Arixerri esate tze arri baltza*. | *Arri baltza esta gogorra. Axe eutze eitten da*. • **arri bittartie**. Lugar entre piedras. | *Pendixe da, leku txarra da ori, leku txar bat, biar eitteko leku txarra da pendixe. Biar eitteko baso bat-edo txarra dauna, pendixe. Peligrosue. Goitti beran, edo leku altu-bajuek edo arri bittartiek edo miñ eitteko moduko leku dauselako*. • **arri bolie**. Piedra redonda. • **arri burue**. Canto. | *Arri burue: arri bidiñ-edo, estrepesun-edo topetan danari, "Arri buru bat estrepesau dot"*. • **arri grijue**. Grijo, piedra menuda. Ik. *arri seye, arri kiskorra*. • **arri jasotie**. Levantamiento de piedras. | *Famaue? Seri esate dxakola esangot famaue? Edo arri jasoten eitten dabena edo orretaiko bat famaue*. • **arri jasotzaillie**. Levantador de piedras. • **arri jeurtike**. Lanzando piedras. | *Arri jeurtike dabis*. • **arri kiskorra**. China, piedrecilla. *Arri koskorra esaten da gehiago*. | *Arri koskorra esate tzeu guk arri koskorra jeneralin, arri kiskorra be bai, baya ostantzin kiskorra ixates da erretakue*. | *Da gero arexe garbitzeko usete gendun lurre. Lurre eta ori arri kiskorra*. • Hona hemen zelan bereizten diren *arri kiskorra* edo *koskorra* eta *arri grijue*: | *"Arri kiskorra sartu dxatek ankan!" esaten da. Sapatillan-edo seoser bokosu arri olako: "Kaguen, arri kiskorra dxekatek!"*. *Arri grijue barik. Arri grijua da ba asko egoti les, da bat sartzen badxatzu, arri kiskorra*. | *Iguel apartan saus, eta: "Dana arri kiskorra!"*. *Da onek igul ekarte ittue bakiak, kanpotiku dan bakiak, da artuk-eta, es emen berton artzen danak e!:* *"Kaguen, arri kiskorretan euki dxok, arri kiskorretan!"*. *Arri grijua barik,*

ordun esaten da arri kiskorra. • **arri koskorra**. Cascajo, canto rodado. | *Arri koskorra esate tzeu txikitxuri, jeurten danari barik, txikitxuri, arri koskorra*. | *Arri koskorra esate tzeu guk arri koskorra jeneralin, arri kiskorra be bai, baya ostantzin kiskorra ixates da erretakue*. | *Arri koskorra esate dxako arri txikitxuri, arri koskorra, "Dana arri koskorres beteri dau"*. *Grijue arri koskorren antzeku da. Bueno, grijue apur bet aundixau laku ixengo da arri koskorra bayo*. • **arri labana**. Piedra resbaladiza. | *Arri labana dau*. • **arri landue**. Piedra labrada. • **arri laprasta** edo **arri laprastie**. Piedra resbaladiza. | *Arri laprastie: sera, onan, arridxe beratz, leune bada. Mendi baten be igul arri laprastie igul ogei metron-edo, laban eiñ eskero bueltara juteko modun*. | *Arri laprastie da atxegi eta barik, lixo. Bueltaka asi eskero, garatu barik beraiño juteko modun*. | *Laban eitten dan arridxe izen eskerun, arri laprastie*. • **arri lastrie**. Tipo del tipo de la troskie y que es muy resbaladiza. | *Da sera olan txaplana dausen arridxei be, arri lastri*. | *Emen kontu mutillak, emen arri lastrie dak*. | *Arri lastrie, bai, esate tze, lastrie, a saborreidxeri esate tze lastri*. | *Arri lastrie da onek e... Biditan-da oten da ba arri troski edo labana? Arexek. "Ño, bide labana dxak!" edo "Arri lastri dxak!"*. | *"Arri lastri ok", arridxe, bakixu, edo labana badau, edo arridxe erripie, da "Ño, ori troski dxak!", edo "Ori laban-ok!" edo bakixu. An igul arri troski badau edo ontan alturetaren, esin dosu urten, ankari pe esin dosu ipiñi tte. Alakoxiri esate gentzen*. • **arri losie**. Losa. Ik. *losie*. | *Sulue sarratzeko edo onan erreka txikidxe pasetako edo, arri bastante meye, sabala ta lusie bada, arri losie*. | *Arrolan topau sittuen gausa batzuk. Da baitte kuartu moduko orrekin einde, arri losakin einde*. | *Arri losa bat dau atepien: atepeko arridxe*. | *Ate aspiko arri losie*. • **arri saparradie**. Granizada, borrasca con pedrisco. | *Kimuek: esate baterako, ba piperra be sartute dau, tomati be bai. Arek dekesan orridxek, esate baterako eitten dau arridxen saparrada bat, arri saparrada bat, da arek kimuek kendu eitte tzos, apurtu eitte tzos, da gelditzen da sostorrin*. • **arri seye**. Piedra menuda. Ik. *grijue*. • **arto arridxe**. Piedra para moler maíz. *Gari arridxe baino bigunagoa da*. | *Arto arridxe Okatik ekarten da*. • **ganeko arridxe**. Piedra de moler volandera. Ik. *bekarridxe*. | *Ganeko arridxek eukitten deu sulue, granue jeusteko. Da onek toberi botaten*

deu ara erdiko sulora granue. • **gari arridxe.** Piedra para moler trigo. Ik. *arto arridxe.* Sasoi batean *Trebiñoko arridxe* erabiltzen zen, baina gero *prantzes arridxe* erabiltzen hasi zen. • **kantoi arridxe.** Piedra angular. • **kilometrarridxe.** Hito kilométrico. • **mujo arridxe.** Mojón. *Mujarridxe* ere ahoskatzen da. Sin. *mojonerie.* | *Mujo arridxe: arridxeekin eitten da mojoneri ta. Da mendixen be bardin, mujonerak.* • **Okako arridxe.** Muela de molino proveniente de Oka, utilizada para moler maíz. Ik. *prantzes arridxe, Trebiñoko arridxe.* | *Okako arridxe? Arto eidxoteko ixen san arri onena. Okakue, Okan urtete bana.* | *Okako arridxe, artu eidxoteko.* • **ollo arridxe.** 1. Bebedero, abrevadero de gallinas. Barandiaranek (*Tradiciones y leyendas de Euskal Herria*, La Gran Enciclopedia Vasca, 127. orr.) honako hau dio: “Pila de las gallinas. Este es el nombre que en Salcedo (Alava) recibe una piedra de forma cúbica, con un hoyo hemisférico en la cara superior, que sirve de abrevadero a las gallinas. En Galarreta la llaman olloarri (piedra de las gallinas): unas tienen cuadrada la cara superior y otras circular. De esta misma forma y para el mismo uso son las llamadas *Urontzie* “pila o vasija de agua” de Muxica, las *Oilloontzia* “vasija de las gallinas” de Bidania, donde algunas tienen tres hoyos o cazoletas; las *Ollôntziya* de Andoain y las *Ollaska* (pesebre de las gallinas) de Oyartzun. En Nanclares de Ganboa he visto un antiguo sepulcro de párvulo labrado en piedra, que hoy hace de olloarri junto a una casa de labradores. | *Ollo arridxe da olluk jate daben arridxe.* 2. Piedrecillas que engullen las gallinas. | *Arri soltiek jate ittus olluk, da areri esate dxako ollo arridxe.* • **prantzes arridxe.** Muela de molino proveniente de Francia, utilizada para moler trigo. Ik. *Okako arridxe, Trebiñoko arridxe.* | *Prantzes arridxe orrek gogorak. Sei edo saspi satikuek.* | *Prantzes arridxe, garidxe eidxoteko.* • **Trebiñoko arridxe.** Muela de molino proveniente de Trebiño, utilizada para moler trigo. Ik. *Okako arridxe, prantzes arridxe.* | *Trebiñoku prantzes arridxe es euenien ibiltte san.* • **txiñurri arridxe.** Roca poco consistente que se rompe con facilidad. | *Txindurri arridxe: ori prast-prast apurtzen dana, arri troski, ori da arri..., esan gu tona, kolorien normal antzeku, baya txindurri arridxe apurtu eitten da ori prast-prast.* • **arri altzau.** Levantar piedras. | *Len arri*

altzetan ibiltte siñin: "Onenbeste altzaldi ein dxusak".

arriarte, arriartie. (HARRIARTE) Pedregal. Ik. *arritzie.* Multzo zentzua hartzen du *-arte* atzizkia erantsita. Ik. *bedarrartie, sasiartie.* | *Arriarterik arriarte ibilli nas.*

arriatx, arriatxa. (HARRIATX, harri haitz) Piedra caliza de los bosques. | *Arriatxak: orre deusena... Atxegi moduko arridxe, basutan deusenak, "Arriatxa dxak an dana"-ta.* | *Arriatxak: atxegidxe, kanpun bistan dausenak, esate rako, onako alturi-tte dekenak, arriatxak.* | *Emen, olan, atxa arboliri esate dxako. Orrek baso-mendistan dausen arridxeri: arriatxak.*

arridxo, arridxue, arreidxue. (HARJO) Enfermedad de la fruta que estropea su interior. | *Onek sagarrak barruen arreidxue deko.* | *Dana arridxus beterik dau.* | *Arridxu dxekok sagarrak.* | *Ori jeneralin botiki eñ eskero, estau arridxorik. Ba, botikarik etxekon len eitten. Da oin bes, ya asko geratu da botiki eittie.* | *Arridxu aintxiñe be bai eitte dxakon. Eta arridxue kristala modukue, barrue, eta gosu ixeten da e. Es, esta kokue. Olaue, arreidxetxue. Da gosu ixeten da, arraidxu dekona, posik, seinde... Selan esango tzut? Transparenti ixeten da, mamiñe apurtxut, ta gosu oten da e.* | *Arreidxue da koku les eitte dxakona, sulu eitten deu da "Arreidxu deko" esate dxako.* | *Arreidxu da geixu-ero, arrakalatu-ero eitte dxako.* | *Arreidxu puntetik-ero jute dxako geixu-ero. Arridxu esate gentzon len beintzet. Usteldu eitten da gero. Andik ustela eitte dxako.*

arrigarri, arrigarridxe. (HARRIGARRI) Asombroso, increíble. | *Ori da gause arrigarri pasau dana!* | *Geuse, seoser pasetan danin: "Ba, ori bai geuse arrigarridxe!"*

arrikada, arrikadie. (HARRIKADA) Pedrada. | *Arrikada bat emoyok!* | *Arek emon deu arrikadie!*

arrikari, arrikaridxe. (HARRIKARI) Apedreador, -a. | *Amen atzeko kopradixen egon san. Beti arrike dabilena. Antza, ondo botate ban arridxe, da ba arrikaridxe esate dxakon areri, ixenas ipiñitte.*

arrike. (HARRIKA) A pedradas. | *Arrike asi siren.* | *Arrike dabis.* • **arrike ein.** Apedrear.

arriketz, arriketza. (HARRIKATZ) Carbón de piedra, hulla. | *Kaleruen egur ordetxak arriketza botate gentzon, kapie, esta?; da gero arridxe ganera, da kapie arriketza, da arridxe ganera, seinde egurre les.* | *Ikatzas eitte sana ixete san*

Loittidxan egon sana (kalenue). Arriketzas eitte ben.

arriko, arrikue. (HARRIKO) Fregado (de la vajilla). • **arrikue ein.** Fregar (la vajilla). | *Arrikue ein: tresenak garbittu, arrikue ein, beti arridxen garbitzen dan geusie, platera, basue dana: arrikue.*

arripe, arripie. (HARRIPE) Departamento situado bajo la fregadera. | *Arripien gorde deu.*

arriskue. (HARRIZKO) De piedra. | *Arrisko ormi dxok.*

arrittu. (HARRITU) Asombrarse. | *Arrittute dau. | Ño, arrittute geratu dok jentie. | Arrittu da pasau danas.*

arritze, arritzie. (HARRITZA) Pedregal. Ik. *arriartie.*

arritzu, arritzue. (HARRITSU) Lugar pedregoso. | *Terrenu arritzue. | Emendik alderdidxe arritzu da, atxegidxe. | Arritzu da.*

arriue. (ARREO) Arreo, ajuar de la novia. | *Burdi kirriñakin erute san arriue. | Arriue eruteko..., bat eskontzen sanin, len beidxekin erute san etze batetik pestera, oyek eta onek erute siren. Da mutillek danak apropos ipiñitte, bakixu, orrek kirriñak joten, beidxek-eta txiliñakin ipiñitte elegante, mantekin-de juten siren, arriu eruten. | Orrek aintxiñen uso kostunbrak e, bat eskontzen sanien, ba arriu ekarteko, beidxekin, de txirriñe joten, da musiki jotan an rin-rin de rin-rin de rin-rin-de, gixonak ipintte ban, estutxu-edo ipiñi selak, sati ein deidxen. Txirriñak.*

1 arro, arrue. (HARRO) 1. Hueco, carcomido. Ik. *astiñe. | Atx arrue guk esate tzau ueko barru dekon arbolari. Usteldute barrue. | "Lurre arro dau": Lurre astiñe dauenien, estaunin..., ser esangot neuk? askotan euri asko einde, lurrek, ba, gogortu eitten dire, siketzen diriñin. Da batzutan, lurre samurre bada, ba samur egoten da: "Lurre arro dau".* 2. Orguloso, -a, fanfarrón, -ona. Ik. *arroputze, gallardoni, panparroye. | Arro ganorabakue. | Arro ibilli san, baya apur bet mantzotu da. | Ori arro dak. | Arro-arrue i dxok. | Arruau da! | Gallardoni: enbrari esate dxok ori jeneralien. Eundidxe, ta ederra-ta, arru. Batzuk esate tze "Ori arru da!". Bestik igul esate tze: "Jo, gallardoni dok!". Da ba errespetu modun eitten deunari.*

2 arro, arrue. (ARROA) Arroba, medida de peso equivalente a doce kilos y medio. Sin. *arrobie. | Lau arruk kinttela eukitten deu. Da arrobi amabi killo terdi. Da ogetabost killo arro bi. Da*

berrogetamar killo. Kinttela esate dxako. | Pixeten doiñien, ganaduna ixeten da erraldie, txarridxena arru. | Arrobie emen esta esaten ainbeste, arru. Arru bat ixaten da amabi killo terdi. • Arru bat ala arrobete, zein esaten den gehiago galdetuta, arru bat gehiago esaten dela erantzun zidan A. Goirienak: | Arru bat esaten da jeneralien. "Arru bat euki deu", edo "Arru bi euki ttu", edo ba...

arroba, arrobie. (ARROA) Arroba, medida de peso equivalente a doce kilos y medio. Sin. *arrue. | Arrobie txarridxen pisu ixaten da. | Txarridxek senbat arroba dekos? | Arrobie: ogeta bost libre, ori da amabi killo ta erdi.*

arrokeridxe. (HARROKERIA) 1. Vanidad, orgullo. Ik. *aundittasune. | Arrokeridxe, bera nausi, danen ganetik berak ixen gure. | Jasue esate dxako, esate baterako, ba garbi ibiltten danari, ondo, arrokeridxe barik eta ondo ibiltten danari: "Jasue da!"* 2. Fanfarronería. | *Arrokeridxe naiku deko!*

arrolatar, arrolatarra. (ARROLATAR) Natural de alguno de los caseríos situados en el monte Arrola. | *Masandeitarrak. Etze bi dause les. Etze bat baletxeke, Masandeikue esango letxeke, baya etze bi dause les, masandeitarrak. Da Arrolaku pe arrolatarrak, se an bixitza asko ganera. Iru bixitze on siñ an beko etzien. Ta goiku be a Arrola da. Orrei arrolatarak esate dxakue.*

arroputz, arroputze. (HARROPUTZ) Soberbio, -a, arrogante, vanidoso, -a. | *Ori arroputzori! | Arroputze? Bai, Arro, txulo.*

asíño, asíñoie. (AZINO, azío-bat.) Faena, fechoría, trastada; acción. | *Asíñoie da geuse bat eítte, bera pentzamentu baten eíttén dan geusíe. Ník, esate baterako, artun, atxurre, ta rí-ra jó, ta apurtzie. | “Oíñ artu deu beren asíñoien ondorídxue”: Gero geuse txarra berari eítte dxakonín. | Ba asíñoie da: “Eín dxok a pe asíñoie!”, “Beren asíñoie eín dxok”-eta. Beren konture seoser eíttén badeu, “Asíñoie a pe eín dxok!”.*

asítu. (HAZITU) Formarse el grano. | *Ganaduk jaten dabena be baí, ta da sírí bedarra puntan, puntíe dana asítu eítte dxako, ba aríxe esate dxako. | Prantzesak burue gorri-gorrídxek asten deu, da gero apurkan-apurkan a gorrítasune be asítu eíttén da. | A (prantzesa) gero asítu eíttén da, da askok eítte ban asídxek etziñ artun. A síketzen ítxí, saíl bat, da síketutakun, da garandu.*

asítzu, asítzue. (HAZITSU) Lleno, -a, de semillas, granos. | *Usteídxek bedar bat ta, solun eóten dana, da asítzu-asítzu be da. | Sekule bedarra esate tzau guk orreri. Asítzue. Gorrídxek. Bola gorrídxek ataten deu orrek, dana asís betérík.*

aska, askíe. (ASKA) Pesebre, abrevadero, pila. | *Txarri askíe. | Bedarra askara bota. | Askíe esate tzagu jaten emote tzeunari be. Uretakuek pe ur askíe. | Aska estramiñí da ganadun eurrek askíe. | Askíe estramiñari parík ígul egóten da. | Kajíe. Kaja ba ta ganbelí. Aska sarrak-eta dekesenak, ganbelí betí len usete san. Oíñ e guk geu pe porlana dekeus, da porlaníe, bota arren pentzue, ondo batze íttue. Baya lengo aska sarretan, danak bítartík eta karkabí tte orrek da ganbelí ímíntte dxakuen.* • **aska tapíe.** Tapa de la ventana por la que se introduce al pesebre el alimento del ganado. | *Ia, ereí xak aska tapak, jaten emon bí tzet ganadurí tte.* • **urún askíe.** Arca de madera que recibe la harina de la molienda. | *Urun askíe beko kajíe da.* • **aska ona egón.** Se dice cuando en alguna casa se

come bien. | *Aska ona dau emen!* • **aski altu euki**. Se dice de la persona o familia que, por falta de recursos, pasa hambre. | *Askie altu deko.* | *"Askie altu euki dxok orre pe!" esakunie da goses-ero deuenari, falta deuna, estekona bidan besterik, beti goses.*

askan, askana, askena. (AZKEN) Fin, último. Ik. *atzena*. | *A librun askana etxaten bape gustau.* | *Iguel sigarro bat paketan, da ba: "Eutzok askana!"*. • **askan baten**. Al final, a fin de cuentas. | *Triskau da ehati, ebei egurre, nai... bai, askan baten egurre da trisketi, trisketie, satidxe kendute ba, triskau.* • **askanerau**. Últimamente. | *Da oiñ e askanerau kari barik ekarte gendun..., drogeridixan be eote san da se ixen esate gentzon?... ikena be astuta..., olan berdeski ixaten da, se esangot neuk?, olan arri troku-troku lakuk ixaten dire.* • **askanetan**. **1.** A finales de. | *Baya aprillen askanetan, mayetzin bayo erneten be esta asi.* **2.** In extremis. | *Animalidixen bat badau ya askanetan, "Idxe erdi ilde dau" esaten da.* | *Askanetan dxak.* | *Beidxe deket ya askanetan les, da laguntasune bi dot.* | *Ya arnasie juten badao, ba "Askanetan dao" (esaten da), da idxe illin deuna, dao ondiño apur bet fuertetxueu.* • **askanien**. Al final. | *Askaniñ esta etorri.* | *Askanién gusurras apartau da.* | *Ibilli tte ibilli, ba konsegidu eben askanien.* | *Atara ben askanin, baya atara ben kostata.* • **askana emon**. Dar término, finalizar. | *Askana emon deu.* • **askanak ein**. Hacer las últimas, morirse. | *Askanak ein ttu.* • **askanak emon**. Morirse. | *Askanak emoten dxak.*

askanalde, askanaldie. (AZKENALDE) Últimamente, recientemente. | *Askanaldiñ e makiñan be jote gendun. Eorte san makiñie, or Kortasubiko batzuk pe euki ben, da aixe eorte san makiñias, da jote gendusén garidxek.* | *Asau lotu te makiñan be jote siriñ askanaldien, da eskus be bai.*

askanaldi, askanaldidxe. (AZKENALDI) La última vez. | *Askanaldidxe: geidxarik ein biar estan geusie bada, askanaldidxe.*

askandu. (AZKENDU) Acabar, finalizar, concluir, rematar, ultimar. Sin. *akabo*. | *Askandu dosu?* | *Solu askandu deu.* | *Bierra askandu deu.*

askaneko. (AZKENEKO) Al fin. | *Askaneko etorri da.*

askanengo, askanengue. (AZKENENGO) **1.** Último, -a. Ik. *atzenengue*. | *Kontu kontuau*

askanengo egune San Silvestre. | *Arek askanengo berbie esan deu.* | *Beti askanengo.* | *Oin gariri pe-esta eraitten. Askanengo emen eingerun erein gendunak geu ixen giñen.* **2.** Al final. | *Besperan gosue jaten bada, gabien, askanengo gosue jaten bada, bidxamonien ao santarra egoten da.* | *Tripie, askanengo deuna da tripa barrena.* • **askanengos**. La última vez, por última vez. • **askaneng-arnasetan**. Expirando, en los últimos suspiros. | *Askanengarnasetan dxak.*

askar, askarra. (AZKAR) **1.** Ágil. | *Persona askarra.* **2.** Veloz, rápido, -a. | *Askarra ariñeri esate tze.* **3.** Rápidamente, de prisa. | *Askar, sus ortik!* | *Askar, sois barrure!*

askarri, askarridxe. (ASKA HARRI) Pesebre, abrevadero donde se da de comer a los cerdos. | *Askarridxe: txarridxeri jaten emoteko. Txarridxen askarridxe.* | *Txarridxen askarridxe ixeten da beren egalekin-de. Txarridxenak olan alture asko egalak-eta eukitte ittu osali-tta botateko. Beidxen aski ixeten da lixue. Jaten botate dxake araxe, da lixue ixeten da.*

askaurre, askaurrie. (ASKA AURRE) Espacio al que se accede al entrar en el caserío y que situado delante del *aska*, reservado fundamentalmente para guardar el alimento del ganado. | *Askaurrie da amendik ara, ganaduen bittartien dauena, ganaduen jatekue te eukittekue. Gero andik emote dxako askara ganaduri.* | *Emen bidxen bittartiñ askaurri esate tzeu orreri. Da batzuk karraju esate tze.*

aski, askidxe. (ASKI) Grama (*Cynodom dactylon*). | *Askidxek, edo aski bedarrak, ainbeste sustrei emoten deu, a esta gure ixeten, arek kalte eitte tzo.* | *Askidxe: ori da bedar bat, sustreidxe eta sustreidxe eitten deu lurren barrun. Barrue txupau eitten deu, te ganera be asten da, baya bai ganaduk jan eitten dau be, baya ixeten da probetxu bakue, edo ser esango neu? kalte eitten dabenerako.* | *Askidxe bedarra da, solokue. Txarra esta beres, ori bayo txarrauk pe badaus, baya bai lagunentzako ona estala esaten dabe. Ori jorratu eitten da, da bertan itxi labori.* | *Aski bedarra da, ser esangot neuk?, arek sustreirik mugitti modun estau eukitten, baya arek pe adar ederrak eitte ittu, aspidxe, a, bedar utze asten da, arek estau eitten mugitti modun, alan garauntxuk aste ittu mugittik. Arek estau asten darauntxurik baya. Ba aspidxe egoten da solun. Kalte eitten deu solun, asko espada ba, gitxiau kontixu.*

asko. (ASKO) Mucho. | *Asko da altuaue.* | *Asko gurot.* | *Diru asko es eukon baye listue ixen san.* | *Dirue euki es arren, asko ekidxen.* | *Bitz askoko ardaue.* | *Etxok asko eingo, arnasi bete dxakok eta!* | *Bai, basan e keye ta basan e su eta abarra an karabidxan, Jesus! Baya asko biar!* • **asko be ...-au.** Mucho (más). | *Klaudi okana gosu da. Da beste bat dau, arrautze okana be bai, asko be aundidxaue.* | *Besti gabilloi txikidxe txikidxau da asko be, amen txori txikidxei-de segite tzena. Gitxi da baya ibili ba banekak ibiltten dire.* | *Ori e ni bayo sarrau san asko be.* | *Arkasatza da gogorrau asko be.* • **askos (be) ...-au.** Mucho (más). | *Askos gosueu.* | *Askos txarrau.* | *Askos be oba olantxe.* | *Orduen urtete deu gosuen, askos be.* • **gitxiu edo askuau.** En mayor o menor medida.

askolari, askolaridxe. (AZKOLARI, aizkolari-bat.) Leñador. Orain *piñu-botatzaillak* edo *arbola-botatzaillak* ere erabiltzen da sarri, moto zerraz botatzen dira eta. | *Airoko pague esate dxako. Gero bota ebenien, ebaten askolaridxe egon sirin, au Luxia, lau ordun ebai bayetz, de esetz kortie, da es eban ebai.*

askonar, askonarra. (AZKONAR) Tejón (*Meles meles*). | *Askonarra mardo-mardo-mardu ixeten da, da anka txikitxuk eukitte ittu.* | *Askonarrak? Orrek txakurkidxe dire ixetes, eurok. Txakur rasa antzekuk. Jateku-te orrek estire... Dana koipie, koipetzu lakuk ixeten dire orrek. Iños jan dabe emen askonarra. Baya dana sebue! Txarra! | Askonarrak korridu gitxi eitten dabe. Olan korridxen sorrak dire, nekes.*

askora, askorie. (AZKORA, aizkora-bat.) Hacha. | *Askoriegas ebai.* | *Askorias egur bet jo.* | *Arek, angó errikuek dire balientiek askoran.* | (*Ganadu iltteko*) *Len beti orras, askorias, da txarridxe gantxuas, e kutxillu sartun. Da orreri be txarridxeri batzuk eitte tzen lelengotan askorias buru jo, satarik eñ esteidxen, ainbeste irrintzarik eñ esteidxen.* • **askora astie.** Mango del hacha. Ik. *askora kirtena.* • **askorin burue.** Parte del mango del hacha posterior al filo. | *Ganadu il? Ganadue, sesiñe ill ein bi dunién onetan alan ibiltten da, atara kanpora iltteko lekure ta bat e listo oten da, askori eskun dekola ta askorin buruas jo bekokidxen da bera botaten da.* • **askora eskue.** Asidero del hacha. | *Askora esku, da askora kirtena bat dire. Eskue, norberak kolpeteko astiri, ba eskue esate dxako, da askora*

kirtena be bardin esate dxako. • **askora kirtena.** Mango del hacha. Ik. *askora astie.* • **askoran.** (Trabajando) con el hacha. | *Sospalak askoran dabixenin, suk pe iñox ikusiko sendusen-edo askoran ibiltten diriñak egurrek txikitzen, da arixeri kentze dxakesanak dire, arixeri esate tzeu sospalak.*

askorakada, askorakadie. (AZKORAKADA, aizkorakada-bat.) Hachazo. | *Askorakada baten burue eñ eutzon partidu.*

askordin, askordiñe. (AZKORDIN) Sabañón. | *Askordiñek atzamarretan be batzuk eukitte ben.* | *Askordiñek pe askuri emoten deu, lelengotan, gero min emoten deu, baya lelengotan askuri asko emoten deu.* • Lehengo esakera da azkordinak gari loreak kentzen duela, garia loran dagoenean, beroa izaten baita, eta beroarekin, bada, azkordinik ez. | *Askordiñe gari lorik kenduko tzu: garidxe loran egoten daniñ ude-udiñ ixete da les, ba udan esta egoten askordiñik. Askordiñek jeneral leidxe daunin agertzen dire, leidxe eitte ittunin, orduntxe agertzen dire, bitzetan, da atzamarretan be igul, belarridxetan be bai-tte.* | *Askordiñek gari lorik kentzen dittu: klaro, gari loriek urtete dabenien, bero eitten deu da beru estao askordiñik.* | *Ba askordiñek dekosak, gari lorik kenduko deusak.*

askotu. (ASKOTU) Proliferar, aumentar (en número). *Ugerittu gehiago esaten da.*

askotxu. (ASKOTXU) Demasiado. | *Askotxu edan deu.*

askure, askurie. (AZKURA) Picor. • **askuri ein.** 1. Rascar(se). | *Askurie eitteko gogue.* 2. Producir picor. | *Askordiñe pe askuri emoten deu, lelengotan, gero min emoten deu, baya lelengotan askuri asko emoten deu.* | *Pelukeridxera jute san, da pelukeridxan moñue, eñekue, ipintten ei tzen postixue, da askuri eitte dxakon, da askuri tte askuri.* • **askuri emon.** Producir picor. | *Askuri emongo deu.* • **askuri euki.** Tener picor. | *Askurie dekot.*

askureke. (AZKURAKA) Rascándo(se). | *Askureka dau.* | *Askureka ekiñ eskerun, ba "Askureka dabil" esaten da.*

asma. (ASMA) Asma. • **asma bedarra.** Extramonio, hierba hedionda, higuera loca (*Datura stramonium*). | *Asma bedarrak usein, ba, gosue estau ekitten, baya aguntau esin laku be esta.*

asmasarie, asmosarie. Tela de araña. Ik. *masma sarie, masmaraune*. Kokoari *masmie* esaten bazaio ere, berak zabaltzen dituen sareei *asmasarak* nahiz *masma sarak* esaten zaie, bietara.

↓ *Ipiskidxe: labie garbittu-te eitteko, asmosarak kentzeko be bai. Dies arbolan sepa moduko batzuk.*

asmau, asmetan. (ASMAU, *asmatu-bat*.) Inventar, imaginar, adivinar. ↓ *Arek asmau dxok orixe be!* ↓ *Artesa esaten da, ba, geusie olan asmetan dabena be, gixon artesa da.* ↓ *Edoser asmetan deu.*

asmo, asmue. (ASMO) Intención. Ik. *ustie*. ↓ *Bidxar Bilbora juteko asmue deket.* ↓ *Etorteko asmotan nau.* ↓ *Gero ta gero be beren asmotan deu.* ↓ *Ak asmue au eitteko euki dxok, baya etxok ein.* • **asmo txarrin.** Con mala intención. ↓ *Asmo txarrin dabil.*

asmotz, asmotza. (HARETX MOTZ, *haritz motz-bat*.) Roble desmochado. ↓ *Atxak daus tantaidxek, eta daus asmotzak. Asmotzak esate dxake tantai asten isten etxakelako. Oiñ idxe, onek arbolak idxe galdu dire. Len eitte dxaken goidxe kendu; arek ixete siñ asmotzak. Da as tantaidxek ixeten dire mostu bakuk.*

asmotzu, asmotzue. (ASMOTSU) Ingenioso, -a; sagaz, ocurrente. Sin. *idiatzu, idiosue*. ↓ *Ori, asko idietan deuna ba, "Orrek asmau deu orrek", asmau, da asmotzue.* ↓ *Asmotzu? Bai, idiau eitten deuna asko, asmo asko dekona. Orrek esate ban, baten moskorras a, Elixaldekue, gure kinttue. Arek e ari Rupertori, taberneruri, ba beti a idietan, da geusak esaten, da au te, "I, ididxek asko! Ididxek asko!". 'Idie' esateko, 'ididxek', moskorra euken itzela. "Ididxek, ididxek!".*

aspaldi, aspaldidxe. (ASPALDI) Hace tiempo. ↓ *Jun dan aspaldidxen.* ↓ *Oin, enas ni aspaldidxen ixen.* ↓ *Baya guk estetzegu ori be esaten, espabese beko sue bayo. Aspaldi esta ixotu be ein de, estaitt ixotzen danin se eingo daben baya.* • **aspaldidxon.** Hace tiempo para acá. ↓ *Estot ikusi aspaldidxon.* ↓ *Nik oiñ aspaldidxon olakorik estot entzun.* ↓ *Aspaldidxon urrun dabil.* ↓ *Ori asko sortu da aspaldidxon.* ↓ *Aspaldidxon estu barbarik eitten.* ↓ *Aspaldidxon eseutzen dot.* ↓ *Oiñ enas neu jun beñ aspaldidxon. Len bai, Jesus, senbat bider!* ↓ *Oiñ aspalditxuon esta ein, baya nik len morokille sarri eitte naben ba.* ↓ *Bai, garidxe eraitteko erre eitten da, oiñ aspaldidxon estou garirik eraitten baya.* ↓ *Perri esate dxako...*

jun dan aspaldidxon estous geuk beidxek perrau, estous busterridxen ibiltten-da baya, perri da geusa bat dana burdiñeskue, ta beidxeri anka aspaldidxon ipintte dxake. • **aspaldi gustidxen.**

Todo este tiempo. ↓ *Aspaldi gustidxen ixilik on nas, da oin ba esan bi ot.* • **aspaldiko.** Persona ausente por algún tiempo. ↓ *Ola, aspaldiko, etzaitut aspaldidxon ikusi!* • **aspaldi lusien.** Durante largo tiempo. ↓ *Aspaldi lusien esta etorri.* • **aspaldi onetan.** Últimamente, en los últimos tiempos. ↓ *Aspaldi onetan eurittera dau.*

aspi, aspidxe. (AZPI) **1.** Parte inferior, parte de abajo; debajo de, bajo. ↓ *Lapikuri aspidxe errete dxako sarritten.* ↓ *Ogigastaye da arratoin moduku; aspidxe suridxe eukitten deu arek.* ↓ *Arbola aspidxen esta eser artzen.* ↓ *Aspidxe da beye.* ↓ *Illunsarren aspidxen dau Nabarnis.* ↓ *Gero angillak ure gasteten sanien, arri aspidxetatik urten, da etorten siren.* ↓ *Sasi gustin ganetik eta edoi gustin aspittik.* **2.** Suela. ↓ *Aspidxek gastaute dekoso.* ↓ *Abarketiri, liñuas eiñekuri esate dxako soru. Abarketin aspidxe liñuas eitte ben, len, oiñ estai segas eitten dan be.* **3.** Cama, mullida (del ganado). ↓ *Ordun orbela ekarte san ganaduntzako, aspireko.* ↓ *Otatxurre kortan ibilte san, beidxen aspidxe astintzeko, edo atarateko.* ↓ *Bei gobernue? Bai, beidxek gobernau bier ixeten dire, jaten emon, aspidxe kendu, aspiaridxe bota: bei gobernue.* **4.** Ubres y organos excretores. ↓ *Katanarra da... Arek e... Onek olluk-eta, aspidxe jate tze lelengo, erropie. Arek erropan asten di jaten. Erropie, da lakunie. Lakunie bakixu ser dan? Lakuni da atzeko eperdiko sulue eta atziñ animalidxek boukos arek kunak-eta eitteko, beran txixe-da eitteko. Arexe jate tzes lelengo.* **5.** Mala hierba que crece cuando al cabo de un tiempo desde que se siembra el pasto éste empieza ha degenerar o perder fuerza. ↓ *Sekule bedarra beidxek jaten dabe. Orrek bedarrak irauten deu iru urtin bai. Baya batzutan ekarri ein bi ixate dxako, se aspidxe etorte dxako ta, aspidxek jan esteidxen.* ↓ *Aspidxe da, lurren a espadau bera, beste bedar klase urtete tzo, da axe urten esteidxen.* ↓ *Ori eitte san tartien urten esteidxen beste bedarrak. Se mies badau, galtzen-galtzen juten da, da bidxen bittartin ostantzeko bedar sikiñek urtete tzo. Askidxe ta orrek. Ori da aspidxe.* • **aspidxes ganera.** Al revés. Ik. *aldrebes.* ↓ *Aspidxes ganera dau ori.* • **aspiko gonie.** Saya armador, combinación. • **aspiko ola.** Tabla de la base del carro. ↓ *Aspiko olak*

burdidxen, aspidxen jositte egoten dire, da arexek aspikuk, arexegas, aspidxen dekosenak. • **aspikus bera.** Patas arriba. | *Aspikus bera dau ori!* | *Ipiñi aspikus bera!* • **aspikus ganera.** Al revés. Ik. *idulidxetara, okerretara.* | *Au jersie kendu, te aspikus ganera ipintte bosu, "Idulistara dekosu" esaten da.* | *Erara estau, aspikus ganera dau.* | *Aspikus ganera egon da erropie.* • **aspi sagarra.** Manzana caída del árbol. | *Aspi sagarrak aspikuk dire. Beyen ikusten dosuna da aspi sagarra. Beyen jeusitte.* • **aspiko txoridxe.** Quicio de bronce sobre el que descansa el espigón clavado en la base del eje del molino. Ik. *txoridxe.* | *Aspiko txoridxe brontzie ixete san, fundidunekue.* • **aspidxek ein.** Preparar la cama del ganado. • **aspidxen euki.** Dominar, someter, oprimir. Dena dela, *menpi euki gehiago esaten da.* | *Andrik aspidxen deko gixona.*

aspigarri, aspigarridxe, aspiarridxe. (AZPIGARRI) **1.** Material con que se hace la cama del ganado (hojarasca, hierba, helecho...). | *Aspigarridxe metatu.* | *Aspigarridxe: ganaduri eitten dxakena, etzuteko lekue.* | *Aspigarridxe da ganaduri botate dxakuena aspire, simeurre-te eitteko.* | *Giñerrie: motetan, da mendixen-da. Len aspiarridxe naiku ekarte gendun etzera, kodainketan einde.* | *Aspiarriri pe-estau, da satarreridxe dator dana.* | *Igul burdi bi-edo usete sin len. Bat usete san satzetako, kajias. Da besti usete san e aspiarritteko. Idie. Idie bakixu ser dan suk. Idetako-ta. Da gero ein biste san kanbidxau. A satzetakue iste sendun kortan edo tejamanan, da inkete sentzon bestie.* **2.** Objeto que se calza bajo otro. | *Altzagarridxe da seinde gausa bateri aspittik sartuteko gorau eitteko. Kaltzu da topin eukitte ittuna. Da besti da apurtxu bet gorau altzetako sartze tzena siri modun aspidxen: aspigarridxe.* | *Narra ba ixeten da nai bedarra, nai aspiarridxe, nai edoser ekarteko ixeten da narra. Egurre be bardin.* • **aspiarritten.** En busca de material con que se hace la cama del ganado (hojarasca, hierba, helecho...). | *Oiñ e bustertu be esta eitten beirik eta oiñ e tratoras ibiltten da ta ba, len ostantzin bedarretan-da, mendire aspiarritten-da, egurretan-da, beidxek busterrin eitteko bier ixete sin.* • **aspiarridxe ein.** Prepara el material con el que se hace la cama del ganado. | *Ganaduri aspigarridxe-ta botateko elbitze ebate san len. Kodañas ebate san, da ekarte san burdidxas etzera, ta ganaduntzako elbitze, aspigarri eitteko.*

| *Ota-bedarra? Orko mendikue. Oiñ or estau iñor, baya or eitte san otie, oti tte bedarra, batera. Oti tte bedarra ekarte gendun mendittik. Da baitte askok e aspiarridxe eitteko be.*

aspildu, aspiltzen. (AZPILDU) Repulgar, coser el dobladillo. | *Aspildu: josten, au olan bueltie artzie.* | *Aspildu? Onek, onek, onek albora puntadias, albora puntadias pasau, da orixe da aspiltzie.*

aspildure, aspildurie. (AZPILDURA) Dobladillo. | *Aspildurie: erropiri eitte dxakona, bai. Aspildurie a barrena-edo jirete tzena edo a da aspilduri. Ori jostunek eta.*

aspirengo, aspirengue. El, la, lo más inferior, lo de más abajo. | *Aspirengo jasten dana da ori (ropa interior).* | *Kamixi da aspirengo ibiltten dan erropa bat.*

aspiretu. (AZPIRATU) Vencer, someter. Ik. *geidxau ein, geidxau ixen.* | *Laster aspiretu deu!* | *Batak bestie aspiretu ein deu.*

aspixapo, aspixapue. (AZPIZAPO) Vil; traidor, -a; canalla. Ik. *sapue.* | *Aspixapue: olanik, estan gausi esaten dabena-edo, siñistu erain gure ixaten dabena-edo.*

asta, astie. (ASTA) Asa. Ik. *kirtena, kolpelekue.* | *Askora astie.* | *Talo palie, asta luse bateas.* | *Astie da elduteko geuse bat.* | *Potiñek eukitten deu astatxue, kolpeteko.* | *'Tangie': ur edateko, astatxuas. Katxarrotxue, ure edatekue, baya asti dekona.* | *Egurresko asti deko.*

astaburu, astaburue. (ASTABURU) **1.** Cabeza de asno. *Astaburue ere esaten da.* **2.** Zopenco, -a. | *Astaburue alakue!*

astadun, astadune. (ASTADUN) Con asta. | *Len e edamena esate dxakon onakoxe ontzidxeri, ure edatekuri esate dxako edamena. Astadune ixete san.*

astakeridxe. (ASTAKERIA) Burrada. | *Astakeridxe ein dxok orrek!* | *Edoser astakeridxe eitte dxok.*

astako, astakue. (ASTOKO) Borríco. Asto txikiei ezezik lagunei ere esan dakieke. | *Astakue berari esate dxako, olako astakeridxak eitten dittunari.*

astakune, astakunie. (ASTAKUME) Burro, zopenco. Emakumeein *gangarra* esaten da. Astoaren kumeari *astakunie* esaten zaio. Ik. *astue.* | *Ori da astakunie!*

astandala, astandela. (AZTANDEL, atzandelbat.) Dedil, zurrón de la forma del dedo en que se

introduce el dedo herido, para guardarlo de objetos extraños. Aramaio aldean (Atutxa, 1995) *askápela* esaten da: “*askápela: “barruti iñtten da bendie ta a kanpoti, bendie loittu es daitten”*”.

| *Astandala, atzamarren baten antxiñe eridakin ta olan, kuadrutxu baten auxe atzamarra lotzeko, telias da gero emendik ona lotzeko, arexi esate dxakon antxiñe.* | *Astandela: biarrin sausela, da miñik eiñ esteixun be, ba biar eitteko beras. Sera, arek oratu, barrutik lotunde egote san trapuas; a ganetik sartu, de ba matrasau esteidxen, apurtu esteidxen, txarrau eiñ esteidxen-edo. Bai eridie matrasau esteidxen, igul lorrindu, aundidxau edo txartuau parau, a saintzeko, a saintzen atzamarra, ariñau saniau deidxen.*

astapotro, astopotro, astapotrue. (ASTAPOTRO) Burro, -a, bruto, -a, bestia. *Astapotrue nahiz astopotrue esaten da.*

astaputz, astaputze. (ASTAPUTZ) Pedo de lobo, es una seta que exhala olor nauseabundo y despidе un polvillo negro al cual se atribuye la virtud de curar quemaduras (*Lycoperdon, Saleroderma*, etab.).

astaro, astearo. (ASTERO) Semanalmente, cada semana. | *Ara astaro juten nitzen ollogor sasoyen, kasan sasoyen beti andik albotik pasau.*

astar, astarra. (ASTAR) Burro macho.

aste, astie. (ASTE) Semana. | *Astin bein.* | *Astin-astin.* | *Datorren astie.* | *Asteko pagate ttues.* | *Aintxiñeko ikessiñek iru astiñ e arkondarie soiñetik kendu barik euki dxuasen. E pentzau! Da buelta emon ei tzon, irugarren astin. "Ño -esan ei dxuan- ño, garbidxe dekon beran antza!" esan ei dxuan. Beste iru astin buelta emonda.* • **aste akabue.** Fin de semana. | *Aste akabue: asti akabaten danin, astaskana-edo, baridxekuri be esate dxako, ya astie akabaten doi, ta ba, sapatu be bai.* • **aste betie.** Una semana (completa). • **astin lelengue.** El primer día de la semana, lunes. Ik. *astelena.* • **astin lelengutan.** Los primeros días de la semana, lunes y martes. • **astion.** Esta semana. | *Abadiiek deittu ban ontzungo be, ixengo dire bost bat urte, abadiiek mesatan deittu ban: astion etorriko dire etzerreskien da ez begi txarrik ipiñi, arpei txarrik es ipiñi, bakotxan borondatie emon, da aurrera.* | *Astion ein dabe.* • **aste santue.** Semana Santa. | *Aintxiñe matrakie esate dxakon trasto bat, aste santutan jote ben kanpaye gelditzen sanin, eguenes, eguen santus ba onetan erridxetan. Kanpaye eguen santus,*

kanpaye geldittu eitten da, baridxeku santus estau kanpairik.

asteaskan, asteaskana, astaskana. (ASTEAZKEN) Fin de semana. Sin. *asteburue, aste akabue.* | *Astaskanien arrantzara juten da.*

asteburu, asteburue. (ASTEBURU) Fin de semana. Ik. *asteaskana.* | *Asteburu asteaskenari esate dxako, baridxeku-sapaturi-edo, asteburu, asteaskana.*

astegun, astegune. (ASTEGUN, lanegun) Día laboral. Ik. *jaidxegune.* | *Asteguneko erropak.* | *Asteguneko prakak.* | *Lengo sarrak ibillte ben jakie, ba jakie normala lakoxi ixate san, nai tte ba astegunetaku ixen, jakie esate dxakon.* • **astegun buru suridxe.** Simple día de labor, día ordinario de entresemana. | *Igul batzuk etorten dire pasiun ero, eta: "Orre pe esteke biar aundirik astegun buru suridxen olan etorteko".*

astelen, astelena. (ASTELEHEN) Lunes. | *Astelenetan beti eukite ban bidxamona.* • **urridxen askanengo astelena.** El último lunes de Gernika. *Urriko askanengo astelena ere deitzen da, baina urridxen askanengo astelena sariago esaten da.* | *Guk "Urridxen Askana". Gu pai. Guk "Urridxen Askanengo Astelena" ero "Urridxen Askana".* | *Urridxen askanin jungo ittuk Gernikera.* | *Aintxiñe beti itxaroten urridxen askana etorteko, se eskiñen emendik...* *Iñor es san juten oingo modun astelenetan. Ta axe Urridxen lelengue ta Urridxen askana. Urridxen lelengue, lengo astelena. Oin be bardiñ eitten da Gerniken.*

asteme, astemie. (ASTEME) Burra.

asterka. (AZTERKA, aztarrika) Escarbandando, revolviendo. | *Asterka dxabik.* | *Lurrin asterka deutzek.* | *Ollu asterka dabil.* • **asterka ein.** Escarbar, revolver, sacudir. | *Txakurrek asterka ein deu.* | *Atara be asterka eitte ittu, te ba sartu olan ein biko ittu.*

asterketa, asterketie. Excavación. | *Asterka ein: olluk eitten deu geidxau, erpeka lurrien. Orixe da asterketie.*

asterren, asterrena. (AZTERREN) • **asterrena artu.** Examinar, escudriñar, seguir las huellas. | *Gixon batek eitten deu igul txarto, esta?, ba artu tze asterrena (como a Rubio le están cogiendo asterrena).*

astertu. (AZTERTU) **1.** Examinar, analizar, desentrañar, averiguar. | *Etze gustidxe astertu dot eta estot topau.* **2.** Escarbar, revolver, sacudir

| *Astertu gora lurre.* | *Guk solun, iguel busti egoten da solue, lurre, artzen deu erreminttie, atxurre-ero, da astertu eitten deu siketu deidxen, arue plantau deidxen.*

asti, astidxe. (ASTI, beta) Tiempo. | *Esteket astirik mendire juteko.* | *Astidxe artu biosu.* | *Astidxas deittu!* | *Biarriñ e prisa-prisaka iñori berba eitteko astiri pes!*

astialdi, astialdidxe. (ASTIALDI) Tiempo o rato libre, desocupado. | *Astialdidxe: denpori sobre artzen daniñ ixeten da.*

astildu, astiltzen Hacer astillas algo, desgajar o partir toscamente algún material. Ik. *astillatu, arrakalatu, brintzetu, krakatu, sartau.* | *Apatxak astildu.* | *Kañerie astildu dxakok.* | *Olako tronguk ein, da arek sati bi edo iru eitten bosus, astildu esaten da.* | *Da astilli da beres egurre astillatuten dana, ixen lei txikidxau, ta ixen lei eundidxau, baya da beres su eitteko astiltzen dana.* | *Arridxe astiltzen barik betara juten da.* | *Beste ba tau, kuñak, egurre astildu-ta eitteko masie esate dxakona. Biribil-biribilla.*

astillatu, astilletu. Astillarse, rajarse un material. Ik. *astildu, arrakalatu, brintzetu, krakatu, sartau.* | *'Astildu' da jo, ta apurtu eittosu, da: "Astildu dok." Da bestie, ya arrakalie ereitten badxako: "Astillatu ein dok", seinde apurtu barik geratzen dana, astillatu.* | *Astilletu bari tau, baya goitti bera junde astilli eitte dxakon.* | *Lorategieta bayo apurtxu goratxau egon san panaderidxe itzela. Da araxe erute ben egurre astillatu bier. Astilla metro bat eingeruko luserako astillie. Da paguk ein biste sin. Aretxak es sittuen gureisten. Pague.* | *"Astillatu ein da", esate baterako, "Arrakalatu ein da" nai "Astillatu ein da" erdi ba tire orrek. Or batzuk esaten dabe 'astillatu', da bestik ori eitten dabe.*

astille, astillie. Astilla. Ik. *brintzie.* | *Astillie eitten dxako.* | *Astillie egurreri esate dxako, askorias eitten dan egurreri, ba astillak suterako.* • *Hona hemen zelan bereizten diren brintzie eta astillie:* | *Astillie da ya ba, egalak dekosen da astillie. Astilli da apurtuten dan satidxe, an osorik deuna es, nai tte txikidxe ixen. Txikidxe bada, ba brintzi esate su, baya bestiri esate dxako, an satitxuk igul, astilli.* • *Hona hemen zelan bereizten diren sospala eta astillie:* | *Bueno, sospala, da astillak estire bat, baya danak eitten dire egurras. Sospala da, esate baterako, orrek e domeketan-da, selan esangot neuk? Gixoneskuk e ibiltten dire ba arbolí, edo esaten da se sure*

ebaten, da arixeri ebaten dabenin sureri atarate dxakosan astillak dire sospalak. Astillie da, bai txikidxau ixen lei, ta aundidxau ixen lei. Da astilli da beres egurre astillatuten dana, ixen lei txikidxau, ta ixen lei eundidxau, baya da beres su eitteko astiltzen dana. Beko suen geu pe eitte gendusen, da oin be eitte us. • **astillara.** Una de las formas de injertar en la que se introduce el injerto en mitad del tronco. Ik. *begire, etiketie.* | *Bestie negun eitten da, martidxen, astillara.* | *Ebai tte astillara sartu eitten dire menduk.* | *Asaletik ipintte ittue batzuk. Da beste batzuk raa, erdittik olanik, ebai, da antxe bittartin sartun menduk astillara.* | *Pipitti ta gusti ipintte su a bestie, eitteko gora. Da ori bestiari es, astillara eitten dana, ganiñ ebeitte, da de barrure sartzen dana ebeitte. Da ori su diñosuna pipittie, pipittin puntan euki bi deu orrek, artzeko. Ori olan asalera esate tze emen pipittera.*

astin, astiñe. (ASTIN, harro) Fofa, hinchado, esponjoso. | *Almidoyas plantxetan dan tranba bat, edo prenda bat, almidoye gelditzen da astin. Esate baterako, umin arropak pe plantxetan dire apur bategas, astiñau egon deidxen.* | *Kankana: ori ote san gona bat, aspittik jasteku ta, plantxeta ben, uretan busti, da almido frankuas, da astiñ-astin planteta san.* • **espan astiñek.** Labios carnosos. Ik. *espan batuek.* • **lur astiñe.** Tierra fofa, hinchada, esponjosa. | *Lur astiñe, lur gosue, esponjan antzeko lurre.* | *Lur astiñe (lur samurre).* | *Lurre astin dau.* • **ogi astiñe.** Pan esponjoso. | *Ogidxe astiñ-astiñe dau.* • **ule astiñe.** Pelo desgreñado. Ik. *ule saputze.* • **astiñ-astiñ ein.** Sacudir de firme, vapulear. Ik. *astindu.* | *"Astiñ-astiñ ein deu": sapladak emote dxakosenin-edo.*

astindu, astintzen. (ASTINDU) **1.** Sacudir, revolver. | *Astindu erropak!* | *Ixerak astindu.* | *Kokarra da lurrin dabilena. Goldaketan, lurra astintzen bosu, barrun urtete n dabe.* **2.** Ahuecar, esponjar; mullir. | *Lurre be bai, lurre ba astindute uren urek aseta dau.* | *Otatxurre kortan ibiltte san, beidxen aspidxe astintzeko, edo atarateko.* **3.** Sacudir, zurrar, dar una tunda. | *Kepa astindu deu.* • **astindu bat emon.** Pegar una sacudida.

astiñaldi, astiñaldidxe. (ASTINALDI) Sacudida. Ik. *saputzaldidxe.* | *Astiñaldi bet emon tzet.* | *Saplasu bateri emoten badxako, "Bai, sakutu dxok" esate dxako emen. Sakutu. "Emon tzek*

astiñaldidxe” ero “*Majo sakutu dxok*”, igul palixi emote tzonari.

astiro. (ASTIRO) Despacio, detenidamente. Ik. *geldiro*. Berriemaile baten arabera, *astiro* Belendiz aldean esaten da gehiago; Nabarnizen *geldiro*: | *Astiro esaten dabe onetan, Belendixen, da orretan: "Astiro ju adi, astiro!"*. Guk *geldiro*. | *Astiro-astiro*.

astiune astiunie. (ASTIUNE) Tiempo o rato libre, desocupado. | ‘Astiunie’ da *biarrik pako unekadaxue*. | *Astiunie artu*. | *Ointxe dekot astiunie*.

asto, astue. (ASTO) **1.** Burro. (*Equus asinus*) | *Asto karrerie*. | *Asto baltza, suridxe, nabarra*. | *Asto ostikalaridxe*. | *Astuen arrantzie*. | *Asta arrantzie*. | *Dana saldidxe oin. Oiñ astorik e...*, *Nabarnixen e dan-dan-danetara be iru asto estaitt ongo din. Onexek, amen larrak batzeko dabixenak, astuk e dekosak*. | *Astue gangartute dabil*. **2.** Asno, estúpido, bruto. Emakumeekin *gangarra* esaten da. Ik. *astakunie, astokirtena, kirtena*. | *Su sara astue!* | *Ori dok astue!* **3.** Caballete, asnilla para trabajar la madera. **4.** Piezas de madera que se interponen entre el eje y el carro. | *Astue pai. Arek astue dire burdidxegandik burtardatzara sartzen diñak olan. Burtardatzak eukitten dittu olan... Errebaju eukitten deu, esta? Da astuek goitti bera, bi, serien. Da arek eitten dabe... Areri apurtxu ondatxu atate dxake, da arexekin ejien doye sostena, burtardatzana*. **5.** Arca en que se desgranar las mazorcas. | *Ba artuk beste geusa bat bokon jote sana, olan bayo ugeridxau. Estait Anderek esan batzu. Astu jote san. Astu esate dxako onanik ein, egurrek eiñ e olanik albutara ankak, da onako sumetzak onan, onexe tamaño ipiñi. Alde bidxek olan sapaldu, da beste onek libre. Plantau bata andik eta bestie emendik eta taket aundidxek goitti bera, ta garaune bera, ta koskorra ganin. Ori da antxiñeko legeko, sarreko ori. Au iñon esta olakorik. Geu pe euki gendun kamaran. Da alan eiñ ugeri. Ori sakukun aldñ, ugeri. Astuas. Astu esate gentzon. | *Astun artu garantzeko? Artaburuk botaten dire, ta makiña bat eskatzen da, da garaunek urteten dabe kanpora*. | *Astue? Olako taket bana artun, de goitti bera plast eta plast eta plast-eta, garaunek bera, da koskorrak artun, de... bera be koskorrak igul batzuk pasetan dire iguel. Baya ugerittesune auri ixete san. | Oiñ estau artorik. Oiñ e garandute emon eitte dxakue. Ba ordun artapillo eundidxek oten sin. Arto asko.**

Da eitte san martidxen ilberan jo, da sakutan sartu edo kaixan gorde, konserbetako. Ostantzin txiripiridxe eitte dxako arturi. Txiripiridxe eskandalu ganera! Bai. Da martik -ilberan etxako ori eitten. Da ori da astue, ori da ugeridxen jote sana len be. Sakuku, ori beti sakuku da. Ta emen astue batan bate pai euki ban, ba gitxi. Guk e beti euki gendun astu. Da leku batzutan bai astu, baya gitxi. • **asto arra.** Burro macho. Ik. *astarra*. • **asto arraidxue.** Burro, -a, bruto, -a, bestia. | *Asto arraidxue esate dxako ba trastoridxak eta olakoxi eitten, "Asto arraidxorrek ein dxok ori be!"*. • **asto biarra.** Trabajo corporal rudo. | *Asto bierra da apur bet, ser esangot neuk?, solun-edo eitten dan bier gogorra: "Asto bierrak eitten ibiltten da"-ta.* • **asto emie.** Burra. Ik. *astemie*. • **asto kortie.** Cobertizo para el burro. | *Asto pekotza, bastue. Amen asto pekotza ba emen es san aparte eitten. Da a ba asto korti esate gentzon, astu apartaute egote san ba. Labelan-ero, tejamanan-ero olanik. Baya asto pekotza bastu da.* • **asto kunie.** Pollino, borriquillo. • **asto larrosie.** Cierta variedad de rosa. | *Asto larrosie: olan taket aundidxe da, da lora aundidxek eukitte ittus. Jardiñekue, jardiñeko lorie da. | Asto larrosie? ba, guk asto larrosie -estaitt emengo aldidxen geurin badau- esate tzeu lora bateri. Ainbeste koloretako lorak eukitte ittu berak. Asten da aundidxe, taketa les asten da, da urtete tze olako... Ser esangot neuk? Olako pinporta les-edo urtete tze beti gora, da arixeru urtete tzen lorak, asto larrosi esate tzeu. | Asto larrosie da geuse bat, olan tente, olan gora asten dana. Ba estau eukitten arantzarik, es eser, beste larrosak arantzak eukitte ittue baya.* • **asto makillie.** Palo para atizar al burro. | *Len astu eta olako asko egon san emen, dana; da asto makillie esate geuntzon, makillak egote sirin or, da asto palu barik, asto makillie, a makillie latigue emoteko.* • **asto nabarra.** Asno, estúpido, bruto. Ik. *astapotrue*. Lagun bati buruz *Ori da asto nabarra!* esaten denean, *nabarra* izenondoak ez du koloreari buruzko ñabardurarik ematen, esakunea halakoxea da eta. • **asto naparraidxe.** Viruela loca, viruela que no tiene malignidad. | ‘Sarampión’ da *naparraidxe, personak eukitten daben naparraidxe. Da asto naparraidxe da jeneral nausidxek parik, umik eukitten dabena, jeneral urtete tze umiri, da bai egun bi, edo iru danak onak estittue pasetan, se kalenturatxu be igul eukitten dabe, beste batzuk pe estabe eukitten, da inportantzidixerik pe estau*

eukitten, baya kargu apurtxut ein bi dxako busti esteidxen-da. Ba urtete tzenin, e, olanik, oiñ estau umerik gurin baya, eskolara botau barik-edo ba eukitte gendusen beste batzuri inkeu eitte dxake-ta.

‖ *Elgorridxe be antzeku da, ori personari urtete tzena da, da asto naparreidxen antzeku da. Asto naparreidxe bayo ba gogorra ixeten da elgorridxe, personari urtete tzena. Asto naparreidxe pa egun bat edo bi geldirik egon eskerun, ba pasetan, naiku arin pasetan da. ‖ Asto naparraidxe be umik paseten dabe. • asto okana.*

Cierto tipo de ciruela. ‖ *Asto okanak dire orrek baltzak, txikitxuk. ‖ Asto okana da txikidxe. Bai, aur geure etze kantoikue igertzen dau oin, erdi igertute dau, ta ba garaune, okana, ederrak payo..., ba garaun txikitxuauk aste ittu, baya goso ixaten da jateko ‖ Klaudi okana, amendik untxe esautu dot. Arrautze okana, asto okana, da andraiñe lengo sarrak dire. • asto otzara.*

Alforja, cesto (de los animales de carga). ‖ *Asto otzarak astuk daroixen otzarak dire. ‖ Sagarra, edo madaridxe plasara erute san astotzaretan. • asto pekotza.* Boñiga de burro. ‖ *Asto pekotza aintxiñe bakixu setako usete san? Erliri estidxe atateko, keye eitteko. Keye eitten deu asto pekotzak. Erliet keyek e kendu eitten dittu. Guk estidxe euki gendun, da asto pekotzas eitte san erliet kendu. Keye botaten deu, keye satarra, da fuera! A bastartu, erliet bastartu ein bi dabe panalak kentzeko. Axetako usete san. Solorako be bai. ‖ Asto pekotza, bastue. Amen asto pekotza ba emen es san aparte eitten.*

astodun, astodune. (ASTODUN, astazain) Vendedora que lleva su mercancía en burro.

astokeridxe. (ASTAKERIA) Burrada. ‖ *Sokias lotu alderdi bistatik trontziri, da (Airoko pague) arrañe sa les, trontzie, da jan ein tzen asko, da sokakin batetik amar lagun igul, da bestetik beste ainbeste, da ondias ebei san, keye daridxola trontzian. Da gero eun lagun eingeru sokakin tireka. Aixen san, bai, astokeridxa! A egur otza! A ixen san! Geur ixen balitz, Diputasiñoi jaubetuko san.*

astokillue. (ASTAKILO) Zopenco, -a. Sin. *erdi astue. ‖ Ori da astokillue!*

astokirten, astokirtena. (ASTAKIRTEN) Burro, -a, asno, -a; zopenco, -a. Ik. *astue, kirtena. ‖ Astokirteñori!*

astokune, astokunie. (ASTAKUME) Pollino, cría de burro. ‖ *Astun umie danién, astokunie esate dxako.*

astopatxiko. (ASTOPATXIKO) Zopenco, -a. Umeei nahiz nagusiei esaten zaie. ‖ *"I astopatxiko i!", igul e badabil saltoka, "Astopatxiko i as!". ‖ Ori da astopatxiko!*

astrapalada, astrapaladie, estrapaladie. (ASTRAPALADA) Alboroto que se hace al escapar, correr, etc. ‖ *Astrapaladi da ba eskapadie seinda "Eskapadi ein dxuat!", "Dios, eskapadi itzela ein dxuat!" Arrapaladi beste batzuk. ‖ Orregas burrukaldidxe ein dxuat, estrapaladi itzela ein dxuat! ‖ Astrapalada gogorra deko. ‖ Astrapalada gogorra ein deu. ‖ Estrapaladie... Ori sera esan gureko deu astrapaladik: aringaringaldidxe.*

astrapalaka. (ASTRAPALAKA) Corriendo, a todo meter. ‖ *Astrapalaka doye. • Andereren arabera, ez da esaten: ‖ "Astrapaladaka doye" esta esaten, "Aringaringe jun da", edo "Ariñeketan jun da".*

astrapalotz, astrapalotza. (ASTRAPALA HOTS) Ruido producido al correr. Ik. *saratie. ‖ Aringaringa doyenin, edo sarati eitten dabenin bidin doyenin: "Astrapalotza atara deu!" ‖ Arek atara dau astrapalotza!*

astro, astrue. Astrólogo, -a, meteorólogo, -a. ‖ *Astrue: gausak igerte ittuna, or goidxeneko..., ixerran kontuk eta serak sertzete ittuna, edo ba astrue. Beres orixe ikesidxe-edo deukena. Eguraldidxen barridxe, da ixerran barridxe eta edoser, astrue. Orko goiko gausak jakitte ittuenak: astruek. • Andere Goirienak ez daki ziur zer den: ‖ Astrue? nik pentzetot ixer bateri esate dxakola.*

astu. (AHAZTU, ahantzi) Olvidar. ‖ *Etortie astu ein dxat. ‖ Astute itxi dosu. ‖ Ni pe ya astute dekot. ‖ Seri esate dxakon neu pe astute deket. ‖ Oiñ e onek e ixena pe astute deketas. ‖ Banekidxe sertzuk eitte sirin! Ba astute nau. ‖ Astute inde nau. ‖ Orreri astu eitte dxakos, da alperrik da. ‖ Geuse danak asten dxakosanari itxidxe esaten dxako. ‖ Gero jote ben arimena, beranduau, aremaitteku bayo beranduau, da ordun purgatorioko arimari aitteguri erreseten san. Oiñ orrek e geusa danok tas astute, aiiii! ‖ Esate baterako, geusak aste dxakosena-edo, da ba alakuri be igul esate dxako ba "Ai, are teko buru erie!". ‖ Joer! Afrikan egon nintzen ni tte etxat astu eitten!*

astun, astune. (ASTUN) 1. Pesado, -a, de mucho peso. ‖ *Astune da ori geusiori. ‖ Astuntxue da*

ori. | *Malmaixe: astun-astun ixaten da. Ori kobri, edo orretaiku ixaten da. | Takue? Frenue. Ori e eitte san piñuten edo karga astune ekarten basendun edo goitibera aundidxe ta esiñ eutzi ganaduek, ipintte sentzon tragie. Guk tragi esate gentzon.* **2.** Pesado, torpe en el andar. | *Txala astun dau.* | *Astun dxak ori be!* **3.** Pesado (referido a las nubes que amenazan lluvia. | *“Lañuk astun daus”:* euri etxuri-tte daunin. • **astun egon.** Andar torpe. • **arpei astune.** Cara de enfado. | *Arpei astunas begittu-ste, asarre antzin.*

astundu. (ASTUNDU) Hacerse pesado, agravarse.

astuntasun, astuntasune. (ASTUNTASUN) Pesadez, carga. | *Ori da astuntasune!*

asukarillue. Azucarillo, porción de masa esponjosa que se hace con almíbar muy en punto, clara de huevo y zumo de limón. Empapado en agua o deshecho en ella, sirve para endulzarla ligeramente. | *‘Asukarilluek’ aintxiñe esate dxaken orreri turroyek. Gure denporan, guk geuk esate gentzen orreri turroyek, da asukarilluk beste batzuk egote siren. Suk iñois estosu ikusi, ba gurin bes gastik. Baya ointxe esku forman modun egote sirin, surik es eben eukitten, da uretara bota, da urtu. Txokolotadie-ta eitte sanin, ipintte bena: asukarillukiñ ure. Da asukarilluk ixate siren arek. Da orreri bestiri turroi esate gentzen.* | *Len turroirik etxakon esaten, asukarillu. Asukarilluk oin nik estitut ikusten, da nik estaitt eitten badabe be. Asukarilluk eiñ eitte sittuen, asukerías, da uras, da... limoye be botate tzen, da eiñ eitte sittuen, da ixete sirien, ser esangot neuk?, olan biribillak, astiñ-astiñek, da ibiltte sirien, nornor etorten danién-edo, arixerí ur goxu emoteko, edo txokolatadi eitten danin esateko noberak uretan ipiñi, basun-de, urtu eitte san-da. Arixi esate dxako asukarillue.*

asukera, asukerie. (AZUKERA, azukre-bat.) Azucar. Baita *asukrie* ere. | *Kafiek asukera asko deko, gosue dau.* | *Da esate dxakon len-oñ esta esaten ainbeste baya- asukeratan-edo amak agintze eskuniñ e, eskolan ibilli giñiñiñ e “Ekarríxu asukerie, killo bat asukera-edo!”*, ta arixerí sakuturi esate gentzon sakutu. • Berriemaile baten arabera, berba zaharra *asukrie* da, *asukerie* oraintsuago sortua da. | *Aintxiñe asukre, aintxiñekuk asukri. Oin-da asukerie-ta, oiñ ikasten dire orrek, asukerie oin.* | *Asukerie botata gosatu egoten da.* • **asukera ontzidxe.** Azucarero. • **asukera turroye.** Azucarillo.

asul, asule. (AZUL) Azul. Sin. *urdiñe.* | *Seru asule.* | *Edoidxe asule da.* | *Serue asule ixeten da.* | *Goi asule ‘urdiñe’ oingo gastiek esaten dabe.* | *Asule ta urdiñe ba tire. Esa leidxo urdiñe be da esa leidxo asule be.*

asuldu. (AZULDU) Pintar de azul; volverse azul. | *Pinttetan: “Asuldu ori!”* | *Serue asuldu deu oin.*

asulie, asuelie. Azuela, herramienta de carpintero, compuesta de una plancha de hierro acerada y cortante, de 10 a 12 centímetros de anchura, y un mango corto de madera que forma recodo. Sirve para desbastar. | *Asulie ixeten da atxurren antzekue, baya eukitten deu askori les ago sorrotza, da aregas ba neurriko egurrek-edo ebaten edo eiñ-edo eitten dire.* | *Asuelie: arotzak aintxiñe, oin ya arotz gitxi dau, baya antxiñeko arotz sarrak arotzegidxen eindde, launtzeko olak-eta, ebai eitte ben arexeas, sati batzuk kendu-te, gero sepilluas pasau-te.* | *Asueli da, ser esangot neuk?, atxurren trasa-trasaku, da ixeten da..., asuelik eukitte ittu..., alderdi bat eukitten deu sorrotza, da aras alderdi sorrotzas egurren lantzen da, egurre lixotu, edo akatzak kendu, edo lantzen da asuelias.* | *Ori erremintti da sureri satidzek kentzeku, edo bardintzeku sure. Asuli deko ixena. Egurre lantzeku. Da ixaten da, ba seinde atxur jorraidxe lakoxie, baya askorigeittik puntie sorrotza.* | *Sure, atxurre lakoxie eoten dire surek, satidzek kendu, te bardintzeko. Emen asulie esate dxake areri.*

asulka, asulkie. (AZUL) Azulado, -a. | *Asulkie? Asul antzekue, asulkie.* | *Mariapostolue ixaten da lora sabaltxu bat, asulka suritxu bat, da erdidxen urtete tze diadenak, edo arek antenatxuk.* | *Lora asulkie.*

asulune, asulunie. (AZULUNE) Punto, mancha azul. | *Asulunak daus.*

asumel, asmel, asumela, asmela, asemela. (ASMEL) Montoncito de helecho, argoma, etc. Ik. *besadie.* Zeberio aldean *aspela* esaten ei da. Lino Aiestak *Ikusiak eta entzunak* liburuan (Auspoa, 45. orr.) honela azaltzen du: "Azpela da ira edo bedarragaz egiten dan besarkadea, ondo moldatua". Auzo berean, berriemaile baten arabera, *asemela* esaten da eta, beste batek dioenez, osterá, *asumela.* | *Eixek asmelak!* | *Asmela len eskuas eitte san, baya oiñ eskubarías.* | *Bedarra ebai eitten danién, pillau eitten da bedarra; orreri deittuten dxako asmela.* | *Asumela eikeran ba, ondo ein biosu, asumela*

erres altzetako ondo ein biosu. Da asumela, ba selan esango tzut pa?, ein por ein, "Asumela, ondo ein biosu gero!". | Asumela eskobarias-da eitten ixen dana.

asumeldu, asmeldu, asemeldu. (ASMELDU) Agrupar el helecho, argoma, etc. en montoncitos. | *Bedarrak ebaitten diriñin asemeldu eitten dire karga bedarrak eitteko.* | *Asmeldu: olanik besadakin, eskuas artzeko modun.* | *Asumeldu: asumelak, asumelak ein de gero kargetako: asumeldu.*

asun, asune. (ASUN) Ortiga (*Urtica dioica*). | *Asune: odola sirkuletako.* | *Len asunekin bañue eitte san.* | *Asune naiku dau.* | *Asunek gatxa da kentzen.* • **asun tokidxe.** Ortigal. | *Asuntzi be bai.* *Baya asun tokidxe da ba leku bat beti urteten dabena ori "Asun tokidxe dok ori". Ostantziñ e asuntzi ba esate dxako sarratu de eundidxe deuniñ e, da lekue saille edo asuntzie.* *Baya leku baten beti e ebei tte derrepente etorri, ebei tte derrepente etorri: "Asun tokidxok ori!"-te.* • **asunekin jo.** Dar friegas con ortigas.

asunbre, asunbrie. (AZUNBRE) Medida de capacidad equivalente a cuatro cuartillos o dos litros (o dos litros más un cuartillo). Hona hemen X. Amurizaren *Bizkaiko Bertsogintza: Izengabeak I.* izeneko liburuan (77. orri) batu zuen koplá: "*Maritxu tabernerea, txikitxu konponidea, hiru kuartilut'erdigaz, egiten dau azunbrea*". | *Asunbre ta orrek aintxiñeko medide sarrak dire.* | *Asunbrik lau kuartillo eukosan.* | *Da gero antxe sartu, amar asunbreko garrafokada ardaue. Da es eutzon ostu! Barre eitteko esta! Da Seberinak iños esan tzon Bitorreri: "Bitor, ondiño suri soñeko txapela be ostu eingo tzue!".*

• **asunbreko botillie.** Botella de cuatro cuartillos. | *Asunbreko botillie: Lau kuartilluko botille eundidxe.* *Litruk kuartillu bi dekos, da litro bi botillik.* *Egoten siren arek bost kuartillukuk ixete sirin, jeneralin arek eundidxek.* *Litro bi, da beste kuartillu bet eukitte ben.* | *Asunbrie, neurridxe? Ori lau kuartilluas eitten da asunbrie, da asunbreridxe, ba, kuartillo bias..*

asunbrerdi, asunbreridxe. (AZUNBERDI) Medida de capacidad equivalente a dos cuartillos o un litro. | *Asunbri da litro bi, da litru ixaten da asunbreridxe.* | *Nik Gerniketiek ekarten banaben e, esate baterako, koñaka, kuartillo bat, edo asunbrardi koñaka, da atrapate baste niri Nabarrixen Gerniketiek natorrela, a, ipintte esten inpuetue pagau ein biau nik.* | *Kaikuk ixate sin*

eunditxuauk, eta ixate siñ asunbrekuek, edo asunbreridikuek pe bai.

asuntze, asuntzie. (ASUNTZA) Gran cantidad de ortigas. | *Asuntzi be bai.* *Baya asun tokidxe da ba leku bat beti urteten dabena ori "Asun tokidxe dok ori". Ostantziñ e asuntzi ba esate dxako sarratu de eundidxe deuniñ e, da lekue saille edo asuntzie.* *Baya leku baten beti e ebei tte derrepente etorri, ebei tte derrepente etorri: "Asun tokidxok ori!"-te.* | *Asuntzi dau.*

asur, asurre. (HAZUR, hezur-bat.) Hueso o espina. | *Bisker asurre.* | *Arraiñen asurre.* | *Keixa asurre.* | *Txakurren asurrek dire onek.* | *Da olanik, pernillen asurreri, ba, garrantziotu esate dxako, ba, mamiñe akabaute daunin, da pernille asurrin daunin, emen baserrixen esta iñoix aprobetxetan.* | *Asurretaraino sartute deket miñe.* • *Norbait sano argaldu bada, hauetarikoak esaten dira: | "A asur utze dau" | Asurras bakarrik geratu da.* | *Narru ta asurre besterik esteko.*

asurretako, asurretakue. (HAZURRETAKO, hezurretako-bat.) Reuma. | *Asurretakue deko.*

asurril, asurrille. (HAZURRIL, hezur hil-bat.) Reuma. Ik. *umorie, erromie.* | *Len bat garatzen basan, ankian erromie, len umorie esate dxakon "la reuma" erderas; oiñ euskeras erromi, baya len umorie; umorikin garatzen basan sera, anka bat edo beso bat: "Asurrillek garatu dxakos".* *Asurrek il, beres.* | *Asurrille deko.* | *Asurrillek miñ eundidxek emote ittule esaten dabe.* *Da jeneral olakue umiri antza eitte dxaken geidxau, eitte tzen persona nausidxeri bayo.*

ata, atie. (ATA, auzi) Riña, pleito. Singularrean lehenengo silaban du azentua. Ik. *demandie.* | *Oiñ atie be esta asko esaten, oin pleittue esaten da-ta, baya atie ba, "Atie ipiñi tzo", "Atie ipiñi deu"-te... Da ori ba, juesin-edo sartzen dana-edo ixeten da kontixu, ati ori.* | *Áti ipiñi eskerun juesara jun bi ixaten da.* | *Atan dabis.* | *Atie emon tzo.*

atabal, atabala. (ATABAL) Tambor, atabal.

atabaltero, atabalterue, atabalerue. (ATABALERO, atabalari) Atabalero, tamborilero. | *Atabalterue ixete san tanborra jote bana.*

atajue. Atajo. Ik. *sadorra, sidorra.*

ataka, atakie. (ATAKA) 1. Portillo del horno. | *Atakie eukitten deu labik, lau kantoitxu.* | *Labin atakie, entradie ogidxe sartzeko.* | *Atakie da entradako kuadrue.* | *Da a brasi batu eitte san,*

ya makaldute daunien, batu, da araxe, labako atakin eurrin ipiñi eitte san batute, pilleute. | Atakie guk esate tzeu -ondiño be badau- labalan eoten dan ogidxe sartzeko alako..., sulotxu eukitten deu labik, palias neuk pe ba sarri ein dot labako sue, da artuk, eta ogidxe antxe erretzen dire. Da arixerri suluri labak-ataki. 2. Portillo del calero. | Baya karabidxe baten kargaute, arik eta dana eiñ arte, sue! Beti atakatik. Dosena-amabost egun-de erreten, gau te egun. | Iru ordutik iru ordure emote gentzon guk betegarridxe esate tzeuna. Eitte gentzen kari tiretu betik, da a uekue gero egurre lelengotan ta gero arridxe. Da a gero egurrek erreten siñin, a bera bajete san. Da ostabe betik atara. Betik olako atakatxue. Andik tiretu atxurras da kanpora karie.

atake, atakie. Ataque. | Bai, amentxe erridxen Ereñoko batzuk baten etorritte, da geure lengusuñi ixen ei xan galdu san ori. Da gero topau ben ilde, artaidxan topau ben ilde, baya ataki-edo einde. | Otxandidxon negargarrisko atakik ei besan. Batin batak artun da bestin bestik.

atakau, atakaten. (ATAKAU, atakatu-bat., eraso, oldartu) Atacar. | Ardidxei atakate tze onek. | Okelera atakaten dabe arek.

atako. (HATAKO, hartako-bat.) • **atakotzat artu.** Tomar en consideración.

atakoxe. (HATAKOXE, hartakoxe-bat.) Para aquel fin. | Punterue atakoxi ixeten da.

atal, atala. (ATAL) Parte, pedazo, porción de un trozo. | Berakatz atala. | Baba atal ederra. | Atala da edoser, babi be baba atala esaten da, baba garaune edo atala. | Atala da biribille plantau barik, sapala. | Atala da: ba, ni, esate batera, atxurras egasten nas amen, da a lurre gosatzu barik, atalak urteten dabe, olako satidxe: "Danak ataliñ urtete dxok". | Bueno, sabaloidxek saidxe lako atalak emote ittu. | Arbela da..., guk esate tzeu a troska... a satik eta atalak-eta emote ittusena. Arbela arri basto bat. | Saidxe san atal aundidxaue. Da birriñe san seye. • Aizkolariak aizkoran gogor egiten duenean, honela esaten da: Dios, orrek atara tzak atala! | Askoran be atala esate tza a sospalari, kentze dxakonari: "Atal itzelak atarate ittu!".

ataldu. (ATALDU) Dividir, reducir a partes, fraccionar, despedazar. | Ataldu da atalak, sospalak, olanik satidxek kendu. | Egurre ataldu.

atan. (HATAN, hartan-bat.) • **atan be.** En especial, en particular, en primer lugar. | Kañie

da oingo koñaka les, garratza ixete san. Ori goixin goixetik jagitte siriñak-eta edate ben, atan be gixoneskuek. | Mermeladie alperrik galdu esteidxen luseruau e euki biar ixaten da irakitten, baya ori (madari saltzie) be ba segidxen jateko ta ba, ondo eoten da, ta atan be ume kuadrilli dauniñ e umiri e ogidxen ganin emoteko beidxenda modun-da ondo eoten da. | (Personiri?) Bai, olanik e, asarratute dauniñ-edo, umiri-edo, atan be esate dxakon "Ugerrori alakue!" • **atan geldittu.** Decidir algo, quedar en algo. | Atan geldittu gara.

atara, etara, ataraten. (ATARA, atera-bat.) Sacar. | Bitze atara. | Sue atara. | Odola atara. | Atara kanpora! | Ori txakurre ataraixu! | Gero goldaketu eskerun aspire juten da, soidxe ataraten deu goldik ganera, da aspidxen egoten da bedarra usteltzeko. | Bai, beren buru bota ban, araxe barrura. Da gero bera atara esiñik sekulekuk ein sittuen. | Atara ein tze arbolie. • **atara erein.** Hacer sacar. | Atara erein dabe baserrittik.

atarako. (HATARAKO, hartarako-bat.) Para aquello. • Esaterako, josten jarri gura zaituzte eta zuk ez dakizu ezertxo ere: | Ni enas atarako. | Atarako eiñikue enas ni. | Atarako eiñikue da.

atasale, atasalie. (ATAZALE, auzizale) Pleiteador, -a, litigante. | Atasali da ori.

ataurre, ataurrie. (ATAURRE, atauri) Antepuerta, pórtico, atrio. | Ataurrie: ori etartera juteko atie, orren..., andik..., etartetik esan leidxo ba ataurrie, ati sabalik daunin, ataurrie. | Au etarteko ati sabaltzen danien, ba etartetik beittu esan leidxo ba, ori ati sabaltzen danin kanpokue, ataurrie.

ataute, atautie. (ATAUTE, hilkutxa, zerraldo) Ataúd. Ik. andie. | Atautie kajie da, ille eruten dan kajie. | Len esate dxakon andie geidxau, ta oin ya atautie ibiltten da geidxau.

atautelari, atautelaridxe. (ATAUTELARI) Portador, -a del féretro. Anderue ere esaten da, baina gutxiago. | Orrek atautak erute ittunak: atautelaridxe. Anderue esaten dabe bestik. Andreuk dire arek ille erutekuk, iguel ba... "Fulano, ta fulano, ta fulano anderu".

ate, atie. (ATE) Puerta. | Atie edei, sabaldu. | Atie itxi, sarratu. | Atie joten. | Sarrerako atie. | Ate ostien eskuteu. | Egunero pasaten siren pobriek sakue lepuen da aterik ate. | Atie giltzas itxitte dau. | Atie giltzin dau, barrun estau iñor.

| *Atie total edeitte dau.* | *Ati erdi sabalik dau.* | *Ati ondo itxi barik dau.* | *Atin satie.* • **ate danbadie.** Portazo.

ateburu, ateburue. (ATEBURU) Dintel (de la puerta). | *San Jun egunien donini idie ipintten san ateburuen.*

atendidu. Atender. | *Sukutu? Sukutu esan gure deu, lapikuri atendidu esas, sukutu, suek sertu. Erre, lapiku erre, eperdidxen erre-edo.*

atepeko, atepekue. (ATEPEKO) Tranco, umbral de la puerta. | *Arri losa bat dau atepien: atepeko arridxe.*

aterpe, aterpie. (ATERPE, estalpe) Lugar cubierto, sotechado, cobijo, refugio. | *Aterpie da euridxe sartzen estan lekue.* | *Etorri seittes aterpera!* | *Baya ba, oiñ esteko beste serbixidxorik, euridxe danin aterpie. Da len Don Rikardo emen egon sanien, automobille eukitte ban antxe barrun.* | *Bueno, asko esta entzuten eskepie. Len eskolan ibilli giñenin, eskolako aterpetxuri esate gentzen eskepie.* | *Eitte san karie, eta gero aterpera erute ben.*

aterraldi, aterraldidxe. (ATERRALDI) Escampada, clara, tiempo en que no llueve. | *Aterraldidxe: euri saparradi ein, da atertzen dabenin: aterraldidxe.*

aterri, aterridxe. (ATERRI, ateri-bat.) Tiempo sereno, sin lluvia, escampado. | *Len botaten egon da euridxe baya oiñ aterri dau.* • **aterri ein.** Escampar, dejar de llover, de nevar. | *Laño solti badabil, olan dabillena bateri bestera, "Laño soltik dabis", "Euridxe eingo deu", edo "Aterri eingete deu?", ba ori be esaten da, baya laño solti emen esaten da olan dandarres dabillen lañuri.* | *Aterridxe eingo deu.*

aterrune, aterrunie. (ATERRUNE) Escampada, tiempo en el que no llueve. | *Atarrunie dau.* | *Ointxe da aterrunie.* | *Euridxe ixenda, atertzen dabenin, euridxe gelditzen danin: aterrunie.* | *Euri saparradi ein, da atertzen danin, aterrunie.*

atertu, atertzen. (ATERTU) Escampar, dejar de llover, de nevar. | *Oiñ atertu ein deu.* | *Trumon euridxe: ba olantxik, botate ittu igul tanta sabal-sabalak, da-da-da-da!, gero ba atertu eitten deu, te ba trumon euridxe.* | *Euritzue: euri asko einde atertzeko etxurarik estekonin: euritzue.*

atondo, atondue. (ATONDO, atalondo) Portal, atrio. Ik. *etartie.* | *Atondoko arridxe edo arri losie.*

atondu, atontzen. (ATONDU) 1. Arreglar, ordenar, aparejar, preparar. Sin. *susen ipiñi.* Jatekoak surtan egiten direnean *prestau* esaten da, ez *atondu.* Jatekoen kasuan, *atondu* esanez gero, mahaian txukun ipintzea ulertuko litzateke. Entsalada prestatuta dagoenean, *Ensaladie ipiñitte dau* esaten da. | *Geusek atondu sus? | Atonduixus onek!* 2. Preparar(se), disponer(se). Ik. *manieu.* | *Atondu sara mendire juteko?* 3. Arreglarse, apañarse. | *Oiñ ondo atontzen gara.* | *Ak asko, larogei urte! Anaidxe bidxek solteru daus, da esin atondu ixen biko itue jatorduk eta geusak eitteko-da.* 4. Preparar, organizar. | *Jai bet atonduko du.*

atorra, atorrie. (ATORRA) Camisa de mujer. Gaur egun ez da erabiltzen eta emakumeek *arkondorie* ere janzten dute. | *Ser da atorrie?* *Andrik gonatzat ibiltten dabena ala ser?* | *Atorri ixle leidxen suridxe, ixle leidxen asule, ixle leidxen gorridxe.* | *Erropien aspidxen; auxe da atorri.* | *Atorrie: a gona ori-ero a atorrie.*

atoste, atostie. (ARATUSTE, inauteri) Carnaval. | *Basatoste karnabala bayo sortzi egun eurrerau edo olan ixete san, da atostiek karnabaletan, tostadak eitte siren. Karnabal bera.* | *Lelengo atoste selebreten san emen, tostadak jateko sera, gero basatoste andik atzerau, gero manga esaten san gaba, a ixeten san tostada geidxen jate n san gaba.* | *Basatostie, da atostie, ba kontixu alkarren antzekuk dire.* *Orrek ixaten sirien Karnabaletan.* | *Atoste egune da bat. Basatoste ixeten da ariñau, sortzi egun ariñau pentzetot ixeten dala ta atoste gero.*

atrapau, atrapeten, atrapatzen, atrepetan. (ATRAPAU, atrapatu-bat.) Atrapar. | *Arrapau? Ori dotore esaten dabesenak "arrapau" esaten dabe. Ba "atrapau" guk geuk. Umetatik ikesi gendun guk "atrapau". "Arrapau" nik neuk estot ikesi. Bai, entzun dot e!, da badakit ser dan da dana, baya esan es, esan "atrapau" beti.* | *Atrapaik ori!* | *Arraiñak atrapau.* | *Satorrak atrapatetako tranpie.* | *Enenduen atrapau.* | *Gusurre esaten atrapau naben.* | *Lapurre atrapau dabe.* | *Kaguen, trope bota dxok, eta etxuat atrapau!* | *Esta erres atrapatzen, uxoki da ta.* | *Ba, orixe, ser egur ixete san, orixe esi ñeixu esan, atrapatzen dana-edo.* | *Orrek ikusteko atrapau ein bixus tranpan. Orrek tranpan atrapatzen siren.* • **atrapaute egon.** No estar en sus cabales. | *Atrapaute dau. Esteko buru ondo. Beren erresorik esteko. Esteko esen erresorik eta.*

| *Personie, burutik ondo estauna, bai, naiku atrapaute dau.*

atrebide, atrebidi. Atrevida. | *Atrebidi bada!*

1 atrebidu. (ATREBIDU, atrebitu-bat., ausartu)

Atreverse. | *Ño, atrebidu be selan ein dan!*

2 atrebidu, atrebidue. (ATREBIDU, atrebitu-bat.) Atrevido. | *Orreas kontu mutil, ori atrebidue dok eta!* | *Umi pa bakik, atrebidu dosa pa, edo persona neusigana juteko, "Aldeik umemokuorrek! Aldeik emendik!". Umemoku da, ba gastu edo edukasiño bakue edo bakixu. "Aldeik, umemokuorrek, kakanarruorrek!"*

atrebimentu, atrebimentue. (ATREBIMENTU, atrebimendu-bat.) Atrevimiento.

atuen, atun. (ATOAN) Al instante. Nabarnizen gutxi erabiltzen da. | *Atuen etorko nas.* | *Atuen il da.* | *Atun etorri da.*

atun, atune. (ATUN) Atún (*Thunnus thynnus*). | *Atunetan jun.* | *Atunetara jun.* | *Mariñeruek jun dira atune atrapetan.*

atx, atxa, aetxa. (HARETX, haritz-bat.) **1.** Roble (*Quercus robur*). | *Atx orbela.* | *Atxa arbolie adartzu dok.* | *Atxan gidxerri astune da gero!* | *Len asko san emen, atxa asko san emen baya danak iketzen siren, pasa dan denporan danak iketzen siren da gero piñue sartu.* | *Ganera, au, amerikano atxa, amerika, roble americano erderas esate tza, da ariñau asten bertokue bayo.* | *Atxes beterik dak.* | *Tantadidxe da arbola iñustu baku egotie. Baya tantadidxe esta gero piñuas eitten! Ixen bi deu aetxa ero olakue.* **2.** Roble (madera). | *Atxagas be eitte san. Len iketza geuk pe asko ibilte gendun, saltzeko. Da paguas eitten da onena. Artias be eitten da, artias eitten dana ba ixeten da... Se esangot neuk? Agunte geidxau dekona, edo ba geidxau agunteta ban iketza. Da paguna be ona ixete san.* • **atx arrue.** Roble que tiene su interior hueco y podrido. | *Atx arrue guk esate tzau ueko barru dekon arboleri. Usteldute barrue.* • **atx tantaidxe.** Ejemplar de roble bravo. | *Atxa tantaidxe.* | *As tantaidxe.*

atxadei, atxadeidxe, atxadidxe. (HARETZADI, harizti-bat.) Robledal. Ik. *aistidxe.* | *Atxadi eundidxe dau!* • *Atxadeidxe haritz handien basoari esaten zaio; aistidxe, berriz, haritz gazteen basoari.* | *Atxadeidxe: atxa dausen pillue. Arbola pillue. Atxak. Atxadeidxe batzuk esate tze ta beste batzuk aistidxe esate tze. Baya atxadeidxe da atxa asko daula, "Atxadeidxe dau an". Aistidxe*

sepie da geidxau e. Da atxadaidxe da atxa askogas, da atxa aundidxau dausena, atxadeidxe.

atxarte, atxartie. (HAITZARTE) Desfiladero. | *Atxartera goixan!*

atxegi, atxegidxe. Roca, peña | *Dana arri utze ikusten dosu olan-da; ori da atxegidxe.* | *Emendik alderdidxe arritzu da, atxegidxe.* | *An, Urkiola parteko atxagidxetan.* | *Anbotoko señoirik berriten urteten deu andik, beren atxegi sulotik.* | *Anbotoko señoirie dau Urkiolako atxetan.* | *Gero atxegi aundi bet pasau bi de olan, olako arridxe. Antxe pasetan gatx egote san.* | *Atxegi eundidxe das.* | *Lapie ba uretan eoten dan, itxosun eoten dana inkeute atxegidxetan.* | *Atxegidxe? Bai, arri montorra tasen lekun.* • **atxegi artie.** Garganta, hoz. | *An dask atxegi artik.*

atxeki, atxekidxe. (ATXAKI, aitzakia-bat., desenkusa) Pretexto, excusa. Mugagabeen *atxeki* nahiz *atxekidxe* entzun dut. Ik. *konprimentue.* | *-Etorri seittes ona! -Esin dot oin. -Atxekidxe bai orrek emoten deu!* | *Au atxekidxau esta.* | *Bateko au besteko ori, beti atxekidxe!* | *Atxeki asko ipintten deu.* | *Atxekidxe deko.* | *Bateko au besteko ori, beti atxekidxe!* | *Atxekidxe barik emostek.*

atxekidxosa, atxekidxosie. Excusadora, mujer que acostumbra a valerse de pretextos.

atxekidxoso, atxekidxosue. (ATXAKIOSO) Excusador, hombre que acostumbra a valerse de pretextos. | *Arek atxekidxe eingo tzu, a atxekidxosu da!*

atxesko, atxeskue. (HARETXEZKO, haritzezko-bat.) De roble. | *Orrek danak atxeskuek dire onenak.*

atxeskur, atxeskurre. (HARETX EZKUR, haritz ezkur-bat.) Bellota del roble. | *Da atxak pe aste ittu eskurrek, atxeskurrek.*

atxol, atxola. (HARETX OHOL, haritz ohol-bat.) Madera de roble. | *Atxan..., atxola astune da.*

atxondo, atxondue. (HATXONDO, haitzondo-bat.) Terreno colindante con zona rocosa. | *Atxondue: atxak serak dire, arridxekek dire; da atxondue arridxekek dausen lekue. "Atxondu da ori", arridxekek dausen parajiri.* | *Atxondue: arri atxak dausenari esan leidxo, atxondue ba, bertan mamiñe badau esaten da se..., bertan bedarra urteteko leku-edo badau, atxondu, berauko partiri-edo.* | *Atxondue: atxak, arri atxa dasen lekun, atxondue. Edo mendi sati bateri-edo, bedarra*

ebaten dan lekuri-edo, sera, atxondue, "Atxondue dau te ba bedarra ba bi dan modun esta asten.

atxur, atxurre. (ATXUR, aitzur-bat.) **1.** Azada. Ik. *basatxurre, jorra atxurre, kortatxurre.* | *Atxurras nabil biarrien.* | *Atxur jorraidxe.* **2.** (herr.) *Maquinilla de afeitari.* | *Nik atxurras kentzen dot bixerra oin. Len elektrikue jo ta apurtu naben.* • **atxur jorraidxe.** *Escardilla, azadilla. Sin. jorraidxe, jorra atxurre.* | *Atxurre, da atxur jorraidxe bat be estire, bat be badire. Atxur jorraidxe, ba jorran eitteko ixeten da. Baya atxurre eoten da, basatxurre be badau, seinde mendiko bidiek..., oingo mendiko bidik estire konpontzen, oin kamiñotzak badaus ba. Da atxur sabalak ixeten dire, sabalak; bera atxurre ago sabaluku ixeten da jorraidxetan bayo.* | *Atxur jorraidxe ekarrik!* • **atxur kirtena.** *Mango de la azada.* • **atxurren.** *Trabajando con la azada.* | *Atxurren ibilli.* | *Baya amen bestik ordun bierra gogor eitte ben, baserridxen. Ordun atxurren da bueno bierra..., beti ixerditten. Da arek buuuuu!, bueno, a trankil.* • **atxur sabala.** *Azada ancha utilizada por los camineros.* | *Atxur sabala: ortzik estekona, ta kamiñeruna ixete san a atxur sabala.* • **saraketako atxurre.** *Azada para escardar. Dena dela, jorraidxe da gehien erabiltzen dena.* | *Atxur neusidxas atxurren eittosu. Da ba saraketakatxurre edo jorraidxe esate dxako orreri. Atxurre ba, igul askok e jorraidxe esan biarrin ba saraketako atxurregas, baya jeneralin jorraidxe.* • **atxurren ein.** *Trabajar con la azada.* | *Solun atxurren ein dabe, da lorraridxe deke.* | *Atxurkulie ortz biku ixeten da, da ixeten da ba solun atxurren eittekue.*

atxurkada, atxurkadie. (ATXURKADA, aitzurkada-bat.) *Golpe de azada.*

atxurke. (ATXURKA, aitzurka-bat.) *Cavando, excavando; dando golpes con la azada. Ik. atxurketan.* | *Atxurke dabil.*

atxurketa, atxurketie. (ATXURKETA, aitzurketa-bat.) *Acción de cavar.* • **atxurketan.** *Cavando, excavando; dando golpes con la azada. Ik. atxurke.* | *Atxurketan dabil.*

atxurkula, atxurkulie. (ATXURKULA, aitzurkula-bat.) *Azada de dos o más puntas, bidente. Ortz bikue ere esaten da, baina gutxiago.* | *Atxurkulie lurreri buelta emoteko usete san.* | *Soidxe: lurretik ataraten dana, atxurkulias atxurtute ataraten da ba soidxe, arixe esate dxako soidxe.* | *Atxurkulie ortz biku ixeten da, da ixeten da ba solun atxurren eittekue.* | *Atxurkulie:*

ortz bi dekosena. Ointxe be badas. | *Len eitte san... se esangot neuk?, laidxetan. Ba gero eitte san atxurkulias a laidxetunekue pikau, de arixeri laidxik ataraten daben e sokilleri esate dxako "Lurre sokiltzu dau".* | *Pikau? Satittu a soidxe. Goldiek soi osue ataten deu, da gero garidxe ereitteko, a pikeu eitte san, satittu, pikeu atxurkulias. Ortz bikue esate tze batzuk areri be, guk guk e betik atxurkulie.* • *Hona hemen zelan bereizten diren otatxurre eta atxurkulie.* | *Len otatxurre ibiltte san..., oiñ ikusi be esta eitten kortan be, ekarri be esta eitten-da, nik estaitt askanengo geurin be nox egon dan. Ixeten da atxurkuli lakoxie, baya atxurkulik eukitte ittu, atxurren eitteko, arek agiñek, edo ortzak eukitte ittu apur bet biribillek parik, sabalkak eukitte ittu, Da otatxurrek eukitte ittu -an kortan ibiltteku ixete san- biribillek, biribil-biribil.* • *Hona hemen zelan bereizten diren jorraidxe eta atxurkulie:* | *Jorraidxe da artue jorrazeko, jorraidxe atxur normala. Da gero badas atxurkulak, ainka bikuek. Atxurkulak atxurren eitteko, soidxek atarateko, ta sera mamiñe eitteko solun.*

atxurkuletu. (ATXURKULATU, aitzurkulatu-bat.) *Cavar o labrar (la tierra) con el bidente.* | *Atxurkuletute dau.*

atxurlari, atxurlaridxe. (ATXURLARI, aitzurlari-bat.) *Labrador, -a.* | *Atxurlaridxe: atxurren dabilenari.*

atxurtu. (ATXURTU, aitzurtu-bat.) *Cavar con la azada, labrar (la tierra) con la azada.* | *Solu atxurtu.* | *Atxurtute dau.* | *Soidxe: lurretik ataraten dana, atxurkulias atxurtute ataraten da ba soidxe, arixe esate dxako soidxe.* | *Ori (bastar atxurre) kortan ibiltte san, kortie atxurtzeko.*

1 atz, atza. (HATZ) **1.** *Dedo. Berriemaile baten arabera, berba hau nahikoa galduta dago gaur egun, baina lehen sarri esaten ei zen eskutako atzak nahiz ainketako atzak:* | *Oneri atzamarrari, tte jeneral ainkako bitzari-tte, oingo gastiek ainbeste estabe esaten, baya jeneral 'eskutako atzak', edo 'ainketako atzak'. Bietzak esate dxake jeneral-da, ainketako atzak, edo eskutako atzak. Len asko ibiltte san, lengun-da, oingo gastiek atzamarrak, edo bietzak.* | *Atza erre dxate.* **2.** *Pulgada.* | *Atz bat.* | *As bete.*

2 atz, atza. (HATS) *Hedor, olor fuerte.* | *Selako atza dau emen!* | *Orrek deko atza!* | *Suk dekosu atza!* | *Usein fuertie (silloko bedarrana), atza be esta, usein fuertie botaten deu.*

atzagurak. (ATSO-AGUREAK) **1.** Ancianos, viejos (de ambos sexos). Ik. *atzue, agurie, edadekue, sarra*. **2.** Hombre y mujer. Ik. *atzue, agurie*. Ez da zaharrekin bakarrik erabiltzen. | *Atzagurak: andri, ta gixonak. Gastetan be batzuk esakerie eukitten dabe, esakerie.*

atzakuntze, atzakuntzie, atzerakuntzie. (ATZERAKUNTZA) **1.** Atraso, retraso. | *Igul pentzaute dekesu orra jutie, ero ara ero ona, ta "Atzakuntzi euki dxok" e, tardau ein dau ein, da atzakuntzie. Jun es ordureko, ero bi dan lekure, noberak gure daben modun.* | *Atzakuntzi emotie: berba e emotie. Ni oin sugas nau, da ara esanda deket beste bat e juteko aiñ orduteko, da sugas emen berbetan nau les, "Eske arek emoste atzerakuntzie". Se atrasu eittosu ba, tardau eittosu geidxau, da aittik esaten dxako "Atzerakuntzi euki dxuat".* **2.** Imposibilidad de seguir. | *Da allegau esiñi basaus læ, esate tzesu "Atzerakuntzi euki dxuat".* **3.** Orden de echarse a atrás, de detenerse. | *Atzerakuntzi emon tzat se esin leiñ ein de.* | *Eurrerakuntzi da konfiantzi esate batera, eurrerako emoteko les, eurrerakuntzie. "Eurrerakuntzi emostek". Da besti, atzakuntzi da ba ya geldi ero atzera. Da eurrerakuntzi da ba ondiño emote tzue konfiantzie edoser eitteko.* | *Es eitiarren joko bat orniduteko, iru joko oten dire botata depositue ero olan, da kaguen, animun jun biarrin e... Dios e... igerten batzu seure lagunek-ero, "Neuk esan tzat, atzerakuntzi emon tzat, se arek galdu ein bidxok-eta!"*

atzamar, atzamarra. (ATZAMAR, eri) Dedo de la mano. Berriemaile baten arabera, lehen sari esaten ei zen *eskutako atzak* nahiz *ainketako atzak*, baina oraingo gazteek *atzamarra* edo *bietza* esaten dute: | *Oneri atzamarrari, tte jeneral ainkako bitzari-tte, oingo gastiek ainbeste estabe esaten, baya jeneral 'eskutako atzak', edo 'ainketako atzak'. Bietzak esate dxake jeneral-da, ainketako atzak, edo eskutako atzak. Len asko ibiltte san, lengun-da, oingo gastiek atzamarrak, edo bietzak.* | *Atzamarreko koskuek.* | *Atzamarra ebai.* | *Atzamar meye, estuaue bestiek bayo.* | *Apustuluen atzamarrak atzamar formako lorie deke.* | *Atzamarran puntan an erabilli deu.* • **atzamar erdikue.** Dedo medio. • **atzamar lodidxe.** Dedo pulgar. • **atzamar neusidxe.** Dedo pulgar. • **atzamar neusidxen urrengue.** Dedo índice. • **atzamar txikidxe.** Dedo pequeño. • **atzamar txikidxen urrengue.** Dedo anular.

atzaputze, atzaputzie. (HATSAPUTZ) **1.** Tizón, enfermedad del maíz provocada por distintas especies de hongos de los géneros "Tilletie" y "Ustilago". *Artaputze* ere esaten da. | *Atzaputzie esate dxako artaburu utzik daunari; artuk burue euki biarrien, garaue utzik, eutze.* | *Atzaputzie dxak emen.* | *Atzaputze esan dot len, artuk asten daben a burue barik, ba asten dabela buru baltz bat: atzaputze.* | *Atzaputze: a buru bako artue.* | *Atzaputze: artaburue malformaue, ori dana bitze modun eukitten deuna. Len olako artuk ainbeste egote sin.* **2.** Mocetona, mujer ancha. Ik. *morroskanie.* | *Atzaputzi da sera, bastue esan gure deu, atzaputzi bastu dala.* | *Atzaputzi: morroskanie. lodidxeri, enbriri esate dxako.* | *Atzaputze? Bai, enbriri-ero atzaputze. Enbra nasaidxe ero orrek baya "Atzaputzori!". Lodi ero olan deunari.* | *Atzaputze? Nasaidxe da sabala. Lodidxe da jeneralin, lodidxek. Lodidxe beste geuse bat da. Se lodi, estu deuna lodi ego lei, baya nasaidxe sabala.*

atzarakada, atzarakadie. (ATZERAKADA) Retroceso. | *Ño, are pe atzarakada makala etxok erun!*

atzatzeka. (ATZE-ATZEKA) Retrocediendo, hacia atrás. Ik. *atzes.* | *Atzatzeka dxoik.* • **atzatzaka ein.** Retroceder, ir hacia atrás.

atze, atzie. (ATZE) **1.** Parte posterior, trasero. | *Oyen atzie.* | *Atzie ondatu dxatek.* | *Tripostu' da atze sorrotzak, lepu eskasa, da tripe eundidxe.* | *Tripostu: gosias ibili, da tipostute. Tripi asi, da atzeri paku ixeti lakue. Da esne gitxiku txalari esate tze tripotutakue, jan gitxi eindakue.* | *Atzerantz jun!* | *Traktoriari be bai, traktoriari apurtzen badxako atzeko diferentziala: -Atzie apurtu dxok eta.* | *Etziri atzie jausi dxako.* | *Etze atzera jun de.* | *Kaltzu diferenti da, kaltzu da atzerantz, da eurrerantz jun esteidxen.* | *Txixillu esate dxakona, txixillue, olan mankal txikitxuri bayo esate dxakon..., da estaitt oin gurin badau txixillorik, len ainbeste denporan egon san, atzi dekona, egurreku ixaten da beres, da atzin espaldi dekona, da arixeri esate gentzon guk txixillu.* **2.** Consecuencia. Ik. *ondoren.* | *Atze txarra ekarriko deu.* • **atzeko lepo.** A borriquitos. | *Para adi emen atzeko lepo.* • **atzeko otzik ez pasetie.** Expresión que se dice sobre alguien que esté trabajando duramente, se encuentre expuesto al sol o reciba una paliza. | *"Atzeko otzik etxok pasauko" geusa askotarako esan leike. Iguel, eguski berue, ta biarrin-da "Are*

pe etxok atzeko otzik pasauko!", *galdias*. | *Da beste batzuk igul e paluas ero manduri nai ori, da "Kaguen, are ba atzi ori berotu tze!", "Atzeko otzik etxok pasau!" areri be*. | *"Estau atzeko otzik pasauko!"*: *esan gure deu ba, bera aundidxe dauela ta ba, "Atzeko otzik estau pasauko, es!", onetan biarra, esaten apur bet gorputze makurtute eitten dan atxurren, nai kodañas, nai edosegas da ba: "Atzeko otzik estau pasauko!"* | *Bero aundidxe dau, te sois esate baterako bedar ebaten, edo labretan soluen, da ordun esaten da: "Esteu atzekotzik pasauko"*. | *Ori da, esate baterako, euski berun be biarrin boutzo, "Arek etxok atzeko otzik pasauko!"*. *Beruas-da aguntetan deula biarrin*. • **atekus eurrera**. Al revés. • **atzera kargie**. Carga excesiva del carro en la parte trasera. | *Atzera kargie deko*. • **atzes**. Retrocediendo, hacia atrás. Ik. *atatzeka*. | *Atzes doye*. | *Atzes jeusi da*. • **atzera ein**. Achicarse, echarse atrás. Ik. *uketu, kale ein* | *Esteu atzera eitten*. | *Atzera ein deu*. • **atzera erin**. Hacer retroceder. | *Erin atzera orreri (beidxeri), jo musturrien ta atzerantz*. • **atzera kargau**. Cargar el carro demasiado por detrás. | *Atzera kargau dogu*. • **atzerantz ein**. Achicarse, echarse atrás. Ik. *uketu, kale ein* | *Atzerantz ein deu*. • **atzetik artu**. Tomar por (el) culo. Ik. *popatik artu*. | *Su atzetik artzen jun!* | *Atzetik artik!* • **atzetik ibilli**. Codiciar algo. | *Orren atzetik dabil*. • **atzetik txarto esan**. Hablar mal de alguien a sus espaldas.

atzealde, atzealdie. (ATZEALDE) Parte trasera, posterior. Sin. *atekaldie*.

atzeagin, atzeagiñe. (ATSEGIN) Placer, dicha, satisfacción. Sin. *poskaridxe*. | *Atzeagiñe: geuse posgarri bat jausten danin-edo ba*. • **atzeagiñ ixen**. Gustar, agradecer. *Atzeagiñ ixen dot* esaten da, baina *Gustau dxate* gehiago entzuten da.

atekabe, atekabie. (ATSEKABE) Pesar, disgusto, aflicción. | *Atzekabi? Bai, esaten da atzekabi ba... Da okertute urte tzon geusi les "Atzekabi euki dxok"*. *Esate baterako, ba noberak pentzeten dana ba oker urten, da atzekabie*.

atekalde, atzekaldie. (ATZEKO ALDE) Parte trasera, posterior. Sin. *atzealdie*. | *Atzekaldin dau*.

atekera. (ATZEKERA) De espaldas. Ik. *eurrekera*. | *Su sas atekera-edo jarritte, da etorri besti atzetik eta planta bat eitte tzo ba... Ori da "Sustu sartustek!"*. | *Atzekera nau*.

atzelari, atzelaridxe, atzelaidxe. (ATZELARI)

1. Zaguero, -a (en el juego de la pelota). **2**. Sodomita (con valor despectivo).

atzelepo, atzelepue. (ATZELEPO) A borriquitos.

Ik. *atezko lepo, atzoko lepo*. | *Akitxu: Mendatako parti da ori, da Nabarnixera pertenixiten dau orrek*. | *Atzelepue: amen ekarte duniñ e bedarra, lepun artute, allegau esiñik etzera. Len ekarte san olanik, oiñ estau iñok eitten olako biarrik!* | *Atzelepun ekarri dot*. | *Atzelepun erun dot umie*.

1 atzen, atzena. (ATZEN) Fin, final. Ik. *akabue, askana*. • **atzenien**. Al fin, por fin. | *Atzenin etorri sara!*

2 atzen, atzena. (ATSEDEN, pausu) Descanso. | *Kantzau te ba: "Artu dot atzena", "Atzen ona artu dot"*. | *Atzena artu bidxuat*. | *Da gero gari joillak, ba, batzutan e atzentxu eitte ben da soser artu, trago bat-edo, da leña gari joten!*

atzenengo, atzenengue. (ATZENENGO) Último, -a. Ik. *askenengue*.

atzera. (ATZERA) De nuevo. | *Eurten be etorko dire bat edo bi, gure etzin atzera*. | *Atzera be ori sartu dok*. | *Gure ixen baleu, ekarriko naben andrie atzera etzera*. | *Denporada baten etorri barik egon da, baya atzera etorten asi da*. | *Kittutu: ya atzetik jun, de gero atrapatzen badabe, parra eitten badabe, "Kittutu du"*. *Diru galdutaku atzera irebasi, parra ein*. | *Urtik asko ak. Arek eukiko ittus larogetasortzi-amar urte. Bai. Da makalaldidxe be euki ban atzera. Da oiñ ostabe martxi dabil*. • **atzera barridxen**. De nuevo. | *Ori piper bedarra da altu-altutxue ta batzuk klase bat e deko, sustreidxe gorri-gorridxe. Da besti deko suridxe. Da a baten ataten bosu, estator barridxen. Baya a bestie ataten bosu edo apurtu-edo eitten bosu, atzera barridxen dator*.

atzera, atzerie. (ATZERA) Retrasado, -a. Esate baterako, berbetan berandu hasten den umeaz esaten da. | *Berbetan atzerie da*.

atzerakada, atzerakadie. (ATZERAKADA) **1**. Retroceso. Esate baterako, inor gaixorik badago, honela esaten da: | *Atzerakadie ein deu*. **2**. Cuando se carga demasiado por atrás el cargo y se va hacia atrás.

atzerapen, atzerapena. (ATZERAPEN) Retraso.

atzeratu (ATZERATU) **1**. Quedarse atrás. | *Erlojue atzeratute dau*. **2**. Retroceder, colocar más atrás. | *Atzeratu lapikue!* **3**. Retractarse de, desdecirse de, echarse atrás. | *Atzeratu ein deu*.

atzeratxuau (ATZERATXUAGO, atzeratxoagobat.) **1.** Algo más atrás. **2.** Algo después. | *Garidxe jeneralien emen atzeratxuau etorte san Nabarrixen. Nabarrixen junion lelengo... Ortze ibiltte san garibatie.*

atzerengo, atzerengue. (ATZERENGO) El situado más atrás. | *Juixidxo agiñe: ori agiñe, urteten dabena gero, atzerengue.*

atzesku, atzeskue. (ATZESKU) **1.** Baile que que ejecuta la persona que cierra el corro tras el auresku. Ik. *eurreskue.* | *Ori auresku, korrune eitte sana, da bat e lelengo ta besti askanengo, ta beste danak bidxen bittartin. Atzesku da auresku bik eitten dabe. Da batak auresku eitten deu, lelengo eitten deunak. Da gero bigarena, atzeskue.*

2. El postrero en los juegos. | *Esku da lelengu. Da atzesku da laugarren deuna.*

atzeskulari, atzeskularidxe. (ATZESKULARI) Persona que ejecuta el baile denominado *atzeskue* y que cierra el corro tras el *aurreskue*. Ik. *eurreskularidxe.*

atzetu. (ATZETU) Distanciarse, enfriarse la relación. | *“Atzetute dau”:* *esate bate rako, asarratute edo olan, bata bestiñ e kontra doix e.* | *“Atzetute das”:* *asarratute. Emen ‘atzetute’ bayo..., nik ori lengo sarrak-eta geidxau ibiltte bela pentzetot, oin barik. Baya ori ba aixe da.*

atzittu. (ATSITU, kirastu) Heder, despedir mal olor, apestar; volver(se) maloliente. | *Atzittute dau.*

1 atzo. (ATZO) Ayer. | *Atzo gabas. | Atzo gabien. | Jateko batzu pa atzokuk ixen eskerun da geur jateko moduku badau, berotu eitten da.* • **atzokon ostie.** Malestar, efecto de la borrachera. Ikus *bidxamona.* • **atzo goixekue es ixetie.** Ser antiguo, -a, viejo, -a. • Gauza zaharrei buruz erabiltzen da esakune hau; esaterako, bigarren eskuko auto zahar-zahar bat erosten denean: | *Jo, estok a atzo goixekue!* • Lagunekin ere berdin esaten da: | *Ori be sarra dok, ori estok atzo goixekue!*

2 atzo, atzue. (ATSO) **1.** Vieja. Ik. *atzagurak, atzue, edadekue, sarra.* Berba honek zentzu txarra izaten du. | *Atzo sorgiñe! | Nor da ori atzo-ori? | Atzue esan eitten da baya gitxitten, atzue etxako gustetan eta.* • Deitzeko ere sarri erabiltzen da: | *Atzue!* **2.** Mujer, esposa. | *Emen dau beren atzue.* | Ez da bakarrik emakume zaharrekin erabiltzen, baita gazteekin ere. Zaharra bada, *atzo sartxu* esaten zaio. | *Atzue*

norberaren emazteari esaten zaio gehienetan xerazko hitza legez. Beste emakume bati ere esan ahal zaio, baina konfiantza izanez gero, osterantzean txarto hartzen da: | *Konpidxentzidxe euki eskero bai, baya konpidxentzidxe espadau, txartzat artu igul, ori ya motza, olan kanpokuk deittutie. Kanpokuk deittu leidxo ori konpidxantzadune bada, baya olan etorritte edonor, “Atzue!” deittu, asarratuko litzeke. | “Aren atzue dok ori”, orren andrie esan biarrien, orren atzue ori dxok. Andrie esan biarrien, batzuk atzue iguel esaten dabe.*

atzoko lepo. A borriquitos. Ik. *atzelepo, atzeko lepo.* | *Amen e lepuen, len e geu pe ibiltte gendusen, da oiñ esta ikusten baya umie amen lepun ibili, atzoko lepo.* | *Atzoko lepo? Noberak e olan eskuk ipintte sittun atzien, da antxe, eskutan jarritte, noberari e amendik e samatik oratute.* • **atzoko lepuen.** A borriquitos. | *Atzoko lepun erun dot umie.*

atzoskol, atzokola. (ATZOSKOL, atzazal, azkazal) Uña. Ik. *bitzokola.* | *Atzokola baltzittu, atzokola.* Edo “*Golpi artu deu*”-edo.

au. (HAU) **1.** Este, esta, esto. | *Au eruixu gora!* **2.** ¡Qué!, ¡vaya!, ¡éste/ésta/esto sí que! | *Au euli saramiau!* | *“Au da lorrie!”:* *igul soser eitten deutzesu biarra aldrebes-ero da “Au da lorriau!” esan, esate san bai.* • **au berau.** Este mismo, esta misma, esto mismo. Sagar mota bat erakusteko asmoz, sagarrak zeuden ontzitik sagar bat eskuan hartuta honela esan zidaten: | *Au berau esta.* • **au dok au.** Interjección. | *Au dok au pasa dxatena.* • **aunek.** Este mismo. | *Aunek etzik artu dau sue. | Aunek pe astilli deko.*

au-au. (AU-AU) **1.** Guau (onomatopeya del ladrido del perro). Ik. *eusidxe, saunkie.* **2.** En lenguaje infantil, perro. | *Beittu au-au!* | *Au-au jun da.*

au-auke. (AU-AUKA) Ladrando. Ik. *eusike, saunkeka.* | *Txakurre au-auke dau.*

aulan. (HAULAN) De esta misma manera. | *Eskerrak Jaungoikuri aulan pasau dalako!* | *Jeusi biarrin aulan badabill au: “Dios, esbaidxen dxak, jeusi ein bi dxok!”.*

aundi, aundidxe, eundidxe. (HAUNDI, handibat.) **1.** Grande. Ik. *galanta.* | *Aiñ aundidxe estot gure.* **2.** Propietario, -a, poderoso, -a. | *Aundidxe sara seu be!* **3.** Valiente. | *Ori biarra ein!* *Aundidxe sara seu be!* **4.** Hecho admirable. | *Aundidxe ein dosu gero seu pe!* **5.** Hecho o dicho

reprobable. | *Aundidxe ein deu.* | *Aundidxe esan dittus.* • **eundi klasie.** Grande (por herencia). | *Eundi klasi bai. Guk eundi klasi esate tzeu, olan eundidxe eitten diñak, personak-eta. Eundikoti barik, e “Ori be eundi klasi dok”-eta. Iguel familidxan danak aundidxe eta ba besti gastie badator asten asko ta iguel “Ori be eundi klasi dok”-eta.*

aundigureko, aundigurekue, eundigurakue. (HAUNDIGURAKO, handigurako-bat.) Ambicioso, -a. | *Ori da aundigurekue!*

aundikeridxe. (HAUNDIKERIA, handikeria-bat.) Soberbia, vanidad, fanfarronería.

aundiki, aundikidxe. (HAUNDIKI, handiki-bat., handi-mandi) Noble, hidalgo. Ik. *dirutzue.* | *Aundikidxe da!* | *Aundikidxe aberatzai esate dxake.* | *Aundikidxe ondo bixi dirinak dire.*

aundittasun, aundittasune. (HAUNDITASUN, handittasun-bat.) **1.** Grandeza, altura. | *Aundittasune aundidxe danari, edo altu danari, da ostantzien be bai, diru asko dekonari be bai.* **2.** Grandeza, majestad, sublimidad. Ik. *arrokeridxe.* | *Aundittasune ibiltten dabe.*

1 aundittu, eundittu. (HAUNDITU, handitu-bat.) **1.** Crecer, agrandecer(se). | *Umie aundittu ein da.* **2.** Hinchar(se), inflamar(se). Ik. *solittu.* | *Aundittu: geuse bat eitten dana, epai bat-edo, arantzi sartu-edo, ta aundittuten dana, "Materidxe eitte dxako" be bai, "Aundittute deko".* | *Aundittu ein dxako.*

2 aundittu, aundittue, eundittue. (HAUNDITU, handitu-bat., hantura) Hinchazón, chichón. Ik. *tokor.* | *Eundittu da kolpias eitten dana.* | *Eundittue urte tzek.* | *Tokorra: golpe bat artute urtete daben eunditxuk:tokorrak.*

aundixale, aundixalie. (HAUNDIZALE, handizale-bat.) Ambicioso, -a.

auneri. A eso mismo, a ese mismo, a esa misma (forma enfática). Enfasirik gabeko forma *oneri* da. | *Txolota esate dxako auneri ure edateko ontzidxeri.*

aunke. Aunque. | *Solterue, nik esate tzat mutille, aunke bekus ogetamar urte be, ba mutille.*

auntxe. Ahora mismo. | *Baitte! Oixe esate san, da auntxe seuk akorda-raistasu te geuk pe esate gendun.* | *Ba oingo sasoyen ya, oi sagarra batzeko sasoi untxe eingerun da, auntxe.* | *Auntxe ikusi gure bosu, bouket nik or.*

aupa. (AUPA) Interjección para levantarse o para llamar la atención en general. • **aupa ein.**

Levantar o llevar sobre los hombros. | *Ia ba, etorri ona, neuk eingo tzut aupa ta.*

aupale. (AUPALE) Interjección para levantarse.

auri. (HAURI, hori-bat.) Eso mismo, ese mismo, esa misma (forma enfática). | *Trastie? “Au dok trastie!” igul esaten da. Se e... igul pataridxe biskorra ero ajille-ero bada be, “Jo, auri dok trastie!”.* | *Ta egoten da sagarren, edo madaridxen barruen bera, apurkan-apurkan usteldu eitten da andixik. Da arridxu esate dxako, auri kokuori ibiltten dana.*

aurregaitik. (HAURREGAIK, horregatik-bat.) Por eso mismo (forma enfática). | *Da oin be, oiñ usteldu bari pe igul e kokuk e a asidxe ta janda igul eukitte tzos. Da edeittosu sagarra da barrue ori einde. Da oiñ aurregaiti bota bi dxako botikie.*

aurtik. Por ahí. | *Aurtik banoye txakurras, andra eta bidxok.*

aurtxe. Ahí mismo (forma enfática). | *Sibue, bai, geurin be aspaldidxon ortxe dau, ikotik e aurtxe, ikotik eskeitte dau, da ortxe ibiltten dire domeketan etorten diñak.*

ausnar, ausnarra, eusnarra. (HAUSNAR) Rumia. | *Kontau ausnarrak pe: ogetamasortzittik berrogetabire eitten baittu, ganadue ondo dau, da ogetabat edo ogetabi te eintte eisten batzo, seoser nobedadie.* • **ausnar egon.** Estar rumiendo. | *Beidxe eusnar dau.* • **ausnar ein.** Rumiar. | *Ganaduek eitten dau ausnar.* | *Ausnar eitten deu beidxe, jateku dijiriteko. Euntze pe eitten deu, erbidxe eitten deu; saldidxe, eta astuk estabe eitten.* | *Beidxe malagani dekeniñ edo olanik e igerte dxakeniñ e ausnar estabela eitten-edo, da ordun emote dxake beidxeri sekule bedarra.* | *Beidxe dauenien geixorik edo dekonin soser ba estau eusnarrik eitten, da eusnar eitteko emote dxako ba seoser.* *Estai ser emote dxakon ba.* | *Se betenaidxuk esate tzu “Eusnarra eitten deu?”.* *Da ordun e ba “Estot ikusi ba”. “Se eske kallenturi ero ori deko ta”. Gero erremedixuk emon tzos.*

ausnartu. (HAUSNARTU) **1.** Rumiar. | *Eusnar da beidxe eitten dabena, euntzek pe eitten deu, beidxe eitten dabe, da ardidxe pe eitten dabe. Jan dabena eusnartu eitten dabe. Euntzek eitten deu. Da saldidxe estabe eitten.* **2.** Reflexionar, meditar, considerar: | *Eurrerau ikesiñekue ausnartie.*

auspes. (AHUSPEZ) Boca abajo; de bruces; postrado, -a. | *Auspes jeusi da.* | *Auspes egon, parau.*

auspestu. (AHUSPEZTU) Postrarse, inclinarse (mostrando respeto, para adorar...). | *Auspestu: ba igul parka eskatzen doixenak pe, igul makurtu eitten dire, ba arexe 'auspestu'.* | *Aurriñ auspestute euki dot.* | *Etorri, te auspestu an dxate.*

autobus, autobuse. (AUTOBUS) Autobús. | *Erriko kotxiñ es ete sin jun? Amen autobus antzeku euen da.*

automobil, automobile. (AUTOMOBIL) Automóvil. | *Baya ba, oiñ esteko beste serbixidxorik, euridxe danin aterpie. Da len Don Rikardo emen egon sanien, automobile eukitte ban antxe barrun.*

autortu. (AUTORTU, aitortu-bat.) Confesar. | *'Autortu' esaten da geusa ixilleko bat agertzen danien, urteten dabenin bistara, ba "Ixilik on da, baya autortu deu", autortu da, agertu da.*

autu, autue. (AUTU, solas) **1.** Conversación. Ik. *konbertasiñoye.* | *Alkar bidien topau te kontu ta kontu ba, autuen: arek autuen dasak.* | *Bi badaus kontuk esaten, arek autun dasak.* | *Autun pasau gendun.* | *Autue ibilli gendun areas gauseas.* | *Orren ganien autue ibil du.* | *Konbertasiñoye autue batzuk esaten dabe. Konbertasiñoi da ba kontuk esaten ibiltti les. Guk geuk esateu.* | *Autuk olantxi dosak.* | *Euren autun detzek.* **2.** Discusión. *Barriketie legez, baina azken honek zentzu txarra har dezake egoera batzuetan.* | *Autue euki.* • **aututan.** Conversando. | *"Aututan, beti aututan eki dxok!". Igul dana bai ori de "Eututan eki dxok beti eututan!"*

auxe. (HAUXE) Este mismo. | *Auxe ein biot.*

axaxa. (AXAXA) Azuzamiento, incitación, instigación. • **axaxa ein.** Azuzar. | *Axaxa ein tzo. Da gero txakurre igul -batzuk es- doye bestiana, da ainke be ein leidxo, da ba: "Axaxa berak ein tzo, da txarto ein deu".*

axaxaka. (AXAXAKA) Azuzar, incitar, instigar. | *Axaxaka ibilli da.* | *Bera ibil dxako axaxaka.*

axe. (HAXE, huraxe-bat.) Aquello mismo, aquel mismo, aquella misma. | *Axe ein bi dot.* | *Etzekaltie? Ba, etzekaltie jokun eitten dabena, dekosen eukidxe-edo berak gure ittun modun gasteta ittuna-edo. Etzekaltie axe da.* | *Sapalunie? Sapala, bedarra nai artu nai dauna sapaltzen daniñ axe sapaluni.*

ayena. (AIENE, deitore, auhen) Lamento, queja. | *Edadie euki arren, auri be ayenak egon da.*

ayeneka. (AIENKA) Quejándose, lamentándose. | *Ayeneka da penetan egotie.* | *Ume bat beti egoten da ayeneka edo mañakin.* | *Errenkuretzu da beti kejetan dauna, beti ayenakero deuna.*

ayuntamentu, ayuntamentue. (AIUNTAMENTU, udal, udaletxe) Ayuntamiento. | *Nabarrisko erriko gixonak, erriko ayuntamentuko gixonak agindu dabe mandue.* | *Orrek Ayuntamentuk pagau eitte basen. Albixarraidxe lau peseta sala pentzot, kuna bi peseta, peseta, bai.* • **ayuntamentus.** Administrativamente (pertenece a determinado municipio, aunque para asuntos religiosos esté enmarcado a otro). Ik. *erris, elixas.* | *Batzuk e elixas Nabarriskue, da ayuntamentus estakit nonguek. Neu pe estai selan diñ orrek.* | *Baya ayuntamentus nongu san?*